

IRUÑAKO UDALAREN 2022EKO MEMORIA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



AURKIBIDEA

1. ANTOLAMENDUA	03
1.1. Politika- eta administrazio-antolamendua	04
1.2. Biztanleria	09
1.3. Gobernu-organoak	15
2. UDAL ALORRAK	17
2.1. Alkatetza	18
2.1.1. Ekitaldi instituzionalak eta protokoloa	18
2.1.2. Komunikazio Zerbitzua	19
2.2. Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa	22
2.2.1. Plangintza estrategikoa	22
2.2.2. Merkataritza	28
2.2.3. Turismoa	32
2.2.4. Aholkularitza Juridikoa	39
2.3. Zerbitzu Orokorrak	41
2.3.1. Giza Baliabideak	41
2.3.2. Ogasuna	48
2.4. Herritarren Segurtasuna	53
2.4.1. Eremu publikoaren kudeaketa	53
2.4.2. Herritarren Segurtasuna	55
2.4.3. Bide-segurtasuna	61
2.4.4. Zirkulazioa eta Mugikortasuna	64
2.5. Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria	74
2.5.1. Hezkuntza	74
2.5.2. Herritarren Partaidetza	81
2.5.3. Herritarrendako Arreta Zerbitzua	84
2.5.4. Gazteria	89
2.6. Kultura eta Berdintasuna	98
2.6.1. Kultura	98
2.6.2. Berdintasuna	116
2.6.3. Udal-artxiboa	130
2.7. Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola	134
2.7.1. Gizarte Zerbitzuak	134
2.7.2. Komunitate Ekintza	145
2.7.3. Kirola	159
2.7.4. Garapenaren Aldeko Lankidetzak	164
2.8. Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna	170
2.8.1. Hirigintza eta Etxebizitza	170
2.8.2. Osasuna	189
2.9. Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna	204
2.9.1. Proiektu Estrategikoak eta Obrak	204
2.9.2. Hiri kontserbazioa	210
2.9.3. Mugikortasuna	218
2.9.4. Jasangarritasuna	226

1.

ANTOLAMENDUA

1.1. POLITIKA- ETA ADMINISTRAZIO-ANTOLAMENDUA

UDALBATZA

ZINEGOTZIAK

Navarra Suma udal-taldea

Enrique Maya Miranda
María Echávarri Miñano
Ana Elizalde Urmeneta
Javier Labairu Elizalde
María García-Barberena Unzu
Carmen Alba Orduna
Fernando Sesma Urzáiz
María Caballero Martínez
Fernando Aranguren Reta
Cristina Martínez Dawe
Juan José Echeverría Iriarte
Fermín Alonso Ibarra
Fernando Villanueva Mesa

EH Bildu udal taldea

Joseba Asiron Saez
Maidier Beloki Unzu
Marian Aldaia Gaztelu
Eva Aranguren Arsuaga
Endika Alonso Irisarri
Borja Izaguirre Larrañaga
Garbiñe Bueno Zabalza

Iruñeko PSN/PSOE Sozialistak udal-taldea

Maite Esporrín Las Heras
Xabier Sagardoy Ortega
Silvia Velásquez Manrique
Federico Colmenar Carro
Celia Ulzurrun Puy

Geroa Bai udal-taldea

Patxi Leuza García
Javier Leoz Sanz

UDAL-ANTOLAMENDUA

ALKATETZA ETA ARDURA-ALORRAK

Alkatea

Enrique Maya Miranda

Alkateordeak

Ana Elizalde Urmeneta
María Echávarri Miñano
María Caballero Martínez

Ardura-alorrak

Zinegotzi ordezkariak

Ana Elizalde Urmeneta
María Echávarri Miñano
María Caballero Martínez
Fernando Sesma Urzáiz
María García-Barberena Unzu
Juan José Echeverría Iriarte
Fermín Alonso Ibarra
Javier Labairu Elizalde

Ardura-alorrak

Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa
Zerbitzu Orokorrak
Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola
Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria
Kultura eta Berdintasuna
Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna
Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
Herritarren Segurtasuna

Zinegotzi bereziak	Ardura-alorrak
Carmen Alba Orduna	Turismoa
Fernando Aranguren Reta	Gazteria eta Kirola
Cristina Martínez Dawe	Berdintasuna
Fernando Villanueva Mesa	Osasuna

Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa (Alkatetza)

Alkatetza Kabinetea. Juan Echenique Huarte

Protokoloa. Marta Urbiola Ochoa

Komunikazioa. Edurne Elío Aldunate

Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa

— Gobernu Estrategikoa

Alorreko zuzendaria. Jose María Jiménez Bolea

Idazkari teknikoa. Marian Ardanaz Ozcoidi

— Merkataritza eta Turismoa

Alorreko zuzendaria. Silvia Azpilicueta Rodríguez-Valdés

Idazkari teknikoa. Marian Ardanaz Ozcoidi

Zerbitzu Orokorrak

— Ogasuna

Alorreko zuzendaria. Nuria Larráyoiz Ilundáin

Idazkari teknikoa. Javier Bernabeu Llovet

— Giza Baliabideak

Alorreko zuzendaria. Arantxa Campo Mayo

Idazkari teknikoa. Beni Soteras Ramírez

Herritarren Segurtasuna

Udaltzainburua. Javier Goya Espronceda

Alorreko zuzendaria. Patxi Fernández Elizalde

Idazkari teknikoa. Eva Echarri Osinaga

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria

Alorreko zuzendaria. José Manuel Santana Toledo

Idazkari teknikoa. Pilar Lanuza Aguerri

Kultura eta Berdintasuna

Alorreko zuzendaria. Jorge Urdánoz Apezteguía

Idazkari teknikoa. Víctor Piñero Larrasoña



Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola

— Gizarte Zerbitzuak

Alorreko zuzendaria. Olivia Elizari Aranguren

Idazkari teknikoa. Jesús María Pascal Mendioroz

— Komunitate Ekintza, Lankidetza eta Kirola

Alorreko zuzendaria. Conchi Mateo Pérez

Idazkari teknikoa. Aurora Mendía Leache

Hirigintza eta Osasuna

— Alorreko zuzendaria. Fernando Nagore Ferrer

Idazkari teknikoa. Fermín Bacaicoa Barno

Idazkari teknikoa. Carlos Eguizábal Villanueva

Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna

— Proiektuak, Obrak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna

Alorreko zuzendaria. Alejandro Astibia Bruno

Idazkari teknikoa. Arancha Carrero Cabezas

— Hiri Kontserbazioa

Alorreko zuzendaria. Óscar Esquíroz Noble

Idazkari teknikoa. Francisco Linero Palacios

Hirigintza Gerentzia

Zuzendari- Kudeatzailea. Ana García Gómez

Birgaitzeko Bulegoa

Zuzendaria. Alberto Calvo Azagra

Haur Eskolen Erakunde Autonomoa

Gerentea. Juan Ramón Rábade Iraizoz

ANIMSA

Gerentea. Joaquin Sagüés Lacasa

Pamplona Centro Histórico SA - Iruña Biziberritzen

Gerentea. Alberto Calvo Azagra

Mercairuña

Gerentea. Miriam Mendivil Barandalla

SAD Pamplona SLU

Gerentea. Íñigo Huarte Huarte

Auzo-zinegotzigoak

Carmen Alba Orduna	Arrotxapea
Javier Labairu Elizalde	Sanduzelai
Fermín Alonso Ibarra	Txantrea
Ana Elizalde Urmeneta	Erripagaña-Beloso, Mendillorri
Fernando Sesma Urzaiz	Alde Zaharra
Fernando Villanueva Mesa	Donibane, Ermitagaña – Mendebaldea
Juan José Echeverría Iriarte	Milagrosa - Arrosadia, Azpilagaña
Fernando Aranguren Reta	Iturrama
María Echávarri Miñano	Buztintxuri
María Caballero Martínez	Lezkairu – Santa María la Real
Cristina Martínez Dawe	Etxabakoitz
María García-Barberena Unzu	Zabalguneak

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Enrique Maya Miranda
 Fermín Alonso Ibarra
 María Caballero Martínez
 María Echávarri Miñano
 Juan José Echeverría Iriarte
 María García-Barberena Unzu
 Javier Labairu Elizalde
 Fernando Sesma Urzaiz
 Ana Elizalde Urmeneta

BATZORDEAK

Izena	Izaera
Lehendakaritza	Arrunta
Herritarren Aferak	Arrunta
Hirigintza	Arrunta
Kontuak	Berezia
Kontratazioak zaintzekoa	Berezia
Iradokizunak eta erreklamazioak	Berezia
COVID Batzordea	Berezia

UDAL-ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Hirigintza Gerentzia
- Haur Eskolak

UDAL PARTAIDETZAKO ENPRESAK

MENDEKO SOZINETATEAK (Udal-partaidetzakoak)

Comiruna S.A.	100%
Pamplona Centro Histórico SA. Iruña Biziberritzen	100%
ELZ Iruña	100%
Asociación Navarra de Informática Municipal S.A. ANIMSA	78%
Mercairuna S.A.	51%

UDAL-FUNDAZIOAK (estatutu juridiko berezi baten menpekoak)

Gayarre Antzokia Fundazioa
Erruki Etxea

1.2. BIZTANLERIA

IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA

[2022ko abenduaren 31ko datuak]

Adina	Gizonak	%	Emakumeak	%	Guztira	%
0tik 4ra	3.952	4,0	3.891	3,5	7.843	3,8
5etik 9ra	4.441	4,5	4.422	4,0	8.863	4,2
10etik 14ra	5.181	5,2	4.831	4,4	10.012	4,8
15etik 19ra	5.625	5,7	5.368	4,9	10.993	5,3
20tik 24ra	6.098	6,2	6.216	5,6	12.314	5,9
25etik 29ra	6.032	6,1	6.123	5,6	12.155	5,8
30etik 34ra	5.991	6,1	6.020	5,5	12.011	5,7
35etik 39ra	6.156	6,2	6.554	5,9	12.710	6,1
40tik 44ra	7.111	7,2	7.465	6,8	14.576	7,0
45etik 49ra	7.898	8,0	8.173	7,4	16.071	7,7
50etik 54ra	7.649	7,7	8.094	7,3	15.743	7,5
55etik 59ra	7.132	7,2	7.911	7,2	15.043	7,2
60tik 64ra	6.195	6,3	7.141	6,5	13.336	6,4
65etik 69ra	5.092	5,1	6.474	5,9	11.566	5,5
70etik 74ra	4.848	4,9	6.131	5,6	10.979	5,2
75etik 79ra	4.131	4,2	5.697	5,2	9.828	4,7
80tik 84ra	2.682	2,7	3.904	3,5	6.586	3,1
85etik 89ra	1.786	1,8	3.258	3,0	5.044	2,4
90etik 94ra	736	0,7	1.869	1,7	2.605	1,2
95etik 99ra	137	0,1	595	0,5	732	0,4
99 baino gehiago	19	0,0	110	0,1	129	0,1
GUZTIRA	98.892	100	110.247	100	209.139	100

IRUÑA [2022ko abenduaren 31ko datuak]

GIZONAK		EMAKUMEAK	
19	99 baino gehiago		110
137	95etik 99ra		595
736	90etik 94ra		1.869
1.786	85etik 89ra		3.258
2.682	80tik 84ra		3.904
4.131	75etik 79ra		5.697
4.848	70etik 74ra		6.131
5.092	65etik 69ra		6.474
6.195	60tik 64ra		7.141
7.132	55etik 59ra		7.911
7.649	50etik 54ra		8.094
7.898	45etik 49ra		8.173
7.111	40tik 44ra		7.465
6.156	35etik 39ra		6.554
5.991	30etik 34ra		6.020
6.032	25etik 29ra		6.123
6.098	20tik 24ra		6.216
5.625	15etik 19ra		5.368
5.181	10etik 14ra		4.831
4.441	5etik 9ra		4.422
3.952	0tik 4ra		3.891
Guztira 209.139			
Gizonak 98.892			
Emakumeak 110.247			

IRUÑEKO ETORKINAK [2022ko abenduaren 31ko datuak]

Adina	Gizonak	%	Emakumeak	%	Guztira	%
0tik 4ra	614	4,3	619	4,2	1.233	4,2
5etik 9ra	678	4,8	649	4,4	1.327	4,6
10etik 14ra	687	4,8	668	4,5	1.355	4,7
15etik 19ra	859	6	830	5,6	1.689	5,8
20tik 24ra	1.315	9,2	1.408	9,5	2.723	9,4
25etik 29ra	1.457	10,2	1.437	9,7	2.894	9,9
30etik 34ra	1.660	11,7	1.653	11,1	3.313	11,4
35etik 39ra	1.656	11,6	1.784	12	3.440	11,8
40tik 44ra	1.502	10,5	1.567	10,5	3.069	10,5
45etik 49ra	1.269	8,9	1.133	7,6	2.402	8,2
50etik 54ra	938	6,6	950	6,4	1.888	6,5
55etik 59ra	608	4,3	748	5	1.356	4,7
60tik 64ra	431	3	590	4	1.021	3,5
65etik 69ra	271	1,9	377	2,5	648	2,2
70etik 74ra	143	1	233	1,6	376	1,3
75etik 79ra	72	0,5	106	0,7	178	0,6
80tik 84ra	48	0,3	72	0,5	120	0,4
85etik 89ra	26	0,2	33	0,2	59	0,2
90etik 94ra	5	0	17	0,1	22	0,1
95etik 99ra	0	0	1	0	1	0
99 baino gehiago	1	0	1	0	2	0
GUZTIRA	14.240	100	14.876	100	29.116	100

IRUÑA [2022ko abenduaren 31ko datuak]

GIZONAK		EMAKUMEAK	
1	99 baino gehiago	1	1
-	95etik 99ra	1	1
5	90etik 94ra	17	17
26	85etik 89ra	33	33
48	80tik 84ra	72	72
72	75etik 79ra	106	106
143	70etik 74ra	233	233
271	65etik 69ra	377	377
431	60tik 64ra	590	590
608	55etik 59ra	748	748
938	50etik 54ra	950	950
1.269	45etik 49ra	1.133	1.133
1.502	40tik 44ra	1.567	1.567
1.656	35etik 39ra	1.784	1.784
1.660	30etik 34ra	1.653	1.653
1.457	25etik 29ra	1.437	1.437
1.315	20tik 24ra	1.408	1.408
859	15etik 19ra	830	830
687	10etik 14ra	668	668
678	5etik 9ra	649	649
614	0tik 4ra	619	619

Guztira 29.116

Gizonak 14.240

Emakumeak 14.876



IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA [2022ko abenduaren 31ko datuak]

Biztanleria	Guztira	%
Gizonak	98.892	%47,3
Emakumeak	110.247	%52,7
0-14 urte bitarteko biztanleak	26.718	%12,8
15-64 urte bitarteko biztanleak	134.952	%64,5
65 urte eta gehiagoko biztanleak	47.469	%22,7
Gazteria-tasa *		%17,0
Mendekotasun-tasa **		%55,0
Zahartze-indizea ***		%177,7
Atzerritarrak	29.116	%13,9
BIZTANLEAK, GUZTIRA	209.139	

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, biztanleria osoan

** 65 urtetik gorakoak + 0-14 urte bitartekoak / 15-64 urtekoak

*** 65 urtetik gorakoak / 0-14 urte bitartekoak

IRUÑEKO BIZTANLERIA OSOA, AUZOZ AUZO [2022ko abenduaren 31ko datuak]

AUZOA	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Azpilagaña	3.340	3.745	7.085
Buztintxuri - Euntzetxiki	4.484	4.678	9.162
Alde Zaharra	5.504	5.982	11.486
Zabalgunea	9.510	11.395	20.905
Ermitagaña- Mendebaldea	7.729	8.898	16.627
Etxabakoitz	2.576	2.800	5.376
Iturrama	10.188	12.227	22.415
Lezkairu	3.858	4.170	8.028
Mendillorri	6.723	7.173	13.896
Milagrosa - Arrosadia	7.349	7.901	15.250
Arrotxapea	12.970	13.737	26.707
Sanduzelai	6.264	6.411	12.675
Donibane	8.723	10.749	19.472
Txantrea	9.674	10.381	20.055
GUZTIRA	98.892	110.247	209.139

IRUÑEKO ETORKINAK, AUZOZ AUZO [2022ko abenduaren 31ko datuak]

AUZOA	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Azpilagaña	489	532	1.021
Buztintxuri - Euntzetxiki	968	1.012	1.980
Alde Zaharra	894	971	1.865
Zabalgunea	948	1.001	1.949
Ermitagaña- Mendebaldea	918	1.011	1.929
Etxabakoitz	530	574	1.104
Iturrama	1.248	1.506	2.754
Lezkairu	281	371	652
Mendillorri	565	603	1.168
Milagrosa - Arrosadia	1.848	1.640	3.488
Arrotxapea	2.021	2.028	4.049
Sanduzelai	1.332	1.260	2.592
Donibane	1.080	1.228	2.308
Txantrea	1.118	1.139	2.257
GUZTIRA	14.240	14.876	29.116

1.3. GOBERNU-ORGANOAK

OSOKO BILKURA

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura hiriko alkateak eta 26 zinegotzi hautetsiek osatzen dute. Alkatea da bilkuraburua. Udalaren ohiko osoko bilkurak hil bakoitzeko lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten.

Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira, eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago. Irailaz geroztik, edozein ordenagailu edo gailu mugikorretatik zuzenean jarraitzen ahal dira Youtube bideo plataformaren bitartez.

Bilkurak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ohikoak	11	10	9	13	11	10
Bereziak	6	5	14	1	5	3
Bereziak eta Presazkoak						5
Eratzaileak			1			
GUZTIRA	17	15	23	14	16	
Hartutako erabakiak	157	123	233	108	166	115

ALKATETZA

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ebazpenak	748	796	957	722	734	968
Dekretuak eta xedapenak	37	74	85	32	27	26
Bandoak	1	1	1	1	-	2
GUZTIRA	786	871	1.043	755	761	996

GOBERNU BATZARRA

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ohiko bilkurak	42	39	40	39	44	37
Bilkura bereziak	1	-	-	20	-	1
Presazko bilkura bereziak	29	42	51	7	38	24
GUZTIRA	72	81	91	66	82	
Hartutako erabakiak	594	690	857	686	840	822

ZINEGOTZIGO ORDEZKARIAK

Ebazpenak

Zinegotzigo ordezkariak

RCI	Kultura eta Berdintasuna	950
RSG	Zerbitzu Orokorrak	299
RGC	Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa	342
RSC	Herritarren Segurtasuna	10.747
REJ	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria	745
RSD	Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola	917
RUS	Hirigintza eta Osasuna	2.657
RPS	Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna	739
GUZTIRA		17.396

Alorretako zuzendariak

SAL	Alkatetza	111
SGE	Gobernu Estrategikoa	100
SHA	Ogasuna	2.452
SRH	Giza Baliabideak	1.527
SAJ	Aholkularitza Juridikoa	32
SUV	Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna	19
SCT	Merkataritza eta Turismoa	28
SEJ	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria	2.361
SCI	Kultura eta Berdintasuna	0
GUZTIRA		6.630

2.

UDAL ALORRAK

2.1. ALKATETZA

2.1.1. EKITALDI INSTITUZIONALAK ETA PROTOKOLOA

Protokolo Zerbitzua berriz ere normaltasunez aritu zen 2022tik aurrera, COVID-19ak eragindako murrizketen ondoren, eta Udalbatzak honako ekitaldi instituzional hauek parte hartu zuen: Bost Zaurien elizkizunean, Sanfermin jaietan, Batasunaren Pribilegioan eta San Saturnino egunean.

HARRERA-EKITALDIAK

2022an, alkatea buru izan zuten 12 harrera-ekitaldi egin ziren, eta Udalbatzak ere haiek parte hartu zuen.

Urtea	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Harrera-ekitaldi kop.	12	26	22	15	17	12

BESTELAKO EKITALDIAK

Harrera-ekitaldiez gain, alkatea eta Udalbatzako kide batzuk hainbat edukitako beste 31 ekitalditara ere joan ziren (sari-banaketak, jardunaldiak eta abar). Haien artean nabarmentzekoak dira Urrezko Baba Aspaceri eman izana; Iruñeko Zapia, Mai Garderi eta Oier SanJurjori; eta Txondorra saria, Balbino García de Albizu ikertzaileari.

BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 107 taldek bisitatu zuten Udaletxea; hori horrela, urte osoan zehar, modu egonkorrean eta doan eskainitako zerbitzu horren bitartez, 2.225 pertsonak bisitatu zituzten udaletxeko aretoak. Udalak kalitatea neurtzeko sistema bat ezarria du, gogobetetzeari buruzko inkesten bidez, bisitaren edukia, erreserba-sistemaren funtzionamendua eta jasotako tratua neurtzeko, besteak beste.

Urtea	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Talde kop.	145	147	172	63	40	107
Pertsonak, guztira	3.600	3700	4.547	1.413	748	2.225

2.1.2. KOMUNIKAZIO ZERBITZUA

PRENTSA-OHARRAK ETA DEIALDIAK KOMUNIKABIDEEI

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak **1.547 prentsa-ohar** igorri zituen 2022an komunikabideetara, aurreko urtean baino % 5,8 gutxiago (1.641 udal-informazio igorri zituen orduan). Ohar gehien bidali ziren hilabeteak martxoa eta ekaina izan ziren, 150 baino gehiago bietan. Urtarrilean, otsailean, apirilean eta abuztuan, 120 prentsa-ohar baino gutxiago igorri ziren.

Guztizko zenbaketaren arabera, prentsa-oharren % 25ek baino gehiagok (402) Kultura alorreko informazioarekin izan zuten zerikusia. Alkatetzari eta Proiektu Estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasunari buruzko informazioak 246 eta 223 izan ziren, hurrenez hurren.

2022an, 226 deialdi egin zitzaizkien komunikabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, bisita, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

	2018	2019	2020	2021	2022
Prentsa-oharrak	1.891	1.705	1.549	1.641	1.547
Hedabide-deialdiak	287	189	106*	243	226

WEBGUNEAK

Iruñeko Udalaren webgunea www.pamplona.es da eta, 2022an, 709.046 erabiltzaile izan zituen eta 2.125.200 orrialdetara sartu ziren, 1,2 milioi saiotan. Erabiltzaile kopurua % 68,40 jaitsi zen aurreko urtearen aldean, eta jaitsierak ere izan ziren orrialde kopuruan eta hasitako saioetan. Jaitsiera nabarmen hori webgunearen datu bilketarako prozesuan izandako aldaketaren ondorioa da. 2021eko abenduaren 20an, cookieak www.pamplona.es barnean inhabilitatu ziren defektuz, eta webguneko cookie mezua derrigorrez onartu behar izan zen, bisitari buruzko informazioa erregistratua gelditzeko. www.pamplona.es webean izandako sarreraren % 78,18 mugikorraren bidez egin zen, % 20,50 ordenagailu bidez, eta % 1,32, tablet bidez.

Google Analytics web analisirako tresnaren datuen arabera, saio bakoitzean 1,74 orrialde bisitatu ziren bana beste eta bisita birtualen batez besteko iraupena minutu bat eta 50 segundokoa izan zen. Iraupenak, beraz, 52 segundotan egin zuen gora, 2021eko datuen aldean, eta minutu batean, 2020koen aldean. Nabarmen handitu zen, halaber, webaren barnean orrialde batean baino gehiagotan nabigatzen duten pertsonen kopurua, erreboteko ehunekoa % 28,04 jaitsi baitzen 2021ekin alderatuta (% 65,75etik % 47,30era).

Aurreko urteetan bezala, orrialderik bisitatuena azala izan zen, sarbide guztien % 11,91rekin; gero, udal agenda (% 2,61) eta aparkaldi arautuko eremuari buruzko informazio-orrialdea (% 2,16).



SARE SOZIALAK

Iruñeko Udalak urte osoan jarraitu zuen zuzeneko komunikazioaren aldeko apustua egiten herritarrekin sare sozialen bitartez, eta horretarako, bi kontu instituzional ditu estrategia digitalaren elementu nagusi gisa: @Ayto_pamplona eta @Iruña_udala. Halaber, estrategia aktiboa darabil Twitterren, Instagramen eta Facebooken. Epealdi hartan, prentsa-oharren argitalpenaren identifikazio grafikoa jarri zen abian, zerrenda berde batekin (gorria, sanferminetako jai tankerako gaietarako), erabiltzaileak era horretako edukiak begiratu batean identifikatu ditzan. Horrez gain, arian-arian, estrategia aktibo bat hasi zen komunikabide jakin baten bitartez, sare sozialen esparruan gero eta pisu handiagoa duena, hots, Facebook eta Instagrameko istorioak. Bide horretan, hiriaren eta Udalaren inguruko aisia proposamenen agenda bat argitaratzea erabaki zen egunero, eduki finko gisa, eta edukiak egutegiaren arabera antolatu ziren, urtean zehar handitzen joan zena; azken hiru hilekoan jada, edukia etengabe eskaintzen zuen komunikabidea izatera iritsi zen.

2022a udal-ekosistemako sareen arteko harremanaren abiapuntua izan zen, Udalaren komunikazio digitalaren egutegian. Sare horiek hainbat alorretatik nahiz Komunikazio Zerbitzutik beretik kudeatzen dira.

Horren haritik, Zerbitzuak berak bilerak egitea proposatu zuen sareen arteko oinarritzko estrategiak finkatzen hasteko, sareetan aurrera jo ahal izateko etorkizunera begira; urte bukaeran, sinergien lehen emaitzak ikusten hasi ziren: edukiak ez bikoiztea, argitalpen gehiago sortzea profil bakoitzerako, sorkuntza lana handitu gabe, edota kontu bakoitzaren ikusgaitasun handiagoa, Udalaren sare-ekosistemako beste batzuek erakutsia eta gomendatua izatearen ondorioz.

Aurten, berriz ere Sanferminak ospatu direnez, sareetako marka ofizial berria indartu zen, hots, @SanferminakIruña, ordura arte zegoenaren orde: San Fermin Ofiziala. Aldaketa horri esker, festen presentzia ofiziala hobeki kokatua dago sare sozialetan, berezko profiletatik harata doana, eta ehunka inpaktu sortzen ditu festetan zehar #SanferminakIruña etiketarekin. Gisa berean, eta festek sareetan kokapen hobe izan dezaten bai estatuan, bai nazioartean, etiketa berbera erabiltzea hitzartu zen beste erakunde eta organismo batzuekin, hots, #Sanfermines2022 eta #sanferminak2022, inpaktuak batze aldera, eta sinergieiei esker, sareetako hedapena zabaltzeko. Barnera begira, lanerako plan bateratua jarri da abian, hainbat sareren estrategiak batzeko: Udaleko Kulturakoak, udal sareak eta festetako sare ofizialak, @SanferminakIruña.

IRUDI KORPORATIBOA

Zerbitzuaren 2022ko lanaren barruan, instituzioaren irudi korporatiboari dagokionez, urtero bezala, aurreko urteko (2021) udal-memoria egin da. Memoria hori online da nabigagarria eta PDFn deskarga daiteke. Hala, 2008az geroztik, Komunikazio Zerbitzuak zentralizatu eta laburbiltzen du Iruñeko Udaleko alor guztiek urte horretan egindako lana, herritarrei modu irisgarrian eskainiz erakundearen ikuspegi orokorra.

2022ko Sanferminen ospakizunaren harira, eta COVID 19aren ondorioz bi urtez jarraian festak bertan behera utzi eta gero, Komunikazio Zerbitzuak bi kanpaina egin zituen Sanferminetako irudia sustatzeko. Biak ere Espainian 2022an egindako komunikazio-estrategiarik onenetako bat izan ziren, IPMARK aldizkari espezializatuaren arabera. Zehazki *Aurten bai, aurten azkenean, bizi itzazu* goiburuko kanpainak egin ziren. Udalak 562 pertsonaren aurpegiarekin jantzi zuen hiria, guztiei ere argazkia atera baitzitzaien aldi hartarako; horrela, festen funtsa aldarrikatu zen, hau da, pertsonak, jendea, Sanferminak bi urtez ospatu ahal izan gabe, #LosViviremos goiburuarekin mantendutako ilusioa gogoan. 2022ko estrategia onenen artean nabarmendutako bigarren kanpaina ekainaren 6an egin zen, zapi gorriak paratu baitziren hiriko eskultura nagusietan, Sanferminetako eskailerako azken maila igotzeko, Iruñeko herritarren artean harridura sortuta. Gainera, estatuko albistea izan zen herrialdeko telebista-kanal eta hedabide nagusietan.

Bi kanpainak La Llorona Comunicación SI-ekin egin ziren eta biak daude IPMARK aldizkari espezializatuak aukeratutako 41 estrategien artean, 2022ko laburpen gisa; haien artean daude nazioarteko enpresa handien kanpainak, eta banku-, teknologia-, altzari- eta apainketa-sektoretako enpresa gehienak.



ARGAZKIGINTZA- ETA BIDEOGRAFIA-ZERBITZUAK

Iruñeko Udalak argazki-kontratua luzatu zuen. Kontratu horrek xede du Udalak bere proiektu, jarduketa eta ekitaldiei buruz agindutako argazki-lanak egitea, udal-kanaletan hedatzeko eta komunikabideen eskura jartzeko. Kontratuak 39.930 euroko aurrekontua du eta Cristina Núñez Baquedano eta Jesús Garzaron profesionalak osatutako taldeari adjudikatu zaio.

Iruñeko Udalak, gainera, indarrean du **bideo-albisteak egiteko** kontratua, herritarrei udal-jardunaren berri emateko zenbait euskarriren bidez. Kontratuaren aurrekontua 52.937,40 euro da urteko, eta Javier Noáin Sanzi eta Ignacio Martínez Martínezi adjudikatu zaie. 250 bideo egin behar dituzte, astelehenetik ostiralera bitarte argitaratu ohi direnak urteko lanegunetan, udal-informazioak ikus-entzunezkoen bidez osatzeko. Hainbat bertsio egiten dira bideo bakoitzari buruz, idazkunak gaztelaniaz eta euskaraz jarrita. Eduki horiek udal mupietan, Iruñeko Udalaren Youtube kanalean eta udalaren web eta sare sozialetan daude ikusgai.

PUBLIZITATE INSTITUZIONALA

Horrela, jarraipena eman zaio **esparru-akordioari publizitatea eta komunikazio-materialak diseinatzeko**, hau da, publizitatearen, kartelen, liburuxken eta abarren sormenarekin zerikusia duen guztia, ahalik eta kalitaterik onena lortzeko prezio lehiakorretan, eta irudi korporatiboaren batasuna lortzeko. Kontratuak publizitate instituzionaleko kanpainak eta ekintzak kontratatzea arautzen du urtebetez, bai eta jardueren eta zerbitzuen irudi, sustapen eta hedapenerako materialak eta euskarriak diseinatzea ere. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 484.000 eurokoa da. Bi sorta ditu. Lehena 4.000tik gorako lanetarako eta publizitate instituzionalerako egiten diren lan guztietarako (La Llorona-Hasitagori esleitua). Bigarrena, berriz, zenbateko horren azpitik dauden lanetarako; horrela, 11 enpresa aukeratu dira txandaka lan egiteko.

Martxoan, bestalde, **2022rako akordio-esparrua esleitu zen, tokiko hedabide pribatuetan publizitate-esparruak erosteko**, hedabideek beren tipologiaren arabera sorta ezberdinetan elkartuta. Kontratuak, gehienez, 600.000 euroko aurrekontua ezarria du publizitatea egiteko. Idatzizko prentsan, Brandok Comunicacion (Diario de Navarra) eta Zeroa Multimedia (Diario de Noticias) egunkariei adjudikatu zitzaion, eta prentsa digitalean, bi enpresen edizio digitaletan, Glocal Influenceri (navarra.com) eta Komunikaze Sdad. Microcoop. enpresari (Pamplonaactual.com). Era berean, honako irratietan sartu dira irradi-kuñak: Sociedad Española de Radiodifusión/SER, Radio Popular Cadena Cope eta Uniprex S.A.U. (Onda Cero). Telebistako iragarkiei dagokienez, Editora Independiente de Medios de Navarra/Navarra Televisión da adjudikazioduna.

Komunikazio Zerbitzua arduratzen da udal-kanpaina kudeatzeaz 52 euskarri bertikaletan (**mupiak**) eta **lurpeko aparkalekuetako 18 edikuluetan**. 2022an, hiru mupi digital paratu ziren Anelier pasealekuan (Arrotxapea), Iturramako bulebarrean eta Yamaguchi plazan, ikusirik zeinen ongi atera zen Gazteluko plazako mupi digitalaren proiektu pilotua.

2022ko urrian, halaber, Gobernu Batzarrek Iruñeko hiriko euskarri bertikalen emakida administratiboa esleitzeko lizitazioa onetsi zuen, informazioa emateko eta publizitatea egiteko gune gisa kudeatu eta ustiatzeko. Kontratua JC Decauxi esleitu zitzaion 2022ko abenduan.

Komunikazio Zerbitzuak prestaturik, pleguak xede izan zuen hiri-altzari horien kontserbazioa eta mantentze-lanak bermatzea eta publizitaterako erabiltzea; eta, batez ere, haien modernizatzea, gutxienez hogeita hamar MUPI analogiko MUPI digitalen ordeztatzeko. Abiapuntua, beraz, 52 MUPI analogikoren, ordua eta tenperatura emateko 39 erlojuren eta 4 MUPI digitalen kudeaketa egitea.

Eskaintzan, enpresa esleipendunak elementu guztiak digitalizatzeko konpromisoa hartu zuen, hiri-altzari guztiak berritze aldera.

2.2. GOBERNU ESTRATEGIKOA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

2.2.1. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

Plangintza Estrategikoko Alorraren eginkizun nabarmenenetako bat Hiri Plan Estrategiko bat (2030 Estrategia – Iruñeko Hiri Agenda) diseinatzea, egitea eta kudeatzea da, epe luzerako hiri-eredua, helburu estrategikoak, jarduerak, ildoak eta proiektu eraldatzaileak definitze aldera.

Plangintza Estrategikoak, gainera, beste zeregin batzuk ere baditu, hala nola Europako funtsen laguntza-deialdiak identifikatzea eta proiektuak prestatu, aurkeztu eta kudeatzea; zeharkako proiektuak bultzatzea; berrikuntza sustatzea; ikerketa soziologikoa egitea; eta kanpoaldeko lankidetzak kudeatzea.

IRUÑEKO HIRI-AGENDA - ESTRATEGIA 2023

2021ean, Iruñeko Udalak eskaera bat aurkeztu zuen Espainiako Hiri Agendaren Tokiko Ekintza Planen Proiektu Pilotuak Egiteko Laguntza Deialdietara, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen kontura. Hura Toki Erakundeendako deialdia da. Behin betiko onespena 2021eko abenduaren 13an jakinarazi zen. Iruñeko Udalarik 250.000 €-ko zenbatekoa eman zitzaion. Laguntza horien kontura finantzatu beharreko lanak 2022an egin ziren.

Dirulaguntza horren baitan egindako kontratazioei esker, bultzada nabarmena eman zaio Iruñeko Hiri Agendari:

- Laguntza teknikoa, hiriko eta auzoetako ekipamenduak, dotazioak eta zerbitzuak eskuratzeko diagnosi bat egiteko.
- Iruñeko Hiri Agenda - Estrategia 2030 Kudeatzeko Irizpide Horizontala diseinatu eta prestatzea.
- Gizarte-ikerketan espezializatutako laguntza teknikoa, Iruñean eta auzoetan etxebizitzaren arloan diren beharrei/ eskariei buruzko diagnosi bat egiteko.
- Gizarte-ikerketan espezializatutako laguntza teknikoa, herritarrei Iruñeko bizi-kalitatearen inguruko inkesta bat egiteko.
- Laguntza teknikoa, 2022ko Hiri Agendarako Jardunaldia antolatu eta kudeatzeko.
- Hiri Agendari buruzko prestakuntza-tresna.
- Laguntza teknikoa, Iruñeko Hiri Agenda - Estrategia 2030erako Ekintza Plan Xehatua diseinatzen eta egiten laguntzeko.
- Laguntza teknikoa, Iruñeko Hiri Agenda - Estrategia 2030erako Ekintza Plan Xehatua diseinatzen eta egiten laguntzeko.
- Komunikazio Plana Iruñeko Hiri Agenda - Estrategia 2030erako. Helburu nagusia izanen da Iruñeko Hiri Agendaren estrategiak, baliabideak, helburuak eta barneko zein kanpoko komunikazio-ekintzak planifikatzea.
- Laguntza teknikoa, Iruñeko Hiri Agenda - Estrategia 2030 Kudeatzeko Plan bat diseinatzeko.
- Adierazle Sistema bat prestatzea Iruñeko Hiri Agendarako.

EUROPAKO PROIEKTUAK

2022an, proiektu berri bat onetsi zen Iruñeko ibaiak birnaturalizatzeari buruz (Runa 2025), EBko Next Generation Funtsek finantzatua. Gainera, LIFE 2022 deialdiko bi proposamenetan lan egin zen energia-trantsiziorako planei buruz eta energia-komunitateei buruz, LIFE programari bigarren aldiz aurkeztua; gainera, alorrek artatu zituen Europako proiektuetan parte hartu eta kudeatzearekin lotutako eskarietan.

Plangintza Estrategikoak, halaber, aurreko urteetan onetsitako 6 proiektuak koordinatzen eta kudeatzen jarraitu zuen. STARDUST, oPEN Lab, KINTOAN BARNA, POTEnT, CLARA, Runa 25.

Hona hemen laburbildurik Europako Proiektuen kudeaketaren emaitza eta adierazle nagusiak:

- Proiektu horiek gauzatzeari lotutako gastu guztiak, langileria gastuak eta zeharkako gastuak barne, 453.371,47 € izan dira 2022an (barne dela Iruñeko Hiri Agendari lotutako gastua, arestian aipatu bezala). Gastu horiei aurre egiteko, 426.833,95 €-ko diru-sarrerak espero dira hurrengo hilabeteetan edo urteetan (Programa bakoitzaren epeen arabera), guztiak ere Europak finantzatuak.
- 2022an, guztira 88.750,42 € jaso dira dirulaguntzetan, gehienak aurreko urteetako gastu-aitorpenei dagozkienak.

RUNA 2025

Iruñeko Udalak azken urteetan prestatutako Ibai Plangintzako Eredua izan da lanaren oinarria. RUNA 2025ek natur ingurunearekin konprometitua dagoen hiri erresilientearen oinarriak jarri ditu. Jarduera ekonomikoak eta hiri-hazkundera ingurumen, kultur eta gizarte arloko alderdiekin bateragarri egiten dituen hiria, ekonomia zirkularra sustatuta eta ahalik eta baliabide gutxien kontsumitzen dituen eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dituen.

Ibai Parke eta Erreserbak sarturik dauden estrategiak jatorrizko espazioaren zati bat itzuli nahi dio natur inguruneari, eta hiri-bilbearen zaugarritasuna arintzeko balio dute uholdeen aurka. Aldi berean, egungo inpaktuak zuzentzen jarduten da eta natur balioak indartzen dira, ardatz horiek natur ingurunearekin lotzeko duten eginkizuna ahalbidetuta. Xedea da hiria iragazkorra izatea natur ingurunearekiko eta, azken buruan, biodibertsitatea handitzea.

Laguntza 2022ko ekainaren 30ean eman zen; guztira, 2.596.606,74 €.

Proiektua 2022ko irailean hasi zen, Bulego estrategikoak Biodiversidad Fundazioarekin koordinazio-bilerak eginez. 2022ko urrian, ekintzen alor arduradun guztiek heldu zioten eta proiektua ezagutzera eman zitzaion. 2022ko abendura arte, proiektua kudeatzeko eta koordinatzeko lanetan aritu ginen.

STARDUST

Proiektu honek –H2020 SCC1 Europako programarekin batera finantzatua– barne hartzen du Smart Cities direlakoei buruzko hiru proiektu pilotu egitea Europako hiru hiritan (Iruña, Trento eta Tampere), eta bertan parte hartzen dute, halaber, emaitzak transferitu behar zaizkien beste hiri batzuek (follower cities). Iruñeko Udalaren zeregin nagusia da askotariko erakundeak biltzen dituen tokiko partzuergoaren buruan jardutea, pilotua garatzeko.

Proiektu honek jarduketa nagusi bat egin zuen 2022an, hots, hiru jarduketa berritzaile ezarri zituen, tokiko enpresek parte harturik: airearen kalitate-sistema bat ezartzea haur eskoletan; oinezko-pasabideak led seinaleztapenarekin ezartzea, eta sentsoreak ezartzea, aparkaleku erreserbatuak kudeatzeko isuri apaleko eremuan.



Bulego Estrategikoak, gainera, tokiko partzuergoaren bilerak antolatzen jarraitu zuen eta Europako partzuergoaren bileretan ere parte hartu zuen (osoko bilkurak eta tematikoak).

KINTOAN BARNA

Proiektuaren ardatza Donibane Garazi-Iruña ardatzaren dinamizazio sozioekonomikoa da, Kintoko oihanaren bidez eta turismoa dinamizatzeko estrategia partekatuak baliatuz. Eugiko Kontzejuak koordinatzen du, eta Yelmo proiektuaren jarraipena da. Iruñeko Udalak Turismo Bulegoko arduradun gisa parte hartzen du, eta Donibane Garazikoak ere bai. 2022an, komunikazioa landu da produktu turistikoa garatzeko. Horretarako, askotariko lan-bileratan parte hartu da Turismo alorrarekin lankidetzan.

POTEnT

Proiektu honen helburua da 2023rako aurreikusitakoa baino % 10etik gorako karbono-murrizketa lortzea, eta, horretarako, agintari publikoek energia-zerbitzuak hobeki eskaintzea lortu nahi da. Energia Agentzia da atal teknikoaren buru eta, Plangintza Estrategikoak laguntza etengabea ematen du kudeaketan, bazkide europarreko koordinazioan, etab.

Proiektu honetako jarduera garrantzitsuenetako bat gainerako bazkideekiko elkarlana eta esperientzia-trukea da eta, jarduerak hein handi bateak truke-bilerak egitea zekarren berekin. Covid krisiaren ondorioz, online egin behar izan dira.

2022an, gutxienez jardunbide egokiak trukatzeko bi saio egin ziren Europako hainbat bazkiderekin eta, halaber, partzuergo-bilerak eta hainbat bilera tokiko eragileen taldearekin. Gainera, tokiko Ekintza Planaren lanketa amaitu zen. Planak intereseko esperientzia batzuk biltzen ditu Iruñerako Energia Komunitateei buruz eta Energia Bulegoei buruz.

Horrez gain, seihilekoko txostenak prestatu dira kudeaketaz eta gastu-aitorpenez, eta agiri horiek Interreg Europe Programak ezarritako kontu-ikuskapenak gainditu dituzte.

Komunikazioari dagokionez, ekainean jarduera bat antolatu zen proiektuaren emaitzak tokiko mailan aurkezteko eta, halaber, Alkatetzen Itunerako Topaketa Nazionalarekin egin zen lankidetzat. Topaketa 2022ko azaroaren 30ean egin zen.

CLARA

CLARAren helburu nagusia da tokiko agintarien, udaltzainen eta komunitateen gaitasunak hobetzea, hirietan elkarbizitza baketsua mehatxatzen duten gertaera arrazista zein xenofoboei eta gorroto-diskurtso zein -delituei aurrea hartzeko, horiek identifikatzeko eta horien aurka borrokatzeko. Hori guztia ikas-komunitateen (CLAPS) bidez garatzen da, delitu horien biktimendako jarraipen- zein babes-eredu batez osatua, Europako toki-esperientzietan ikasitakoa gehituta, eta sorturiko produktu eta emaitzak helarazita.

Plangintza Estrategikoak proiektu honetan lan egiten du Udaltzaingoari babesa emanez proiektua kudeatzearekin zerikusia duten gaietan (langileen orduen justifikazioa, kudeaketa-bileretara joatea, etab.) eta proiektuaren edukiarekin lotutako beste batzuetan.

Covid 19 pandemiak eragin nabarmena izan zuen proiektuan; hori zela eta, proiektua gauzatzeko epeak luzatzeko eskaera egin behar izan zen. Pandemiak eragindako murrizketen aldia bukatutakoan, bultzada handia eman zitzaion, eta ikas-komunitateak aurrez aurre egin ziren Iruñean.



Azkenik, 2022ko otsailean, Proiektuaren Azken Konferentzia egin zen lan-sorta guztien azken emaitzak aurkezteko eta, horrekin batera, sakabanatze eta transferigarritasun plana, garatutako produktu guztiak eta Proiektuaren kalitatearen ebaluazioa.

oPEN Lab

oPEN Lab proiektuak errepikatu daitezkeen eta komertzialki bideragarriak diren irtenbide-sortak identifikatu nahi ditu, dauden hiri-testuinguruen barruan energetikoki positiboak diren auzoak lortzeko asmoarekin; irtenbide horiek tokiko energia-sisteman erabat integratuko dira. Proiektuak teknologia eta sorta horiek auzo mailako irtenbide integratu gisa probatu nahi ditu. Erakusle horiek Iruñean egiten dira, baita Genk (Belgika) eta Tartu (Estonia) hirietan ere. Iruñean Arrotxapean egiten dira jarduketak, IWER eraikinean eta San Pedro kolonian zehazki.

2022an, Udalaren lehenbiziko jarduketetan lan egiten hasi zen, barne izan zela herritarrek parte hartzeko prozesua energia-komunitate bat bultzatzeko, energia-bulego bat Arrotxapean ezartzeko eta San Pedro multzoko bi atarietako obra-kontratua prestatzeko. Halaber, Ingurumen Hezkuntzari buruzko lanak hasi ziren. Komunikazioari dagokionez, apirilean proiektua auzoan aurkeztu zen.

Horrez gain, maiatzean Maarten de Grote proiektuaren koordinatzailearen bisita jaso genuen (Belgikako VITO I+G Zentrokoa) eta, urrian, Udalak proiektuaren partzuergoko kideak hartu zituen, bilera Ingurumen Hezkuntzako Museoan eginik; 30 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten.

2022an, halaber, pertsona bat kontratatu zen, oPEN Lab proiektuan bete-betea aritzeko, Energia Agentzian kokatua.

Aldi berean, Udaleko langileek proiektuaren hainbat bileratan parte hartzen dute aldizka:

- Udal barneko bilerak.
- Tokiko bazkideen bilerak, hala osoko bilerak (hamabostean behin) nola tematikoak (adibidez, komunikaziokoak hilero egiten dira).
- Batzarrak, proiektuan dauden bazkide guztiekin (seihilekoan behin).
- Aldebiko bilerak koordinatzailearekin.
- Proiektuko lan-sorta bakoitzaren bilerak, ekintza-burua den bazkide europarrak deituak (online).

UDALAREN INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMA

Informazio Geografikoko Udal Sistema (SIG) Iruñeko Udalaren jabetzako informazio kantitate handia aurkezteko beharra asetzea ahalbidetzen du, era geoerreferentziatuan eta normalizatuan, web zerbitzuen bitartez. SIG datuak era prozesatzeko sistema bat da, informazio geografikoa (elementuen kokapen espaziala) eta alfanumerikoa (elementu horien deskribapena) modu integratuan tratatzeko gai dena, eta barne hartzen du datuak atzematea, biltegiratzea, editatzea, aztertzea eta irudikatzea. Gardentasuna bultzatzen du, Open Data nabarmen areagotuta.

2022an, are gehiago erabili zen SIG, datu irekiak prozesatzeko udal tresna gisa, Trabajos Catastrales S.A. (TRACASA) enpresarekiko kontratua eginez, laguntza teknikoak jasotze aldera. Datu espazialen barne-sistema finkatu zen, QGIS tresnaren bitartez, 30etik gora erabiltzaileekin; haietako batzuek QGIS ikastaroa egin zuten 2020 amaieran. Barnealdeko QGIS tresnaren bidez, eskura diren geruza guztiei ematen zaie sarbidea, hala publikoei nola pribatuei, QGISek informazio geoerreferentziatuarekin zuzenean lan egiteko eskaintzen duen funtzionaltasun guztia erekin. Informazio-geruzen datu historikoak hasi ziren gordetzen eta geruza berriak txertatzen joan ziren. Mugarri gisa, Udal Plan Eguneratua argitaratu zen.

2022an, gainera, 2020an Herritarren Segurtasuneko alorrerako abiarazitako 3 proiektu pilotuen amaiera landu zen: bat, Ekitaldiak eta Terrazetarako proiektu pilotua (terrazak gailu mugikorren bidez kudeatzea eta ekitaldiak argitaratzeko aplikazioaren hobekuntza, osagai grafikoa sartuta lerroak eta poligonoak marrazteko); beste bat, Hiri Kontserbaziorako,



Lorategi alorrekin zehazki, zuhaitzi publikoak kudeatzeko sistema berri bat sortze aldera, QGIS tresnari buruzko berriazko garapenaren bidez. Datuak normalizatzeko prozedurari eman zaio jarraipena, eta geruza berriak argitaratu dira. Beste informazio-sistema batzuekiko koordinazioa hobetzen ari da; hiri-plataforma, katastroa, udal-kartografia, Nafarroako Gobernua eta INE.

KARTOGRAFIA

2022an, Nafarroako Gobernuarekin eta Tracasarekin lanean jarraitu genuen Lankidetzaren Hitzarmena egiteko, zehaztasuneko BTU kartografia berrikuste aldera, Iruñeko udal-mugartea 1:500 eskalan hartzeko, 1989tik hona erabat baitago eguneratu gabe.

Lantzen ere jarraitu genuen Hiriko Topografia Oinarri Harmonizatu bat, Nafarroako gainerako udalerrien kartografiarako oinarria izanen dena.

Udal-lantalde bat sortu zen, hainbat alorretako kartografia-erabiltzaile nagusiek osatua, zalantzak argitzeko, entregak eratzeko eta produktua baliozkotzeko.

Nafarroako Gobernuak TRACASari esleitu zizkion lanak eta, 2021eko ekainaz geroztik, BTU berria lantzen ari da; hiri guztiko datuak hartu dira Mobile mapping-aren bidez, egiazko ortofoto bat egin zen zehaztasuneko hegaldi batean eta udalerriko hegoaldera lehengoratu da. Urte bukaeran, Tracasak kartografia berriaren lehen emaitzak aurkeztu ditu, baina oraindik ez da lehen entrega baliozkotu.

Jarraipen Batzordea jarri da abian, urtean behin biltzen dena, urte amaituan egindako lanak baliozkotzeko eta 2022ko lan-plana onartzeko.

2022 bukaeran, Kartografiaren 1. fasea argitaratu zen (Iruñeko hegoaldea), hala IDENAn nola Udal QGIS tresnan. Guztira, 3 fase izanen lirateke (1-hegoaldea, 2- erdigunea, 3-iparraldea).

SOZIOLOGIA – HIRI-BEHATOKIA

Plangintza Estrategikoaren eginkizunetako bat da izaera soziologikoa duten ikerketak garatzea, bai eta hiriari buruzko informazio garrantzitsua biltzea, aztertzea eta argitaratzea ere, Iruñeko Hiri Agenda 2030i buruzko diagnosiak eta jarraipena egin ahal izateko.

2022an, jarduketak hauek egin dira:

- Iruñeko Hiri Behatokia mantendu eta eguneratzea, hiriaren errealitate etengabe aztertu eta diagnostikatzeko tresna, hiri-inguruneari buruzko ikuspegi global eta eguneratua eskaintzeko gizarte, ekonomia eta instituzioen arloko eragileei, erabakiak eta ekintza estrategikoak hartzen eta bideratzen laguntze aldera.
- Iruñeko etxebizitza-bearrei buruzko diagnostikoa.
- Iruñeko bizi-kalitateari buruzko azterlana, ikuspegi alderatuarekin.
- Herriarrendako Arreta Zerbitzuaren ebaluazioa.
- Hiri-zaugarritasunari buruzko azterlanak:
 - Sarrigurengo errepideko etxebizitzak
 - Sanduzelaiko alde zaharra
 - Rinaldi multzoa
 - Kodes multzoa
 - Sanduzelaiko bero-kooperatiba
- Iruñeko eta auzoetako biztanleria osoaren eta etorkinen piramideak lau hilez behin eguneratzea.
- Udal-kaletegiaren eguneratze etengabea.



- Iruñeko biztanleriari buruzko informazio demografikoak prestatze, udal alorrek edo/eta alorretako erakunde autonomoek, beste erakunde batzuek (INE, Nafarroako Gobernua, ORS), ikasleek edota aholkularitza-enpresek eskaturik. Urtean, guztira: 40 eskari.
- Inklusioaren eta Dibertsitatearen aldeko Europako Hiriburutzarako Hautagaitza aurkeztea.
- Alorrendako laguntza, diagnostikoetan, Genero Eraginari buruzko Txostenak egin ditzaten.
- Laguntza teknikoa Iruñeko Kultur Dibertsitaterako eta Herritartasun Inklusiborako Planari, Hezkuntza, Herritarren Parte-hartzea eta Gazteriako alorrak eskaturik.
- Berdintasun Batzorde Teknikoak parte-hartzea.
- Prestakuntza aurrekontuetan, Genero Ikuspegia aintzat harturik, Udal talde Eragilea osatzeko, aurrekontuan prestatze aldera.

NEXT GENERATION EU SUSPERTZE FUNTSAK

2022an, Plangintza Estrategikoak jarraipena egin dio Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari, plan horren bidez bideratzen baitira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Next Generation EU programaren laguntzak. Horrela, argitaratzen joan diren laguntza-deialdi guztien analisisia egin da eta hainbat deialditarako laguntza-eskariak koordinatu eta/edo lagundu dira:

- Donejakue Bidearen digitalizazioa: emakidaren zain.
- Jarduketak Ermitagañako eta San Domingoko Azoketan: emakidaren zain.
- Merkataritza-jarduera Turismo Eremuetan: emakidaren zain.
- Isuri Apaleko Eremua 2022: 6.362.736,38€
- AUNA proiektua. Inklusiorako ibilbide integratuak: 404.667,80€
- Gizarte Zerbitzuen Digitalizazioa: 161.429,80€
- Energia Berriztagarriak bultzatzea: emakidaren zain.

2.2.2. MERKATARITZA

MERKATARITZA DINAMIZATZEKO ETA ANIMATZEKO KANPAINAK

STOCK AZOKA (2022). XVI. Iruña Stock Azoka martxoaren 3an, 4an eta 5ean egin zen, Iruñeko merkataritza-elkarteekin elkarlanean antolatua, eta bertan ehun saltokik parte hartu zuten. Edizio horretan, azoka merkataritza-aretoetan beraietan egin zen, eta Merkataritza Alorrak komunikazio-kanpainan lagundu zuen (kartelaren diseinua, prentsa-oharra, informazioa eta irudia sare sozialen bidez zabaltzea).

LIBURUAREN ETA LOREAREN EGUNA. Pandemiaren eraginez ohiko jarduera hau bi urtez bertan behera utzi ondoren, ohiko lekuan berredu zitzaion. Jaimak, beraz, Karlos III.aren etorbidearen eta Orreaga etorbidearen arteko bidegurutzean paratu ziren. Jarduerak liburu-denden sektoreari egin nahi dio gorazarre, letren mundu-egunean. 17 liburu-dendak Iruñeko herritarrengana hurbildu zuten beren eskaintza, % 10eko deskontua eginda eta, liburu bat erostean, lore bat oparituta.

MERKATARITZAREKIN, HIRIA, HIRIAGO. Pandemiaren eraginez ere bi urtez bertan behera utzi eta gero, Merkataritzarekin, Hiria, Hiriago kanpainari berredu zitzaion merkataritza sustatu eta dinamizatzeko. Urtero egiten da udaberrian eta uda hasieran hiriko merkataritza-ardatz nagusietan. 9 auzok parte hartu zuten, jende guztiarendako animazio-jarduera askotarikoak eskainiz bizilagunei eta bezeroei. Honatx auzoak: Alde Zaharra, Zabalgunea, Martin Azpilcuetako merkataritza-eremua, Donibane, Ermitagaña eta Mendebalde, Iturrama, Sanduzelai, Arrotxapea, Txantrea eta Mendillorri.

HIRU BURGUEN ERDI AROKO AZOKA. Batasunaren Pribilegioa ospatzeko ekitaldietako bat da, eta irailaren 8tik 10era egin zen. 70 postu jarri ziren Gazteluko plazan eta Sarasate pasealekuan. Salmenta-postuetan denetariko produktuak salgai jartzeaz gain, azokari Erdi Aroko giro eta eite erakargarria eman zitzaion.

TOKIKO PRODUKTUEN VII. ASTEA. 2022ko urriaren 7tik 12ra, zazpigarren edizioa egin zen. Ekitaldi nagusia tokiko produktuen merkatua izan zen, Gazteluko plazan kokatua eta, horren osagarri, jende guztiarendako jarduera ugari egin ziren, guztiak ere tokiko produktuei lotutakoak. Haien artean tokiko produktuari buruzko pintura-lehiaketa da nabarmentzekoa, eta Foru Komunitateko hainbat pintura-eskolatako ikasleek parte hartu zuten.

Hainbat arlotako lau entitatek dihardute tokiko produktua marka lantzen eta sustatzen. Laurek ere lankidetzahitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalarekin. Hauek dira: Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarte, Nafarroako Nekazaritza Produktu Ekologikoaren Kontseilua (NNPEK), Intia-Reyno Gourmet eta Bizilur. Entitateok arduratzen dira Gazteluko plazan paratzen diren postuak eta espezialitateak ekartzeaz, horrela ekoizleen eta azken kontsumitzailearen arteko kontaktua sustatuta.



2022-2023ko GABONETAKO KANPAINA

Kanpaina guztia *Iruña oparitu* goiburuan bildu zen, honako mezu hau zabaltze aldera: tokiko merkataritzan erosketak egitea aukeratzea modu egokia da zerbitzuak, jarduera ekonomikoa eta bizi-kalitatea dituen hiri bat nork bere buruari oparitzeko.

- **EGUBERRIETAKO ARGIAK.** Hornidura kontratatzeko lehiaketa publikoa egin zen, eta Blachere S.A enpresari adjudikatu zitzaion 177.685 euroan (BEZ kanpo) prozedura negoziatuaren bidez, bi aurreko lizitazioak eman gabe gelditu baitziren. Altuerako argiztapena hiriko merkataritza-eremu nagusietan, 2022ko azaroaren 29tik 2023ko urtarilaren 6ra arte.
- **EGUBERRIETAKO APAINKETA SALTOKIEN ATARIETAN.** Hiriko merkatarien elkarreetako kide diren merkataritza-establezimenduei 300 irudi baino gehiago banatu zitzaizkien, hiriko merkataritza-ibilbide nagusietako establezimenduetako sarrerak argitzeko eta apaintzeko.
- **MERKATARITZA-DINAMIZAZIOA IRUÑEKO ERDIGUNEKO ETA AUZOETAKO MERKATARITZA-ARDATZ NAGUSIETAN.** Elur artifizialezko txirrista handi bat paratu zen Sarasate pasealekuan eta, hartan, 19.334 pertsonak parte hartu zuten. Merkataritzako Alorra Coworkids gunearekin aritu zen lankidetzan eta ekitaldi bat antolatu zen Gazteluko plazan Osasunako jokalariekin, baloiak, kamisetak eta beste objektu batzuk sinatzeko. Mendillorri, Ermitagaña, Mendebaldea, Sanduzelai, Iturrama, Arrotxapea, Txantrea eta Donibane auzoek, eta Martín Azpilcuetako merkataritza-eremuak, era askotako animazio- eta dinamizazio-jarduerak eskaini zituzten: (musika, puzgarriak, gaztain banaketa, kalejirak, ipuin-kontalariak...), guztiak ere Iruñeko Udalak eremu bakoitzeko merkatarien elkarrekin elkarlanean antolatuak.
- **EGUBERRIKO AZOKA.** Ohiko Eguberri Azoka Gazteluko plazan jarri zen, behin Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteari adjudikatuta eremu publikoa okupatzeko lehiaketa publikoa. 27 artisauk osaturik, Gabonetan zehar beren produktuak erakutsi eta saldu zituzten, bai elikagaiak, bai bestelakoak. Bidezko merkataritzako produktuak saldu eta sustatzeko etxola bat ere ezarri zen, Azokaren osagarri.
- **KOMUNIKAZIO-KANPAINARAKO SUSTAPEN-ELEMENTUAK.** 25.000 poltsa berrerabilgarri diseinatu eta egin ziren Iruña oparitu kanpainaren irudiarekin eta 6na kg-ko 735 bobina enkargatu ziren, guztiak ere diseinu berekoak. Photocall motako 10 poltsa erraldoi paratu ziren merkataritza-ardatz estrategikoetan eta, era berean, 40 udal-hesi, 20 mupi-alde, eta 14 eredutako 1.330 binilo saltokietako erakuslehoetarako.
- **KOMUNIKAZIO-PLANA.** Aipatutako sustapen-elementuez gain, mezua ohiko bitartekoen bidez zabaltzeko irratiragarkiak, aipamenak hedabide idatzietan, telebista (Iruñeko auzoetan filmatutako 11 iragarki) eta kanpaina sare sozialetan.

LAGUNTZA EKINTZAILEEI ETA ENPRESEI

Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroarekin (CEIN)

Iruñeko Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen hirian ekintzailatza bultzatu eta sustatzeko. Iruñean duen bulegoan ekintzaileei arreta ematea agindu zitzaion CEINi eta, horrez gain, hirian enpresak sortzera eta ETEak garatzera eta prestakuntza sustatzera bideratutako programak eta ekintzak kudeatzea.

- **“OSTALBERRITU DIGITALEAN” PROGRAMA.** Programaren helburua da ostalaritza babestu eta indartzea, digitalizazioaren bidez negozioa garatzeko alternatiba posibleak eskainiz eta COVID-19ak eraginda sektoreak pairatu duen egoera zaila ahal den heinean arintzen saiatuz. Prestakuntza barnean, guztira 90 minutuko 10 saio eman ziren, sektoreko 7 enpresak parte hartuta.
- **IRUÑA, EKINTZAILE 2022.** Iruñeko Udalak, CEINekin elkarlanean, hiriko jardueraren hobekuntza bultzatu eta laguntzeko asmoa izan zuen 2022an, aukerak eskainiz Ekonomia Berdeari lotutako arloetan enpresak sortzeko interesa zuten pertsonen. Xedea da bultzada eta ekintzailatza susta lezaketan ekintzen bidez sor litezkeen ekimen eta dinamika berriak sortzea, betiere aurreko programetan testatutako metodologia berritzaileak erabiliz. 24 parte-hartzaile aukeratu ziren, eta haietarik 16k programa bururaino eraman zuten. 45 prestakuntza-saio eman eta 11 proiektu sortu ziren.
- **EMAKUME LIDER ETA ERAGINTSUA JARDUNALDIA.** Lantegiak komunikazioa lantzea izan zuen helburu eta, era berean, nola eskuratu beharrezkoak diren trebeziak emakumeak entzunak, baloratuak eta aitortuak senti daitezzen. 31 lagun bertaratu ziren, eta jardunaldia CEINen eta Womenaliaren eskutik garatu zen. Womenalia espainieraz mintzo diren emakume profesional eta ekintzaileen sarea da eta, bertan, 350.000tik gora profesional ari dira.

MERKATARITZA-SEKTORERAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Deialdi honek prozedura bat garatzen du Animazio eta Dinamizazio, Sustapen eta Komunikazio, Enpresa Sustapen eta Asoziazionismo Komertzialeko eta Hirigintza Komertzialeko jarduerak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko, bai eta Iruñeko Udalen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoa betetzeko ere. Ordenantza hori hasiera batean onartu zen Udal honen Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez.

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea Iruñeko merkatarien elkarteei, zonaldekoei zein gremiokoei, Iruñean presentzia nagusia dutenei, 2021eko azaroaren 1etik 2022ko urriaren 15era bitartean merkataritza-sektorea sustatzeko jardueren eta merkataritza-dinamizazio eta -sustapeneko jardueren diseinua, garapena eta jarraipena egin ahal izan dezaten.

Hurbileko merkataritza sustatzea Iruñea-Estrategia 2030 Hiri Agendaren helburu estrategikoetako bat da. 2. dimentsio estrategikoaren barruan (“Iruñea Sozialki Inklusiboa”) “L6. Iruñea, hurbileko merkataritza eta zerbitzuekin”.

Merkataritza-sektoreko 9 elkarte aurkeztu ziren guztira deialdira. Deialdiaren hasierako aurrekontua 200.000 eurokoa izan zen, eta onuradun bakoitzari jarduera bakoitzeko gehienez onartutako aurrekontuaren % 70 eman ahal izango zaio. Guztira 25 proiektu aurkeztu ziren; horietatik 2 “animazio- eta dinamizazio-ekintzak” 3.1 lerroan daude, 4 “sustapen- eta komunikazio-ekintzak” 3.2 lerroan, 16 “enpresa-sustapeneko eta merkataritza-asoziazionismoko ekintzak” 3.3 lerroan eta 3 “merkataritza-hirigintzako ekintzak” 3.4 lerroan, eta hasierako gastuaren aurrekontua 49.455,63 eurokoa da, nahiz eta, parte hartzen duten elkarteek benetan gauzatutako ekintzengatik aurkeztutako justifikazioaren ebaluazioa amaitu ondoren, emandako laguntzen guztizko zenbatekoa 43.877,68 eurokoa izan zen.

BESTELAKOAK

AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREKO NASEN ERABILERA-LAGAPENAK

Autobus-geltoki zaharreko nasak erabiltzeko baimenak kudeatu ziren, udal-webean argitaratutako erabilera-irizpideen arabera. 2022an, guztira 25 jarduera baimendu ziren urtean zehar.

GELTOKI ESPAZIOA

Koordinazioan jardun zen GELTOKIren arduradunekin eta, administrazio-emakidako pleguan aurreikusia dagoen bezala, espazio horretako esleipen-hartzaileak 2022. urteko jarduera-txostena aurkeztu zuen eta hura espedientean sartu zen.

IRUÑEKO MERKATARITZAREN MAHAI TEKNIKOA

Merkataritzaren Mahai Teknikoa lan-talde bat da eta hiriko merkatarien elkarreketako nahiz Udaleko Merkataritzako Alorreko teknikariek osatua dago. Aholku-emailea da, eta Merkataritza eta Turismoko Alorreko jardueren garapenari buruzko informazioa emateko sortu zen, bai eta horri buruzko iradokizunak jasotzeko eta kontsultak ebazteko ere. Hilean behin egin zen irailera arte. Irailean, berriz, astean behin egitea erabaki zen.

BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENAK

Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko alorrak hiriko merkataritza inplikatzeko duten jarduera guztiei buruzko txosten teknikoak egiten ditu, eremu publikoaren okupazioari dagozkionak, Herritarren Segurtasuneko Alorrak eskaturik, 2022an, guztira 27 txosten egin ziren.

EREMU PUBLIKOAN JARDUERAK EGITEKO APLIKAZIOAREN KUDEAKETA

Kaleko ekitaldi guztietako jarduera guztiak antolatu eta muntatzeko (merkatuak, azokak, Eguberriko argiak jartzea, etab.), Herritarren Segurtasuneko alorraren eremu publikorako aplikazioarekin lan egiten da. Tresnak ekitaldiei buruzko informazio guztia jasotzen du eta, haren bidez, Udaltzaingorako interesekoak diren datu guztiak sartzen dira: okupatuko diren espazioak, materialak, produktuak, zamaketa-lanetarako ibilgailuetako matrikulak, ordutegiak...



2.2.3. TURISMOA

JARDUKETA NAGUSIAK

Alorraren jarduerak bi ardatz izan ditu 2022an: batetik, Iruña SF365 proiektuaren onespena Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planen deialdian, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan eta, bestetik, Next Generation funtsak.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (PRTR), 14. Osagaiaren parte gisa, turismo-eredua jasangarritasunerantz eraldatzeko inbertsio-lerroa sartu da, Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Planen programa barne hartzen duen inbertsioaren 2. azpineurri gisa (C14.I1), Administrazioako hiru mailen arteko lankidetzazko jarduketarako mekanismoa den heinean. C14.I1 inbertsio-lerroari dagokion helburua jasangarritasun turistikoa bultzatzeko jarduketak ezartzea da, 2. azpineurrian aurreikusita dauden bezala, Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko planak mesede egin diezaien hiru arloetan (ingurumena, sozioekonomikoa eta lurraldea) helmuga turistikoei, gizarte-eragileei eta sektoreko eragile pribatuei.

Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Estrategian ezarritako prozedurarekin bat (2021eko uztailaren 28an onetsitakoa), Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Plana 2022-2024 (PSTD) prestatu zuen. Planean, "PSTD Iruña SF365" izeneko proiektua dago sarturik, Iruñeko Udalarekin elkarlanean aurkeztutakoa. Nafarroako Lurralde Plana Turismo Sektorearen Konferentziak erabakirik onetsi zen, 2021eko abenduaren 21ean, eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua izendatu zuten plana gauzatzeko eta justifikatzeko arduradun, Estatuko Turismo Idazkaritzaren aurrean edo MRR mekanismoarekiko edozein organo edo agintariren aurrean; eta organo arduradun gisa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumorako Zuzendaritza Nagusia.

Estrategiaren 8.1.1. atalak adierazten duen bezala, PSTDen erakunde kudeatzailea tokiko entitate bat izan daiteke; eta kasu honetan, begi-bistakoa da badirela zailtasun arrazoigarriak laguntza haiek emateko deialdi publikoaren prozedura arruntaren bidez, ikusirik entitate onuradun zehatz eta definituen aurreikuspena. Horrela, azkenean, aparteko mekanismo bat erabili zen, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru legearen 17.2.c) artikulua xedatua; eta hitzarmena egin zen Nafarroako Gobernuarekin 2022ko maiatzaren 19an, Iruñeko Udalari 5.492.500 euroko dirulaguntza ematea arautzeko.

Iruña SF365 proiektua garatzearekin batera, alorrak bere ohiko jarduera egiten jarraitu zuen, Turismoko Plan Estrategikoak (2017-2019) zehaztutako ildoekin bat.

TURISMOKO PLAN ESTRATEGIKOA

GOBERNANTZA

LAGUNTZAK

— **LAGUNTZAK TURISMO SEKTOREKO ELKARTEEI.** Helburua da turismoa dinamizatu eta sustatzeko ekintzak garatu dituzten turismo-elkarteei laguntzea, turismo arloko produktuak gara ditzaten. Sei elkarteri eman zaie laguntza: Restaurantes de Reyno elkarteari, Hotel elkarteari, Turismo Navarra elkarteari, AHTNi, Restaurantes de Navarra elkarteari eta ANAPEHi. Guztira, 68.556,57 euro.



HITZARMENAK

- **HITZARMENA IRUÑEKO TURISMO BULEGOA KUDEATZEKO.** Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu da turismo-bulegoa kudeatzeko. Hitzarmena 2025eko abenduaren 31ra arte izanen da luzagarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, zehazki, 80.700 euro eman dizkio Iruñeko Udalari hitzarmenaren xede diren zereginak 2022an egiteko.
- **IRUÑEKO UDALARI EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZA ARAUTZEKO HITZARMENA, IRUÑA SF365 HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANA GAUZATZE ALDERA, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSEK FINANTZATUA**
Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planaren (PSTD) funtsak kudeatze aldera, aparteko mekanismo bat erabili da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 c artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru legearen 17.2.c) artikulua xedatua; eta hitzarmena egin da Nafarroako Gobernuarekin 2022ko maiatzaren 19an, Iruñeko Udalari 5.492.500 euroko dirulaguntza ematea arautzeko. Hitzarmena onesteak berarekin dakar proiektua Kudeaketa Planaren arabera gauzatu behar izatea eta Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko xedapenak bete behar izatea. Mekanismoak, besteak beste, zabalkunde eta publizitate arloko betebeharrak dakartza, ingurumenari kalte nabarmenik eragin gabe (DNSH).
- **LANKIDETZA-HITZARMENA, IRUÑEKO UDALAREN ETA RENFE VIAJEROS SOCIEDAD MERCANTIL ESTATAL, S.A.ren ARTEKOA, RENFE VIAJEROSKO TREN BIDEZKO GARRAIO ZERBITZUAK ETA IRUÑEKO TURISMOA BATERA SUSTATZEKO**
Sinatzen den egunean sartuko da indarrean hitzarmena eta 2024ko abenduaren 31ra arte izanen du indarra. Helburua da batera sustatzea Renfe Viajerosko tren bidezko garraio zerbitzuak eta Iruña hiria, turismo- eta negozio-helmuga gisa.
Lankidetzaz Hitzarmenean hitzartutako baldintzak AHTr eta Distantzia Luzeko trenei soilik dagozkie; ez, ordea, Renfe Viajerosko gainerako zerbitzuei eta/edo produktuei, eta hitzarmenetik kanpo berariaz gelditzen dira Hurbileko, Distantzia Erdiko eta Avlo zerbitzuak, salbu espresuki hitzartzen bada.
- **IRUÑEKO UDALAREN ETA DONEJAKUE BIDEAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN (DONEJAKUE ERMANDADEA PADERBORNEN) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, IRAIZOZ TXALETA ERAIKINA LAGATZEKO DONEJAKUE BIDEKO ERROMES-ATERPETXEA IZAN DADIN: PADERBORN ETXEA (ESPEDIENTEA: 2021/29 ESPEDIENTEA).**
Hitzarmena indarrean dago eta 5 urteko iraupena du, 2026ko maiatzaren 28ra arte. Horrekin bat, Iraizoz Txaleta erromes-aterpetxe gisa kudeatzen da.

DTI HELMUGA

Iruñeak bat egin du Helmuga Turistiko Adimentsuen Sarearekin. Horretarako, egoerari buruzko diagnosia enkargatu du, bai eta lan-plana ere, Segittur enpresak egin duena.

UDALERRI ELKARTEAREN ERAKETA DONEJAKUE BIDEKO HIRI-ADIMENERAKO SISTEMA PROIEKTUA AURKEZTEKO

Udalerri elkartearen eratzea ezinbesteko pausoa izan da Donejakue Bideko Hiri Adimenerako Sistema proiektuaren helburuak lortzeko, Segittur sozietatearen Donejakue Bideko DTI laguntza-deialdi publikoaren barnean. Proiektuak irtenbide multzo bat garatu nahi du, informazio adimentsuko sistemak eratzeko eta datuak partekatzeko, Donejakue Bidearen kudeaketa eraginkor eta adimentsurako, elkartearen sarturik dauden udalerrietan.



EUROPAKO PROIEKTUAK

2022an, bi proiektu izan dira indarrean: Jacob@ccess eta Kintoan Barna.

- **Jacob@ccess (Donejakue Bidea):** : Iruñeko Udalak Jacob@ccess proiektuaren bazkide gisa parte hartzen du. Proiektu hori Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaindiko Lankidetzeta Programak (POCTEFA 2014-2020) finantzatzen du, EEGF funtsen bidez. 2022ko martxoan, proiektua bururaino eraman da, Jacob@ccess proiektuaren protokoloa sinatuz. Agiriaren xedea da mugaz gaindiko azpiegitura-sarearen etorkizuneko ekintzak laguntzea (degaitasuna duten pertsonen mugaz gaindiko lurraldeetako kultura eskuragarriago izan dezaten). Donejakue Bideari lotuta, lankidetzan dihardu irisgarritasun materialaren inguruan (higiezinen eta higigarrien antolara) eta irisgarritasun immaterialaren inguruan (irtenbide museografikoak eta bizipenei lotutakoak, guztiak ere berritzaileak, propio diseinatuak degaitasuna duten pertsonen erabil ditzaten).
- **Kintoan Barna:** proiektuaren helburua da Kintoko lurraldeak duen erakargarritasuna garatzea, dinamizazio eta errebalorizazio ekonomikoko ekintzak garatuz, bizilagunen, gizarte-eragileen eta bisitarien bidez. 2022an, proiektua amaitu da.

HELMUGA EGITURATZEA

- **TURISMO BULEGOA ETA ULTREIA DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA**
Arreta eta sustapen turistikoko zerbitzuak bi egoitza ditu: Turismo Bulegoa eta, Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa. Zerbitzuak bi xede ditu: lehenik eta behin, jarduerak eta produktu turistikoa jakinarazi eta sustatzea, bai eta Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuak eta hiriko turismo-sektoreak garatutako programak ere; eta, bigarrenik, hiriaren komunikazio- eta sustapen-tresnak kudeatzea, hiriaren irudia eta kontakizun turistikoa finkatze aldera. Kudeaketa Dinamic Imizcoz Servicios Culturales SLU enpresak egiten du 232.825,49 euroan.
- **SAN BARTOLOME GOTORLEKUA, IRUÑEKO GOTORLEKUEN INTERPRETAZIO ZENTROA**
Iruñeko Udalak San Bartolome gotorlekua du, hau da, Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroa. Oinarrizko gunetzat jotzen da Iruñeko produktu turistikoa egituratzeko eta, zehatzago, *Iruña harresiak* dira produktua dinamizatzen. Iruñeko gotorlekuei buruzko erakusketa dago eta *Iruñeko Harresiak* ibilbidearen abialekua da, bai eta *Iruñeko blokeoa* ihes-jokoaren hasiera ere. Zerbitzua lizitaziora atera da 2022. urterako, luzatzeko aukerarekin. ITARCA RIOJA enpresari esleitu zaio maiatzean, 18.815,98 €-an.
- **SAN FERMIN ESPERIENTZIA ZENTROA**
2022. urtean, eta Iruñeko Udalak Iruña SF365 PSTD programa kudeatze aldera hartutako konpromisoen baitan, guardia-gorputza zaharberritzeko lanak hasi dira, San Fermin esperientzia zentro gisa erabiltzeko.
- **BESTE HELMUGA BATZUEKIKO SINERGIAK INDARTZEA. DONEJAKUE BIDEKO UDALERRIEN ELKARTEA**
Iruñeak parte hartzen du Donejakue Bideko Udalerrien Elkarreak bultzatutako bileretan. Iruñeko alkate Enrieu Maya da elkartearen presidentea. Iruña 2018az geroztik da elkartearen kidea.
- **BIZIKLETAK APARKATZEKO LEKU GEHIAGO INGURU TURISTIKOETAN**
Igloo moldeko beste bi aparkaleku jarri dira, Nbici udal aparkalekuen sarearen barnean mugikortasun turistikoa sustatzeko asmoz Tres Reyes eta Iruña Park hotelen inguruan.



— AHOGOZATU ESPAINIA

- Madrid Fusión Nazioarteko Gastronomia Biltzarrean parte hartu da, martxoaren 28tik 30era, IFEMA azoka-barrutian. Helburua sareari lotutako gastronomia-helmugak ikusaraztea da. Ekimenean, ekitaldi asko egin ziren, hala nola produktuen aurkezpenak, dastatzeak, show cookings saioak, ardo-dastatzeak, mahaia inguruetan parte hartzea, elkarrizketak, eta hitzorduak gastronomian eta bidaietan espezializatuak dauden agentziekin, eta publiko parte-hartzaileari ere arreta eman zitzaion; nagusiki, azken publikoa izan zen.
- Ibilbide gastronomikoa Espainian barna 2022: Helmuga gastronomikoak webgunean eta sare sozialetan jakinarazi eta zabaltzeko kanpaina da. Haietako bakoitzaren ezaugarriak nabarmentzen dira, produktu identitarioak, lurraldea, errezetak, gastronomia-lekuetako esperientziak, etab.
- Frantziako merkaturako presstrip batean parte hartu da Iruñean eta Tuteran, irailaren 22tik 24ra. 5 kazetari/influentzer frantsesek parte hartu dute bi hiri gastronomiko ezagutzeko: Iruña eta Tuter.

HELMUGA-ADIMENA

— TURISMOAREN BEHATOKIA

— TURISMO BULEGOA

	2022. URTEA	2021. URTEA	Aldea %
Bisitari nazionalak, guztira	46.606	40.848	+ 14,09
Nazioarteko bisitariak, guztira	29.844	12.134	+ 145,99
Bisitariak, guztira	76.450	52.982	+ 44,29

	Nazionala	Nazioartekoa	Guztira 2022
Urtarrila	821	269	1.090
Otsaila	1.397	405	1.802
Martxoa	2.294	782	3.076
Apirila	4.297	2.514	6.811
Maiatza	2.246	3.696	5.942
Ekaina	2.451	2.885	5.426
Uztaila	5.661	3.804	9.465
Abuztua	11.815	5.744	17.559
Iraila	5.444	5.253	10.697
Urria	4.786	3.003	7.789
Azaroa	2.365	914	3.279
Abendua	3.029	575	3.604
GUZTIRA	46.606	29.844	76.450

Mantendu da Madril, Katalunia eta Valentziako Erkidegotik etorritako bisitarien joera. Bisitari gehiago ere etorri dira bai Andaluzia, Euskadi eta Gaztela-Mantxatik, bai Gaztela eta Leonetik.



Turismo nazionala ez bezala, nazioartekoa goi-denboralditik kanpo mugitu ohi da, hau da, denboraldi ertainean; bereziki, irail eta urrian, eta, are, baita apirilean ere. Aitzitik, eta Frantzia kenduta, ez dira izaten ohiko bisitariak goi-denboraldiko hilabeteetan.

Edonola ere, gehien bisitatu gaituzten 3 herrialdeak, honakoak dira:

- Frantzia: 11.411 bisitari (nazioarteko bisitarien % 38,23)
- Alemania: 3.341 bisitari (nazioarteko bisitarien % 11,19)
- AEB: 2.200 bisitari (nazioarteko bisitarien % 7,37)

Hala ere, nabarmentzekoa da, halaber, bisitari gehiago etorri izana Holandatik, Erresuma Batutik, Italiatik eta Belgikatik. Horrekin zerikusia izan dezake hegaldi erregularra izateak hurbil dauden aireportuetatik (Gasteiz, Bilbo eta Zaragoza) herrialde haietara. Dena den, egia ere bada bisitari kopuru handia etortzen dela autokarabanan gure hiriraino.

ULTREIA, DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

	2022	2021	Aldea
Arreta kop. guztira	3.009	3.178	-% 5,3
Bisitari nazionalak, guztira	3.238	5.109	-% 36,6
Nazioarteko bisitariak, guztira	2.835	1.652	+ % 71,6
Bisitariak, guztira	6.073	6.761	-% 10,2

Ultreiako bisitari nazional gehienak Nafarroakoak dira eta, ondotik, Katalunia eta Madrilgoak. Beraz, eutsi egin zaio azken urteotan izandako joerari. Nazioarteko turista gehienak, berriz, Frantziatik datoz eta, ondotik, AEBtik eta Alemaniatik.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da, halaber, Holandako bisitarien kopurua, aunitz handitu baita 2021en aldean, bai eta Erresuma Batukoa ere.

— SAN BARTOLOME GOTORLEKUA

San Bartolomek Gotorlekuak 6.395 pertsona hartu zituen 2022an, eta haien % 72 turista nazionalak izan ziren, eta gainerako % 28, berriz, nazioartekoak. Datuak 2022ko maiatz-urrikoak dira.

— JESUS ETA MARIA ERROMES-ATERPETXEA

2022an, 12.025 lagunek hartu zuten ostatu aterpetxean; haietatik, 8.958, atzerritarak. Maiatz, abuztu eta apirila izaten dira jendetsuenak.

— PADERBORNEKO ERROMES-ATERPETXEA

2022. urtean, aterpetxea zabalik egon zen maiatzetik urrira bitarte, eta 3.010 erromesek hartu zuten ostatu. % 29 Alemaniatik zetozen.

— AUTOKARABANENDAKO EREMUA

2022an, 10.275 erabiltzaile izan ziren Trinitariosko autokarabanendako eremuan. Hau da, 2019an baino gehiago. Ekainetik urrira, okupazio-tasa % 100 izan zen. Autokarabana gutxieneko hilabeteak urtarrila eta otsaila dira.



— SANFERMINEN ERAGIN EKONOMIKOARI BURUZKO AZTERLANA

2002ko Sanferminen eragin ekonomikoari buruzko azterlana egin da, analisi kuantitatiboan eta kualitatiboan oinarriturik, interes-taldetzat zehaztutako pertsonen tipologiei zuzendua (turista nazionalak, nazioarteko turistak eta Nafarroan bizi diren pertsonak). Azterlanak helburu du Sanferminetan bisitatzen duen jendeak Iruñean eragindako gastu-bolumenari buruzko informazio eguneratua eta benazkoa izatea eskura, izan turistak, izan Iruñeko bizilagunak edo izan Nafarroako gainerako herrietako bizilagunak.

SEKTOREZ SEKTOREKO PRESTAKUNTZA

Ekitaldi turistikoetako karbono-aztarna: Online plataforma bat jarri da abian, Iruñean egindako biltzarretako karbono-aztarna neurtzeko. Ekintza karbono-aztarna murrizteari buruzko prestakuntza bati dago lotua.

PRODUKTU TURISTIKOAK

— MICE MAHAIA

Iruñeko Udala Spain Convention Bureau elkartean dago sarturik. Elkarlearen xedea da entitate horri lotutako helmugak estatuan eta nazioartean sustatzea bileretako turismoaren segmentuaren barnean. 3.515 euroko kuota ordaintzen da urtean. Udalak, gainera, MICE mahaia izeneko lan-taldea bultzatzen du, kidea baita, biltzar eta bileretako sektorean ari den turismo-sektoreko elkarleak, Nafarroako Gobernuak eta Baluarte Biltzar Jauregiak osatua. Beste lankidetzak-ildo garrantzitsu bat da ekitaldi eta jardueretan, eta bisita gidatuak, material turistikoa eta RENFErekiko deskontuak eskaintzen ditu. 2022an, honako ekitaldiotan parte hartu da:

- Jardunaldi Korporatibo Nazionala, Santiago de Compostelan, urriaren 21etik 23ra.
- SCBri lotutako helmugak sustatzeko jardunaldia, estatuko bezeroari zuzendua.
- IBTM, Bartzelonan, azaroaren 28tik 30era.

— OSASUN TURISMOA. OSASUN-KLUSTERREAN PARTE HARTZEA

Iruña osasuna arloko kluster-mahaian da partaide, klusterra bera sortu zenetik. 2022an, Iruñeak hainbat sustapen-jarduera bultzatu ditu Estatu Batuetako eta Latinoamerikako merkatuan.

DONEJAKUE BIDEA

Iruñeko Turismo Plan Estrategikoak ezarritako helburu orokorrak dira okupazio-mailak hobetzea, hirian gastua egitea eta, oro har, turismoaren eragin ekonomikoa hiriko ekonomian. Udako hilabeteetan publiko kopuru garrantzitsua badugu ere, hein handian hiriko kultur jardueren eskaintzak eraginda (harresietako jaialdia, Flamenco On Fire, etab.), ostatu-gauen eta bisitarien kopuruak behera egiten du uztailearen bigarren hamabostaldian, eta ia ez dago bidaia eragine duen kultur programaziorik. Hori guztia dela eta, Urte Xakobeoaren karira, programazioa garatu da Santiago Egunean, Musika Bideko lehenean izenburupean.

Dinamizazio-jarduerak

— 2022ko Aste santua

Dinamizazio-jarduerak egin dira *Donejakue Bidea* gaiaren inguruan: Bideko ginkana, eta, horrez gain, ardo-dastatzeak Jesus eta Maria aterpetxean.

— 2022ko Uda

Honako jarduerak hauek eskaini dira:



Familiendako jarduerak: eskaini diren jarduerak San Bartolome Gotorlekua dute ardatz, gunen inguruan egin dagoen kontratuaren barnean daude kudeatuak.

- Familiendako ginkana: aurkitu dorrea
- Antzara-jokoa
- GOTORLEKUA ikusteko bisita gidatua
- Pintura-lantegia
- Buztin-lantegia
- Pista-jokoa: *lbiltaria, ez dago biderik*

Beste jarduera batzuk:

Bisita gidatu antzeztua: kalizaren lapurreta

Musika Bideko lehenean: ekimenak jarduera-sorta zabala dauka eta 4 egunez egin dira Donejakue Bidearen inguruan:

- Bisita gidatu musikatuak uztailaren 22an, 23an eta 24an, bi saio eguneko.
- Gaueko kontzertuak katedralean, San Lorentzo eta San Saturnino elizan, uztailaren 22an, 23an eta 24an, 20:00etatik 20:30era.
- Abesbatzen emanaldiak uztailaren 23an, 24an eta 25ean, 12:00etatik 13:00etara.
- Kontzertu bereziak Santiago egunean (uztailak 25), San Lorentzo eta San Saturnino elizetan, 20:00etan.
- Gauraldia katedralean, uztailaren 25ean.

Bideko ardo-dastatzeak: 6 dastatze egin dira ziudadelan, udan zehar.

Katedraleko gauraldiak: bi bisita gidatu berezi gaueko ordutegian Iruñeko katedrala ikusteko.

BABESLETZAK

— NAVARTUR

Events&Holidays S.L.U enpresak, hau da, Navartur Nazioarteko Turismo Azoka Baluarte Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditorioan sustatu eta antolatu duenak (2022ko otsailaren 25a, 26a eta 27a) nazioarteko Gastronomia Biltzarra antolatu du otsailaren 25ean; Encuentro B2B Navartur Meetings. 2.000 euroko babesleta eman zen, BEZa barne.

— **NORT FESTIVAL**, Estatuko Diseinu eta Gastronomia Topaketa otsailaren 18an eta 19an egin da Baluartean, Iruñean. 5.000 €-ko babesletza jaso dute, + BEZa.

Topaketaren helburua da hiriko turismo gastronomikoan dagoen eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntzea eta joaera berriak ezagutzeko, topaketan tour-operadoreak, bidaiari-agentziak, marketin-aholkulariak, ekoizle publikoak eta pribatuak biltzen baitira, bai eta ostalariak, sukaldariak, enologoak eta kazetariak. Sektorea dagoeneko gastu turistikoaren % 40 da.

— GASTRO TALENTUAK

CM Gipuzkoa-k 2022ko Gastro talentuak ekimena antolatu du 2022ko ekainaren 15ean Iruñeko Tres Reyes Hotelean. 3.000 €-ko babesletza jaso du + BEZa. Helburua da hiriak helmuga turistiko gisa duen kokapena hobetzea; eta bestalde, ikusgaitasuna ematen zaio sukaldaritzaren sektoreari, oro har, eta Nafarroako sukaldari gazteei, bereziki.

— GASTRO SUMMIT

Sumando TV eta WEB S.A.U., Gastro Summit topaketaren bigarren edizioaren sustatzaile eta antolatzaile nagusia da, 2022ko urriaren 26an eta 27an Baluarte Biltzar Jauregi eta Auditorioan egindakoa. Bada, 6.000 €-ko babesletza jaso du + IVA, aipatu topaketa antolatzeagatik.

Ekimenak gastronomia hartzen du ardatz, garapen jasangarriko tresna izan dadin; eta horretarako, sektorearen balio-kate osoa erabili nahi du, ekoizleen, egileen, jatetxeen, hotelarien eta azken kontsumitzaileen arteko harremanak estututa.



2.2.4. AHOLKULARITZA JURIDIKOA

2022. urtean, zerbitzu juridikoak administrazio-fasean zeuden honako errekurtsu hauen defentsaz arduratu ziren.

Berraztertze-errekurtsuak. Guztira, 2.577 errekurtsu izapidetu ziren, eta 2.125 ebatzi. Ebatzitako errekurtsuen emaitzei dagokienez: 63 ez dira onartu (% 2,44), 1.062 ezetsi dira (% 41,21), 960 baietsi dira (% 37,25), 41 partzialki baietsi dira (% 1,59) eta 1ek atzera egin du (% 0,03). Ebazteko: 450.

Gora jotzeko errekurtsuak, Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuak eta 2022. urtean Udal honetara igorriak, errekurtsua jaso duen Administrazioa izateagatik; 1.197 jaso dira, eta haietariko:

- 37tan (% 3,09) jarduketak artxibatu dira. 15, 2021eko errekurtsuei dagozkie, 2022an Udalera bidaliak; 22, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 205 (% 17,12) ezetsi dira. 27, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, Udal honetara 2022. urtean igorriak; 178, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 61 (% 5,09) baietsi dira. 12, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, 2022. urtean Udalera bidaliak; 49, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 38 (% 3,17) partzialki baietsi dira. 9, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, Udal honetara 2022. urtean igorriak; 29, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 182tan (% 15,20) uziak aitortu dira. 16, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, 2022. urtean Udalera bidaliak; 166, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 25 (% 2,08) ez dira onartu. 6, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, Udal honetara 2022. urtean igorriak; 19, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.
- 2k (% 0,60) atzera egin dute, biak 2022. urteari dagozkionak.
- 930 (% 77,69) ebazteko daude. 2, 2021. urteko errekurtsuei dagozkie, Udal honetara 2022. urtean igorriak; 928, 2022. urteko errekurtsuei dagozkie.

Era berean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak 2019., 2020. eta 2021. urteetan erregistratutako 163 ebazpen igorri ditu, eta haietatik:

- 3tan (% 1,84) jarduketak artxibatu dira, 2021. urtean erregistraturiko errekurtsuei dagozkienak.
- 74 (% 45,39) ezetsi dira. Haietako 1 2019. urtean erregistratutako errekurtsu bati dagokio; haietariko 4, berriz, 2020. urtean erregistratutako errekurtsuei dagozkie; haietariko 69 2021. urtean erregistraturiko errekurtsuei dagozkie.
- 39 (% 23,92) baietsi dira, 2021. urtean erregistratutako errekurtsuei dagozkienak.
- 16 (% 9,81) partzialki baietsi dira, 2021. urtean erregistratutako errekurtsuei dagozkienak.
- 10etan (% 6,13) uziak aitortu dira, 2021. urtean erregistratutako errekurtsuei dagozkienak.
- 16 (% 9,81) ez dira onartu, 2022. urtean erregistratutako errekurtsuei dagozkienak.



2022an, zerbitzu juridikoak Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak defendatzeaz arduratu ziren administrazioarekiko auzien ordenako, ordena zibileko, merkataritza-ordenako, zigor-ordenako eta lan-ordenako epaitegi eta auzitegietan garatutako 627 prozeduratan (450 nagusi eta 177 intzidental). Prozedura motaren arabera, auto nagusi eta intzidentaleko defentsa egin zen administrazioarekiko 257 auzitan, ordena zibileko 62tan, zigor-ordenako 30etan eta lan arloko 278tan.

Gainera, legelari-laguntza ere eman zen udal-langileek zigor-prozeduretan ikertu gisa emandako deklarazioetan.

Defendatutako 627 administrazioarekiko auzien prozeduretatik, prozedura zibiletatik eta zigor-prozeduretatik 549k zenbateko zehaztugabea zuten. Beste 78 prozedurek zenbateko zehaztua zuten; orotara, 9.730.313,60 euro.

Administrazioarekiko auzien arloan honakoak amaitu ziren:

- 106 (% 56,18) prozedura nagusi. Haietariko 51 (% 48,11) udal interesen aldekoak izan ziren eta 55 (% 51,89) aurkakoak.
- 52 (% 73,23) prozedura intzidental (jarduketak baliorik gabe uztea, titulu judizialen exekuzioa, apelazio-errekurtsoak, kostuen tasazioen inpugnazioak...); haietariko 23 (% 44,23) udal interesen aldekoak izan ziren eta 29 (% 55,77) aurkakoak.

Arlo zibilean, honakoak amaitu ziren:

- 32 (% 51,61) prozedura nagusi; haietariko 28 (% 87,50) udal interesen aldekoak izan ziren eta 4 (% 12,50) aurkakoak.
- 16 (% 47,06) prozedura intzidental; haietariko 15 (% 93,75) udal interesen aldekoak izan ziren eta 1 (% 6,25) aurkakoak.

Zigor arloan honakoak amaitu ziren:

- 5 (% 23,81) prozedura nagusi, 5ak ere (% 100) udal interesen aldekoak.
- 3 (% 33,33) prozedura intzidental, 3ak ere (% 100) udal interesen aldekoak.

Lan arloan:

- 157 (% 73,02) prozedura nagusi; haietariko 29 (% 18,47) udal interesen aldekoak izan ziren eta 128 (% 81,53) aurkakoak.
- 36 (% 57,14) prozedura intzidental; haietariko 21 (% 58,33) udal interesen aldekoak izan ziren eta 15 (% 41,67) aurkakoak.

Kostuei dagokienez, Iruñeko Udalak eta haren erakunde autonomoek 76.620,25 euro eskuratu eta 22.088,36 euro ordaindu dituzte.

2.3. ZERBITZU OROKORRAK

2.3.1. GIZA BALIABIDEAK

UDAL-PLANTILLA

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
IRUÑEKO UDALA						
Funtzionarioak	877	887	863	818	794	810
Kontratu administratiboa duten langileak	411	361	378	373	413	499
Langile kontratudunak		180	182	180	14	545
GUZTIRA	1.288	1.428	1.423	1.371	1.221	1.854
HAUR ESKOLAK						
Funtzionarioak	49	43	36	34	28	22
Kontratu administratiboa duten langileak		79	81	93	55	46
Langile kontratudunak		71	70	75	99	133
GUZTIRA	49	193	187	202	182	201
HIRIGINTZA GERENTZIA						
Funtzionarioak	14	14	18	20	19	18
Kontratu administratiboa duten langileak	9	11	8	6	8	7
GUZTIRA	23	25	26	26	27	25

2022an, 1.000 kontratu sinatu ziren Iruñeko Udalean, 50 langilek erretiroa hartu zuten eta ezintasun iraunkorreko prozesu bat abiatu zen.

Haur Eskoletan, 489 kontratu sinatu ziren, 8 langilek erretiroa hartu zuten eta ezintasun iraunkorreko prozesu bat abiatu zen. Eta Hirigintza Gerentzian ez zen kontratu berririk sinatu eta langile batek erretiroa hartu zuen.

Iruñeko Udaleko 2022ko hautapen-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Albaitaria. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Udal instalazioen funtzionamenduko laguntzailea. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, Musika-hizkuntzako espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Musika Eskolako irakaslea, fagoteko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Artxibozaina. Oposizioa Udalean sartzeko.
- Lorategietako Zerbitziburua. Oposizioa Udalean sartzeko.
- Musika Eskolako irakaslea, baxu elektrikoko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, bateriako espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, klarineteko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, gitarra elektrikoko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, saxofoiko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Musika Eskolako irakaslea, txistuko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Merkataritzako teknikaria. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.



- Musika Eskolako irakaslea, txistuko espezialitatean. Aldi baterako kontratazio-zerrendak Nafar Lansarerekin.
- Industria-ingeniari teknikoa. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Zurgintzako monitorea. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Hargintzako monitorea. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Lorezaintzako monitorea. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Familia-langilea. Aldi baterako kontratazio-zerrendak.
- Udaltzaingoa. Lehiaketa eta berariazko lehiaketa.
- Udaltzaina. Kategoriaz igotzeko lehiaketa.
- Ikuskatzaileordea. Oposizio-lehiaketa
- Azpiegitura-burua. Oposizioa:

LAN-ESKAINZA PUBLIKOA

Udalak eta haren erakunde autonomoek lan-eskaintza publikoa onetsi zuten, honako lanpostu hauek sartuta:

Iruñeko Udala. Lanpostuak berritzea

- Udaltzaingoko udaltzainak, 15 lanpostu
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikariak, 14 lanpostu.
- Zuzenbideko lizentziaduna, 6 lanpostu.
- Hiri Kontserbazioko mantentze-lanetako laguntzailea, lanpostu 1
- Desinfekzio eta mantentze-lanetako ofiziala, lanpostu 1.
- Gizarte-enpleguko ofizial
- Gizarte-langilea, 3 lanpostu.

Iruñeko Udala. Lanpostuak egonkortzea (*)

- Arkitektoa, 3 lanpostu.
- Eraikuntzako lantegi-eskolako zuzendaria, lanpostu 1
- Ekonomialaria, lanpostu 1
- Botikari kudeatzailea, lanpostu 1
- Udaleko kontu-hartzailea, lanpostu 1.
- Zuzenbideko lizentziaduna, 3 lanpostu.
- Psikologoa, lanpostu 1
- Teknologia berrietako teknikaria, web-arduraduna, lanpostu 1.
- Kulturako teknikaria, goi-mailako tituluduna, 2 lanpostu.
- Mugikortasun-koordinatzailea, lanpostu 1.
- Estrategiako eta Proiektuetako goi-m. tek. 2 lanpostu
- GGBB eta antolamenduko goi-mailako teknikaria, 2 lanpostu
- Hezkuntza Programetako koordinatzailea, lanpostu 1
- Lantegi-Eskolako zuzendaria (lorenzaintza), lanpostu 1
- Aparkaleku-zerbitziburua, lanpostu 1
- Turismo-zerbitziburua, lanpostu 1.
- Mugikortasun-teknikaria, lanpostu 1.
- Lorezaintzako erdi-mailako tituluduna, lanpostu 1.
- Ingurumen Hezkuntzako erdi-mailako tituluduna, 3 lanpostu
- Arkitekto teknikoa, 5 lanpostu.
- Industria-ingeniari teknikoa, lanpostu 1
- Herri-lanetako ingeniari teknikoa, lanpostu 1.
- Kimika-ingeniari teknikoa, 3 lanpostu.

- Tributu-ikuskatzailea, 2 lanpostu.
- Arte eta lanbideetako irakaslea (marrazketa), lanpostu 1
- Kontrabaxuko irakaslea Musika Eskolan (LP), lanpostu 1
- Gitarra elektrikoko irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Bateriako irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Klarineteko irakaslea Musika Eskolan, 2 lanpostu
- Koru Taldeko irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Gitarra irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Gitarra Elektrikoko irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Musika-hizkuntzako irakaslea Musika Eskolan, 3 lanpostu.
- Pianoko irakaslea Musika Eskolan, lanpostu 1
- Lantegi Eskolako irakaslea, lanpostu 1.
- Enplegu-teknikaria, 2 lanpostu.
- Teknikaria Turismo Enpresetan eta Jardueretan, lanpostu 1.
- Laneko arriskuen prebentzioko teknikaria, lanpostu 1
- Erdi-mailako tituluduna, osagarriarekin. Gizarte Lana, 13 lanpostu.
- Erdi-mailako tituluduna, bateraezintasunarekin, 5 lanpostu.
- Laborategiko teknikari-laguntzailea, lanpostu 1.
- Gizarte Enpleguko arduraduna (jantoki soziala), lanpostu 1.
- Gizarte Enpleguko arduraduna (jantzigintza), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (koadernaketa), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (garbiketa), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (obrak), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (ibaiak eta mintegiak), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (soldadura), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko arduraduna (tapizgintza), lanpostu 1
- Desinfekzioa, mantentze-lanetako arduraduna, lanpostu 1.
- Lantegi Eskolako monitorea (lorenzaintza), lanpostu 1
- Lantegi Eskolako monitorea (soldadura), lanpostu 1
- Administrari-ofiziala - administrari-ofiziala osagarriarekin, 15 lanpostu
- Ikuskatzaile-ofiziala (hirigintza), 2 lanpostu
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria, 19 postu.
- Administrari laguntzaile eta administrari laguntzaile osagarriarekin, 23 lanpostu
- Zoonosi laguntzailea, 2 lanpostu
- Udal-instalazioetako funtzionamendu-laguntzailea, 47 lanpostu
- Hiri Kontserbazioko Mantentze-lanetako laguntzailea, 6 lanpostu
- Ehorzle laguntzailea, 5 lanpostu.
- Ikuskatzaile laguntzailea (eraikinetako mantentze-lanak), lanpostu 1
- Ikuskatzaile laguntzailea (Parke Mugikorra), lanpostu 1.
- Lantegi Eskolako monitorea (igeltserotza), 2 lanpostu
- Lantegi Eskolako monitorea (biltegia eta harria), 2 lanpostu
- Lantegi Eskolako monitorea (zurgintza), 2 lanpostu
- Lantegi Eskolako monitorea (askotariko mantentze-lanak), 2 lanpostu
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Jantoki Soziala), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Elektrizitatea), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Koadernaketa), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Iturgintza), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Garbiketa), lanpostu 1
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Obrak), 2 lanpostu



- Gizarte Enpleguko ofiziala (Margoketa), 4 lanpostu
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Ibaia), 3 lanpostu
- Gizarte Enpleguko ofiziala (Soldadura), lanpostu 1
- Desinfekzio eta mantentze-lanetako ofiziala, 2 lanpostu.
- Erreprografiako mandataria, 2 lanpostu.
- Udal-bulegoetako mandataria 12 lanpostu
- Familia-langile lanaldi partzialean, 18 lanpostu
- Laborategiko zerbitzu anitzeko peoia, lanpostu 1
- Zerbitzu anitzeko peoia, hilerriko atezaina, lanpostu 1

(*) Barne dira Hirigintza Gerentzian LEPen egonkortzerako atera diren bost lanpostuak, Iruñeko Udalak kudeatutakoak, aipatu erakunde autonomotik kudeaketarako mandatua jasotzearen ondorioz: Arkitekto, 2 lanpostu; Atal Juridikoko TAP lanpostu 1 (Zuzenbidean lizentziaduna) eta administrazio-laguntzailea, 2 lanpostu.

Haur Eskolak. Lanpostuak egonkortzea

- Garbiketa-, sukaldaritza- eta mantentze-lanetako laguntzailea, 14 lanpostu
- Sukaldaria, 5 lanpostu
- Haur Eskolako zuzendaria, 4 lanpostu
- Haur Eskolako hezitzailea, 54 lanpostu
- Psikologoa, lanpostu 1

PRESTAKUNTZA

2022. urtean zehar, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, prebentzio-prestakuntzarako hainbat ikastaro eman dira, bai eta hainbat udal alorretako langileendako ikastaro berariazkoak ere.

Prebentzioaren arloan, honako prestakuntza-ekintzak eman ziren:

- Errespetuzko komunikazioa eta asertibitatea.
- Lan-ongizatea eta pertsonen arteko harremanak kudeatzea
- Emozioen kudeaketan eta ongizate psikologikoan trebatzea
- Gizarte-trebeziak osasun mentaleko patologia duten pertsonendako tratuan eta arretan
- Sute-prebentzioa eta su-itxalgailuak maneiatzea.
- Koordinazioa eta prebentzioa hiriguneetako suteetan. (Udaltzaingoarendako ekintzak)
- Orga jasotzailearen maneia
- Manipulagailu teleskopikoaren maneia
- Lan arriskuen prebentziorako oinarrizko ikastaroa
- Gorputz jarreraren higiena eta gihar eta hezurretako nahasmenduak prebenitzea.
- Gorputz jarreraren higiena eta gihar eta hezurretako nahasmenduak berariaz prebenitzea pertsonak mugitzeko.
- Arreta integrala, pertsona erdigunean jarrita.

2022an, 13 prestakuntza-ekintza antolatu ziren. 186 pertsonak parte hartu zuten (84 emakume eta 101 gizon).

Sentsibilizazio-ekintzak

Mutua Navarrak sentsibilizazio-ekintzak eskaintzen dizkie udal-langileei, mutuek laneko osasuna sustatzeko duten berezko eginkizunaren baitan.



Hona hemen zer ekintza eskaini ziren:

- Ongizate mentala zure taldearekiko harremanean
- Bizkarra zaintzeko eskola (oinarrizko maila eta aurreratua)
- Emozioak kudeatzeko eta maneiatzeko tresna praktikoak
- Ondoez emozionala duten zure taldeko pertsonak detektatzea eta babestea
- Alkohol/droga kontsumoa eta joko-menpekotasuna
- Une osasungarrien metodologiaren aurkezpena
- IKTUSa prebenitzea
- Komunikaziorako trebetasunak, zure taldearekiko
- Arduradunendako sentsibilizazioa
- Sentsibilizazioa, Enpresa-jardueren Koordinaziorako

Udalak, guztira, ekintza horietako 57 leku erabili zituen.

Bestalde, 2022an, Haur Eskolen Erakunde Autonomoan honako prestakuntza-ikastaro hauek antolatu ziren:

- Hizkuntza bimodala
- Jardunbide egokiei buruzko jardunaldia. Ahozko eta idatziko hizkuntzaren estimulazioa
- Neurozientzian, emozioan eta pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza.
- Gorputz-jarreraren higieena, gihar eta hezurren nahasmenduen prebentzioa
- Datuen babesa.
- Lan-taldeak kanpoaldean Heike Freirerekin
- Pedagogia sistemikoa
- Kontakizun partekatuak
- Ahozko transmisioa, ipuin klasikoak, haien garrantzi sinbolikoa eta nola sartu ikasgelan
- Psikopatologiaren eta arrisku psikosozialen prebentzioa eta detekzioa
- Familia-bitartekaritza eta -laguntza.

Era berean, aipatu urteetan, Hirigintza Gerentziako Erakunde Autonomoko langileek hainbat ikastarotan parte hartu zuten: euskara, hirigintza-planeamendua, hirigintza-kudeaketa eta hirigintza-desjabetzeak.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

UDAL-LANGILEENDAKO INFORMAZIOA

2022an, 453 pertsonari eman zaie informazio hori: 244 emakumeri eta 209 gizoni, hain zuzen.

Gehienak lan-kontratudunak izan dira, Udalarekin lehen aldiz kontratua sinatu dutenak edota lanpostuz aldatutakoak.

Halaber, informazio hori eman zaie Udaleko hainbat zerbitzutan praktikak egin dituzten ikasleei.

Gizarte Enplegu Babestuaren barneko programen bidez kontratatutako pertsonen era programatuan ematen zaie informazioa lehen kontratu-egunean, 2 orduko saioan, eta arrisku eta prebentzio-neurriei buruzko azalpenak emateaz gain, oinarrizko nozioak ematen zaizkie Laneko Arriskuen Prebentzioaz:

- 2022an: 100 lagun. Gizarte Enplegu Babestua: 84 lagun, Gizarte Enplegu lantaldeetan (50 emakume eta 34 gizon), Interes Orokorreko Obrak, 7 lagun, (0 emakume eta 7 gizon), eta Elkarkide, 9 lagun (4 emakume eta 5 gizon).



ARRISKU-MAPAK

2022an zehar, honako alor eta/edo zerbitzu hauetako arriskuen ebaluazioa eguneratu da:

— Osasun eta ingurumeneko alorra:

- Elikagai-ikuskaritza
- Zoonosia (minizoo eta animaliak artatzeko zentroa)
- Epidemiologia.
- Desinfekzioarako eta intsektu eta arratoiak hiltzeko parkea.
- Hilerria.

ISTRIPUEN IKERKETA

2022an zehar, Iruñeko Udalean 91 lan-istripu gertatu dira, baja medikoa behar izan zutenak, eta 96 lan-istripu, laguntza medikoa behar izan zuten arren, baja medikorik behar izan ez zutenak.

AZTERKETA MEDIKOAK

2022an, osasun-azterketa egiteko 782 hitzordu egin zitzaizkien udal-langileei, eta 592 langile joan ziren; hau da, deitutakoen % 76 (barne daude EMAD zerbitzuak eta PAMPLONA CENTRO HISTORICO SA - Iruña Biziberritzen)

KONTSULA MEDIKOAK eta LANBIDE-GAIXOTASUNAK

Osasuna zaintzeko azterketez gain, 2022an guztira 32 langile artatu ziren kontsulta medikoan (15 gizon eta 17 emakume).

2022an, ez da Lanbide Gaixotasuneko kasurik batere izan.

ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

2022an, Lanpostuak Egonkortzeko Prozesu Berezia jarri zen abian. Horretarako, Iruñeko Udaleko eta erakunde autonomoetako lanpostu huts guztiak aztertu behar izan ziren, *enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legean* ezarritako betebeharrak betetzen ote ziren ikusteko, Egonkortzeko Enplegu Publikorako eskaintzan sartze aldera.

Ondoren, aipatu prozesuan sarturiko lanpostu-deialdi guztiak prestatu eta argitaratu ziren.

Bestalde, 2022an zehar, Lanpostuak Berritzeko Lan Eskaintza Publikoaren prestaketa landu zen, bai eta Plantilla organikorako proiektua ere.

Bestalde, giza baliabideak kudeatzeko 2020-2023 urtetarako planaren baitan, 2022an alorrak presentzia malgutzeko eta kontrolatzeko proiektua landu du, norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egiteko neurriekin, langileei segurtasun juridikoa ematen aldera eta Iruñeko Udala tokia hobea izan dadin lan egiteko.

Era berean, Digitalizazio Planari eman zaio segida, ANIMSaren bidez web-deialdien aplikazioaren bigarren fasea garatuz; horri esker, deialdiak modu eraginkorragoan kudeatu dira eta, aldi berean, izangaiek aldi baterako kontratazioarako zerrendetan duten postua kontsultatzeko aukera izan dute.

Halaber, herritarrek enplegu publikorako deialdiei buruz egindako informazio-eskaerei erantzun zaie; eskaria nabarmen handitu da, enplegu publikoa egonkortzeko eta administrazio publikoetako behin-behinekotasuna murrizteko prozesua garatzearen bidez.

ERREGISTROAK

Erregistroak	2022	2021	2020	2019	2018	2017
Aurrez aurrekoa	43.909	41.223	41.411	48.003	38.839	40.935
Elektronikoa	58.633	51.628	32.726	14.390	9.096	6.413
Postala	3.568	3.668	5.380	7.208	7.994	8.849
SARRERAK, GUZTIRA	106.110	96.519	79.517	69.601	55.929	56.197

2.3.2. OGASUNA

2022ko AURREKONTUA

Iruñeko Udalak 2021eko abenduaren 31n onetsi zuen 2022ko ekitaldirako aurrekontu luzatua. Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

Erakundea	Gastuak
Iruñeko Udalaren aurrekontua	200.012.328,00 euro
Hirigintza Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua	10.760.900,00 euro
Udaleko haur-eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua	9.591.843,00 euro

GASTUAK

Kapitulua eta izena	Zenbatekoa (euro)		
	Udala	Hirigintza gerentzia	Haur-eskolak
A) ERAGIKETA ARRUNTAK			
1. Langileen gastuak	87.334.003,61	1.561.000,00	8.242.603,00
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	74.125.210,08	478.600,00	1.327.740,00
3. Finantza-gastuak	440.000,00	25.000,00	
4. Transferentzia arruntak	30.578.836,34	1.000,00	
B) 5. KONTINGENTZIA-FUNTSA	0,00		
C) KAPITAL-ERAGIKETAK			
6. Inbertsio errealak	1.183.277,97	6.995.300,00	21.500,00
7. Kapital-transferentziak	21.500,00		
8. Aktibo finantzarioak	376.000,00		
9. Pasibo finantzarioak	5.953.500,00	1.700.000,00	
GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	200.012.328,00	10.760.900,00	9.591.843,00

DIRU-SARRERAK

Kapitulua eta izena	Zenbatekoa (euro)		
	Udala	Hirigintza gerentzia	Haur eskolak
A) ERAGIKETA ARRUNTAK			
1. Zuzeneko zergak	54.518.000,00		
2. Zeharkako zergak	6.560.103,00		
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	28.348.500,00	296.100,00	1.061.000,00
4. Transferentzia arruntak	107.229.625,00	3.469.500,00	8.509.343,00
5. Ondare-sarrerak	2.980.100,00		
B) KAPITAL-ERAGIKETAK			
6. Inbertsio errealak besterentzea			
7. Kapital-transferentziak		6.995.300,00	21.500,00
8. Aktibo finantzarioak	376.000,00		
9. Pasibo finantzarioak			
DIRU-SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	200.012.328,00	10.760.900,00	9.591.843,00

AURREKONTU LUZATUAREN INBERTSIOAK

KODE EKONOMIKOA / PARTIDA	Zenbatekoa
619000 / ERABILERA PUBLIKOKO AZPIEGITURAK BIRJAR. INB.	583.277,97
623010 / SEMAFORO-INSTALAZIOAK	200.000,00
625000 / ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUAK	10.000,00
626000 / INFORMAZIO-PROZESURAKO EKIPOAK	130.000,00
632010 / ERAIKIN BIRJAR. INB.	150.000,00
632020 / ETXEBIZITZA BIRJAR. INB.	50.000,00
632060 / INSTALAZIOAK BIRJAR. INB.	60.000,00

Urtean barna, zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, urte horretako udal-aurrekontuko partidak igotzea eragin zutenak. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 63,80 milioi euroren aldaketak onartu ditu; hori horrela, 2022ko behin betiko aurrekontu bateratua 272,1 milioi eurokoa izan da.

BEHIN BETIKO AURREKONTU BATERATUAREN BILAKAERA [milioi eurotan]

2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
208,6	211,1	219,0	221,7	220,8	221,0	226,2	281,1	272,1

2021eko KONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2022an, 2021eko aurrekontu-likidazioa eta ekitaldi horretako kontu orokorra onetsi dira. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak (Udala, Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, Iruña Biziberritzen, ANIMSA eta Gayarre Antzokia fundazioa) 7,31 milioi euroko aurrekontu-defizit edo finantzaketa-premiarekin itxi zuen 2021. urtea, kontabilitate nazionalaren balioen arabera. 2021. urtearen amaieran diruzaintzako gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 28,6 milioi eurokoa zen, hau da, 7 milioi euro inguru gutxiagokoa 2020an baino (35,6 milioi).

Udalak, 2021ean, 19,3 eguneko epean ordaindu zien hornitzaileei batez beste, hau da, 2020an baino epe laburragoan (26,6 egun).

Hiruhilekoa	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengoa	21,17
Bigarrena	17,67
Hirugarrena	17,54
Laugarrena	20,70

GASTUAK, BIZTANLEKO

Kontzeptua	AG	Behin betiko aurreikuspena	Betebehar aitortuak	Zenbatekoa biztanleko
Zor publikoa	0	24.123.474,01	10.162.568,92	50,04
Oinarrizko zerbitzu publikoak	1	111.874.693,31	107.503.097,30	529,36
Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	2	54.446.107,36	52.413.340,63	258,09
Ondasun prod. lehenetsiak	3	56.244.426,36	52.269.944,96	257,38
Jarduketa ekonomikoak	4	8.216.609,71	7.674.495,39	37,79
Jarduketa orokorrak	9	26.229.928,09	25.087.314,62	123,53
Gastuak, guztira		281.135.238,84	255.110.761,82	1.256,20

DIRU-SARRERAK, BIZTANLEKO

Kontzeptua	Kap.	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortuak	Zenbatekoa, biztanleko
Zuzeneko zergak	1	54.518.000,00	54.259.566,59	267,18
Zeharkako zergak	2	6.560.103,00	13.386.625,62	65,92
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	29.713.100,00	41.658.956,22	205,13
Transferentzia arruntak	4	109.955.625,00	110.721.973,62	545,21
Ondareko diru-sarrerak	5	2.980.600,00	2.596.102,66	12,78
Inbertsio errealak besterentzea	6	9.700.000,00	5.820.058,67	28,66
Kapital-transferentziak	7	12.255.930,22	13.085.874,02	64,44
Aktibo finantzarioak	8	32.771.880,62	130.893,49	0,64
Pasibo finantzarioak	9	22.680.000,00	0	0,00
Diru-sarrerak, guztira		226.155.554,31	226.772.038,70	1.189,97

ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak, 2022ko urriaren 6an, hasiera batez onetsi zituen Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak arautzen dituzten Arauen artikuluen eta tarifa-eranskinen aldaketak, zeinak behar bezala argitaratu eta legezko epeak alegaziorik gabe iragan eta gero, 2023ko urtarrilaren 1ean sartu baitziren indarrean.

Honako hauek dira Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoak arautzen dituzten Arauetan aldatu diren artikulua eta tarifa-eranskinak, 2023ko urtarrilaren 1ean indarra hartuko dutenak:

0. ordenantza.	73. artikuluari 1.e idatz-zatia eta 5. idatz-zatia gehitu zaizkio. 75. eta 77. artikulua aldatu dira
1. ordenantza.	Hiri-unitateen karga-tasa aldatu da.
4. ordenantza.	2., 3., 5. eta 9. artikulua aldatu dira.
5. ordenantza.	8. artikulua aldatu da.
8. ordenantza.	2. artikulua, b letra, aldatu da.
9. ordenantza.	Tarifen Eranskineko I. epigrafearen titulua aldatu da.
20. ordenantza.	2. eta 6. artikulua aldatu dira. Xedapen Iragankorra indargabetu da.
22. ordenantza.	Salbuespen bat erantsi zaio 1. sektorerako (Alde Zaharra), tarifen eranskineko I.1 epigrafean bildua, eta II.1 epigrafean bildutako tarifen zenbateko murriztu da.
1. araua.	8.3 artikulua aldatu da, eta Tarifen Eranskineko I. epigrafearen titulua aldatu da, bai eta V.2.1, a(letra, epigrafea ere.
2. araua.	13. artikuluko 2 idatz-zatiko g) letra eta 3. idatz-zatia aldatu dira. Tarifen Eranskinean I., I.2 eta I.4 epigrafeetako tituluak aldatu dira. I.4, III.1, III.2 eta II.5.1a) letra epigrafeak aldatu dira.
4. araua.	4. artikulua aldatu da.
6. araua.	6. artikulua aldatu da.
7. araua.	5.3. artikulua eta Tarifen Eranskineko II.1 eta II.2 epigrafeak aldatu dira.
8. araua.	6.3. artikulua eta Tarifen Eranskineko III.1 eta III.2 epigrafeak aldatu dira.
9. araua.	Xedapen Iragankorra aldatu da, udaleko haur Eskolen doakotasuna handituta 2023-2024 ikasturterako.
10. araua.	9. artikulua eta Tarifen Eranskineko II.1 epigrafea aldatu dira.
16. araua.	artikulua eta Tarifen Eranskina aldatu dira

Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak arautzen dituzten arau guztien testu osoa eta eguneratua hemen kontsulta daiteke: www.pamplona.es

INBENTARIOA

INBENTARIOAREN BALIOA, GUZTIRA

2014. urtea	799.380.216,96 €
Udalbatza-aldaketa (2015/06/12)	793.784.739,44 €
2015. urtea	809.318.719,81 €
2016. urtea	814.241.335,51 €
Udal gastuaren atalean zehazturik daude funtzionamenduko eta mantentze-lanetako gastuak, bibliografia-funtsak erosteko gastuak eta irakurzaletasuna sustatzeko jardueren garapenean izandako gastuak. Aurrekontuaren % 100 gauzatu da.

“Arkitektura-inbertsioak” atalean ekipamendu-gastuak daude barne (fotokopiagailuak, koadernagailuak, erreproduktoreak eta beste erostea), bai eta eraikuntza-gastuak ere (eraikina/aretoa berritzeko gastuak). Era berean, “Funtzionamendu-gastuak” atalean gainerako gastuak daude barne (tresneria informatikoa, atzera begirako bihurketa, mantentze-lanak, komunikazioak eta beste).

BEREZKO PROGRAMAK

Programak	Ekitaldi kop.	Parte-hartzaileak
Yamaguchi Torii ¹	11	1.650
Erlijio Musikako Jaialdia	7	2.133
Haurren Txistulari Alardea	1	950
Dantzaldia, txistulari eta gaiteroekin	18	2.520
Harresietako jaialdia ²	15	14.500
Musika-aretoak kalean	9	4.300
Flamenco on Fire ³	25	40.000
Batasunaren Pribilegioa (ekitaldiak) ⁴	5	4.300
Hemengo antzerkiaren erakustaldia ⁵	9	1.648
Iruñeko Topaketak 72-22	3	1.500
Eguberri Garaia	42	10.837
Olentzero, harrera	1	2.000
La Pamplonesa banda ⁶	7	4.700
Erraldoien Konpartsaren ateraldiak ⁷	4	20.000
Soka Dantza Duguna ⁸	2	825
Besterik ⁹	3	1.800
GUZTIRA	162	113.663

1. Programa hiru egunean garatu zen: lantegiak, dastatzeak, hitzaldiak, proiektzioak, erakustaldiak eta beste.
2. Hiru ziklo hartzen ditu barne: bost punta; dantza zoroan eta Iruña ilunabarrean.
3. 8 kontzertu balkoietan, Sabicas betierekoa 3 jardunaldi, 4 zinema-proiektzio eta 6 kontzertu Ezpeleta Jauregian.
4. Lore-eskaintzako emanaldia, 2 kontzertu, dantza-emanaldi bat eta antzezlan bat. Ez dago barne erraldoien konpartsaren ateraldia.
5. Hasieran 11 ziren, baina 2 bertan behera utzi ziren.
6. Bakarrik daude aipatuak zikloetan sarturik ez dauden kontzertuak (Erruki Etxea, ekaineko kontzertuak, Sanfermin aurrekoa, San Fermin Aldapakoa edo Santa Zezilia). Programazioetan edo Gayarre Antzokiaren datuetan daude zenbatuta gainerakoak.
7. Honako ekitaldien kontura egindako ateraldiak daude zenbatuta: Batasunaren Pribilegioa, 2 San Fermin Aldapakoa, eta bat, San Saturninoren karira.
8. Barne daude San Blas eta San Joan egunetan egindako soka-dantzak.
9. Barne dira honako ekitaldiekin zerikusia duten protokolozko emanaldiak: Bost Zaurien Funtzioa, Batasunaren Pribilegioa eta San Saturnino eguneko emanaldia.

DIRULAGUNTZAK ETA LANKIDETZAZKO PROGRAMAK

DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

Entitatea	Dirulaguntza
La Pamplonesa	1.096.742,09
Udal gaiteroak	47.316,27
Udal txistulariak	62.524,10
Errege Magoen Kabalgata Elkartea	55.000,00
Errege Magoen Kabalgata Elkartea Orga berriak	30.000,00
NICDO. Iruña beltza	10.000,00
NUP.	20.000,00
Erruki Etxea Zezen-plazaren mendeurrena	60.000,00
Gaz Kaló elkartea	10.000,00
Olentzeroren Adiskidean elkartea	15.000,00
Iruñeko Orfeoia	100.000,00
Hitzarmena Artzapezpikutzarekin (Senidetasuna, Bakea eta Karitatea hitzarmena).	6.000,00

DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA, NORGEHIAGOKO ARAUBIDEAN, KULTUR ETA ARTE ERAKUNDEENDAKO KULTUR ETA ARTE PROIEKTUAK ETA JARDUERAK EGITEKO, BERARIAZKOAK ETA/EDO URTEKOAK

Entitatea	Dirulaguntza
Iruñeko Ganbera Abesbatza elkartea	18.309,00
Trapezistaren Zorabioa Kultur elkartea	3.456,00
Garaikideak Musika Garaikideko elkartea	3.500,00
Nafarroako kazetariak elkartea	2.754,00
E7.2 Elkartea	7.704,00
Gautxoriak elkartea	3.332,00
Gayarre Amigos de la Ópera elkartea	19.399,00
Nafarroako Gospel elkartea	2.890,00
Kontalariak elkartea	19.889,00
Artearen Adiskideak musika-elkartea	3.297,00
Nafarroako Ganbera Opera elkartea	16.838,00
Pulpa elkartea	3.592,00
Nafarroa Retina elkartea	2.625,00
Santaspascuas elkartea	18.091,00
Tiza elkartea	7.438,00
Va de Kultura elkartea	13.514,00
Nafar Ateneoa	16.947,00
Bidebitarte, gizarte ekimeneko mikrokooperatiba	6.216,00

Entitatea	Dirulaguntza
Nafarroako Ganbera Abesbatza	17.383,00
El Trastero Creativo	7.593,00
Nafarroako Antzerki Eskola (ENT/NAE)	17.601,00
Euskaraz Koop E	5.972,00
Nafarroako Abesbatzen elkarte	17.546,00
Atena fundazioa	13.405,00
Euskokultur Fundazioa	5.306,00
Geltoki Sociedad Microcooperativa	13.732,00
Hermanidad de la Pasión del Señor	6.239,00
Karrikiri	2.924,00
Nafarroako Dantzarien Biltzarra	3.502,00
Nafarroako Ikastolen elkarte SCI	3.807,00
Ortzadar Euskal Folklore Taldea	3.433,00
Sociedad Hispano Alemana del Norte de España	3.252,00
Nafarroako Unibertsitatea	18.364,00
GUZTIRA	309.850,00

DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA, NORGEHIAGOKO ARAUBIDEAN, KULTUR, ARTE ETA SORKUNTZA INDUSTRIEI LAGUNTZAK EMATEKO, 2022an KULTUR ETA ARTE PROIEKTUAK ETA JARDUERAK EGITEKO

Entitatea	Dirulaguntza
Beloqui Arrondo, Ignacio	5.000,00
Delta Arte Y Movimiento SL	5.000,00
Espacio Redo SL	5.000,00
Melitón Films SL	8.128,00
Oria Rubio Blanca eta Zapater Lopez Juan. Artyco	4.000,00
Producciones Maestras Compañía Teatral SL	6.237,00
Senosian Sanchez, Virginia	7.025,00
Suakai Música SL	5.719,00
Sweet Bird SL	7.137,00
Tdiferencia S COOP	6.754,00
GUZTIRA	60.000,00



LANKIDETZA-PROGRAMAK

Honako programa hauekin aritu gara lankidetzan:

- San Saturnino kofradia Ad Bras Aetern (CD edizioa)
- Dantzaren Eguna
- Opera balkoietan
- Rincones y recovecos jaialdia
- Baiona senide-hiriko festak
- ARDE Jaialdia 2022 (bertan behera utzia)

Azkenik, arte talde ez profesionalen katalogoko 152 emanaldi laga zitzaizkien herritarren hainbat elkarte, talde eta erakunderi, beren programazioa egin zezaten.

SANFERMINAK

1.707.922 lagunek parte hartu dute Sanferminetan antolatutako 532 ekitaldietan.

Kopuru horri 40.000 lagun gehitu beharko litzaizkioke, Taconeran eta Basotxoan ezarritako bi gune kolektiboetan programatutako ekitaldietara bertaratutakoak.

Oro har, ekitaldi guztiak ongi eta normaltasunez garatu dira, haur parkeak eta dantza-jaialdia izan ezik, euriarengatik bertan behera utzi behar izan baitziren uztailaren 6an.

Ekitaldi jendetsuak: 630.000 parte-hartzaile

- Su artifizialak: 438.000 ikusle inguru Yanguas y Mirandan, Armada etorbidean eta Gaztelugibelen.
- Erraldoi eta Buruhandien konpartsa: 192.000 jarraitzaile

Haur eta familiendako jarduerak: 259.082 parte-hartzaile

- JolastuBirjolastu: 60.000 haur eta helduk gozatu dute gune hori Taconeran
- Hauek Festak Hauek!: Askatasun Plazako haur parkea: 92.000 haur eta heldu.
- SportKids: 20.652 erabiltzaile.
- Haurrendako entzierroak: 6.400 parte-hartzaile.
- Kale antzerkia: 25.700 ikusle Karlos III.aren etorbideko ikuskizunetan
- Txotxongiloak: 6.880 ikusle Askatasun plazan
- Haurrendako trenak: 7.700 bidaiari Askatasun plazatik Merindadeen plazara arteko trenetan
- Haurren dantza-jaialdia: 1.800 ikusle
- Zezensuzkoa: 36.000 lagun
- Animazioa konpartsaren atsedenedian: 1.950 lagun

Musika-hitzorduak: 551.800 lagun

- Foruen plaza: 138.000 lagun
- Compañía plaza: 26.000 lagun
- Gurutzeko plaza: 22.300 lagun dantzaldietan
- Gazteluko plaza: 296.000 lagun
- Musika-bandak: 4.000 lagun Gurutzeko plazan
- Antoniutti: 65.500 lagun, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan

**Folklore-musika: 189.990 lagun.**

- Jota-soinuak Sarasate pasealekuan: 5.800
- Txistulariak eta gaiteroak Gazteluko plazako dantzaldietan: 9.000
- Uztailaren 6ko dantza-jaialdia Foruen plazan: Euriarengatik bertan behera utzia
- Jauzi-jaialdia Gazteluko plazan: 1.300
- Gaiteroen alardea: 6.000
- Txistularien alardea: 1.000
- Bertsolariak Sarasate pasealekuan: 490
- Dantzak Sarasate pasealekuan: 1.400
- Musika kalean: 165.000

(Gazte-gunea batu da, Gazteria Alorrek antolatua)

Beste ekitaldi batzuk: 63.500 lagun

- Txupinazoa (Udaletxe plaza, inguruko karrikak eta pantaila erraldoiak): 39.500 ikusle Gazteluko plazan, Foruen plazan, Antoniuttin eta Sarasate pasealekuan jarritako pantailetan.
- Herri-kirolak: 4.280 ikusle Foruen plazako eguneroko erakustaldietan.
- Kulturen kalejira: 4.000 ikusle eta, gainera, 39 taldeetako 1.000 parte-hartzaile.
- Haur eskaintza: 4.500 lagun
- Erakusketak: 1.800 lagun Kondestable Jauregiko erakusketetan
- Kontzertuak Kondestablen: 1.076 lagun
- Gayerre antzokia: 1.122 lagun
- Gaixoa ni: 4.500 lagun
- Ekitaldi erlijiosoak (bezperak eta zortziurrena): 1.600 lagun
- Literatur ibilbideak: 122 lagun

DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA, PEÑEK 2022ko SANFERMINETAN PARTE HARTZEKO

Peña	Dirulaguntza (eurotan)
Muthiko Alaiak Kultur eta Folklore elkarte	5.109,37 €
Iruñeko Mutilzarren Kofradia – Mutilzarra Peña	5.109,37 €
Oberena erakundea	5.109,37 €
Armonía Txantreana Peña	5.109,37 €
Donibane Peña San Juan Sanfermin Peña	5.109,37 €
La Unica Peña	5.109,37 €
Sanduzelai Peña	5.109,37 €
Irrintzi k.k.a.e.	5.109,37 €
Iruñeko Algara k.k.a.e.	5.109,37 €
Los del Bronce Peña k.k.e.	5.109,37 €
7 de julio San Fermín. k.a.e.	5.109,37 €
Aldapa k.a.k.e.	5.109,37 €
Anaitasuna k.a.k.e.	5.109,37 €
La Jarana k.a.k.e.	5.109,37 €
La Rotxa Peña a.k.e.	5.109,37 €
Alegría de Iruña k.k.a.e.	5.109,37 €
GUZTIRA	81.750 €

EUSKARAZKO KULTUR PROGRAMAZIOA

KULTUR ZIKLOAK

Jende guztiari zuzendutako euskal kultur programazioak 3.253 lagun bildu zituen guztira, Udalak antolatutako 42 ekitaldietako batera bertaratu baitziren. Udalak 82.817,36 euroko gastua egin zuen.

2021ean egin ez bazen ere, Bertsoaroak bere lekuari berreldu zion 2022an Iruñeko kultur agendaren barnean. Publikoak harrera ona eginik, ekimena ongi gauzatu zen, urteko ziklo nabarmenetako bat izan baita, hiriko kultur eskaintzan duen garrantziaren erakusgarri.

Aurreko urtean baino ikusle eta parte-hartzaile gehixeago izan dira euskarazko kultur programazioan. Dena dela, garrantzitsua da aipatzea zailtasunak izan direla zenbat ikusle izan diren zehatz-mehatz zenbatzen saiatzean. Adibidez, Garaikide programaren barneko erakusketetan eta Karrikiri elkartearekin batera antolatutako jardueretan, ez dugu daturik izan eskura zenbat jende bildu zen esateko. Hala eta guztiz ere, ontzat jotzen da euskarazko kultur programazioan izandako ikusle eta parte-hartzaile kopurua.

Gainera, nabarmendu behar da aurreko urtean baino ekitaldi gehiago antolatu direla (31 eta 42, hurrenez hurren); hori oso ongi dago eta euskarazko kultur eskaintza hazi egin dela adierazten du.

Programa	Saioak	Ikusleak	Gastua
Antzerki Aroa (udaberria eta udazkena)	6	1007	17.821,97
Kantu eta Hitza	4	530	13.606,25
Bertsoaroa	6	690	14.546,75
Garaikide	6	168	12.184,69
Hitzaldiak eta errezitaldiak (Nafar Ateneoa)	8	295	9.885,73
IrriZiklo	5	563	11.312,47
Egitaraua Karrikiri Elkartearekin	7	*	3.459,50

* Daturik gabe

Urtea	Ekitaldi Kop.	Ikusleak	Gastua
2013	33	4.668	65.906,37
2014	28	3.009	53.855,08
2015	30	3.718	66.255,99
2016	40	5.628	85.206,84
2017	45	5.584	115.431,70
2018	44	4.293	113.258,94
2019	39	4.684	78.387,10
2020	29	2.050	75.992,95
2021	31	3.207	77.826,04
2022	42	3.253	82.817,36

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK ETA LITERATUR LEHIAKETAK

Programa	Parte-Hartzaileak	Gastua
Bertsolaritza Irakaskuntzan	687	45.000
Bikoteka lantegia (ilustrazio- eta idazketa-lantegia)	16	5.300
Haur literatur lehiaketa (euskaraz)	219	0
Gazte literatur lehiaketa (euskaraz)	18	0
Haurrendako antzerki-testuen lehiaketa (eukaraz + gaztelaniaz)	8 (+78)	2.740
Iruña Hiria (euskaraz + gaztelaniaz)	15 (+409)	8.610,35
Egile berriendako literatur lehiaketa	18	11.029,23
Bertsopaper Lehiaketa	39	5.108

Antolatu diren **prestakuntza-programetan** 703 lagunek hartu dute parte eta udal-gastua 50.300 eurokoa izan da. Antolatu diren **lehiaketetan** 820 lagunek hartu dute parte eta udal-gastua 27.487,58 eurokoa izan da. Haur eta gazteendako literatur lehiaketa guztiek eragindako gastuak bere gain hartu ditu Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Gazteriako alorrak.

GAYARRE ANTZOKIA

Ikusle kopurua	Programazioa	Alokairuak	Udal emanaldiak	AC	Ikastetxeak	Interprete handiak	Familia antzerkia	Udako umorea	Platea	GUZTIRA
Urtarrila	2.952	6.048	584	50			178			9.812
Otsaila	1.547	3.982	925	495	648				576	8.173
Martxoa	4.579	2.522	986	1.253						9.340
Apirila	596	6.217	961	782					284	8.840
Maiatza	4.404	600	374	1.179						6.557
Ekaina	714	949		356				341		2.360
Uztaila		692						2.051		2.743
Abuztua		448						260		708
Iraila	176	1.045		15				1.514		2.750
Urria	2.332	5.457		682						8.471
Azaroa	3.087	4.359	2.013	389	714				985	11.547
Abendua	1.306	3.667	844			495	2.058		1.320	9.690
GUZTIRA	21.693	35.986	6.687	5.201	1.362	495	2.236	4.166	3.165	80.991

SAIO KOPURUA

	Programazioa	Alokairuak	Udal emanaldiak	AC	IKastetxeak	Interprete handiak	Familia antzerkia	Udako umorea	Platea	GUZTIRA
Urtarrila	4	12	1	2	0	0	3	0	0	22
Otsaila	4	8	2	12	1	0	0	0	1	28
Martxoa	8	5	2	6	0	0	0	0	0	21
Apirila	2	10	2	1	0	0	0	0	1	16
Maiatza	10	2	1	10	0	0	0	0	0	23
Ekaina	1	2	0	5	0	0	0	1	0	9
Uztaila	0	1	0	0	0	0	0	4	0	5
Abuztua	0	1	0	0	0	0	0	9	0	10
Iraila	4	2	0	1	0	0	0	17	0	24
Urria	4	13	0	5	0	0	0	0	0	22
Azaroa	6	10	3	11	3	0	0	0	2	35
Abendua	2	7	1	0	0	1	3	0	2	16
GUZTIRA	45	73	12	53	4	1	6	31	6	231

OKUPAZIO-EHUNEKOA

	Programazioa	Alokairuak	Udal emanaldiak	IKastetxeak	Interprete handiak	Familia antzerkia	Udako umorea	Platea	GUZTIRA
Urtarrila	% 93	% 76	% 87	-	-	% 26	-	-	% 78
Otsaila	% 75	% 86	% 69	% 96	-	-	-	% 85	% 82
Martxoa	% 80	% 71	% 73	-	-	-	-	-	% 76
Apirila	% 44	% 86	% 71	-	-	-	-	% 42	% 77
Maiatza	% 61	% 89	% 55	-	-	-	-	-	% 68
Ekaina	% 90	% 70	-	-	-	-	% 51	-	% 64
Uztaila	-	% 87	-	-	-	-	% 76	-	% 78
Abuztua	-	% 66	-	-	-	-	-	-	% 66
Iraila	% 100	% 81	-	-	-	-	% 99	-	% 90
Urria	% 90	% 74	-	-	-	-	-	-	% 79
Azaroa	% 90	% 76	% 92	58%	-	-	-	77%	% 83
Abendua	% 97	% 76	% 100	-	73%	% 92	-	91%	% 85
GUZTIRA	% 80	78%	68%	77%	73%	% 59	% 75	74%	% 77



2.6.2. BERDINTASUNA

BERDINTASUNA

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako **III. Berdintasun Planak** jarraipena eman nahi die aurreko planen baitan hasitako ekintzei, emakumeek eta gizonen bizitza publikoaren eta pribatuaren eremu guztietan aukera berdinak izanen dituzten hiri baten garapena sustatzeko.

Planean ezarrita daude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika publikoa garatzeko ardura duten udal-alor eta zinegotzigo guztiek bete beharreko jarraibideak. Horrenbestez, agiri estrategikoa da eta lan-esparruak eta helburuak ezarri ditu, horien bidez udaleko administrazioarako eta udal-kudeaketarako alor guztiak inplikatzeko.

Planak, aurreikusitako lau esku-hartze esparruak bildu ditu, bai eta [Nafarroako Gobernuaren ibilbidea udaleko berdintasun-alorren lana Planifikatzeko, Kudeatzeko eta Ebaluatzeko](#). 10 ildo estrategiko ere (IE). Esparru bakoitzean zehazten dira helburu orokorrak (HO), helburu zehatzak (HZ) eta proposatutako jarduketak. Urteko planen bidez garatzen da, batetik, udal-alorretan onetsitako aurrekontuen bitartez eta, bestetik, Planaren lau esparruetan jarduketak garatzen dituzten zeharkako proiektu komun bitartez.

- Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa
- Emakumeak ahalduntzea eta balio-alaketa
- Zainketa-lanak eta erantzunkidetasuna bizitzaren jasangarritasunerako gakotzat aitortzea
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza hiri seguruan

III. Planaren indarraldia 2022rako zegoen pentsatua baina haren aplikazioa 2023an ere mantenduko da, IV. Berdintasun Plana urte horretako lehen seihilekoan baitago aurreikusia.

IRUÑEKO III. BERDINTASUN PLANA ETENGABE EBALUATZEKO PROZESUA

Iruñeko III. Berdintasun Planaren ebaluazioa etengabea da eta urteko programazioan egiten diren gauzatze-adierazleen jarraipena du oinarri. Ebaluazioa, halaber, urte bakoitzean behar beste doikuntza egiteko baliatzen da, bai eta hurrengo urterako behar diren erabakiak hartzeko ere. Ebaluazioa batutzailea da, urtez urte eskuratzen den gero eta informazio gehiagoan oinarritua.

IRUÑEKO III. BERDINTASUN PLANAREN GARAPENA 2022. URTEAN. EMAITZA NAGUSIAK ETA BERRITASUNAK

2022an, ekintza berritzaileak jarri ziren abian aurreko planetako programazioaren aldean, eta beste batzuk, berriz, alorrek garatu ohi dituzte urteko programazioen baitan.

Ondoren, **informazioa** bildua dago, esku-hartze esparruen arabera antolatua, ekintzen gauzapena gidatzen duten eragileek/departamentuek **kasuan kasuko fitxen bitartez azalduetako ekintzen gainean**, bai eta udal webaren bidez informazioa eskuratu den beste jarduketa batzuen gainean <https://www.pamplona.es/>.



GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISO POLITIKOA

Batzorde Politikoa, udaleko talde politiko guztietako ordezkariak osatua (4 emakume eta gizon 1), behin bildu da 2022an: urtarrilaren 25ean: 2021eko Plan Operatiboaren jarraipen-txostena, eta 2022ko Plan Operatiboaren onespena. Batzorde Politikoko kideek berdintasunari buruzko oinarritzko prestakuntza batean parte hartu dute, eta bigarren sei hilekoan, udalbatza osora zabalduta da.

Batzorde Teknikoa, alor guztietako zuzendaritzek (6 emakume eta 10 gizon) eta teknikariak (22 emakume eta gizon 1) osatua, 3 aldiz bildu da 2022an: ekainak 16an. Jarraipen informazioa: urriak 20. 2023ko POren diseinua eta 2023ko aurrekontuen genero-eraginaren balorazioa; abenduak 15a. 2022ko PO gauzatzea eta 2023ko POren proposamena.

Batzordeei dagokienez, esan behar da oraindik ere parekidetasunez osatzeko daudela. Emakume asko izendatzen dira jarraipen teknikorako, eta, hala ere, zuzendaritzak bertaratzen direnean, gehienak gizonak dira.

Sarrerako atalean adierazi den bezala, III. Planaren indarraldia 2022ra arte zegoen planteatuta, baina 2023an ere aplikatuko da. Hori dela eta, 2023ko **Berdintasun Plan Operatiboa** diseinatzeko, Batzorde Teknikoaren urriaren 20ko bileraren ondoren, Berdintasun Unitateak lehen **proposamen** bat bidali zien alorrei, alorrek egin beharreko ekintzak berresteko eta proposamen berriei osatzeko. Bertsio finkatua, alor bakoitzeko 2022ko aurrekontuetan sartu beharreko berdintasun-helburuak ezartzeko ere balio izan zuena, Batzorde Teknikoaren abenduaren 15eko bileran aurkeztu eta onetsi zen.

Urriaren 27an, 2022ko Plan Operatiboaren jarraipenerako Laguntza Teknikoak **jarraipen-tresna** bidali zien alorrei (fitxa Excel formatuan), dagokion erabilera-gida eta fitxak betetzeko eta bidaltzeko jarraibideak barne, bai eta 2022ko PO ere. Harremanetan egon ziren Batzorde Teknikoko kideekin telefonoz eta posta elektronikoz, jarraipen-fitxak betetzeko sortutako zalantzak argitzeko, bai eta informazio gehiago emateko ere, beharrezkoa izan zen kasuetan. Ekintzen¹ **140 jarraipen-fitxa**² jaso ziren, eta 135 fitxa hartu ziren kontuan aztertzeko eta egiteko.

2022an, halaber, III. Berdintasun Planaren jarraipenari buruzko txosten orokorra egin da 2017-2022 aldian, bai eta III. Berdintasun Planaren **ebaluazio kualitatiboa** ere.

2021ean **Berdintasunerako Barne Plana** egiteko prozesua hasi zen (ekintza Plan Operatiboan dago jasoa), berdintasunerako foru araudia eta Iruñeko Udaleko Berdintasun Ordenantza betetze aldera. Aurrerapausoak eman ziren berdintasunaren diagnostikoren prestaketan, plantillaren ezaugarriei eta banaketari buruzko informazio kuantitatiboa eta langileen lan-baldintzei buruzko dokumentazioa bilduz eta aztertuz, eta, 2022an, udal plantillari online egindako inkesta baten emaitzekin osatu zen. Behin onetsirik, diagnostikoa erreferentzia gisa erabili da Berdintasuneko Barne Planean sartu beharreko neurriak identifikatzeko. Neurri horiek baliagarriak izanen dira aurrerapausoak emateko langileen informazioan eta sentsibilizazioan, berdintasuna hainbat arlotan txertatzeko, hala nola pertsonen kudeaketan, sustapenean, lan-baldintzetan, jazarpenaren prebentzioan, lanpostuen eta soldaten analisian, etab.

Plana Zuzendaritza Batzordeak onetsi eta udal webean argitaratu da, prentsa-oharren bidez, azaroaren 15ean. Batzordean, administrazioaren eta langileen ordezkariak dira kide.

Berdintasun Unitateak adierazi du partaidetza-egiturak eta -prozesuak egituratu behar direla, Plana partaidetzan oinarriturik garatzea bermatzeko.

1. Ez dira kontuan hartu LGTBI+ komunitatearekin lotutako jardueren jarraipenerako 9 fitxak, I. eranskinean aztertuko baitira.

2. Aipatzekoa da Herriarren Segurtasuneko Arloko fitxak elkartu direla, bai ikastetxeetako hitzaldiei buruzkoak, bai prestakuntza-ekintzei buruzkoak, gaiak partekatze aldera. Herriarren Partaidetzari buruzko beste fitxa batzuk banatu egin dira, jarduera bereziak sartu baitira.



Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (Zerbitzu Orokorretako alorrean sarturik) udal-intraneten eduki du kontsultagai eta erabilgai sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa Iruñeko Udalarekin edo haur Eskolekin lan-harremanean hasten den langile ororendako.

Berdintasun alorrak bultzaturik, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, prestakuntza eman zaie sexu-jazarpenaren eta **sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa** eguneratzeaz haren ardura duten pertsonen, 7 emakumek parte harturik.

Berdintasun Ordenantzan xedatutakoarekin bat eta III. Planaren 3. lldo Estrategikoaren baitan (lan- eta administrazio-prozedurak, xede harturik berdintasun-printzipioa integratzea eta herritarrek zein udal-langileak asetzea udalak berdintasuna kudeatzeko moduari eta harekiko konpromisoari dagokienez) honako jarduketa hauek garatu dira, gaien arabera elkartuta:

— Genero Eraginaren gaineko txostenak arauetan eta plan estrategikoetan

Ordenantza eta plan estrategikoak egiteko ardura duten alorretako teknikarien eskura jarri da eragin-txostena eta araua edo plan estrategikoa egiteko banakako aholkularitza, haietan genero-ikuspegia txertatuko dela bermatzeko eta, horrenbestez, berdintasunaren gainean eragin onuragarria dutela jo ahal izateko.

Prozesu horri esker, aurrerapen handiak egin dira langileen sentsibilizazioan eta prestakuntzan, praktikan izandako esperientziaz beretik abiatuta.

Esku-hartze hori zuzenean dago lotuta genero-ikuspegia eragin handiena duten udal-politikan hobeki txertatzearekin, hala nola udal-arauekin eta hiriko plan estrategikoekin. Hobekuntzak izan dira bai desberdinkerien identifikazioan, bai politikek inspirazio-iturri izan behar dituzten berdintasuneko aginduen identifikazioan. Zeharkako hobekuntza-ekintzek honakoak dituzte ardatz: emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea, baliabideetarako sarbidea erraztea, informazioa eta komunikazioa hobetzea, bai eta datu banakatuen eskuragarritasuna hobetzea ere. Hobekuntza sektorialeki dagokienez, arautu edo planifikatu beharreko gai bakoitzean identifikatutako desberdintasun bereziekin lotzen dira, eta, arau edo planean, hori konpentsatzeko edo ezabatzeke neurriak sartzen dira.

Zailtasun handienak oraindik ere dira datu banakatu gutxi izatea eta, gero eta gutxiagotan, laguntza berandu eskatzea, hau da, jadanik proiektuen edukiei buruzko erabakiak hartu direnean, eta erabakiok zuzenketa zailtzen dute.

Aurten, 11 arau-proiektu edo plan estrategiko aholkatu dira, baina 2022ko abenduan 9 daude egiaztaturik:

1. Lehen Zabalguneke Hiri Jarduketarako Plan Berezia
2. Milagrosake Hiri Jarduketako Plan Berezia
3. Lankidetzaren Plan Zuzentzailea
4. Kultur Aniztasunaren eta Herritartasun Inklusiboaren Plana
5. Irisgarritasun Integralaren Plana
6. Iruña Gaztea plana
7. Berdintasunerako Barne Plana
8. Iruñeko Udalaren aurrekontuak
9. Osoko bilkuraren erregelamendua aldatzea



— **Berdintasuna udal-aurrekontuetan txertatzea**

2021ean, Ogasunak gidatutako prozesu bat hasi zen, Berdintasunarekin lankidetzan, lau urtean garatzeko eta teknikariak trebatu eta aholkatzeko, berdintasuna aurrekontu-programetan txertatzeko, hirian berdintasuna lortzea eragite aldera.

2022an, aurreko urtean hasitako prestakuntza amaitu da, eta aurrekontu-programen berrikuspene eta hobekuntza egin da, aurrekontu-fitxa berri baten bidez. Fitxa onartzeko dago erabilera orokorrerako.

Aurrekontuen eraginari buruzko txostena egiten da alor bakoitzak III. Berdintasun Planarekin eta haren garapenarekin duen inplikazioari eta konpromisoari lotuta.

2023ko Plan Operatiboaren proposamenarekin bat, eta Berdintasun alorrak aholkularitza emanik, eta alorrek berdintasunarekiko duten konpromisoari buruz aurretiaz egindako txostenetan oinarrituta, Ogasunak 2023ko **udal-aurrekontuen proiektuaren genero-eraginari buruzko txosten** bakarra egin du, Berdintasun alorrak horren aldeko txostena eginik.

— **Berdintasuna udal-kontratazioan**

Online **prestakuntza** egin da, berdintasuna kontratazioan txertatzeko zer aukera diren ulertzeko eta jakiteko, hots, klausulak kontratuen baldintzetan sartuz, eskakizunak baloratzeko irizpideen bidez, proiektuen bidez, etab..12 emakumek eta 5 gizonen parte hartu dute.

Gainera, genero-berdintasunari buruzko gaien inguruko informazioa jaso da honako kontratu hauetan:

- **Komunikazioa:** Komunikazio Zerbitzuaren mendeko kontratu guztiak berrikusi dira: Argazkiak, bideo-albisteak, sorkuntza, txertaketak eta albiste-agentziak, hurrengo lizitazioetan genero-hizkuntza ez-inklusiboa neutralizatzeko eta berdintasuna sustatzeko klausula gehiago sartzea baloratzeko. Beraz, 2022an jarraipena eman zaio 2021ean hasi eta 2023an amaituko den prozesuari.
- **Kirola:** Udalaren kirol-jarduerak kudeatzeko egin diren kontratu berrietan, eta esleipenerako irizpide sozialen barnean (Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 64.6 artikulua), berdintasunari buruzko irizpide hauek txertatu dira:
 - **Datuak sexuaren arabera banakatuak:** Yoga eta Gimnastika aerobiko modernoaren kontratazioetan, bakoitzaren agindu teknikoan pleguetan ezarria dago horri buruzko betebeharra. Ligaren kontratuan ere informazio hori banakatua dago txostenean.
 - **Hizkuntza inklusiboa:** Yoga eta Gimnastika aerobiko modernoaren kontratazioetan, eta Kirol eta Gizarte Errezetaren proiektuen kudeaketan hizkuntza ez-sexistaren erabilera dago aurreikusia, bete beharreko baldintza berezi gisa.
 - **Bestelako irizpideak:** Yoga eta Gimnastika aerobiko modernoak: a) emakumeei eragiten dien EFCR estrategiaren garapena (esleipen-irizpidea); b) ordainsarrietan bazterkeriarik ez (gauzapen-baldintza bereziak). Kirol eta Gizarte Errezeta: jardunbide egokiak generoan, berdinketa hausteko irizpide gisa.
- **Berdintasuna:** Berdintasuna sustatzeko klausulak kontratuotan: EMATIC Zentroaren kudeaketa, Emakumeen Etxearen kudeaketa, berdintasun-proiektua aurrekontuetan, Berdintasunerako Barne Plana, Berdintasun Planaren Ebaluazio Kualitatiboa, langileak berdintasunean prestatzea, emakumeak taldean eta zuzendaritzan kontratatzea, berdintasun-planaren erabilera enpresan edo kontziliazio-plan finkatua.
- **Herritarren Partaidetza:** Herritarren partaidetza dinamizatzeko zerbitzuaren eta partaidetzarako informazio eta baliabideen zerbitzuaren kontratuetan, genero-ikuspegia txertatu zen agindu teknikoetan, bai eta kontratuaren taulan ere (balorazio-irizpideen bidez).



— Berdintasuna dirulaguntzen oinarrietan

Jasotako informazioaren arabera, honako alor hauetako dirulaguntzetan hartu da aintzat genero-ikuspegia txertatzea: Garapenerako Lankidetzak, Kultura, Kirola, Hezkuntza, Berdintasuna, Gazteria, Herritarren Partaidetza, Euskara zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak.

2022an, **Azterlan kualitatibo eta kuantitatibo bat egin da genero-ikuspegiaren txertaketari buruz Iruñeko Udalaren kontratazio publikoetan eta dirulaguntzetan.** Azterlanean aztertu da zer klausula eta baldintza sartu diren kontratu eta dirulaguntzetan, genero-ikuspegia zer mailataraino eta zer-nolako eraginkortasunarekin ezarri den baloratzeko. Aipatu azterketa alorrez alor egin da, aurrekontu bakoitzaren arabera, klausulen garrantziaren arabera eta horrek kontratazioetan izandako ondorioen arabera, aholkularitza eta prestakuntza arloko esku-hartzeak errealitatera eta udalaren inplikazio-mailara doitzeko.

— Komunikazioa eta hizkuntza inklusibo ez-sexista

Komunikazio Zerbitzuak zaindu egin ditu emakumeen irudietako edukiak, edukietan gizonen irudiak bezala irudikaturik ager daitezen, eta hizkuntzaren erabilera ere zaindu du, ez dadin izan, ez sexista, ez gaitzesgarria, eta estereotipo matxistak islatu ez ditzan komunikazio-kanpainetan, sare sozialetan (irudiak artaz aukeraturik), webguneetan (testuaren garrantzia, laburra izanik ere), argazki-bidalketetan, prentsaurrekoen deialdietan, bideo-albisteen zerbitzuan, prentsa-oharretan (zer alorrek egin duen alde batera utzita), *Día a día* irati-espazioan, publizitatean, udal-memorian, etab.

Proiektu Estrategiko, Mugikortasun eta Jasangarritasuneko Alorrak, halaber, jakinarazi dute irudi eta testu ez-sexistak erabili dituela, errealitatearen irudi berdinzalea emateko, rol eta estereotipo tradizionalak mantendu gabe.

— Datu banakatuak eta Hiri Behatokia

Iruñeko Hiri Behatokia erreferentzia da, udal-alor guztiek informazioa eskura izan dezaten gizonen eta emakumeen egoerari buruz, alor bakoitzari dagozkion gaietan. Erreferentzia eguneratuak ematen ditu zeharkakotasuneko ekintzetarako. Berdintasuna aurrekontuetan, eragin-txostenetan eta plan sektorialen jarraipenean.

Sexuaren arabera banakatuta dagoen ahalik eta informaziorik handiena izateko asmoz, Berdintasun alorrak 2021ean Behatokian eskura dagoen informazioa aztertzeke prozesuari ekin zion, hobekuntza-proposamen bat eginda.

2022an, aurrerapausoak eman dira datuen eguneratzean eta alor guztiek behar duten informazioa aztertzen hasi da informazio arloko beharrei erantzuteko eta, horrez gain, alor bakoitzak Behatokia elikatzeke zer datu eman litzakeen identifikatzeko. Ekintza hori berdintasunarekin batera garatzen da aurrekontuetan, bai eta planen eta arauen genero-txostenekin eta gobernantza webarekin batera ere.

Gainera, informazioa jaso da sexuaren arabera banakatutako datuak hartu direla aintzat honako alor hauetako datuen eta informazio kuantitatiboaren kudeaketan: Gaztediaren Etxea eta Gaztediaren Etxea, Bulego Estrategikoa, Herritarren Partaidetza, Langileen Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua, Hiri Ekologiako eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak: Gizarte zerbitzu eta Berdintasuneko Epidemiologia Zerbitzua: Etxebizitza Bulegoa:



— Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua

Informazioa jaso da honako alor hauetako jarduketetan sustatu egin dela gizonen eta emakumeen presentzia orekatua:

- **Alkatetza:** Erakundeko kargu publikoetan emakumeak ikusaraztea, 3 alkateorde baitira. Komunikazio Zerbitzua, halaber, ahotsa ematen saiatzen da emakumezko teknikari eta politikariei bideo-albisteetan, argazkietan, e.a. Arreta berezia jarri du hizkuntza inklusibo ez-sexistaren erabileran hedabideendako deialdietan agertzen diren karguetan.
- **Garapenaren aldeko Lankidetzarako Udal Kontseilua:** banaketa orekatua Kontseiluko kideen artean, gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna egon dadin.
- **Kultura:** Ziklo desberdinetako programen diseinuan emakumezko erreferenteen presentzia da xedea, emakumeek duten kultur ahalmena ikus dadin. Horregatik, antolatzen diren ziklo guztietan emakumeen presentzia parekatzea da xedea.
Zehazki, 2022ko euskarazko kultur programazioan emakume kontratatatuak % 56 izan dira, eta gizon kontratatatuak, % 44. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin saiatu da (sortzaileak, artistak, hizlariak, etab.), eta emaitza honakoa izan da: Garaikide (% 36 e/% 64 g), Bertsoaroa (% 55 e/% 45 g), Irrizikloa (% 45 e/% 55 g), Antzerki aroa (% 70 e/% 30 g), Kantu eta hitza (% 20 e/% 80 g), Programak lankidetzan (% 60 e/40 g).
- **Gazterian** emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu da hainbat ekintzatan, hala nola kontratazioetan, epaimahaietan, Sanferminetako Gazte Gunean, Gaztediaren Mahaian...
- **Partaidetza-prozesuetan** eta auzo-etzadaidaguneetan emakumeen esku-hartzeak lehenetsi dira. Gainera, emakumeen parte-hartzean defizita antzemanaz gero, arreta berezia jartzen da emakumeen deialdian (berriarazko bidalketetan, deietan, e.a.).

— Berdintasuna udal-jardueran txertatzea

Genero-ikuspegia jarduera zehatz hauetan txertatzeari buruzko informazioa jaso da:

- **Osasun alorrak** genero-ikuspegia sartu du, zeharka, martxa nordikoko teknikaren inguruko prestakuntza-saioetan, eta partaidetzari buruzko informazioa sexuaren arabera banakatua bildu du, informazio-liburuxkan hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiliz, eta kontratatutako langileen artean erdia baino gehiago emakumeak izanez.
- **Hiria Birgaitzeko Bulegoak** berdintasun-neurriei buruzko atala hartu du kontuan Esku-hartze Orokorreko Proiektuaren (PIG) dokumentu teknikoan, eta, dagokion eremuaren analisiaren/diagnostikoaren emaitza gisa, inguruneari lotutako urbanizazio/berrurbanizazio proiektuak garatzean nahiz eraikinei lotutako gauzapean-proiektuak garatzean kontuan hartu beharreko ekintzak/proposamenak proposatuko ditu. Berrikusitako PIG guztiek (Udal Zerbitzu Teknikoek txostena eginda, 6 2022an) ez dute lortu proposamenen azterketa- eta aurrerapen-maila optimoa. Jabekideen elkarte sustatzaileek zuzenean edo NASUVINSaren bidez kontratatutako kanpo talde teknikoek egindako dokumentuak dira.
- **Hirigintza Gerentzian** aintzat hartu dira ikuspena hobetzeko eta segurtasunik eza eta irisgarritasuna hobetzea eragiten duten gune ilunak ezabatzeko jarduerak. Lehen Zabalguneako Hiri Jarduketako Plan Bereziaren genero-eraginari buruzko txostena egin da, eta, dokumentua hasiera batean onartu ondoren eta behin betiko onartu aurretik, Berdintasun Zerbitzuaren egiaztapen-txostena lortu da, eta aurreikusitako HJBPB planaren genero-inpaktua onuragarria dela jo dute.
- **Komunikazioak**, urtero bezala, Berdintasun alorrak bultzatutako programen, jardueren eta ekimenen berri eman die herritarrei eta/edo komunikabideei. Hainbat euskarri erabili dira, hala nola: prentsa-oharrak (35, 2022an), sare sozialak, webguneak, Día a día mikro saioa irratian, memoria, eguneroko prentsa idatziaren laburpena udal barneko erabilerarako, bideo-albisteak (7), hedapena hiru mupi digitaletan (7), etab. Horrez gain, ohiko mupien erabilera laga da Berdintasun Unitatearen kanpainetarako.



- Generoaren ikuspegia kontuan hartu da Iruñeko Udalaren **Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako II. Udal Planaren (2022-202) diseinuan, onesteko dagoena.**
- Genero ikuspegia txertatu da **Iruñeko Kultur Aniztasunaren eta Herritartasun Inklusiboaren I. Planean** (onesteko). Emakumeendako ekintza berariazkoak proposatu dira, eta Berdintasun Unitatearekin lan egin da genero-eraginari buruzko txostenean.
- **2030eko Iruñeko Hiri Agendaren** barneko proiektuek berdintasunaren balioa zeharkakotasunez ezartzeko konpromisoa hartu dute.
Zeregin hori errazteko, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Iruñeko Hiri Agendan Txertatzeko Gida* bat garatzen ari da, eta 4 berdintasun-galdetegi egin dira gai hauei buruz: (1) Lurraldeari buruzko planak, (2) alderdi sozial eta ekonomikoei buruzko planak, (3) zentro edo erakunde bat sortzeari buruzko planak eta (4) eraikuntza-proiektuei buruzko planak.
- Berdintasuna **Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2030erako Estrategian** txertatu da. Haren prestaketan, hizkuntza inklusiboa erabili da, eta adierazleak sexuaren arabera banakatzen direla adierazi da. Behin osoko bilkurak onetsi ondoren, gauzatzen diren ekintzek genero-ikuspegia jaso beharko dute.

Azkenik, esparru horretan **Berdintasunari eta komunikazio ez-sexistari buruzko oinarritzko prestakuntza eman zaio Udaltzaingoiari**. Ekintza hori ez dago aurreikusia 2022ko Plan Operatiboan, baina hura egiteko eskatzen zuen adierazpen instituzional eta mozio baten ondorioz burutu da. 6 orduko online prestakuntza izan zen, honako eduki hauek emateko:

- 1. atala: Oinarritzko kontzeptuak berdintasunari buruz.
- 2. atala: Komunikazio ez-sexista
- 3. atala: Genero-indarkeriari buruzko protokoloaren jarduketa gida.

Derrigorrezkoa izan zen Udaltzaingoko langile guztientzat, 204 gizonek eta 48 emakumek parte harturik.

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA

Ahalduntzearen arloan, eta **emakumeen autonomia ekonomikoa sustatze** aldera, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ) bere laguntza eta esku-hartze integraleko programak mantendu ditu zaurgarritasun berezian dauden emakumeendako: Eman Aukera Zeure Buruari (EAZB) eta GESTANTES. 2022an, 43 emakume artatu dira 67 haurrekin (32 alaba eta 35 seme).

Gizarte Zerbitzuek ere hainbat jarduketa egin dituzte **emakumeen enplegarritasuna hobetzeko**, hala nola Gizarte Enplegu Babestuko Programako postuen % 55etan gutxienez emakumeak kontratatze konpromisoa **hartzea**; emakumeak lehenestea, langabetuak kontratatze proiektuan mantentze-lanak egiteko eta hiri-altzariak margotzeko; nahasmendu mentalak jotako pertsonen nekazaritza-lan osagarriak egitea; eta ostalaritzako enplegu inklusiboko lanpostuen % 60 gutxienez erreserbatzea emakumeendako.

Horrez gain, Gizarteratze eta Laneratze Taldeak (GLT), AMEDNA-Nafarroako emakume enpresarien eta zuzendarien elkartarekin elkarlanean, **MENTORING Proiektua** garatu du emakumeen enplegarritasuna eta laneratzea handitzeko, hots, emakume bakoitzaren neurrira egindako prozesuak dira, emakume enpresari eta/edo zuzendari batek Gizarte Zerbitzuen erabiltzailea den emakume langabetu bat aholkatu eta lagundu dezan, betiere coach profesionalaren esku-hartzeak indarturik eta parte-hartzaileei talde prestakuntza emanik.

Ildo estrategiko berarekin bat, **Herritarren Partaidetzan** emakume erraztaileen enplegarritasuna sustatu da partaidetzarako prestakuntza-ikastaroetan. 2022an, guztira, 54 prestakuntza-ikastarotako 43 emakume edo elkarre kontratatu dira, betiere emakumeen zuzendutakoak.



Partaidetza eta eragin politikorako ildo estrategikorekin bat, **Emakumeen Udak Kontseiluak** bere jarduerak mantendu urtean zehar, bilkurak 2/17an, 4/27an, 7/28an eta 10/26an eginda. Berdintasun Unitateak prestakuntza-saio bat bultzatu zuen Kontseiluari zuzendua, eragin politikoan are gehiago parte hartzeko eta aritzeko. 15 emakumek hartu zuten parte, partaidetzarako beren gaitasuna hobetuko dituzten prestakuntzak egiten jarraitzeko konpromisoa hartuta.

Iruñeko Emakumeen Etxea *Casa de las Mujeres* elkartearekin batera kudeatutako udal-baliabide bat da, eta bere jarduerak egiten jarraitu du, hala nola ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak eta prestakuntza-saioak, erakusketak, e.a., eta beste erakunde batzuek proposatutako jarduerak ere egin dira bertan.

Era berean, aurreko urteetan bezala, lekua laga zaio Emakumeen Etxean Ipes Elkarteari, **Silvia Fernández Viguera Dokumentazio Zentroa-Liburutegia kudeatzeko**.

2022an, koordinazio-bilerak eta Jarraipen Batzordearen bilkurak egin dira, informatika-materiala erosita prestakuntza-jarduerak garatzeko; halaber, Etxea koordinatzeko pertsona bat kontratatu da. Emakumeen Etxean, halaber, **Feminismoen Eskolako 2** prestakuntza-maila ematen hasi dira eta 2023ko maiatzera arte iraunen dute.

Berdintasun alorrak dirulaguntza-deialdia egin du Iruñeko emakumeen elkartei, kolektibo feministei eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitatei zuzenduta, proiektuak finantzatzeko aldera; hala bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta neskatuen ahalduntzea bultzatzeko sentsibilizazioa eta jarriren aldaketa progresiboa sustatzeari begira, nola hori bultzatuko duten azterlanen eta dokumentazioaren ezagumendua, ikerketa eta zabalkundea babesteari begira. 189 entitateen proiektuak finantzatu dira eta, guztira, 121.655 euro jaso dituzte.

IKTeen arloan, **EMATICek** bere jarduerak berreskuratu du edukieran murrizketarik egin gabe, eta 2022an 60 ikastaro eta 15 tutoretza tematiko eman dira berdintasunerantz aurrera egiteko IKT trebetasunei buruz. Haietan, 816 eta 188 emakume erabiltzailek parte hartu zuten, hurrenez hurren. EMATICen lanaren hiru lan-ardatzak hauek dira: oinarritzko prestakuntza aurreratua mundu digitalean presentzia aktiboa eta segurua izateko; informazioa, sareak eta IKT baliabideak; eta IKTeen bidez ahalduntzeko proiektu berariazkoak garatzea.

Aurrekoetan bezala, programazioari oso harrera ona egin zaio, eta batez ere adineko emakumeen aldetik izan da eskari eta interes handia. 2022an jarduerak ugari egin dira programazioaren bidez zabaldurik, emakumeen elkarteek beraiek programatzen dituzten jarduerak gain.

IKTeen arloan ere, Udalak otsailaren 11n Emakume eta Neskato Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatu zuen honako hitzaldi honekin: *Emakumeak zientziaren dibulgazioan*, 12 emakumek eta 28 gizonek parte hartuta. Jarduera ez zen behar beste hedatu.

Helburu harturik **sexu-osasunaren prebentzioa** lantzea, arrisku-praktika berriak identifikatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna osasunaren arloan sustatzea, ekimen hau egin zen: *sexu-osasuna, berdintasuneko harremanak eta STGen prebentzioa sustatzeko jardunaldiak*, 52 emakumek eta 12 gizonek parte hartuta.

Iruñeko Emakumeak Izendatzea taldeak, hots, ikertzaileak, kultur erakundeen ordezkariak eta historian nahiz zientzietan adituak diren unibertsitateko pertsonak osatuak, taldea handitzea proposatu du are jarduerak oparagoa egiteko. Talde politiko guztiak taldean egoteak erabakiak hartzeko prozesuak oztopatu izan ditu, zenbaitetan.



Taldeak 3 koordinazio-bilera egin ditu martxoan, maiatzan eta irailean, eta honako lan hauek ere bai:

- Hirian **totemak** paratu ditu: Uriz ahizpak, Remigia Echarren, eta, halaber, arropa-garbitzaileena berritu du.
- *Frankismoak errepresaliatutako Nafarroako Emakume Nabarmengarriak* azterlana euskaratzea eta maketatzea, argazkiak eta beste dokumentu grafiko batzuk barne. 2023an edizio elektronikoa eta paperezkoa egingen da. Frankismoak errepresaliatutako 3 emakume nabarmengarri identifikatzea eta hautatzea, hirian espazio berriak izendatzeko: M^a Luisa Elío Bernal (kalea), Matilde Huici Navaz (eskola) eta Francis Bartolozzi (Arte zentroa). 2022ko maiatzaren 16an bidali zen, baina oraindik ez da erantzunik jaso.
- *Iruñeko kaleetan eta espazioetan emakumeek duten presentziari buruzko azterlana* eguneratzea, taldeak egindako lanaren emaitzak ikusarazteko eta, era beran, espazio publikoetan emakumeen presentzia eta ikusgaitasuna areagotzeko udal-konpromisoa nabarmentzeko. Azterlanak eguneratu du 1998tik 2014ra emakumeek kale-izendegian duten presentziari buruz eskura dagoen informazioa.

ZAINKETA-LANAK ETA ERANTZUNKIDETASUNA BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO GAKOTZAT AITORTZEA

Zaintzak eta erantzunkidetasuna aitortzeari dagokionez, 2021ean *Emakumeak eta zainketak. Iruñeko beste memoria fotografiko bat* erakustea egin zen, hots, emakume zaintzaileren, babesleren, sendatzaileren.... 40 argazki dira, azalpen-taulen bidez aitortzeko zeinen garrantzitsuak diren emakumeek betidanik egindako zereginak eta lanak. 2022an, erakusketa Nafarroako 10 toki-entitateri laga zaie, bakoitzari hilabetez - hilabete eta erdiz. Erakusketa lagaz, aitortu eta balioa eman zaio Iruñean egindako lanari; herri guztietan arras harrera ona egin diote eta ikusle asko izan dira. Argazki guztiak aluminiozko markoen bidez sendotuko dira 2023an, ez baitzegoen aurreikusia erakusketa herriz herri ibiltzea, eta argazki-panel aunitzek kalteak izan dituzte harat-honat eramatean.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZA HIRI SEGURUAN

Iruñeko Udalak, urtero bezala, Martxoaren 8ko gizarte-aldarrikapenekin egin zuen bat (Emakumeen Nazioarteko Eguna), kanpaina bat antolatuz eta kartelak nahiz goiburua diseinatu: **Kontziliaziotik zaintza erantzunkidera: eraldatu irtenbidea aurkitzeko, berdintasun-teknikaria duten gainerako toki-entitateekin koordinaturik**; zehazki, programazioa berariazko kultur eta sentsibilizazio jarduerak eskaini zitzaizkien herritar guztiei, hots, antzerkia, argazkiak, filmak, diziplinarteko artea, dibulgazio zientifikoa, jasangarritasuna.... Gaztediaren Etxeak, bestalde, bi jarduera antolatu zituen: Ihes-gela: Emakumea eta zientzia, eta Eskulan Lantegia: Sortu zure mentorea.

Ekitaldi instituzionalak zazpi emakume nabarmengarri omendu zituen bakoitzaren ibilbidea aitortzeko: ikerketa zientifikoa, praktika medikoa, unibertsitate-kudeaketa, kirol egokitua, enpresa-lidergoa, ekintzailatza ekonomiko eta soziala, eta genero-aurreiritzien aurkako borroka. Halaber, udaletxeko fatxada morez argitu da.

Urtero bezala, halaber, eta berdintasun-teknikaria duten gainerako toki-entitateekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinaturik, Azaroaren 25eko kartelak, **Gertatzen da, eta badira horren erantzuleak** goiburua eta sentsibilizazio-kanpainaren adierazpen instituzionala diseinatu ziren, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna baita, eta udaletxeko fatxada morez argitu zen. "In VISIBLES" arte-proposamenaren eta "Ama-das" dokumentalaren proiektioak programatu ziren, publiko orokorrarendako, eta hiru jarduera gazteendako, **Gaztediaren Etxean**: Genero-indarkeria kirolaren munduan zuzeneko irratsaioa; Maitasun osasungarria eta tratu txarren aurkako prebentzioa izenburuko lantegia; eta Gure istorioen kupula lantegia.



Azaroaren 25arekin bat, Udalak desgaitasuna duten emakumeengan pausatu zuen arreta, haien **Aske, ni beti aske** kanpaina egokituz. Horren haritik, kanpainaren irudi berri bat aurkeztu zen, hainbat adinetako emakumeak islatzen zituen, hainbat desgaitasun dituztenak: ikusmenekoa, mugimenekoa, entzumenekoa eta desgaitasun kognitiboa. Kartelaren diseinuak (gaztelaniaz eta euskaraz) Navilens kode bat bat dauka, kolorezko QR bat (gailu mugikorren bidez sartzen da bertara, NaviLensGO aplikazioaren bitartez), honako xede hauekin: irakurketa errazean editatutako edukien bidezko komunikazio irisgarria, zeinu-hizkuntzako bideo bat eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako audio bat. Kanpainaren helburua mantendu da, hau da, emakumeei behar diren baliabideak eta espazioak ezagutaraztea, ahalduzko, indarkeriaren aurkako prebentziorako eta kontzientziazio sozialerako.

Pandemiaren ondorioz 2 urtez etenda egon ondoren, 2022an berriro **Sanferminak** ospatu ziren, eta berriz ere egin zen udal kanpaina, eraso sexistaren aurkako konpromisoa erakusteko, esku gorria mantenduta eta goiburu honekin: **Iruña, eraso sexistaren aurkako hiri konprometitua. Aske, ni beti aske.** Ekimen honen helburuak dira aurrera egitea jaietan eraso sexistak ezabatzeko udal-konpromisoan eta emakumeen kontrako inolako erasorik gertatzen ez den hiri bat eraikitzea; Iruñearen jarrera erakustea, hala erakundeei nola gizarteari dagokienez, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka eta lehentasun gisa ezartzea egoera horiek salatzea; eta posible egitea emakumeek hiria espazio aske eta seguru gisara bizi dezatela. Halaber, ikusarazi nahi da erantzun aktiboaren parte ez izateak berekin dakarrela indarkeriaren tolerantziaren parte pasiboa izatea, eta emakumeen aurkako indarkeria ez dela "fenomeno" bat eta ez dela saihestezina festa giroan.

Kanpaina hainbat hizkuntzatan burutua, kartel, mupi digital, sare, web eta bestelako euskarrien bidez zabalduta zen.

2022ko Sanferminetako kanpainaren materialak	Kopurua
Kartelak	2.150
Imanak	160
Indarkeria-gidak	50.000
Sakela-txartelak	80.000
Pegatinak	25.000
Billabesak	9
Labrit lonak	1
Prentsa dekalogoko foiletoak	500
Bideoa	1
Esku erraldoiak	3

Sanferminetan ere, komunikazio publikoan erantzun koordinatua emateko eta sexu-erasoetan herritarrek eman beharreko erantzunak antolatzeke, **2022ko Sanferminetan Iruñeko sexu-erasoei aurre egiteko protokoloa** jarri zen abian, Berdintasun, Komunikazio, Herritarren Segurtasun eta Gizarte Zerbitzuetako alorrek eta mugimendu feministak parte hartuta, Emakumeen Udal Kontseiluaren mendeko Indarkeria Sexistei Aurre egiteko Taldearen bitartez.

Sanferminak ospatzeari buruzko ziurgabetasunak eta Berdintasunarekin zerikusirik ez zuten antolaketa-arrazoiek eragotzirik, ez zen egin agertokiei lotutako komunikazio-ekintzen plangintza egokirik, eta, horrez gain, azken ordura arte mantendu zen sexu-erasoei erantzuteko protokoloa aktibatzearen inguruko ziurgabetasuna, bai eta abian jarritako ekintzetarako (informazio-gunea, kanpaina, etab.) finantzaketarik egonene ote zen edo ez.



Gainera, Gazteluko plazan, **sentsibilizaziorako eta sexu-erasoen prebentziorako informazio-gune** bat jarri zen. 15.000 arreta eman zitzaizkien 12.182 emakumeri, 4.954 gizoni eta 127 pertsona ez-bitarri.

Azkenik, jaien inguruan, **prestakuntza-saio bat egin zen tokiko komunikabideekin**, Sanferminetan emakumeek duten parte-hartzeari eta protagonismoari buruz, 4 emakumek eta 2 gizonek parte hartuta.

2022an, **emakumeen aurkako indarkeriei aurre egiteko Iruñeko Talde Iraunkorraren** lan-dinamika mantendu da, Iruñean emakumeek pairatzen dituzten indarkeria-motei buruzko informazioa partekatzeko, hiriko indarkeria matxisten biktimen egoera ezagutzeko, indarkeriaren kontrako baliabide publikoen hedapena hobetzeko, herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak diseinatzeko, etab.

Emakumeen Arretarako Udal Zerbitzuak (EAUZ) arreta integrala eta pertsonalizatua ematen jarraitu du genero-indarkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden Iruñeko emakumeei, lehen eta bigarren mailako arretako gainerako zerbitzuekin (Gizarte Zerbitzuetako alorra) lankidetzan, eta hainbat lantalde eta batzordetan parte hartuta.

Aurten **GAIA programa** jarri da abian, Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansareren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmenaren bidez, Sustapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan. Prestakuntza-proiektu bat da, genero-indarkeriaren, emakumezkoen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeak kontratatze eta gizarteratzeko konpromisoarekin, arreta pertsonalizatua emanez, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide integratuen bidez, haien enplegarritasuna hobetzeko eta haien laneratzeari sustatzeko.

Neska-mutilentzako indarkeriarik gabeko berdintasun- eta ikaskuntza-guneak indartzeko asmoz, Iruñeko Udaltzaingoko kideek genero-berdintasunari buruzko 24 hitzaldi eman zituzten (292 mutil eta 281 neska), eta, era berean, genero-indarkeriari buruzko 49 (504 mutil eta 392 neska), sare sozialei eta genero-indarkeriari buruzko 68 (1.600 ikasle gazte baino gehiago) eta genero-indarkeriarekin lotutako Interneteko delituei buruzko 62 (1.400 ikasle baino gehiago).

Iruñeko udaltzainek hainbat prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan. Hona hemen, zehazki:

- Genero-indarkeriaren biktimendako polizia-arreta, salaketa eta salaketaren ondoko babesa. 3 ordu.
- Polizia judizialaren atestatuak, genero-indarkeriaren, sexu-erasoen eta bestelakoak instrukzio-ikastaroa. 66 ordu. Parte-hartzaileak: Emakume 1 eta 4 gizon.
- Genero-indarkeriari buruzko prestakuntza-jardunaldia udaltzaintzat Azpeitian. Genero-indarkeriazko kasuen atestatuak, kontrola eta jarraipena. 6 ordu. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 3 gizon.
- Genero-indarkeriari buruzko prestakuntza-jardunaldia Donostiako udaltzaintzat. Genero-indarkeriazko kasuen atestatuak, kontrola eta jarraipena. 6 ordu. Parte-hartzaileak: 3 emakume eta 1 gizon.
- SIRAJ datu-basea erabiltzeko prestakuntza. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 5 gizon.
- SIRAJ2 datu-basea erabiltzeko prestakuntza. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 4 gizon.
- VioGén sistemaren hasierako erabilerari buruzko prestakuntza. 5 ordu.

2022an, **EUAZ-EAIA-PAIF Koordinazio Protokoloa** aurkeztu zen, udaleko gizarte-zerbitzuetako programek (EUAZ, EAIA eta EIF, bai eta DUO eta PIF programak) **adingabeendako** arreta koordinatua hobetzeko **genero-indarkeriaren testuinguruetan**. Prestakuntza espezializatuaren hedapena diseinatu zen, herritarrak adingabeen eta genero-indarkeriaren arloan sentsibilizatzeko ekintzak garatu ziren, eta erregistroak sistematizatu eta koordinatu ziren.

2022an, **Iruñean gauez lan egiten edo mugitzen diren emakumeen errealitateak, beharrak eta eskaerak ezagutzeko azterlana** egin zen, hainbat gaitan: segurtasuna, mugikortasuna, kontziliazioa...



Azkenik, Berdintasun alorrak bultzatuta eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren baitan finantzaturik, Iruñeko Udalak **Emakumeen aurkako mendeotasun kimikoa eta sexu-indarkeria** jardunaldiak antolatu zituen maiatzaren 30ean eta 31n Medikuen Elkargoan.

Jardunaldi horien helburua da emakumeen aurkako indarkeriak identifikatzen jarraitzea eta begirada diziplina anitzak dituen eztabaida-gune bat sortzea, biktimei laguntzeko eta indarkeria horiek ezabatzeko erantzun integralak hobetze aldera. Aukeratutako gaiaren bidez azaldutako errealitateaz mintzatu ziren Zuzenbideko, Hezkuntzako, Medikuntzako, Farmakologiako, Kazetaritzako, Berdintasuneko edo Psikologiako adituak zenbait hitzalditan; ondotik, solasaldiak eta eztabaida-saioak egin ziren.

JAKINARAZITAKO EKINTZEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

Iruñeko III. Berdintasunerako Planaren 2022ko azterketa kuantitatiboa egiteko, ekintzen 135 jarraipen-fitxaren informazioa erabili da.

Udalaren 9 esku-hartze esparruek jarraipen-fitxak bete eta bidali dituzte hainbat departamentutatik, zehazki: Komunikazioa, Kultura, Euskara Zerbitzua, Berdintasuna, EMATIC, Hezkuntza, Gazteria, Herriarren Partaidetza, Plangintza Estrategikoa, Jasangarritasuna, Babes Zibila, Ogasuna, Giza Baliabideak, Garapenaren aldeko Lankidetzak, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Etxebizitzaren Birgaitzea, eta Hirigintza eta Etxebizitza. Jakinarazitako ekintzen % 28 (38 135etatik) Berdintasunak gidatu ditu.

III. Planaren esku-hartze esparruekin bat, ekintzen % 48 GOBERNANTZA esparruari dagozkio.

Aipatzekoa da ekintza-kopuru handiena (59) IE03ri dagokiola. **Berdintasun printzipioa txertatzen duten lan- eta administrazio-prozedurak**; jarduketaren artean daude garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatzea. Ondoren, IE13ri dagozkion ekintzak datoz. **Herriarrak emakumeen aurkako indarkerian prebenitu eta sentsibilizatzea** (11), IE5. **Partaidetza eta Eragin Politikoa** (10) eta IE06 Hezkuntza eta Hezkidetzak (10).

Arestian adierazi den bezala, fitxak ekintzen jarraipenari dagozkio. Ekintzak gutxieneko gauzapean-unitateak dira; horrenbestez, **III. Planaren jarduera bati hainbat ekintza dagozkioke**. Horren haritik, baloratutako 135 ekintzak Planaren 36 jarduketatan sartzen dira. Bada, ekintzen jarduketaren banaketa honako taula honetan ageri da.

Berriz ere, ekintza kopuru handiena (52) genero-ikuspegia txertatzeko jarduketari dagokio (AC10).

Jarraipen-fitxan **ekintzaren denbora-izaerari** buruzko informazioa dago barne, hots, ohikoa izan daiteke (zerbitzu bat edo dirulaguntza bat, adibidez) edo unean unekoa (ikerlan bat, adibidez). Ekintzen % 71 ohikotzat jo dira, eta gainerako % 29, unean unekoak.

Ekintzak Berdintasunarekin duen loturari dagokionez, 75 berdintasunekoak berezkoak direla jo da, eta 60, zeharkakoak.

Ekintzen xede-publikoari dagokionez, % 51 herritarrei zuzenduta dago, eta % 16, udal-langileei. Beste publiko hartzaile batzuetan honako hauek aipatu dira: 14 - 30 urteko gazteak, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak.

Guraso Elkarrekin eta Guraso Elkarrekin federazioak, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikasleak, besteak beste.

Ekintza-motaren arabera, gehienak sarturik daude zeharkako ekintzen taldeetan (40) eta prestakuntza-ekintzetan, lantegietan eta informazio- eta dibulgazio-saioetan (39).



Ekintzen egoerari dagokionez, **abenduaren 31n**, % 83 amaituta zeuden (113 ekintza).

Azkenik, aipatu behar da baloratutako ekintzen % 40k kanpo-kontratazioa dakartela, eta % 47k, berriz, eskusiboki baliabide propioekin egiten direla. Ez dago horri buruzko informaziorik 17 ekintzaren kasuan.

LGTBI

SEXU-ANIZTASUNA AITORTZEKO ETA LGTBI+ HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUERA NAGUSIAK

Iruñeko Udalak azken urteetan sexu- eta genero-aniztasuna aitortzeko eta babesteko eta LGTBI+ pertsonen eskubideak defendatu eta bultzatzeko ekimenak eta politikak sustatu ditu azken urteetan. 2022an, LGTBI+ komunitateari dagozkion **9 jarraipen-fitxa** jaso dira.

LGTBI+ pertsonen aurkako erasoen aurreko erantzuna koordinatzeko protokoloaren baitan, 2022an hiriko LGTBI+ mugimenduko kolektiboen eta Udaleko hainbat alorren arteko lan bateratua mantendu zen: Berdintasuna, Herritarren Segurtasuna (UPAS) eta Gizarte Zerbitzuak (EUAZ), LGTBI+ pertsonekin hiri askotarikoa eta askea eraikitzeke jarduketa-esparrua eta beharrezkoak diren baliabideak sortzeko. Hala ere, 2021eko LGTBI Planaren Proposamena onartu ez izanak zaildu egiten du prozesu eta jardueraren horien gauzapena, jarraipena eta ebaluazio antolatua.

Prozesu hori hiriak LGTBI+ politika publikoekin duen konpromisoaren parte da, LGTBI+ kolektiboak eta herritarrak kontuan hartuta, gizartea benetan eraldatzeko funtsezko eragileak baitira. Hirian LGTBIfobia desagerraraziko bada, indarkeria horiek ikusarazi behar dira eta gertatzen diren egiturazko indarkeriaren kulturen eta suposatzen duten eskubide-urraketen testuinguruan kokatu behar dira, eta hortik abiatuta indarkeria horiek ezabatzeke eta LGTBIfobiarik gabeko hiri bermatzeko behar diren mekanismoak sortu.

Horrekin bat, Udalak LGTBSI/LGTBAI kanpainia zabaldu zuen 2022an, 2021eko aurrekontuarekin gauzatua, PSNren zuzenketa baten bidez, helburu hauekin:

- Iruñeko LGTBI pertsonak ikusaraztea eta haien benetako berdintasuna lor dadin bultzatzea.
- Pertsona lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen (LGTBI+) eskubideak garatzea eta bermatzea.
- Gizartearen eta instituzioen erantzukizuna da pertsona horiek diskriminazio- eta indarkeria-egoerak ez pairatzea, aniztasun sexuala eta afektiboa erabateko askatasunean bizi ahal dela ziurtatzeko.

1.560 flyer, 200 kartel eta 6 post argitaratu ziren, eta 18 udal-mupitan zabaldu zen.

Bestalde, **Harrotu** Iruñeko Udaleko Sexu eta Genero Aniztasunari Arreta eta Informazioa emateko Zentro Publikoak LGTBI kolektiboaren inguruan informatzeko eta haren parte-hartzea nahiz eskubideak sustatzeko zerbitzua mantendu zuen, arreta emanez 280tik gora emakumeri eta 200etik gora gizoni. Halaber, hiruhileko programari eutsi zion, bai eta herritarrak sentsibilizatzeko ekintzei ere.

Harroturen programazioa hainbat programatan dago banatuta:

- ahalduntze pertsonala,
- ahalduntze kolektiboa,
- sentsibilizazioa,
- boluntariotza, eta
- kultura-jarduerak.

Hiru hilean behin programatutako jardueraz gain, ekitaldiak ospakizun-egunotan egiten dira:



Liburuaren Eguna zela eta, **Harrotuko liburutegian eskura dauden LGTBI liburuen gida** bat argitaratu zen, helburu hauekin:

- Harrotuko liburutegi zerbitzua ezagutaraztea.
- Eskura dauden LGTBI liburuen eta materialen berri ematea herritarrei.
- LGTBI kultur topagune bat sortzea.
- LGTBI gaiei buruzko liburuak, bideoak eta egileak ezagutaraztea.

LGTBI liburuen gidaren 2.000 foielto argitaratu ziren.

Ekainaren 28an, Iruñeko Udalak kolore askorekin argitu zuen udaletxeko fatxada, eskubideen aldarrikapenekin bat egiteko eta pertsona askok beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik pairatzen duten diskriminazioa salatzeke. Kontzertua egin zen San Jose plazan, 250 pertsona inguru bertaratuta, eta LGTBI Bertso Saioa, 120 pertsonak parte hartuta (80 emakume eta 40 gizon).

Urrian, hainbat jarduera antolatu ziren, elkarrekin lankidetzan, hiriko trans pertsonen errealitatea ikusarazteko eta arlo horri buruzko topaguneak eta gogoeta-guneak sortzeko:

- *Sentimientos encontrados* liburuaren aurkezpena (25 emakumek eta 25 gizonek parte hartu zuten).
- *Mi pequeño gran Samurai* dokumentala (80 emakume eta 80 gizon parte-hartzaile).
- *Ahalduntzen naiz, nire burua gustuko dut* lantegia. lantegia (5 emakume eta 7 gizon parte-hartzaile).
- Solasaldia: *Trans errealitateari buruzko begirada sexologikoa* (40 emakume eta 20 gizon parte-hartzaile).
- Dantza garaikidearen inguruko sorkuntza-lantegia: *¿Qué tal si yo estoy yo y tú estás tú?*

Azkenik, Berdintasun alorrak, aurreko urteetan bezala, LGTBI kolektiboendako dirulaguntza kudeatu zuen, herritarrei eta/edo LGTBI herritarrei zuzendutako proiektuak egiteko, haien parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzeko, eta gizarte-eskubideak lortzearen alde lan egiteko. Horren bidez, 5 erakunderen proiektuak finantzatu ziren eta, guztira, 15.735 € jaso zituzten.

JAKINARAZITAKO EKINTZEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

2022an, LGTBI+ komunitateari buruzko jarduketan 9 jarraipen-fitxa jaso dira, guztiak ere 42 ekintzari buruzkoak. Informazio-proiektuan sexu-aholkularitzako zerbitzu bat sartzea LGTBQI kolektiboarendako, ahalduntzearen esparruan.

Jakinarazitako jarduera guztietatik 6 ohikoak dira alorretan, eta 3, berriz, unean unekoak: LGTBQI/LGTBAI kanpaina, LGTBI+ Liburuen Gida, eta Komunikazio alorrak prestatu eta zabalduetako kanpainak. Horiek guztiak berez dagozkio Berdintasunari.

Jarduerak herritarrentzat izan ziren, dirulaguntzen deialdiaren kasuan izan ezik. Kasu horretan, diruz lagundutako proiektuetako batzuk LGTBI herritarrendako soilik izan ziren, eta beste batzuk, berriz, herritarrendako oro har. Ekintza-motaren arabera, 3 Prestakuntza Ekintzak/Lantegiak/Informazio Saioak/Dibulgazio taldean sarturik daude; 3, Sentsibilizazio Kanpaina eta/edo Ekintzen taldean, eta gainerakoak, beste tipologia batzuetan: Dirulaguntza, Arreta Zerbitzua eta Protokoloa.

Abenduaren 31ko ekintzen egoerari dagokionez, ekintza guztiak 2022an gauzatu dira osorik, baina haietako 6 2023an mantendu edo errepikatuko, hots, ohikotzat jotzen direnak.



2.6.3. UDAL-ARTXIBOA

ARTXIBO-PROZESUAK

DIRU-SARRERAK

Udal-bulegoen artean, Gizarte Orokorreko Alorrak bakarrik egin dio dokumentazio-**transferentzia** Udal Artxiboari; Akten departamentuak, hain zuzen ere:

- 2021eko Osoko Bilkuren Akten Liburua, 2 liburukitan.
- Osoko Bilkuraren saioen 15 espediente, 2020. urteari dagozkionak.
- Osoko Bilkuraren saioen 16 espediente, 2021. urteari dagozkionak.
- 2020ko osoko bilkuren espedienteen masterrak dituzten 14 DVD.
- Osoko bilkuren, Batzarren eta informazio-batzordeen liburu ofizialak, eta alkatearen eta zinegotzi ordezkarien ebazpenak, guztiak 2020. urtekoak: 40 liburuki.

Fototekak bost dohaintza partikular jaso zituen. Honakoak dira nabarmentzekoak, munta handikoenak baitira:

- Victoriano Juaristi funtsa: Haren bizitza pribatuarekin eta lanbide-jarduerarekin lotutako 67 argazki-dokumentu.
- Baltasar Soteras Eliaren funtsa eta bilduma pertsonala. Sendagilea izan zen lanbidez eta argazkilari amateurra. 14.825 originalek osatua dago eta erreprodukzioak hainbat formatutan daude.
- Emilio Zazu: 3.983 argazki, 2005etik 2019ra entzierroaren hainbat tartetan hartutakoak.

Era berean, 10 argazki-dokumentu erosi eta Fototekako Udal Bilduman sartu ziren:

- 6 postal-txartel, Gerardo Zaragüeta Zabaloren argazkiekin, Club Atlético Osasunako jokalarien erretratuekin, 1925eko hainbat futbol-partidutan.
- Postal-txartel 1, José Galle Gallegoren argazkiarekin, Julio Ruiz de Aldak 1926an Iruñera egindako bisitarena.
- Foto Mena-ren 3 argazki. Talde-erretratuak dira, 1987ko Sanferminen aurreko maioralen afarian.
- 1979ko Sanferminetako feriako lehen zezenketako argazki 1. Egile ezezaguna.

Azkenik, **liburutegi** osagarriaren funtsak 135 titulutan handitu ziren: 17 Nafarroako Gobernuako Argitalpen Funtsak eman zituen dohaintzan; 24, liburu-denda antikuariotatik erosi ziren, eta gainerakoak (94) 2022an argitaratutako liburuen erosketak dira.

SARBIDEA

A) Kontsultak aretoan

Urtean zehar, **1.374 erabiltzailek** kontsultatu zituzten funtsak han bertan: 1.225 kanpoko erabiltzaileak izan ziren (herritarrak) eta 149 barnekoak (Udal barnekoak).

Funtsik kontsultatuenak Fototekari dagozkionak izan ziren; gero, Eraikuntza Lizentzien espediente-serieak, biztanleen udal-errola eta bilduma hemerografikoa.

Aurrez aurreko kontsulta-datuei gehitu beharko litzazkieke Novadoc aplikazioaren bidezko sarrerak, dela Fototekako funtsetara, dela Hemerotekako eta Liburutegiko bildumara. Programak ez digu hori kuantifikatzea ahalbidetzen.



B) Maileguak

Artxiboak ematen duen zerbitzuetako bat udal-bulegoendako espedienteen barne-mailegua da; bereziki, maiz egiten dira Hirigintza alorrera. 2022 zehar, 187 espediente mailegatu, eta 172 itzuli ziren.

Halaber, eta Udalean ohi denez, Batasunaren Pribilegioaren 599. Urtemugaren ospakizunaren karira, Protokolo alorrak bisita gidatuak antolatu zituen Udaletxea ikusteko, irailaren 2tik 9ra, eta harrera-aretoan erakusketa txiki bat apailatu zen, dokumentuak eta gaiari lotutako beste material batzuk ikusgai jartzeko, guztiak ere Artxibotik eramanak. Horrela, honako dokumentuak eta bibliografia-aleak mailegatu ziren, aipatu egunetan:

- Batasunaren Pribilegioaren jatorrizko agiria, Karlos III.a Nobleak 1423an emana.
- 1533ko maiatzaren 16ko Pribilegioaren kopia, eskuz idatzia.
- Jatorrizko agiriaren hiru edizio inprimatu: 1619koa, 1731koa eta 1773koa.
- Liburutegiko 3 ale: Leandro Olivierren foiletoa (1923), Concepción Martínez Pasamarren monografia (1995) eta udaletxeari buruzko argitalpen bat, José Luis Molínsen egina (1995).

Halaber, honako mailegu hauek utzi zitzaizkien **artxibo-** edo **museo-erakundeetako** erakusketetan ikusgai jartzeko:

- Karlismoaren Museoari, *Argia ilunantzean. Osasuna eta humanitarismoa gatazka belikoetan* erakusketarako, 2021eko urriaren 29an inauguratua eta 2022ko uztailaren 31ra arte luzatua:
 - Iruñera 1872ko maiatzaren 6an iritsitako 736 preso eta zauritu karlisten zerrenda, Orokietako gudua galtzearen ondorioz.
- Nafarroako Errege Artxibo Nagusiari, **Dos documentos Agramonteses y Beaumonteses** erakusketan ikusgai jartzeko, 2022ko urriaren 28tik 2023ko otsailaren 26ra arte. Bi dokumentuak Iruñeko Udal Artxiboko pergaminoen bildumatik eraman ziren:
 - Iruña, 1474ko urriaren 21a. Luis Beaumontekoak -Nafarroako Kondestableak- baimena eman zion Iruñeko hiriari beren alkabalak bildu zitzan, Joan II.aren eta infanta Leonorren jarraitzaileengandik defenditzeko behar ziren zaldi-tropak mantentze aldera (R. 245-240).
 - Erriberri, 1494ko apirilaren 15a. Joan Albretetako eta Katalina Foixkoa Nafarroako errege-erreginek Iruñean sartzea debekatu zieten Nafarroako Kondestableari eta Mariskalari, bai eta haien ahaide eta aliatuei ere.
- Madrilgo Historia Museoari *Francisco Pradilla Ortiz (1848-1921), más que un pintor de historia* erakusketarako (2022ko urritik 2023ko otsailera bitarte egindakoa), honako dokumentu hau:
 - *A Sarasate: Sus compatriotas*, 1882 aluma, urte hartan Erroman prestakuntza jasotzen ari ziren artista espainiarrek Sarasateri eskainia.

C) Erreprodukzioa

Artxiboak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, bertako funtsen erreprodukzioa dago. 2022an, 19 eskaera bideratu ziren Hemerrotekarako eta, 62, Fototekarako. Halaber, 243 plano digitalizatu ziren, 76 erabiltzailek eskaturik.



IDENTIFIKAZIOA-DESKRIBAPENA

2022an zehar eta Fototekari soilik gagozkiola, Arazuri Bildumako dokumentuak digitalizatu eta deskribatzeko lanari eman zaio jarraipena (2021ean hasia), Novadoc informatika-aplikazioaren bidez, online kontsultatu ahal izateko. 2022an, 1.315 ale deskribatu ziren.

2022an, Baltasar Soteras Elíaren funtsa eta bilduma pertsonala jaso ziren dohaintzan, 14.825 argazkik baino gehiagok osatua. Ekarpen eskuzabal hori ikusarazteko eta aintzat hartzeko, argazkilariak formatu handian (30 x 40 cm) egindako 373 erreproduzioak Novadoc aplikazioaren bidez digitalizatzea eta deskribatzea erabaki zen, guztiak ere argazkilariak berak hautatuak hainbat erakusketa eta lehiaketatan aurkezteko.

Guztira, 8.779 Fototeka erregistro zeuden Novadoc aplikazioan sartuak 2022ko abenduaren 31n, ale soilen eta konposatuen artean, hau da, 12.848 dokumentu daude kontsultagai sarean.

Sarean kontsultagai dauden Fototeka Erregistroak (Novadoc programa)

Bilduma - Funtsa	Erregistroak	Piezak
Udal Bilduma (ale soilak eta konposatuak).	3.920	7.871
1938ko udal-memoria	98	98
Udal Informaziorako Buletina (ale konposatuak)	28	146
Iruñeko txokoak (1999-2007).	125	125
Konpartsa Bilduma	688	688
Zubieta y Retegui Funtza (Entzierroak)	381	381
Zubieta y Retegui Funtza (Pensamiento Navarro)	34	34
Herritarren memoria grafikoa - Covid-19	230	230
Arazuri bilduma	2.902	2.902
Baltasar Soteras Elía Funtza (formatu handia)	373	373
GUZTIRA	8.779	12.848

ZABALKUNDEA

Egungo zezen-plaza eraiki zeneko mendeurrenaren ospakizuna zela eta, erakusketa bat antolatu zen: Iruñeko zezen-plazaren mendeurrena (1922 - 2022). *Iruñeko Udal Artxiboko ebokazioak, irudiak eta agiriak*, Javier Marquinezek komisariatua. Kondestablearen jauregiko areto gotikoan jarri zen ikusgai, 2022ko ekainaren 10etik abuztuaren 27ra. Muraria-ren zerbitzuak erabili ziren hura diseinatu eta koordinatzeko. Halaber, katalogo bat argitaratu zen, 1.000 alekoa, 6 euroan saldutakoa Kondestablearen jauregian bertan.

Erakusketan ibilbidea egin zen Iruñeko hiriak Erdi Aroko mendeetatik antolatutako zezen-jaialdietan zehar, bai eta zezen-plazen proiektuetan ere, Horrela, XVII. mendetik XIX.era bitarteko planoak, dokumentuak eta diseinu kartografikoak jarri ziren ikusgai, bai eta argazkiak ere. Gehienak Iruñeko Udal Artxiboko funtsetatik hartu ziren, baina kolaboratzaile batzuen argazkiak ere erabili.



KONTSERBAZIOA

Pergaminoen bildumaren instalazioa kontserbazio iraunkorrerako bermeekin bururaino eramateko, 39 kutxa erosi ziren, guztiak ere neurrira eta babes-materialekin fabrikatuak.

Halaber, eta egungo zezen-plazaren eraikuntzari buruzko erakusketa horren karira, Mapak, Planoak eta Marrazkiak bildumako hainbat agiri **zaharberritzeko** enkargua eman zitzaion Ana Isabel Martínez de Aguirreri:

- Antzoki berriaren kokapen-planoa. 1839-1842 aldean.
- San Nikolaseko Portaletik Gazteluko plazarako sarreraren plano, 1790.
- Diputazio Probintzialak zezen-plaza eraikitzeke utzitako lursail eta eraikinen plano, 1840.
- Gazteluko plazako zezenketetarako balkoien kokapen-planoa eta profilak, XVIII. mendea.
- Gazteluko plazako zezenketetarako hesiaren diseinua, XVIII. mendearen 1. erdia.
- Udal palkoaren oihalaren marrazkia, Gazteluko plazako zezen-plazan, XVIII-XIX. mendeak.
- Roque Jacinto Arteagaren zezen-plazaren proiektuaren oinplanoa eta sekzioa. XIX. mendearen 1. erdia.
- Pedro de Ansoleagaren zezen-plazarako proiektuaren oinplanoa eta fatxada, 1850.

Halaber, eta *Sarasateren albuma* Madrilgo Historia Museoari bere erakusketarako utzi zitzaiola eta, Nafarroako Artxibo Nagusiko zaharberritze zerbitzuetara jo zen, pieza horretan esku hartu zezaten.

DIGITALIZAZIOA

Era berean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusia Udal Artxiboarekin aritu zen lankidetzan, Iruñeko zezen-plazen eta hesien proiektuen 9 planoak digitalizatzeko, guztiak ere aipatu erakusketan ikusgai jarriak.

Era berean, Prentsa historikoaren eta Mapak, Planoak eta Marrazkien bildumak digitalizatzeko proiektuari eman zitzaion jarraipena, aurreko urteetan abiarazia. Horrela, Din A2 eta Din A0 arteko formatuen 45.000 orrialderen digitalizazioa kontratatu zen Vinfra-rekin, bai TIFF formatuan, RGB moldeko 300 dpi optiko konprimatu gabe, bai JPG eta PDF formatuetan.

ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOAN ESKU HARTZEA

Bere eginkizunen artean, Udal Artxiboak ondare historiko artistikoa zaharberritu eta **erostearekin** lotutako gaietan esku hartu du. Horrela, bitartekaritza-lana egin zen, Huarte Solchaga familiari Iruñeko harrizko armari bat 30.000 euroan erosteko. XVI. mendekoa da eta Kondestable jauregian jarri zen.

Era berean, eta udaletxeko fatxadako Justiziaren estatuari ekintza bandaliko egin zitzaionez, bitartekaritza-lana egin zen, behar ziren **zaharberritze-lanak** María del Mar Navarriori enkargatzeko (CYR-PA, Conservación y Restauración del Patrimonio, C.B.), zeinak ezpataren erreplika bat egin baitzuen, 2019az geroztik Udal Artxiboan gordea dagoen ezpatatik abiatuta.

2.7. GIZARTE ZERBITZUAK, KOMUNITATE EKINTZA ETA KIROLA

2.7.1. GIZARTE ZERBITZUAK

LEHEN MAILAKO ARRETA / AUZO UNITATEAK

AUZO UNITATEAK ERABILTZAILEAK

2022an, Iruñeko auzo-unitateek 56.694 artatze egin zituzten.

Artatzeak era programatuan nahiz lehen baheketa-artatze gisa egin ziren.

	2018	2019	2020	2021	2022
Artatze kopurua	43.811	43.113	46.075	49.320	56.694

Erantzundako hitzorduak, auzo-unitateen arabera eta auzo bakoitzak iruñeko guztizkoan adierazten duenaren arabera

Auzo-unitatea	2018	%	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Buztintxuri	2.687	% 6,31	2.971	% 6,83	2.623	% 5,69	2.820	% 5,72	3.197	% 5,63
Alde Zaharra	3.564	% 8,13	3.474	% 8,05	3.932	% 8,53	4.016	% 8,14	4.800	% 8,46
Txantrea	5.743	% 13,11	5.446	% 12,63	5.310	% 11,52	5.428	% 11,01	6.193	% 11,00
Etxabakoitz	2.702	% 6,17	2.861	% 6,63	2.226	% 4,83	2.608	% 5,29	3.101	% 5,47
Zabalgunea	3.641	% 8,31	3.384	% 7,84	3.395	% 7,37	3.101	% 6,29	3.614	% 6,37
Ermitagaña	1.910	4,36%	2.173	% 5,04	2.099	4,56%	2.172	% 4,40	2.782	% 4,90
Iturrama	1.983	4,53%	2.081	% 4,82	2.644	5,74%	2.926	% 5,93	3.560	% 6,27
Lezkairu					1.379	2,99%	2.482	% 5,03	2.876	% 5,07
Mendillorri	2.110	4,82%	2.131	% 4,94	1.947	4,23%	1.940	% 3,93	2.056	% 3,63
Arrosadia	5.675	12,95%	5.188	% 12,03	4.947	10,74%	5.868	% 11,90	6.685	% 11,77
Arrotxapea	6.845	15,62%	6.322	% 14,66	7.623	16,54%	7.673	% 15,56	8.224	% 14,50
Sanduzelai	3.696	8,44%	3.823	% 8,86	4.131	8,97%	4.400	% 8,92	4.966	% 8,75
Donibane	3.255	7,43%	3.259	% 7,55	3.819	8,29%	3.888	% 7,88	4.640	% 8,18
GUZTIRA	43.811	% 100	43.113	% 100	46.075	% 100	49.320	% 100	56.694	% 100,00

AUZO UNITATEAK PROGRAMAK

Auzo-unitateei esker, herritarrek lehen mailako arretako lau programa eskuratzen dituzte, baita Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko prestazioak ere

1. HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOKO PROGRAMA

Herritar guztiei zuzenduta, haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioak eskuratzeko bide emanez eta, behar izanez gero, lehen mailako arretako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez.

2. Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arta emateko programa

Udalak hainbat baliabide eskaintzen ditu, helburu hauek gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonen eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide ordezkioak eskuratzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez. Programa honetako langileek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia (PAGNA) eta Etxez Etxeko Laguntzako Udal Zerbitzuaren (EELZ) prestazioak kudeatzen dituzte.

Mendekotasunari lotutako prestazioak, auzo unitateetan kudeatuak

AUZO UNITATEAK	Mendekotasuna													
	Mendekotasunaren balorazioa				API				Ay. Ec. Zaintzak eta familia-ingurunea				POA (Pertsonarengan Oinarritutako Arreta)	
	19	20	21	22	19	20	21	22	19	20	21	22	21	22
BUZTINTXURI	12	5	4	50	21	18	14	48	5	9	4	5	6	2
ALDE ZAHARRA	118	152	154	47	97	259	186	68	26	58	35	16	18	8
TXANTREA	262	57	49	128	311	74	52	171	58	16	11	26	3	11
ZABALGUNEA	46	32	17	201	45	38	13	241	10	10		35		23
ERMITAGAÑA	319	158	173	69	411	220	201	87	71	36	24	15	21	7
ETXABAKOITZ	208	115	73	16	180	198	80	22	34	34	10	3	36	2
ITURRAMA	288	126	212	176	372	263	231	272	82	47	25	19	29	21
LEZKAIRU		17	25	18		30	25	31		4	5	6	3	3
MENDILLORRI	79	39	38	42	84	55	30	46	21	19	3	7	5	3
ARROSADIA	239	102	104	107	237	146	105	122	53	37	21	27	11	8
ARROTXAPEA	285	182	141	156	309	263	185	212	66	56	24	17	16	14
SANDUZELAI	124	77	99	81	107	108	95	105	31	27	13	17	8	5
DONIBANE	319	231	278	286	329	327	313	343	69	58	49	73	38	42
Iruña	2255	1304	1367	1377	2503	2029	1530	1768	526	431	224	266	171	149

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (EELZ)

EELZk zuzeneko arta etxean bertan eskaintzen dio zerbitzuaren hartzaileari, gehienez bi orduz egunero. 2022an, zerbitzu horretako prestazioen bat erabiltzen duten pertsonen 1.087 espedienterekin lan egin da (zuzeneko arreta lanerako, familia, elikadura, arropa-garbiketa eta/edo laguntza teknikoak ematea).

Guztira zuzeneko arreta pertsonaleko 127.806,63 ordu eskaini zaizkie 824 erabiltzaileri. Gainera, 116.306 bazkari eta 43.968 afari ere eman zaizkie 605 pertsonari, beren beharretara egokitutako menuekin. Azkenik, 627 garbitegi-zerbitzu egin zaizkie 19 erabiltzaileri eta laguntza teknikoak eman zaizkie aldi baterako EELZren 58 erabiltzaileri.

Adinekoendako udal-apartamentuak

Adinekoendako udal-apartamentuei dagokienez, 2022an auzo-unitateek udal-apartamentuen 29 espediente eskatu eta baloratu dituzte (18 emakume eta 11 gizon).



Hala, 2022an, banakako 140 apartamentu eta 4 apartamentu bikoitz daude okupatut. Bertan 153 pertsona daude: 127 bakarrik bizi dira eta 26, berriz, bikotekidearekin. 153 egoiliarretatik 96 emakumeak dira, eta 57, gizonak. Adinari dagokionez, egoiliarren batez bertzeko adina 78 urtekoa da. Udal-apartamentuetan, batez besteko egonaldia 8,5 urtekoa da.

Hala, 2022an, banakako 140 apartamentu eta 4 apartamentu bikoitz daude okupatut. Bertan 153 pertsona daude: 127 bakarrik bizi dira eta 26, berriz, bikotekidearekin. 153 egoiliarretatik 96 emakumeak dira, eta 57, gizonak. Adinari dagokionez, egoiliarren batez bertzeko adina 78 urtekoa da. Udal-apartamentuetan, batez besteko egonaldia 8,5 urtekoa da.

3. HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO programa

Haurren eskubideak bermatzea du xedetzat programa honek, eta haien garapen pertsonala ahalbidetzen duen ingurunea bermatzea; horretarako, prebentzio, sustapen, babes, laguntza pertsonal, familiar eta sozialeko neurriak erabiltzen ditu, eta, babesgabetasun-egoerak daudenean, baita familiako esku-hartzea ere, baina adingabeen instituzionalizazioa saihesten da betiere. 2.883 adingabe artatu dira eta haietariko 1.480 neskatoak dira, eta 1.403, mutikoak.

Programan 656 adingabe (342 mutil eta 314 neska) artatu dira lehendabizikoz 2022an. Aurten, 684 adingaberekin amaitu da esku-hartzea (333 mutil eta 351 neska).

	2018	2019	2020	2021	2022
Artatutako familiak	975	1.253	1.379	1.453	1.653
Artatutako adingabeak	1.787	1.924	2.306	2.539	2.883

— **Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua (FEHZ).** Haurren Programan berariazko baliabide hau dago; lehiaketa publiko bidez kudeatzen da, eta, babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzean datza. 2022an, 104 familiari eman zitzaizen zerbitzua eta, guztira, 204 adingaberi..

	2018	2019	2020	2021	2022
Artatutako familiak	89	94	88	110	104

4. GIZARTERATZE-PROGRAMA

Helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Kasu horretan, gizarte-laneko eta gizarteratze-teknikariak esku hartzen ahal dute, eta, zenbait kasutan, psikologoek ere bai.

**GIZARTERATZE-
PROGRAMA**
FAMILIA-UNITATEAK
ERABILTZAILEAK

	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
Buztintxuri	119	172	240	269	161	213	296	314
Alde Zaharra	105	110	115	147	124	127	132	164
Etxabakoitz	118	112	95	113	146	143	102	128
Zabalgunea	102	101	117	146	127	125	141	161
Ermitagaña	79	76	98	113	103	99	117	132
Iturrama	50	86	150	161	59	93	181	189
Lezkairu*		102	100	105		133	136	128
Mendillorri	64	63	75	83	76	79	109	123
Arrosadia	403	294	400	435	569	403	531	558
Arrotxapea	225	244	361	446	275	310	496	634
Sanduzelai	118	127	197	256	172	174	247	297
Donibane	70	103	149	165	71	111	157	182
Txantrea	251	292	350	370	300	381	476	465
GUZTIRA	1.704	1.882	2.447	2.809	2.183	2.391	3.121	3.475

**GIZARTERATZE-
PROGRAMA**
**GIZARTE- ZEIN HEZKUNTZA-LAGUNTZA
DUTEN FAMILIA-UNITATEAK**
**ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOA DUTEN
PERTSONAK**

	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
Buztintxuri	82	63	76	55	7	7	10	7
Alde Zaharra	61	67	69	78	5	5	5	5
Etxabakoitz	91	79	47	26	6	6	3	6
Zabalgunea	59	59	53	60	2	1	3	5
Ermitagaña	60	62	52	51	3	4	4	2
Iturrama	43	52	64	67	1	5	5	8
Lezkairu		44	44	45		2	2	13
Mendillorri	48	48	50	56	2	5	4	6
Arrosadia	120	83	85	98	7	9	9	7
Arrotxapea	145	121	107	113	3	2	5	6
Sanduzelai	82	80	95	101	4	3	5	6
Donibane	46	61	65	90	5	3	4	7
Txantrea	67	63	57	65	8	4	8	10
GUZTIRA	904	882	864	905	53	56	67	88

* Auzo-unitate berria 2022ko martxoaren 2an sortu zen, baina alarma-egoera eta konfinamendua zirela eta, ez zen lantalde gisa modu egonko-
rean eta kokapen berrian lanean hasi urte horretako ekainaren 22ra arte. Aurretik Zabalguneako eta Arrosadiko auzo-unitateetan artatzen
ziren kasuak hartu zituzten beren gain; batez ere azken horretakoak.



2022an, prestakuntza-ekintzak egin dira prestakuntza-ekintzen kontratu teknikoaren barnean (Alaiz Elkartea – Gaztelan Fundazioa ABEE), Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Alorreko programen erabiltzaileendako eta profesionalendako

ZERBITZUA / PROGRAMA / ZENTROA EKINTZA	EKINTZA	Parte-hartzaile kop. Emakumeak/Gizonak
AUZO UNITATEAK (LEHEN MAILAKO ARRETA) Izaera komunitarioko ekintzak	Arrotxapea eta Alde Zaharra auzo- unitatea <i>Taldea Gaztelaniazko elkarrizketa.</i>	9 emakume hasi ziren
	Lezkairu auzo-unitatea <i>Garapen kognitiboa. I. maila</i> <i>Garapen kognitiboa. II. maila</i>	I. maila: 26 pertsona hasi ziren, 12 emakume eta 14 gizon II- maila: 19 pertsona hasi ziren, 9 emakume eta 10 gizon
	Sanduzelai auzo-unitatea <i>Gaztelaniazko lantegia gizonendako</i> <i>Gaztelaniazko lantegia emakumeendako</i>	10 emakume hasi ziren 18 gizon hasi ziren
GIZARTERATZE-PROGRAMA (LEHEN MAILAKO ARRETA) * Eguneko bizitarako oinarritzko trebeziak handitzea. * Gizarte-trebeziak eskuratu eta hobetzea. * Prestakuntza sozio-pertsonalerako beste ekintza batzuk.	PVD Hiri-baratzeak. Datak: 2022ko urtarrila-abendua	6 parte-hartzaile hasi ziren, 3 gizon eta 3 emakume. 7 pertsonak bukatu zuten, 4 emakumek
GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO LANTALDEA (GLL) * Lan aurreko gaikuntza eta/edo lan-merkatuan sartzeko orientabidea	Dementzia duten pertsonak etxean artatzea. Zeharkako gaitasunak. Datak: 2002ko urria-azaroa	12 pertsonak parte hartu dute, 10 emakumek eta 2 gizonak
	Gaia proiektuaren hasiera. Datak: 2002ko urria-abendua	Genero-indarkeriaren biktime diren 7 emakumek parte

2002An prestakuntza-ekintza gehiago egin dira lehen mailako arretako auzo-unitateetan eta ez hain zentralizatuak Arrotxapeko Errotazar Zentroan.

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Iruñeko Udaleko enplegurako prestakuntza-programek antolatutako ekintzen ardatz nagusia da zailtasun erantsiren bat duten pertsonen laneratzea sustatzea. Pertsona horien gizarteratze eta laneratzea lortuko da, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz eta lanbide-kualifikazioa erdietsiz.

2022an, 812 pertsonak parte hartu dute Iruñeko Udaleko enplegurako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia da zailtasun erantsiren bat duten pertsonen laneratzea sustatzea Iruñean, gizarteratzea eta laneratzea lor dezaten, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz eta lanbide-kualifikazioa erdietsiz.

2002ko programa	Parte-hartzaileen kopurua
LANTEGI-ESKOLA: Biltegiatzea, hondakinen kudeaketa eta harri naturalaren lanketa	17
LANTEGI-ESKOLA: Igeltserotzako birgaitze-lanetako eraikuntza jasangarria	17
LANTEGI-ESKOLA: Zur bidezko birgaitze energetikoa	17
LANTEGI-ESKOLA: Energia-eraginkortasuna eraikinen mantentze-lanetan	17
LANTEGI-ESKOLA: Natur baliabideen kontserbazioa eta ustiapena: Baso autoktonoa CO2 hustulekua eta lorategiak	17
LANTEGI-ESKOLA: Soldatze-teknika operatiboak industria metalurgikoan	17
GLT-GLBZ	533
Interes orokorreko eta sozialeko obrak	17
Langabeendako ikastaroak (SNE-NLk diruz lagunduak)	15
Espetxeko prestakuntza-ekintzak	0
GUZTIRA	667

Programa	2018	2019	2020	2021	2022
Lantegi-eskolak eta PEPlak	145	100	100	100	102
GLT-GLBZ	535	405	429	504	533
SNE-NLk finantzaturiko prestakuntza-ikastaroak eta espetxeetako lantegiak	86	222	173	191	15
Interes orokorreko eta sozialeko obrak	19	20	13	17	17
Onuradunak, guztira	803	809	737	812	667

*2022An, ez zen lantegirik egin espetxean

GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-TALDEA (GLT)

2022. urtean Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 533 espediente aktiborekin lan egin zuen, eta horietatik 165 alta berriei dagozkie. Horietatik 104 (% 63,00) emakumeak dira, eta 61 (% 37,00) gizonak (urte guztien konparazioan, emakumeen kopuruak gizonenak baino handiagoa izaten jarraitzen du). Eta 379, artatutakoen % 71, migratzaileak dira, eta 154, berriz, nazionalak, % 29.

Urtean zehar prestakuntza ematen da taldeak artatutako pertsonen gaitasun pertsonalak eta enplegarritasuna hobetzeko.

- “Mentoringa eta coachinga emakumeak laneratzeko”, AMEDNArekin lankidetzan (Nafarroako Emakume Enpresarien elkartearekin lankidetzan). 2022ko urria eta azaroa 11 emakumek hasi eta bukatu zuten.
- “dementzia duten pertsonak etxean artatzea”, AFAN/Nafarroako Alzheimer Gaixoen Senideen elkartearekin lankidetzan. 116 ordu teorikoko prestakuntza 13 parte-hartzailek hasi eta 11k bukatu zuten (2 gizon, 9 emakume).
- “Birgaitze-teknikak eta prestakuntza espezializatua eraikuntzan”, Eraikuntzako Lan Fundazioak emana, Shaken S.L. Servicios enpresarekin elkarlanean. Datak: 2002ko otsailetik apirilera.
Parte-hartzaileak: 10 pertsonak prestakuntza hasi eta 7k bukatu zuten; guztiak, gizonak.
- “Enplegurako trebezia pertsonalak”. 9 pertsonak hasi eta 1ek bukatu du (gizon 1, 8 emakume).
- “Gaitasun digitalak”: 31 pertsonak hasi zuten (12 gizon, 19 emakume) eta 24k bukatu zuten (9 gizon, 15 emakume).
- GAIA prestakuntza-proiektuaren hasiera, genero-indarkeriaren, emakumezkoen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeak kontratatze eta laneratzeko konpromisoarekin. 7 emakumek parte hartu zuten. Proiektuak 2023an jarraitu du.



- Talde horren barruan Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua ere (GLBZ) badago; hautatze-prozesuak egiten ditu, urtean zehar eta zenbait postutarako, GLTren erabiltzaileak kontratatzeko. 273 enplegu-eskaintza jaso ditu zuzenean 369 lanpostutarako. Eskaintza horien ondorioz, 183 laneratze izan dira eta eskaintako lanpostuen % 51 bete dira, batez beste.
- Kontratazioak ESP: 16 pertsona (9 gizon eta 7 emakume)

LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduerak egiten ditu, langabeak lehenetsita, haien laneratzea lortu nahian. 2022an, 15 pertsonak parte hartu dute enplegu inklusiboko ikastaro batean. 210 prestakuntza-ordu eman dira, guztira.

IKASTAROA	Ordu kopurua	Hasiera-data	Bukaera-data	Praktikak enpresak	Emakumeak	Gizonak
Zerbitzari lan egiteko enplegu inklusiboa	210	2022/1/4	2022/1/7	Si	11	4
ORDUAK, GUZTIRA	PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA				15	

NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEN PRESTAZIOAK ESKURATZEA: kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa; errenta bermatua, gizarteratzeko laguntza ekonomiko bereziak eta desgaitasuna duten pertsonendako prestazio ekonomikoa.

- Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa. 2022an, 161 eskaera izapidetu ziren.
- Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa. 2002an, 41 eskaera izapidetu ziren.
- Errenta bermatua 2002an, errenta bermaturako 7.183 eskaera gauzatu ziren hirian.
- Laguntza ekonomiko bereziak. 2022an, 612 eskaera gauzatu ziren hirian.
- Desgaitasuna duten pertsonendako prestazio ekonomikoa 2022an, 15 eskaera izapidetu ziren.

ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO IBILBIDEETAKO ENPLEGU-PROGRAMAK

1. GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programak 205 pertsonako taldea du 2022an, kontratatutako peoien eta programan laguntzeko teknikarien artean: lantaldeetako arduradunak eta ofizialak eta talde teknikoak. Talde horrek bederatzi lantaldeetan lan egiten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketak, zerbitzu orokorrak eta atezaintza, ibaiak eta mintegia mantentzeko lanak, jostaketa eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia, elikagaiak banatzeko gunea, eta koadernaketa eta serigrafia. Programak udal-arloetarako eta bertze administrazio publiko batzuetarako lan egiten du, eta, zehazkiago, irabazi-asmorik gabeko erakunde/elkarteetarako.

Programa udal-dinamikan finkaturik dago, bai gizarte-bazterketa egoeran dauden hiriko pertsonak kontratatzeari dagokionez, bai eskatutako zeregin eta lanei dagokienez. 2022. urtean zehar, programa honen bidez, Udaleko gizarte-zerbitzuetatik datozen 174 pertsonak lan-kontratua lortu dute.



Egindako zenbait lan

- 2022an, etxebizitzak birgaitzeko obren lantaldeak adinekoendako bi udal-apartamentutan esku hartu zuen, bai eta udal-aretoak eta -zentroak berritu eta konpontzeko lanetan ere.
- Garbiketako lantaldeak ohiko garbiketak egin zituen egonkorki esleituak dituen udal-aretoetan, eta garbiketa bereziak noizbehinka etxebizitza eta pisu berrietan, haien entrega egin aurretik.
- 2022an pinturakoak, besteak beste, adinekoendako hainbat udal-apartamentu babestutan lan egin zuen eta, era berean, udal-etxebizitzetan, udal-ikastetxeetan eta bestelako udal-areto eta -bulegoetan.
- Koadernaketa eta serigrafiako lantaldea Udal Artxiboan aritu da (aktak eta prentsa), laneko arropa eta beste elementu batzuk inprimatzen eta serigrafiatzen, eta, horretaz gainera, txartelak, liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzen, inprimatzen eta tolestean. Packaging poltsak eta zorroak.
- Tapizgintzako lantaldeak aulkiak eta besaulkiak tapizatu, besaulkietarako zorroak egin, kuxinak egin eta ibilgailuen eserlekuak tapizatu ditu. Gortinak egin dira hainbat udal-zentrotarako eta adinekoendako udal-apartamentuetako sofak tapizatu dira.
- 2022an, On Egin udal-jantokiko taldeak 17.818 gosari, 18.181 bazkari eta 17.779 afari banatu ditu
- Elikagaiak banatzeko guneak hilerio banatzen dizkie elikagai-bankuetatik datozen elikagai-sortak gizarte-bazterketan diren familiei. 3.828 sorta banatu ditu urte osoan, guztira 3.828 familia artatuta.
- Jantzigintzako lantaldeak laneko arropa egin eta konpondu du gizarte-enpleguko programarako eta beste departamentu batzuetarako. Poltsak, motxilak, lerre-zapiak, zorroak, etab. egin eta konpondu dira.
- Garbiketako eta lorategiak nahiz ibai-parkea mantentzeko lantaldea batez ere aritu da esleituak dituen eremuak garbitzen eta mantentzen: Arga ibaiaren pasealekua Iruñeari dagokion tartean eta Arantzaadiko parkearen zati bat. Era berean, modu osagarrian, zuhaitzak landatu eta babestu dituzte zenbait eremutan, eta era berean, udal-mintegiari laguntzeko lanak egin dituzte, ohi denez.

2. LANGABEAK INTERES OROKORREKO ETA SOZIALEKO OBRETARAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA

Laneratzeko-ibilbideetako enplegu-programetako ekintzen barruan, Udalak langabetuak kontratatzeke deialdian parte hartu du, interes orokorreko eta sozialeko obrak egiteko, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta. Langabezia dauden pertsonak lehentasunezko kolektibo gisa definitutako taldeetatik kontratatzen dira 6 hilabetez. 2022an, bi proiektu aurkeztu dira deialdian:

- **Gaixotasun mentalak jotako pertsonak kontratatzeke programa.** Programa Elkarkide erakundearekin egin da lankidetzan, eta gaixotasun mentalak eraginik % 33tik gorako desgaitasun-aitorpena duten 8 pertsona kontratatu dira 6 hilabetez, nekazaritza-lanak egiteko eta hiri-altzarien mantentze-lanak egiteko eta margotzeko. Proiektuaren barnean emakume bat ere kontratatu da parte-hartzaileei hezkuntza-laguntza emateko, eta ofizial bat, hiri-altzariak margotzeko lanak antolatu eta gainbegiratzeko.
- **Langabeak kontratatzeke programa, Txoko Berri adinekoendako apartamentuak berritzeko eta bertako oztopo arkitektonikoak ezabatzeke.** Programaren bidez, 7 lagun kontratatu dira (obra-arduradun 1, 3 igeltserotza-ofizial eta 3 peoi), guztiak ere lehentasunezko taldeetakoak, langabezia bereziki jotakoak. Errenta Bermatua jasotzen dutenak eta/edo 51 urtetik gorakoak.

3. EMAKUMEENDAKO UDAL ARRETA ZERBITZUA

2022an, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ) 582 espediente zituen aktibo; horietatik 267k aurtengo lehen aldiz jo dute zerbitzura, eta 315k aurreko urteetan irekitako espedienteak zeukaten. Horiei dagokienez, banakako 1.989 artatze egin dira eta arretak honelakoak izan dira: 1.151 arreta sozialak dira, 619 arreta psikologikoak eta 319 arreta juridikoak.

ZERBITZURA ZER ARRAZOIGATIK JOTZEN DUTEN

Tipologia	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Genero-indarkeria	210	0	210
Amek pairatutako indarkeriak ukitutako seme-alabak	8	0	8
Hauste-prozesuetako zailtasunak	29	0	29
Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan	13	0	13
Gizarte-zailtasuneko egoera	27	0	27
Salerosketaren biktima izateko susmoa	0	0	0
Besterik	18	0	18
Daturik gabe	4	0	4
Diagnostikoak, guztira	309	0	309
Espedienteak, guztira	267	0	267

- **Eman Aukera Zeure Buruari programa (EAZB).** Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EAUZ) berariazko baliabide hori du, lehiaketa publiko bidez kudeatua, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat egiten du EAUZen artatutako arazoren bat duten emakumeekin eta haien seme-alabekin, arazo hori gizarte-zailtasun bereziko egoera baten ondorioz larritua dagoenean. Programaren barnean dago ostatua ematea aldi baterako udal-apartamentu batean. 10 apartamentu ditu eskura. 2022an, 117 pertsona artatu dituzte, 45 emakume eta haien 72 seme-alabak (35 neska eta 37 mutil), haietariko 12 adinez nagusiak (8 neska eta 4 mutil).

4. HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK

Talde profesional honen helburua da ikertzea, balioestea eta esku hartzea babesgabetasun-arriskua duten adingabeak dituzten familietan, betiere babesgabetasun horrek ez badu eskatzen familatik bereiztea. 2022an 167 esku-hartze egin ziren familiekin eta 329 adingaberekin; haien % 29k babesgabetasun larria dute; % 11k, oso larria; % 40k, moderatua, % 10ebalorazio-fasea daude, eta % 9 baloratu gabe daude.

Babesgabetasunaren tipologiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, motarik arruntenak arduragabekeria, tratu txar psikologikoa eta jokamoldea kontrolatzeko ezintasuna.

5. LANTEGI-ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Lantegi Eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enpleguak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuak, eta Iruñeko Udalak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak sustatuak eta finantzatuak. Ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegu-bilaketa aktiboan, etab.

Izena	Espezialitatea	Profila	Leku kopurua
Landaben Prestakuntza Zentroa	Biltegiatzea, hondakinen kudeaketa eta harri naturalaren lanketa	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17
	Igeltserotzako birgaitze-lanetako eraikuntza jasangarria	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17
	Zur bidezko birgaitze energetikoa	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17
	Energia-eraginkortasuna eraikinen mantentze-lanetan	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17
Arantzadi Prestakuntza Zentroa	Natur baliabideen kontserbazioa eta ustiapena: Baso autoktonoa CO2 hustulekua eta lorategiak	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17
	Soldatze-teknika operatiboak industria metalurgikoan	16 eta 30 urte bitarteko gazteak	17

6. BAZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

ETXERIK GABEKO PERTSONAK ARTATZEKO ZENTROA

2022an, etxerik gabekoa pertsonak aratzeko zentroak 1.786 pertsonari eman zien arreta (ibiltariak, erroldatuak eta arreta kalean). Horietatik 266 emakumeak ziren (% 14,89), eta 1.520, gizonak (% 85,11).

Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa	2018	2019	2020	2021	2022
Ibiltariak	1.508	1.689	801	1.204	1.319
Erroldatuak	51	48	60	63	77
Arreta kalean	182	200	145	151	390
Hotz-bolada*	293	422	308	339	1269
Autobus-txartelak	720	848	684	524	408

* Hotz-boladak barne biltzen du kasuan kasuko urteko azarotik hurrengo urteko martxora bitarteko kanpaina.

«ON EGIN» UDAL-JANTOKIA

Iruñeko Udalaren udal-jantokiak (Carmen kalea, 25) 571 pertsona artatu zituen 2022an. Haietariko 431 helduak ziren (% 75,4) eta 140, berriak, adingabeak. Adingabeetatik 70 mutilak ziren, eta 70, neskek. Oro har, 343 (% 60,1) gizonak ziren eta, 228 (% 39,9), emakumeak.

2022an, 63.544 zerbitzu eskaini ziren; 178,49 zerbitzu batez beste egunero (gosariak, bazkariak eta afariak). 19.291 gosari, 22.454 bazkari eta 21.708 afari, hain zuzen ere. Uztailean banatu ziren zerbitzurik gutxien eta, apirilean, gehien.

7. PRESTAZIO ETA HITZARMEN SINATUETARAKO BESTE UDAL-DEIALDI BATZUK

IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDE ETA ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

- **Gizarte Ekintza.** Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 52 proiektu lagundu ditu: 33 desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, eta 21, gizarteratzeari buruzkoak. Deialdiak 340.000 euroko aurrekontua du.

HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- **Nafarroako Elikagai Bankua fundazioa.** Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketan zein pobrezian dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz dago hornitua.
- **CERMIN – Desgaitasuna duten pertsonen Ordezkarien Nafarroako Batzordea.** 15.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion desgaitasunaren gaineko informazio-, aholkularitza-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta koordinazio-programari, bai eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuari ere.
- **Secretariado Gitano fundazioa.** 30.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion ijito familiekin egin beharreko esku-hartze proiektu bati, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetzeta eta gizarteratzeko zailtasunak eta haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko. Aurten, bi emakume-talde osatu dira eta, hainbat lantegi ludiko eta prestakuntza-lantegiren bidez, hainbat gai landu dira zeharkakotasunez, hala nola hazkuntza, hazkuntza pertsonala, autozaintza eta familia kanpoko aisia.

BANAKAKO ETA LEHIAKETA BIDEZKO UDAL-DIRULAGUNTZAK

Prestazioak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	586.221	684.953	699.888,40	1.195.903,49	872.808,84 €	744.986,1
Eskola-jantokiak	778.138	529.242,88	649.434,83	473.767,04	397.935,93€	557.189,33
Alokairuak: Etxebizitzaren aldeko programa	379.348	344.214	314.935,49	405.954,92	377.849,44 €	339.286,37
Adingabeen arreta (0-12)	9.264	7.829,31	20,831,27	10.695,38	16.171,44€	14.754,5
Gizarte-ekintzako erakundeetarako dirulaguntzak	290.000	290.000	290.000	290.000	338.945 €	340.000€
Taxi bonua	144.872	123.190,34	184.368,76	107.514,70	153.910,02 €	185.063,4€
GUZTIRA	2.287.992	2.075.224,98	2.204.458,75	2.077.880,61	2.159.641,67	2.181.279,70

2.7.2. KOMUNITATE EKINTZA

1. HELBURUAK

- Iruñeko auzo guztietako sare komunitarioa ezagutzea eta harekin harremanetan egotea.
- 11 Zentro Komunitarioen jardunaren jarraipena egitea: mantentze-lanak eta kudeaketa kolektiboekin batera.
- Zentro Komunitarioei buruzko ordenantza garatzea.
- Haurtzaro-sareen lana babestea, bai eta sor daitezkeen lanbide-sareena ere.
- Bizilagunen arteko sareak eta auzoetako bizitza sendotzeko balio duten ekimenen garapena sustatu eta erraztea.
- Bizikidetza eta dibertsitatearen inklusioa sustatzen dituzten dinamikak sortzea.

2. LAN-ILDOAK

2.1. ZENTRO KOMUNITARIOAK

Iruñeko Udalak auzotarrentzat zabalik dauden lokalak ipintzen ditu auzoen eskura. Elkarre-bizitza eta herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzera bideraturik daude.

Garatzen diren jarduerak irekiak dira, irabazi-asmorik gabeak, eta belaunaldien eta kulturen artekoak, eta genero-ikuspegia eta ikuspegi inklusiboa sustatzen dituzte.

- Auzoko jarduerak
- Jolas-, kirol- edo musika-jarduerak, etab.
- Bertako pertsonen zein kolektiboen artean loturak sendotzea bultzatzen duen edozein jarduera.

COVID NEURRIEN AMAIERA ETA NORMALITASUNERA ITZULTZEA

2022an, unean uneko Covid araudira eta neurrietara etengabe egokitzen aritu eta gero, neurriak indargabetu eta pandemia aurreko edukierak eta jarduna berreskuratu ziren. Horren ondorioz, jarduera batzuk itzuli dira, hala nola musikalak, bertan behera utziak baitziren; eta talde batzuk ere itzuli dira, pandemiaren ondorioz jarduera geldiarazia baitzuten.

EGUNEROKO ZEREGINAK

- Giltzen kudeaketa: giltzen maileguaren jarraipena egitea, sarbide-sistema berriaren jarraipena egitea eta hura hobetzea.
- Zentroen kudeaketa: erreserbak eta egutegiak, kolektibo erabiltzaileekin batera, Kudeaketa Batzordeen barnean.
- Mantentze-lanen gorabeheren kudeaketa, eta instalazioak egokitu eta hobetzeko lanak.
- Ekimenak abian jartzen laguntzea kolektiboek: informazioa, harremana udaleko beste alor batzuekin, etab.
- Gorabeheren kudeaketa eta bizikidetza arazoak.
- Garbiketaren jarraipena egitea: gorabeheren kudeaketa, behar bereziak, etab.
- Beste alor batzuekiko koordinazioa: Hiri Kontserbazioa, lorategiak, Gizarte Enplegua, Herritarren Partaidetza, Gizarte Ekintza...



ZENTRO KOMUNITARIOAK ERABILTZEKO LIZENTZIAK

Zentro Komunitarioak erabiltzeko lizentziak lizitaziorako ateratzeko epea iraganik, lizentzia-eskabideak zuzenean izapidetzen dira.

2022ko ekainera arte, eskabide berri bat izan da eta tramitazioan dago.

ZENTROEN KUDEAKETA

2022an, lan-dinamika finkatu da Kudeaketa Batzordeen baitan, eta komunikazio arin eta etengabea sortu da zentro komunitarioak erabiltzen dituzten kolektiboekin.

Arrotxapean bakarrik ez da kudeaketa batzordea eratu, ez baitago entitate erabiltzaile egonkortzat hartzen den entitaterik hitzarmena sinatu dutenen artean; horrek zentroaren jarduna zaildu du eta, batez ere, gorabeheren kudeaketa.

Batzordearen bilerak eta lan-bilkurak egin dira, telefono, posta eta whatsapp bidezko harremanaz gain:

- Azpilagañako ZK: Batzordearen bilera otsailean, kolektiboen batzarra martxoan, egutegi app-ari buruzko lan-bilera maiatzean.
- Buztintxuriko ZK: Batzordearen bilera otsailean eta ekainean.
- Alde Zaharreko ZK: Batzordearen bilera otsail, ekain eta irailean; eta egutegi app-ari buruzko lan-bilerak maiatz eta ekainean.
- Ermitagañako ZK: Batzordearen bilera otsailean eta ekainean, eta egutegi app-ari buruzko lan-bilerak maiatzean.
- Etxabakoizko ZK: Batzordearen bilera otsailean eta ekainean, eta egutegi app-ari buruzko lan-bilera apirilean.
- Lezkairuko ZK: Batzordearen bilera maiatzean eta azaroan.
- Mendillorriko ZK: Batzordearen bilera otsail eta urrian, eta egutegi app-ari buruzko lan-bilera apirilean.
- Milagrosako ZK: Batzordearen bilera otsailean, kolektiboen batzarra martxoan eta irailean, eta egutegi app-ari buruzko lan-bilera maiatzean.
- Arrotxapeko ZK: Bilerak otsailean eta martxoan, zentroak izandako ekintza bandalikoetz aritzeko eta zer neurri hartu erabakitzeko.
- Sanduzelaiko ZK: Batzordearen bilera otsailean eta azaroan, eta pinturari eta egutegi app-ari buruzko lan-bilera apirilean.
- Txantreako ZK: Batzordearen bilera otsail, maiatz eta azaroan.

Honatx bileretan landutako gaiak:

- Zentro Komunitarioaren gari garrantzitsuak aztertzea: zentro komunitarioaren funtzionamendua, konponketak, erabilera-egutegia, sarbideak, biltegiatzea, etab.
- Zentroak zer kolektibok erabiltzen dituzten jakitea, bai eta bizilagunek ekimenak ere.
- Batzordea osatzen duten pertsonak eguneratzea.
- Online egutegi app-a eta datuak babesteko agiria, datuak erabiltze aldera.
- Aretoen berrikuspina: altzariak eta hobekuntzak (margotze-lanak).
- Gorabeheren kudeaketa. Ekintza bandalikoak eta bizikidetza arazoak: halakoak kudeatzeko adostasuna.

Berariazko lanak ZKk egokitze (beste udal alor batzuekiko koordinazioa dakar berarekin, bai eta kolektibo eta hornitzaileekin ere).

- App-a ezartzea ZK egutegian online kudeatzeko (kontratu txikia).
 - Egokitze-lanen jarraipena egitea, enpresa esleipendunaren eskutik
 - Datuen babesa: datuan babesteko konpromisoen sinadura, app-a erabiliko duten Batzordekideen eskutik.
 - Aurkezpen- eta prestakuntza-saioak batzordekide guztiendako (2 saio apirilean eta bilerak auzoz auzo): kudeatzailearen eskuliburua eta sarbidea app-ean.
 - Udal webean argitaratzea (Komunikazio alorrekin koordinazioan)


- 2021ean zentroak egokitzeko hasitako egokitzapen-lanak eta erosketen kudeaketaren amaiera.
- Areto guztietako altzariak berrikustea, haien hobekuntzarako: 2022ko inbertsio eta erosketetan diren beharren zerrenda egitea.
- Zentro komunitarioetako wifiaren egoera berrikustea (Animsarekin koordinaturik) eta dotazioa proposatzea.
- Coworkid programarekin koordinatzea, zentro komunitarioetan aretoak erabiltzeko
- Zentroen planoak eguneratzen hastea, homogeneizatzeko.
- Txantreako Salestarrak ZK
 - Lehen solairua egokitzeko lanak, Gizarte Enpleguaren bidez (trenkadak botatzea aretoak handitzeko, eta biltegiak ixtea).
 - Ekitaldi-aretoa berrikusteko eta prest jartzeko lanak.
 - Herri-lanen Departamentuak proiektu hau aurkeztu du: *dirulaguntza-deialdia titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko, eta deialdia, birgaitze integralerako eskabideak norgehiagoka-prozeduraren bidez aurkezteko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan* (TMA/178/2022 Agindua).
- Buztintxuriko ZK
 - Margotze-lanak Buztingunen eta Buztincuevan, Gizarte Enpleguaren bidez
 - Altzariak berrikustea: zaharra kendu eta egungoa hobetu da.
- Arrotxapeko ZK
 - Ekintza bandalikoek kudeaketa: irekiera-sistema aldatzea eta atezain automaikoa paratzea.
- Lezkairuko ZK
 - Areto berriaren bilaketa: bisitak, obren alorrarekin koordinazioan.
 - Margotze-lanak Gizarte Enpleguaren bidez.
- Sanduzelaiko ZK
 - Margotze-lanak Karrikagunen Gizarte Enpleguaren bidez.
 - Altzariak berrikustea: zaharra kendu eta egungoa hobetu da.

ZENTRO KOMUNITARIOEN ERABILERA

Taula honetan auzoz auzo egindako erreserbak ageri dira. Kopuruak adierazten du eguneroko erreserben batura auzo bakoitzeko Zentro Komunitarioko areto eta gela guztietan 2022an, nahiz eta funtzionamenduaren logika ikasturtearena den.

AUZOA	Erreserba Kop.	Ehuneko
Azpilagaña	1.687	%8,57
Buztintxuri	1.641	%8,34
Alde Zaharra - Plazara	1.492	%7,58
Ermitagaña	2.485	%12,62
Etxabakoitz	1.081	%5,49
Lezkairu	852	%4,33
Mendillorri	1.419	%7,21
Milagrosa	2.148	%10,91
Arrotxapea	1.447	%7,35%
Sanduzelai	2.427	%12,33
Txantrea	3.006	%15,27
GUZTIRA, OROKORRA	19.685	%100,00

ERRESERBA-KOPURUA AUZOKA



Erreserba Kop.

Egonkorrak	17.451
Unean unekoak	2.234
Emakumeak	%61,3
Gizonak	%38,7

Jardueren % 88,65 egonkorrak izan ziren ikasturtean; gainerakoak, berriz, unean unekoak, egun zehatzetarako eskatuak. Zentro Komunitarioetan egindako jardueren barnean, % 61,3 emakumeak izan ziren eta % 38,7 gizonak. Zentro Komunitarioetan erreserbak egin zituzten 297 erabiltzaileetatik, 171 Zentroetako kolektibo egonkorrak izan ziren.

Bestalde, erakunde erabiltzaileen % 38 inguruk kulturen eta prestakuntzan dihardute (musika, dantza, antzerkia, prestakuntza-ekintzak...); % 30ek auzo-, komunitate- eta gizarte-jardueretan, bai eta genero-berdintasunean eta eskubide sozialetan ere; % 17k dibertsitatea lantzen dute (kulturala, funtzionala, LGTBI); % 8k gorputz eta buru osasunarekin eta kirolarekin lotutakoak, eta % 6k haur eta nerabeendako jarduerak egiten dituzte.

2.2. ADINEKOEN TEKNIKARI LANPOSTUA BABESTEA

2022ko urtarrilaren 1etik otsailaren 8ra arte, teknikari komunitarioak lanpostu horri dagozkion eginkizunak hartu zituen bere gain, hau da, data hartan adinekoen teknikaria lanean hasi zen arte.

- Orain arte egindako jardueren jarraipena eta 2022rako jardura berrien hedapena, honako programa hauei dagokienez: Martxan, Aisia-ostegunak eta -ostiralak, Lantegi emozionalak, Zaintzen dutenak zainduz, Itxaropenaren telefonoa.
- Santa Maria la Realeko areto berrirako prozesuaren jarraipena egitea (mapaketak eta talde eragilearen bilera).



2.3. BIZIKIDETZA

ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA

2017az geroztik, Iruñeko Udala Zurrumurruei aurkako Estrategia garatzen ari da, hau da, jatorri atzeritarreko pertsonen gaineko aurreiritzi eta estereotipoetan oinarrituak dauden zurrumurruei aurre egiteko estrategia, horrelakoek bizikidetza eragozten dutelako eta diskriminazioak eragin ditzakeelako.

2022ko ekintza zehatzak:

- Zaskan parte hartu da, hau da, Nafarroako zurrumurruei aurkako sarean: hilean behingo bilera nagusiak; hitzarmena sinatu da Nafarroako Gobernuak Migrazio politikarekin zurrumurruei aurkako eragileak prestatzeko.
- CLARA proiektuan parte hartu da: Tokiko Ikas Komunitateak arrazakeriaren, xenofobiaren eta gorroto-diskurtsoen aurka, udaltzaingoa koordinatua. Hitzarmen bat sinatu zen gizarte-erakundeekin eta Udalaren artean, lan- eta koordinazio-talde bat sortzeko eta gorroto-gorabeherak atzemateko formulario bat garatzeko. Proiektua 2021ean amaitu bazen ere, entitate eta alor parte-hartzaileok harremanetan jarraitzeko eta lan-taldea mantentzeko konpromisoa hartu genuen.

LARRIALDIA UKRAINAKO GERRA

Ukrainako gerra otsailaren 24an piztu zenetik, koordinazioan dihardute alorreko zuzendaritzak, Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako Departamentuak eta ukrainarrekin lan egiten duten elkarteek (Alas de Ucrania, Berehinya eta Segunda Familia). Elkarteekin artean Ridna Skhola sortu dute.

Maila teknikoan, kontaktu horri esker, informazioa eman zaie auzo-unitateei eta kolektiboari larrialdi horretarako abiarazi diren baliabideez.

Halaber, zuzenean lagundu zaie elkarte horiei, aholkularitza emanez eta jarduera-proiektu bat elkarrekin landuz udako kanpaldi bat abian jartzeko; eta aretoak utzi zaizkie Arrosadiko Ilargiarena Zentro Komunitarioan.

2.4. HAURTZARO-SAREAK

21-22 ikasturtea hasi zenetik, auzoetako Haurtzaro Sareei laguntzeko lanari berreldu zitzaion, baina 2022an ekin ahal izan zaio zuzen-zuzenean, honako bidez:

- Komunitate Ekintzak laguntza eskaintzeri buruz eta sareen gainean egindako txostenaren itzulketak.
- Laguntza eman da jarduerarik egin gabe zeuden sareak aktibatuz eta sare berriak sortuz.
- Materiala prestatu eta sareen eskura jarri da.
- Aldizkako komunikazioa dago horixe eskatu zuten sareekin, prozesuaren jarraipena egiteko.
- Parte-hartze aktiboa sare batzuen bileretan, prozesuari laguntza teknikoak emateko.
- Informazioa eman da Komunitate Ekintzako alorraren edukiari buruz, sare komunitarioarekin lotzeko aukera emanda; era berean, Zurekin hazten Gurasotasun Positibo udal-programari buruzko informazio zehatza, eta harekiko lotura, egokia izan bada.

2022ko ekainean txosten bat prestatu zen (*Iruñeko auzoetako haurtzaro Sareen egoera*), sareak 21-22 ikasturtearen amaieran zertan ziren jakiteko eta, horrela, 22-23 ikasturtea planifikatzeko.

Sareei laguntzeko lanean, nabarmentzekoa da Arrosadia-Azpilagañako Sarearen barnean egin den lan zuzenagoa, talde Komunitarioaren hilean behingo batzarretan eta bileretan parte hartuta eta, Auzo Unitatearekin batera, Sarea zuzenduta.



Zehazki, Nafarroako Gobernuak prestaturiko Babes Eskuliburua izan da aztergai batzarrean, eta Talde Komunitarioan, berriz, Arrosadiko eta Azpilagañako altxorra jolas-arratsaldea prestatu dute, 7-12 urteko haurrendako (maiatzak 27). Hainbat ikastetxe eta jatorritako 59 haurrek parte hartu zuten; halaber, ikastetxeen arteko topaketa aipatu behar da (maiatzak 26 eta ekainak 14), Hegoalde ikastolak eta Azpilagaña IPk parte hartuta. Gainera, sarearen barnean, Zurekin hazten programako taldeak diseinatu dira.

2.5. KOORDINAZIOA BESTE ALOR ETA ERAKUNDE BATZUEKIN

- **Partaidetza Alorra:** Dibertsitate Planaren diseinuan parte hartua da; koordinazio etengabea bizikidetza gaietan eta zurrumurruen kontrako gaietan, eta koordinazio Dinamizazio Zerbitzuarekin auzoetako ekimenetan parte hartzeko, eta zerbitzu hori ere Zentro Komunitarioetarako baliatzeko. Zentro Komunitarioen arteko jardueren hedapena.
- **Berdintasun Alorra:** Emakumeen Etxeko eta Harrotu-ren jarduerak Zentro Komunitarioetan hedatzea.
- **Ingurumen Museoa:** jarduerak Zentro Komunitarioetan hedatzea.
- **Proiektu Estrategikoak:** hautagaitza *Inklusioaren eta Daniztasunaren Europako Hiriburua Sariat*an aurkezteko.
- **Mankomunitatea:** jarduerak Zentro Komunitarioetan hedatzea.

2.6. DIRULAGUNTZAK

Droga Plan Nazionala, dirulaguntza

Udalbatzei dirulaguntzak emateko 2020ko deialdiaren justifikazioa, droga-mendekotasunen prebentziorako programak garatze aldera, legez kanpoko droga-trafikoagatik eta lotuta dauden beste delitu batzuek inguruko ondasunen funtsaren kontura:

Eskabidea aurkeztu da Prebentzio Ekintza Komunitarioetarako Programarako (8 SAPC).

- 2020ko urriaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko epealdirako eman den laguntza: 451.115,82 euro.
- Ezin izan zen justifikatu emandakoaren % 100. 2020ko urriaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarte egindako jarduerak justifikatu ziren, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak haurrendako udal-programa berri bat (Coworkids) onetsi baitzuen. Programa hori 2021eko urtarrilaren 1ean hasi zen garatzen, udal-langileen bidezko kudeaketa-eredu berri batekin, eta, horrela, ordura arte garatzen zena bertan behera utzita (eta dirulaguntza hau horretarako eskatu zen, hain zuzen).
- Azkenean, 192.243,41 euro eman zitzaizkion, eta 269.616,37 euro itzuli behar izan ziren.

2.7. COWORKIDS

Coworkids haur eta nerabeendako programak bere helburu nagusia lortu zuen bere lehen ikasturtean (2021/2022), hots, Iruñeko haur eta nerabeen **irisgarritasun unibertsala** sustatzea gune integratzaile, kulturarteko eta ekitatiboetara, non **kalitatezko hezkuntza ez-formala** bermatzen baita. Horretarako, era bateko zein besteko jarduerak jostagarri eta irisgarriak egin ziren hiriko hamalau auzoetan arratsaldero, astelehenetik ostiralera, bai eta asteburu eta oporraldietan ere.

Jarduera horien bidez, zuzenean koordinatzen da haurrek, nerabeek eta familiek izan ditzaketen **zaugarritasun-egoeren prebentzioa, jarraipen pertsonalizatua eta sare-lana** bermatuta familiekin, gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin eta Iruñeko haurren alde lan egiten duten erakundeekin.

Gainera, zeharkakotasunez sustatzen da **haurren eta nerabeen parte-hartzea** hiriko erakundeetan; haur eta nerabeen artean sentsibilizazio-lana egiten da **haurren eskubideez eta garapen jasangarriko helburuez**; eta haien ordezkaritza ziurtatzen da Iruñeko Haurren eta Nerabeen Partaidetza Organoan.



Ikasturteak honako ezaugarri hauek izan ditu:

- **Gure talde diziiplina anitza sendotzea**, gizarteratze arloko 14 teknikariz osatua; pedagogia eta psikologia arlokoak, teknikari komunitarioa eta Coworkidseko koordinatzailea. Lantaldeak 100 laguntzaile eta boluntario baino gehiagoren laguntza du.
- **Jarduera eskaintza hiriko 14 auzoetara zabaldu da**, #krispetakTikToken eta Erasmus+ Brusela jomuga proiektua nabarmenduta.
- Sare-lanaren finkapena erakundeekin: gizarte-zerbitzuak, kirol-federazioak, UNICEF Nafarroako batzordea, unibertsitateak, goi-mailako hezkuntza-eskolak, ikastetxeak, osasun etxeak. Boluntariotza erakundeak, eta aisia eta denbora libreko eskolak. Bai eta udal-alorrekin eta Nafarroako Gobernuarekin ere.
- **Familiendako laguntza bultzatzea** talde bileren bidez eta *Zurekin hazten* gurasotasun positiboko proiektuaren bitartez.
- **Iruñeko Haur eta Nerabeen Partaidetza Organoaren finkapena**. Bigarren mahaia 2021eko azaroan egin baitzen, eta hirugarrena, berriz, 2022ko maiatzean, eta haurrendako proposamenak gauzatuta, hala nola birziklatzeko edukiontzi txikiak jartzea.

Datu nagusiak:

- 2.280 haur eta nerabek hartu dute parte Eguberrietako, Aste Santuko eta udako jarduera eta kanpaldietan.
- 207 haur eta nerabek hartu dute parte larunbatetako jardueretan (piraguismoa, dantzak, magia, hiri-ginkanak...).
- 850 haur eta nerabek hartu dute parte astelehenetik ostiralera arratsaldeko jardueretan 14 auzoetan.
- Astelehenetik ostiralera bitarteko jardueretan, 1.780 haur aritu dira:
 - 737, eskola-laguntzan
 - 390, sorkuntza-laboretegiak
 - 499, kirolak (saskibaloia, xakea, euskal pilota, futbola, areto-futbola eta zumba)
 - 154 kultur eta teknologia jardueretan (3D diseinua, antzerkia, Erasmus+ eta #krispetakTikToken).
- 2021/2022 ikasturtean, 21.284 askari osasungarri banatu dira 14 auzoetan; 286 askari inguru egunero.

2.8. ADINEKOAK

Autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko programak

Garatutako jardueren helburu nagusia da Iruñeko adinekoen autonomia sustatzea eta haien mendekotasunari aurrea hartzea; betiere, haien intereseko jarduerak antolatzen dira, motibagarriak eta eragingarriak izanen zaizkienak, eta zaintzaileen ongizatea sustatuko dutenak.

Era berean, adinekoen isolamendu eta bakardadea prebentzioa du xede, berdinen arteko aisia eta harremanak sustatuz, lotura horiek jardueraz haratago mantentzeko aukera izanen baitute.

Programa Iruñeko 65 urtetik gorakoendako da.

“MARTXAN, JARDUERA FISIKOEN ETA MEMORIA-JARDUEREN PROGRAMA”

Lizitazio bidez esleitutako kontratu baten bitartez gauzatzen da.

Ekainaren 2tik uztailaren 2ra

Tokia	Ariketa fisikoko jarduerak	Memoria-jarduerak
Alde Zaharra, Kale Nagusia, 31	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00	Astearte eta ostegunetan 09:30 – 11:00
Arrotxapea, Joaquín Beunza k., 31 – -33	Astelehen eta asteazkenetan 11:45 – 13:15	Astearte eta ostegunetan 11:45 – 13:15
Arrosadia, Ilargienea Zentro Komunitarioa (Blas de la Serna k., 61).	Astearte eta ostegunetan 11:45 – 13:15	Astelehen eta asteazkenetan 11:45 – 13:15
Iturrama, San Joan Bosco k., 15.	Astearte eta ostegunetan 09:30 – 11:00	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00
Ermitagaña, Jose María Iribarren kiroldegia, Ermitagaña k., z/g,	Astearte eta ostegunetan 11:30 – 13:00	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00

Arrosadia izan da osatu ez den talde bakarra, ez baitzuen inork izenik eman.

Parte-hartzaileak: 71 lagun

	Alde Zaharra		Arrotxapea		Iturrama		Ermitagaña		Arrosadia	
	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa
Emakumeak	6	6	7	6	15	12	3	7		
Gizona	1	2	1	2	0	0	2	1		
Guztira	7	8	8	8	15	12	5	8	0	0

2021eko irailaren 13tik 2022ko ekainaren 9ra

Dirulaguntza honi dagokionez, irailaren 13tik urriaren 31ra

Tokia	Ariketa fisikoko jarduerak	Memoria-jarduerak
Alde Zaharra, Kale Nagusia, 31	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00	Astearte eta ostegunetan 09:30 – 11:00
Arrotxapea, Joaquín Beunza k., 31 – -33	Astelehen eta asteazkenetan 11:45 – 13:15	Astearte eta ostegunetan 11:45 – 13:15
Milagrosa, Arrosadiko kiroldegia (Taxoare k., zk.g.)	Astearte eta ostegunetan 11:45 – 13:15	Astelehen eta asteazkenetan 11:45 – 13:15
Iturrama, San Joan Bosco k., 15.	Astearte eta ostegunetan 09:30 – 11:00	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00
Ermitagaña, Jose María Iribarren kiroldegia, Ermitagaña k., z/g,	Astearte eta ostegunetan 9:15-10:45	Astelehen eta asteazkenetan 09:30 – 11:00



Behin taldeak hasitakoan, oroimena lantzeko bi talde lekuz aldatu eta jarduera egiteko toki goxoago eta egokiagoetara joan dira. Horrela, Ermitagañako oroimen-taldea Ermitagañako Zentro Komunitarioan biltzen da, Bartolomé de Carranza kaleko 5ean, eta Arrosadikoa, berriz, Larrabide Erretiratuen Elkarteko aretoan ari da.

Bestalde, Arrotxapeko ikastaroak Juslarrochako Civioxera joan dira azaroaren 8an, Erretiratuen Elkartea ireki baita, eta jarduerak, hain zuzen, hartan egiten ziren.

Parte-hartzaileak: 158 lagun

	Alde Zaharra		Arrotxapea		Iturrama		Ermitagaña		Arrosadia	
	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa	Oroimena	J. Fisikoa
Emakumeak	16	15	15	12	17	13	11	12	7	2
Gizona	3	0	5	3	3	2	5	2	5	10
Guztira	19	15	20	15	20	15	16	14	12	12

Abendu bukaeran, bigarren ordainketak egitean, arrazoi hau edo hura zela medio hutsik gelditutako lekuetarako izen-ematea egin da; 40, guztira. 010 zenbakiaren bidez egin da, prentsa-oharra plazaratuz eta hedapena sareetan eta e-mailez eginez.

“AISIA-OSTEGUNAK ETA -OSTIRALAK”: zahartze aktiborako jarduera programa

Programa hau jarduera fisikoko eta arlo kognitiboko esparruetan dago kokatua. Zahartze aktiboa lantzeko jarduerak egiten dira, jarduera fisikoa egitea sustatuko dutenak, hala nola bisita gidatuak hirian barna, ibilaldiak... egokiak jendea ezagutzeko eta elkarren arteko harremanak egiteko. Era berean, estimulazio kognitiboa sustatuko duten eta harremanak egiteko balioko duten jarduerak antolatuko dira, hala nola hitzaldi-solasaldiak, zine-foruma eta beste adinekoendako intereseko gaiez. Jarduera fisikoa eta kognitiboa egiten da zeharka beste gai batzuekiko interesa erakutsi dezaketen pertsonentzat.

Egutegi bat egiten da askotariko jarduerak jasotzeko.

Programazioa kontratu txiki baten bidez gauzatzen da, 3 entitateri eskaintza eskaturik. Gurutze Gorria erakundea aukeratu zen; beraz, jarduera gauzatzeaz arduratzen da.

Profil sozio-sanitarioa edo soziala duten langileek zuzentzen dituzte jarduerak, helburua baita parte-hartzaileen elkarrenergina eta parte-hartzea sustatzea; hala ere, une jakin batzuetan, arloan aditua den pertsona baten laguntza ere jasotzen da.

Programatua dago ostiral goizetan gauzatzeko. Dena dela, programak harrera ona izan duenez, ostiraletan bakarrik egin beharrean, ostegunetan ere egiten da; beraz, aisia-ostegunak eta -ostiralak dira, horrelako jarduerak astean bitan eginda. 1,5 orduz.

Maiatz eta ekainean, eta irailetik aitzina abendura arte (dena den, dirulaguntzari dagokionez, 2021eko urriaren 31ra arte izanen da).

Jardueretan aritzeko, izena eman behar da aurrez 010ean, dei-hurrenkeraren arabera, erroldatuek lehentasuna dutela.

Izen-ematea doakoa izatea zen asmoa, baina azken unean, irizpidez aldatu eta 2,5 euro kobratzea erabaki zen, jendeak programari atxikimendu handiagoa erakutsi diezaion. Hala ere, zailtasunik atzematen bada hura ordaintzeko, txostena eskatuko da jarduera ordaindu behar ez izateko.



Hainbat bide moldatu dira jarduera ordaintzeko: txartel bidez edo 010 bidez edo aurrez aurre, Gurutze Gorria eskudirutan ordaintzera joanez. Oro har, funtzionatu du, baina, inoiz edo, pertsonak ez du ordaindu eta ez da jarduerara joan. Hala ere, baloratu da sarbidea erraztu behar zaiela adinekoei eta ordaintzeko bi moduak mantendu dira.

Edukiera mugatua zegoela eta, jarduerak 15 lagunekoak izan dira. Behin batean, 12ra jaitsi zen, arauak xedaturik jarduerak bisita gidatu baten antza zuelako, eta gehieneko jende kopurua horixe zen. Edukieren muga kendu ondoren, 16 eta 17 lagun ere onartu izan dira, jardueraren arabera. baloratu da 15 laguneko taldea egokiagoa dela elkarrenginako eta jarduera pertsonalizatzeko, eta egokiagoa ere helburuak betetzeko, jardueraz beraz haratago.

Jarduera gutxiago zeuden programatuak eta aurrekontuetan bilduak, baina erakundea aukeratu eta gero, hark aurkeztutako aurrekontua txikiagoa zen; beraz, behar adina diru izan da proposatutakoak baino aunitzez ere jarduera gehiago egiteko. Programaren harrera onaz, gainera. Izen-ematearen hasiera egunean berean osatu dira jarduera batzuk, eta itxaron zerrenda ere bi aldiz handiagoa izan da. Beste jarduera batzuek egun gehiago behar zian dituzte betetzeko, baina guztietan ere atera dira taldeak eta jarduera egin da.

Jarduera guztiak Plazaran! egin dira (kale Nagusia 31), ostegunetan, 11:15etik 12:45era eta, ostiraletan, 10:00etatik 11:30era.

Parte-hartzaileak:

Parte-hartzaileak, guztira	
Emakumeak	308
Gizona	39
Guztira	347

Parte-hartzea, jardueren eta sexuaren arabera:

Jarduera	Emakumeak	Gizona	Guztira
Ibilaldi osasungarria	11	1	12
Arteaz gozatzen	14	1	15
Yoga eta ariketa fisikoa	9	1	10
Zinemaz gozatzen	15	0	15
Argazkia	9	0	9
Literaturaz gozatzen	14	1	15
Oroimen-lantegia	14	1	15
Kultur ibilaldia	13	2	15
Ariketa fisikoa	13	2	15
Energia-aurrezpena	6	0	6
Dantza	12	1	13
Zinema: Giza Eskubideak	12	0	12
Ariketa fisikoa	5	1	6
Oroimen-lantegia	13	2	15

Jarduera	Emakumeak	Gizona	Guztira
Arte: Nafarroako Museoa	14	1	15
Barreterapia	13	2	15
Ingurumen-ibilaldia	12	3	15
Gastronomia-zinema	11	0	11
Oroimen-lantegia	12	3	15
Kultur ibilbidea Alde Zaharrea	14	2	16
Barreterapia	13	4	17
Ariketa fisikoa	9	4	13
Dantzak	10	0	10
Zinema Literatura	13	2	15
Oroimena	14	1	15
Ibilaldia Arantzadin	13	4	17
Dantza	6	0	6
Zinema klasikoa	13	2	15
Energia-aurrezpena	4	1	5
Ariketa fisikoa	6	0	6
Guztira	337	42	379

Zaintzen dutenak zainduz. Zaintzaileei laguntzeko lantegiak.

Esparru emozional, afektibo eta sozialean dago kokatua. Adinekoen zaintzaile ez profesionalei aholkularitza, prestakuntza eta informazioa bultzatzeko jardunaldiak.

Helburu nagusia zaintzaileei laguntza ematea da. Hona hemen berariazko helburuak:

- Zaintzaileak bizi duen gainzamari aurea hartzea eta hartan esku hartzea.
- Autozaintza kudeatzen ikastea
- Estresa kudeatzea
- Egoera onartzea
- Gaixotasuna ulertzea
- Zaintzaileei laguntzeko talde autogestionatu baterako oinarriak sortzea
- Eguneroko zaintza-lanak errazteko teknikak ikastea

Bizipenetan oinarritutako lantegi parte-hartzaileak dira, taldekideen zailtasunak eta esperientziak lantzeko. Hainbat estrategiak saiatzen dira zaintza-egoerei hobeki aurre egiteko.

Programa da zaintzaileentzat, eta adinekoen eta/edo mendeakoen senideentzat.

Ikastaroak 15 lagunekoa izan dira. Guztira, 4 lantegi egin dira, arratsaldeko 16:30etik 18:30era, bertaratuek berek ordutegia ona zela iritzi diotelako. Izen-emate gehiago izan dira eskaini diren lekuak baino, eta itxaron zerrenda izan da lantegi guztietan. Ondoren, parte-hartzaile kopurua dago zehaztua.

	1. lantegia	2. lantegia	3. lantegia	4. lantegia	Guztira
Emakumeak	15	13	13	12	53
Gizonak	0	2	2	3	7
Guztira	15	15	15	15	60

Lantegiak ontzat jo dira zinez. Sortu den dinamika dela eta, bi taldek saioaren bat gehiago egitea proposatu dute. Hiru saio gehiago egitea proposatu zaie, kasu zehatzak lantzeko eta beharrezkotzat jotzen duten gaietan are gehiago sakontzeko, eta beste bi saio hilean behin, laguntza taldea gisa balio dezaten aurrera begira. Bi talde horiekin probatuko da nola dabilen dinamika, taldekideek ikusitako beharretik atera baita. Baloratu da, ezen hasieratik proposatzen bada, prestakuntza aldia oso luzea izanen zela ikusiko zela; dena dela, taldean zer dinamika sortzen den, egokitzen jotzen da, eta are, onena litzateke autolaguntza talde gisa funtzionatu zezala era autonomoan.

ADINEKOEI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA EMOZIONALA EMATEKO PROGRAMAK

Helburuak:

Pandemiak eragindako egoera zela eta, Iruñeko Udalak esperientzia pilotu bat egitea Covid 19ak erakarritako ondorioei aurre egiteko:

- Behar handieneko jendea identifikatzea gaizkien pasatzen ari zirengana iristeko.
- Hau da, pertsonarik zaurgarrien eta Covid 19ak eragindako estres emozionala egoerei aurre egin ahal izateko aukera gutxien zutenen egoerak jasotzea.
- Beren egoera berrezarri ahal izateko zailtasun handieneko jendeari lagun egitea eta laguntzea.
- Covid 19ak eragindako osasun egoerak berekin ekarritako ondorioen berri ematea eta haien inguruan sentsibilizatzea.
- Osasun krisiak eta pertsonak elkarrengandik urruntzeak eragindako estresa kudeatzen laguntzea.
- Pandemiak ekarritako estrategia emozionalak erraztea 65 urtetik gorakoei.
- Covid 19ak eragindako inpaktu psikologikoa pairatzen ari diren pertsonen beharrei erantzutea.
- Laguntza psikologikoa eta emozionala eskaintzea lagundu beharreko egoera emozional zailak gainditzeko.

Pertsonendako baliabideak

Programa gauzatzeko, hitzarmena sinatu da Itxaropenaren Telefonoarekin. Entitatea arduratzen da zuzeneko esku-hartzea egiteaz. Laguntza psikologikoa emateko taldeak prozesu guztiak gainbegiratu eta kasu guztien jarraipena egiten du.

Hartzaileak

Programa laguntza emozionala behar duten 65 urtetik gorakoentzat da, Iruñekoentzat lehentasunez.

Honelako ezaugarriak dituzten pertsonak izanen dira:

- Iruñeko 65 urtetik gorako pertsonak
- Ondoez emozional eta psikologikoa duten pertsonak:
 - Estresa
 - Antsietatea
 - Loezina
 - Tristezia
 - Beldurrak, paralizazioak, isolamenduak ... Eragindako jokaera anomaloak.
 - Dolu-prozesuak
 - ...
- Patologia psikiatriko diagnostikaturik gabeko pertsonak
- Telefonoz elkarriketan aritzeko gauza diren pertsonak



Honako hauek kanpo geratuko dira:

- Narriadura kognitibo akutu edo larriak dituzten pertsonak
- Entzumen arazoak dituzten pertsonak (telefonoz hizketan egiterik ez dutenak)
- Nahasmendu psikiatrikoak dituzten pertsonak, osasun mentaleko jarraipena dutenak.
- Patologia kroniko psikiatrikoak dituzten pertsonak, jarraipena egiten zaienak (psikiatrak egokitzen jotzen badu).

Programaren egitura

Programa pilotaje gisa hasi da, behar berriei egiten baitie aurre eta, beraz, esperimentala da. Iruñeko Udalak ez zuen denboraldi laburreko programarik abian jarri nahi, behar batzuei erantzuteko modukoa, prozesuaren erdian desagertzeko, horrek inplikazio eta ondorio kaltegarriak izan zitzakeelako egoera emozional zaurgarrian dauden pertsonekin. Udalak programari segida eman nahi badio ere, baloratu da egokia izan litekeela entitate baten eskutik lan egitea, Udalarekiko hitzarmenaz haratago, programa egiten jarrai dezan eta programan hasitako pertsona zaurgarrienen jarraipena ziurtatze aldera.

Programak bi ekintza-ildo izanen ditu:

1. LAGUNTZA EMOZIONALEKO LANTEGIAK

Askotariko lantegiak dira hainbat gai lantzeko, hala nola ongizate emozionala, estresaren kudeaketa, bizi-ohitura osasungarriak, antsietatearen prebentzioa, loezina, depresioa...

Talde moldean gehiago eta herritarrentzat oro irekiago lan egiteko asmoz, egoera ezberdinei erantzuteko lau gai zehatz lantzeko lantegiak proposatu dira: norberaren ongizatea lantzea, pertsonen arteko komunikazioa hobetzea, estresa kudeatzea eta depresioa ulertzea.

Taldeak 14 lagunekoa izan dira. Ez da talde handiagorik eskaini nahi izan, xedea baita jendeak parte hartzeko lantegiak izatea, nork bere bizipenak azal ditzan; eta neke zlor daiteke halakorik talde handiagoetan. Izena emateko epea ireki eta ia lehen orduetan bete dira lantegiak; horrenbestez, ondoko lantegietan ez zen paper bidez zabaldu. SMS mezua bidali zitzaizen aurreko lantegietan itxaron zerrendan gelditu zirenei.

Parte-hartzaileen balorazioa oso ona izan da. Izan ere, batzuek lantegi batean baino gehiagotan eman dute izena. Talde-dinamika oso interesgarriak sortu dira.

Behar handiagoa zutela atzeman zaien pertsona batzuk Laguntza Emozionaleko Programara bideratu ditugu.

Programak oso harrera ona izan du eta oso atxikimendu ona parte-hartzaileen artean.

Izena emandakoak

	Depresioa	Ongizatea	Estresa	Komunikazioa	Guztira
Gizonak	6	4	7	4	21
Emakumeak	20	19	21	22	82
Guztira	26	23	28	26	103

Bertaratuak

	Depresioa	Ongizatea	Estresa	Komunikazioa	Guztira
Gizonak	6	4	5	4	19
Emakumeak	20	19	16	20	75
Guztira	26	23	21	24	94

NORBANAKOENDAKO LAGUNTZA, ORIENTABIDE ETA AHOLKULARITZA PROGRAMA

Norbanakoendako laguntza, orientabide eta aholkularitza programa, beren zaurgarritasun-egoera dela eta arreta pertsonalizatua behar dutenendako.

Telefono bidezko arreta adinekoei, estres emozionala dutenean: Pertsonendako arreta irteera-deien bidez egiten da. Laguntza emozionala behar duten pertsonen aukeraketa egiten da, udal zerbitzuen bidez, udal apartamentuen bidez eta Osasun Etxeen bidez atzemandakoak, eta aukeratuei deia egiten zaie. Deiak irailean hasi dira egiten. Elkarriketa telefonikorako gidoi bat ezarri da, erdi egituratua, eta esku hartzeko protokoloak, pertsonen beharren arabera, esku-hartzea doitzeko edota jendea baliabide honetara edo hartara bideratzeko.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	%
Pertsona aktiboak	9	% 21	34	%79	43	% 62
Programa baztertzen duten pertsonak	4	% 27	11	%73	15	% 22
Telefonoari erantzuten ez dioten pertsonak	5	% 45	6	%55	11	% 16
PERTSONAK, GUZTIRA	18	% 26	51	%74	69	% 100

* pertsona aktiboak: programarekiko atxikimendua duten pertsonak

** Programa baztertzen duten pertsonak: azalpenik gabe programatik beste baliabide batera bideratu dituzten pertsonak edota zer landuko zen ongi ulertu ez zutenak eta deitzen zaienean programan ez sartzea erabakitzen dutenak.

*** telefonoari erantzuten ez dioten pertsonak, hainbat dei ordu honetan eta hartan egin ondoren, eta ez dagoenean haiekin hitz egiteko modurik.

69 pertsona bideratu dira beste baliabide batzuetara:

- Osasun Etxeak: 22 pertsona
- Auzo Unitateak 31
- Apartamentuak 12
- Lantegiak: 4

Abenduaren 31ko datuak:

DEIAK, GUZTIRA	89
DEIAK PROZESUAN	29
DEI OSOAK	11
DEI UKATUAK	28
EZ DUTE ERANTZUTEN	16
BESTE ARRAZOI BATZUK	5

Covid19ak eragindako egoera nola ari den bizitzen lehen eskutik jakiteko.



2.7.3. KIROLA

SARRERA

Kiroleko Udal Unitatea Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko alorrean sarturik dago eta, lan guztiak egiteko, honako langile hauek ditu: gradudun bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, kiroldegien zerbitzuko-buru bat, erdi mailako teknikari tituludun bat, administrari laguntzaile bat eta udal-kiroldegiei atxikitako 25 funtzionamendu-laguntzaile..

Arantzadiko kirolgunearen, Sanduzelaiko kirol-hiriaren (Aquavox) eta Mendillorriko trinketaren funtzionamendua kudeaketa bi zerbitzu-kontraturen bidez egiten da: Arantzadi eta Mendillorri enpresa berari esleitu zitzaizkion, eta Sanduzelai, beste bati. San Agustingo Aquavox, azkenik, Pamplona Centro Histórico S.A-Iruña Biziberritzen udal-enpresak kudeatzen du beste enpresa baten bidez.

Labrit pilotalekuaren funtzionamendua Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren esku dago, zerbitzuak emateko kontratu baten bidez. Bestalde, Caparrosoren Errota eraikina Club Piragüismo Pamplona klubak kudeatzen du piragüismo-zentro gisa eta taberna-jatetxe gisa.

Gimnastika aerobikoa modernoa (lehenago, mantentze-gimnastika eta Aerobika, 2011ko urrian abiarazia), Yoga 50 urtetik gorakoendako, areto-futboleko haurren liga eta kirol- eta gizarte-errezeta kirol arloko enpresa espezializatuen bidez kudeatzen dira, zerbitzu-kontratuen bitartez.

Aranzadi kirolguneako eta Sanduzelaiko kirol-hiriko (Aquavox) taberna-jatetxeak zerbitzuak emateko bi kontraturen bidez kudeatzen dira.

2022ko aurrekontu luzatuaren arabera (Alkatetzaren 2021eko abenduaren 31ko ebazpen bidez onetsia), Kiroleko Udal Unitateak bi azpiprograma ditu eta, guztira, 5.455.731,00 euro dituzte 1.448.100,00 euro programetarako, hitzarmenetarako eta kirol dirulaguntzetarako; eta 4.007.631,00 euro udalaren kirol instalazioetarako –bertan sartuak daude unitateko langileen gastu guztiak–.

UDAL-PROGRAMAK

Kirolaren sustapena eta biztanleria-sektore guztien jarduera fisikoa bultzatuko duten proiektuak abian jartzea dira Udalak kirolaren arloan darabiltzan bi jarduketako-ildoak.

GIMNASTIKA AEROBIKO MODERNOA

Programan ematen diren eskola zuzenduetan oinarri erritmikoak dituzten ariketa aerobikoak egiten dira, edo indarra lantzeko ariketak gorputz-pisua bidez, edo GAP eta malgutasuna lantzen dira, besteak beste. Adin ertaineko biztanleendako da, eta eragin terapeutikoa indartzeko estrategiak erabiltzen dira. Era berean, lehen aldiz, gehieneko ratioa murriztu du monitore bakoitzeko, irakaskuntzaren kalitatea hobetze aldera. 2021-2022 denboraldian 716 emakumek eta 113 gizonek parte hartu zuten.

YOGA, 50 URTETIK GORAKOENDAKO

Programak Yoga eskolak barne hartzen ditu, batez ere Hatha-Yoga adarrekoak, eta eragin terapeutikoa indartzeko estrategia berariazkoak erabiltzen dira. Gimnastika-programan bezala, gehieneko ratioaren murrizketa orokorrak ere egiten dira monitore bakoitzeko. 2021-2022 denboraldian 567 emakumek eta 89 gizonek parte hartu zuten.



ARETO-FUTBOLEKO HAURREN UDAL LIGA

Areto-futboleko txapelketa da, funtsean jostagarria, lehiakorra ez dena, joko-arauak egokituta, hiriko 7 urtetik 11ra bitarteko ikasleei zuzendua. 2021-2022 denboraldian 802 mutikok eta 45 neskatok parte hartu zuten.

KIROL- ETA GIZARTE-ERREZETA

Programak ariketa fisikoa eta beste gizarte-jarduera batzuk agintzen ditu, hiriko osasun-etxeak pazienteak bideratzeko ardatz gisa hartuta. 45 urtetik gorakoendako da, baldin eta arazo hauetakoren bat badute: nahi ez den bakardadea, hauskortasun-sindromea, sedentarismoa eta jarduera fisikorik eza. Programa 2022an hasi zen egiten, modu pilotuan, Iturrama eta Txantrea auzoetan.

MINUTUAK ZURE KONTAGAILURAKO

Programa 2021eko ekainean hasi zen eta jarraibideak nahiz baliabide aukeratuak eskaintzen ditu, ariketa fisikoa nork bere kasa egin dezan, edonoiz eta edonon. Adin guztiendako da. Barne dauka bideo-joko aktiboen ranking bat, bai eta ariketa fisikoa egiteko aplikazio mugikorrek ere. Webgunea: <http://minutosatucontador.pamplona.es/>

SPORTKIDS JARDUERA MEDIA

Sanferminen barruan, aisialdiko programazio espezifiko bat egin zen 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat, Komunitate Garapeneko arloak eta Kultura Arloak bultzatuta eta Nafarroako kirol-federazioen laguntzarekin. Helburua zen kirol-jarduera sustatzea festa-giroan, diskriminaziorik gabe, eta parte-hartzaileek, jokoaren bidez, eskaintzen ziren kirol-modalitateekin kontaktua izatea. Jarduera Media Lunako lubanarroetan garatu zen, uztailaren 7tik 14ra, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Padela, eskubaloia, xakea, taekwondo, esgrima, gimnastika erritmikoa, arku-tiroa, kirol egokituak, errugbia, beisbola, atletismoa, hipika, saskibaloia, futbola, boleibola eta golfa programatu zen, eta, halaber, paseoak Arga ibaian Caparrosoren Errotako Piraguismo Zentrotik abiatuta.

Parte-hartzeari dagokionez, 9.000 parte-hartzaile inguru izan dira aurtengo edizioan; aurreko edizioan, berriz, 13.000. Hala ere, aipatu behar da irizpide-aldaketa bat izan zela parte-hartzaileen zenbaketan, eta horrek, zalantzarik gabe, murrizketa hori eragin du.

LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

Kirolerako udal-dirulaguntzetarako bost deialdi kudeatu ziren 2022an, 1.232.000,00 euroko aurreikuspenarekin; azkenean, 1.141.066,44 euro banatu ziren. Honatx deialdiak: eliteko lehiaketa ofizial nazionalak ez-profesionaletan; kirol-jarduera iraunkorrak (gehienbat, aisialdikoak), kirol-ekitaldiak, kirol afizionatua eta kirol-eskolak.

LAGUNTZAK ELITEKO LEHIAKETA OFIZIAL NAZIONALETAN PARTE HARTZEKO

Udalak 436.000,00 euro eman dizkie estatuko elite-lehiaketa ofizial ez-profesionaletan parte hartu duten 35 kirol-talderi (lehenengo hiru kategoria absolutuetan arituak). Taldeak 19 erakunderen mende daude eta 17 kirol-modalitateetan ari dira.

JARDUERA IRAUNKORRAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

Horrelako jarduerak garatzeko, 2021/2022 denboraldian 244.557,28 euro banatu dira (266.000,00 euroko kreditu erabilgarriaren gainean) hiriko 7 kirol-erakunderen artean, guztira 6 jarduera iraunkor garatzeko.

UNEAN UNEKO KIROL-EKITALDIK

Kirol eta jarduera fisikoaren arloko hogeita zortzi erakunde jaso dute udal-laguntza, 2022. urtean 48 kirol-ekitaldi antolatzeko. Guztira, 165.000 euro aurreikusi eta banatu ziren.



KIROL-ESKOLAK

Nafarroako Kirol Federazioek –edo, halakorik ezean, kirol-erakunde jakin batzuek– kirol-eskolak antolatzen dituzte. 6 urtetik 14ra bitarteko (edo 15 urtera bitarteko) ikasleendako. Eskolek udal-dirulaguntza jasotzen dute, eta 2022an 206.648,47 eurokoa izan zen (215.000,00 euroko kreditu aurreikusien gainean). Deialdiaren bidez, hamaika kirolean ari diren hamahiru erakunde jaso zituzten laguntzak.

KIROL AFIZIONATUA

Kirol federatu afizionaturako laguntza-deialdiaren bidez, 150.000,00 euro banatu dira 2022an. 31 erakunde jaso dituzte laguntzak kirol-instalazioak erabiltzeko gastuetarako, Espainiako Txapelketa/Kopa ofizialetan parte hartzeko eta, oro har, kirol-talde federatuen kudeaketan ohikoa izaten den beste edozein gastutarako.

KIROL INSTALAZIOAK

UDAL-KIROLDEGIAK

Udalak bederatzi udal-kiroldegi ditu, eta 2021-2022 denboraldian zehar % 70eko okupazioa izan dute, batez beste. Udal-kiroldegiek astean irekita ematen dituzten 761 orduetatik 670 erreserbatuta egoten dira klub, ikastetxe edo kirol-programentzat, erabil ditzaten. Udal-instalazioak hauek dira: Arantzadiko kirol anitzeko pista estalia, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, Jose Maria Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelai.

Klub, ikastetxe edo kirol-programen erreserbei dagokienez, okupazio handiena duten kiroldegia Ermitagañakoa (bere 88 orduen % 90 erreserbatuak), Azpilagañakoa (bere ordutegiaren % 85 erreserbatua) eta Mendillorrikoa (79 ordu ditu okupatuak, erabilgarri dituen 88 orduen % 90) dira, hain zuzen. Sanduzelaiko kiroldegian eskura dauden orduen % 80 zeuden okupatuak; Ezkabakoan, % 65; Arrotxapekoan, % 75; Arrosadikoan, % 85 eta José María Iribarrenen, % 65. Arantzadiko kiroldegi estaliko okupazioa ez da % 45era iristen; zehazki, % 41 da. Zortzi kiroldegia astelehenetik ostiralera egoten dira irekita, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Hala ere, Arantzadiko kiroldegia da ordutegi desberdina duen pista bakarra, egokiagoa kirolguneako instalazioetarako. Astelehenetik larunbatera egoten da zabalik, 09:00etatik 21:00etara. Igandean Arrosadia, Ezkaba, Arrotxapea, Sanduzelai eta Mendillorri baino ez dira egoten irekita, 08:30etik 14:00etara.

Erreserben esleipendunak honako hauek dira: ikastetxeak, gorputz-hezkuntzako irakasgaiaren curriculumak garatzeko eta eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko; kirol-taldeak, beren entrenamendu eta partidu ofizialeetarako; eta elkarteak, kirol-jarduerak egiteko. Normala denez, erabileraren ehuneko handiena duten kiroldegiek hartzen dituzte, goizez, ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako eskolak.

ARANTZADIKO ETA SANDUZELAIKO KIROLGUNEAK

Arantzadiko kirolguneak eta Sanduzelaiko kirol-hiriak 57.912 sarrera eman zituzten 2022an. Urteko abonamenduei dagokienez, herritarrek 844 eskuratu zituzten. Hamabi hilabeteetarako dira, udaldirako barne. Bestalde, udako abonamenduak –hiru hilabete inguruko iraupena dute– 904 izan dira. Neguko 2 abonamendu ere saldu ziren; horien iraupena urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitartekoa da. Azkenik, hiru hileko 437 abonamendu eta hileko 1.220 abonamendu eman ziren.

	Arantzadi	Sanduzelai
Sarrerak	26.683	22.716
Abonamenduak:	Arantzadi	Sanduzelai
Urtekoak	476	587
Negukoak	1	0
Udakoak	1.946	764
180 egunekoak	454	515
90 egunekoak	187	281
30 egunekoak	527	549
10 txartel	751	600

LABRIT PILOTALEKUA

2021ean, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak udal-jabetzako Labrit pilotalekua kontratu baten bidez kudeatu eta ustiatu zuen; kontratu horren barnean ondasunak, makinak eta instalazioak garbitu, mantendu, kontserbatu eta zaintzeko lanak ere badaude jasota. Kontratuak 181.354,80 euroko kostua izan zuen.

Eskuzko eta erremintako modalitateak sustatzeko kirol-eskolak, pilota-selekzioen entrenamenduak eta afizionatuen lehiaketa ofizialak programatu zituen federazioak. Nafarroako, Espainiako eta Herriarteko Txapelketako finalak ere jokatu ziren bertan. San Fermin Txikito Nazioarteko Torneoa eta Nafarroa-Reunion uhartea Nazioarteko Torneoa jokatu ziren, baita pilota profesionaleko beste hainbat jaialdi ere. Noiz edo noiz, jarduera sozial edo kulturalak ospatzeko ere erabili zen pilotalekua.

BESTE GUNE BATZUK

CAPARROSOREN ERROTA. Club Piragüismo Pamplona-k Caparrosoren Errota izeneko udal-lokala kudeatu eta ustiatu zuen piraguismoarako gune eta jatetxe-taberna gisa. Udalak 63.373,75 euro ordaintzen ditu zerbitzu horrengatik, eta askotariko jarduerak egiten dira, hala aisialdikoak nola entrenamendukoak eta kirol-errendimendukoak. 70-80 pertsona inguruk erabili ohi dute instalazioa, eta 3.657k jarduera edo alokairuren baten bidez erabiltzen dute.

BELAR ARTIFIZIALEKO UDAL FUTBOL-ZELAIK. SHalaber, Sanduzelai, Lezkairu eta Arrotxapea auzoetako belar sintetikoko futbol-zelaiak ere kudeatu ziren. Oinarri-kiroleko futbol-taldeek entrenamenduak eta partidak egiteko erabili ziren batez ere; ordutegi hauetan okupatu ziren: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:30era bitartean; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era bitartean, eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara. Denboraldi honetan, 150 taldek eta 2.500 jokalarik inguru modu erregularrean erabiltzen ari dira hiru futbol-zelaiak, astelehenetik ostiralera (partidak eta lehiaketak kontuan hartu gabe).

SOFTBOL-ZELAIA. Sarrera libreko kirol-lekua da aisia-erabilerarako; ez, ordea, lehiarako, softbolean aritzeko. Arrotxapea auzoan dago, Artika eta Ximenez de Rada kaleen artean. Argiak ditu eta 5.000 m² inguruko joko-zelaia. Hiru erakundek izan dute joko-zelaia erabiltzeko erreserba beren jarduerak garatzeko.



UDALAREN PUBLIZITATE-BABESLETZA DUTEN KIROL-EKITALDIAK

Unean uneko kirol-ekitaldi hauek jaso dute publizitate-babesletza, Iruñeko Udalaren logoaren/irudiaren publizitatea egiteko eta, oro har, hiriko kultura-, arte- eta turismo-baliabideak indartzeko.

PUBLIZITATE-BABESLETZARAKO KONTRATUAK KIROL-EKITALDIETAN 2022 (Zenbakietan BEZa dago sarturik)

Iruñeko Alde Zaharreko VII. Erremonte Txapelketa	7.260,00 euro
San Fermin Erremonte Profesionaleko I. Txapelketa	3.630,00 euro
Eusko Label 1. mailako Bi-bitako Pilota Txapelketa	2.178,00 euro
Euskal Pilotako XIX. Mundu Txapelketa Absolutua (Biarritz)	3.630,00 euro
Club Atlético Osasuna (*)	50.000,00 euro
I. Sentimendu Kopa, emakumezkoen futbola	5.000,00 euro
Espainiako Judo Txapelketa, eskolakoa, beteranoak eta kata.	25.000,00 euro
X-Gravity Freestyle	3.500,00 euro
La Media San Fermín	4.000,00 euro
Zubiri-Iruña maratoi erdia, 2022	4.840,00 euro
Espainiako eta EEBBetako selekzio absolutuen arteko lagunarteko partidua. Emakumezkoen futbola (Taxoare)	40.000,00 euro

(*): 2022ko uztailaren 1etik aurrera, publizitate-babesletzarako kontratu bat sinatu zen Club Atlético Osasunarekin, hiriaren irudia sustatzeko eta, horrekin batera, kirol-jarduera eta haren balioak gure hiriko herritar guztien gainean sustatzeko. Kontratuak 300.000,00 euroko balioa du (BEZa barne) 2022/2023, 2023/2024 eta 2024/2025 kirol-denboraldietarako.

IGERILEKU PRIBATUETAKO ABONAMENDUEN ZOZKETA

Iruñeko Udalak udako abonamenduak zozketatuko ditu urtero Txantrea KKEko, Oberena Elkarteko, Arrotxapea KKEko, Amaya Kirol Hiriko eta SDC Echavacoiz-ko igerilekuak erabiltzeko. Guztira, 753 abonamendu banatu dira: 480 abonamendu urtean (otsailaren 1etik abenduaren 31ra) eta udako 273 abonamendu (ekainaren 15etik irailaren 15era) izena ematen duten pertsonen artean. Zehazki, urteko 175 eta udako 75 abonamendu zozkatuko dira Oberena elkartearentzat; urteko 75 eta udako 100, Txantrea KKErentzat; urteko 125 eta udako 68, Arrotxapea KKErentzat; urteko 75 eta udako 30, Amaya Kirol Hiriarentzat, eta urteko 30, SDC Echavacoiz elkartearentzat. Instalazio bakoitzerako ezarritako abonamenduen % 10 erreserbatuta egonen dira % 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonentzat. Eskabidea igerileku baterako bakarrik aurkezten ahalko da.

2.7.4. GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA

Iruñeko Udalak **Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa** bat du 1996az geroztik, herrialde pobreenetako edo Hegoko Herrialdeetako komunitateei laguntze aldera.

Urtero, Udalak diru-partida bat bideratzen du programa horretara, eta 2022an, 1.563.319 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontu guztiaren % **0,78**. Horrek esan nahi du lortu egin zela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, 2022an, 7,50 euroko ekarpena egin zen Iruñeko biztanle bakoitzeko eta urteko, urte horretako udal-errolako datuen arabera, biztanleria 208.537 biztanlekoa baita.

Laburpen honen oinarrian dago Iruñeko Udalak garapenerako lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako eragile aktibo gisa egindako lankidetzaren emaitzen berri emateko beharra. Laburpena 2022an garatutako lan-ildo nagusien isla da.

DIRULAGUNTZA-DEIALDIAK

1. DIRULAGUNTZA-DEIALDIAK ETA UNEAN UNEKO SENTSIBILIZAZIO-JARDUKETAK

GGKE	Proiektua	Dirulaguntza
MEDICUS MUNDI NAVARRA-ARAGÓN-MADRID	Zabalkundea handitzea. "Proiektua: zero desnutrizioa eta elikadura osasungarria" Caripuyo, Bolivia	2.000 €
IÑAKI OCHOA DE OLZA SOS HIMALAYA FUNDAZIOA	La solidaridad mueve montañas	2.000 €
FUNDACIÓN MUNDUBAT-MUNDUBAT FUNDAZIOA	Afrikako gizarte-mugimenduei eta herri-erakundeei buruzko aurkezpenak	1.600 €
AGUA DE COCO FUNDAZIOA	Bere eskubideak bilba-besten	2.000 €
PROIEKTU FINANTZATUAK, GUZTIRA		6.600 €

2. GARAPENAREN ALDEKO SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZKUNTZA-PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK

GGKE	Proiektua	Dirulaguntza
ONAY	Baztertuak Ahanzturatik ekintzailetzara II. fasea	7.600,00 €
FUNDACIÓN TAU FUNDAZIOA	<i>Al sur de Sáhara, África imprescindible</i> 22. edizioa	6.800,00 €
PUEBLOS HERMANOS FUNDAZIOA	Bidezko merkataritzaren nazioarteko egunaren sustapena	6.800,00 €
MEDICUS MUNDI NAM	Gazteak eta hezkuntza ez-formala Gizarte-ekintzako taldeak 2022	6.800,00 €
MUGARIK GABE NAFARROA ELKARTEA	Defendatzaileak / Mujeres en lucha	7.600,00 €
ALBOAN FUNDAZIOA	Lehio bat... Amazoniara	7.200,00 €
SETEM NAVARRA-NAFARROA	Garapenerako hezkuntza-zikloa: Rueda de valores 2022-2023	7.600,00 €
REAS NAFARROA ELKARTEA	Ekonomia Solidarioari buruzko XVI. Jardunaldiak: <i>Elikadura-burujabetza</i>	7.080,00 €
ZABALDI	Gerra amaigabeak: Erresistentzia-gertakariak	5.814,00 €
IPES	Zinema, mundua eta giza eskubideak	6.800,00 €
PROIEKTU FINANTZATUAK, GUZTIRA		70.094,00 €

3. GARAPENAREN ALDEKO HEZKUNTZARAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA

GGKE	Proiektua	Dirulaguntza
MUGARIK GABE NAFARROA ELKARTEA	Tejiendo solidaridad - Auzotik mundura	20.000 €
NUEVO FUTURO ELKARTEA	Mundu hobeia sustatzen duten gazteak	20.000 €
PROIEKTU FINANTZATUAK, GUZTIRA		40.000 €

4. LANKIDETZA-HITZARMENA NAFARROAKO GGKEen KOORDINAKUNDEAREKIN (GGKEK)

GGKE	Proiektua	Dirulaguntza
Nafarroako GGKEen koordinakundea	Informazioa eta koordinazioa 2020	36.000 €
GUZTIRA: PROIEKTU 1 FINANTZATU DA		36.000 €

5. URTEROKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK GAUZATZEKO

GGKE	Izenburua	Helmuga	Puntuak	Dirulaguntza
REMAR ESPAÑA	Eraldakuntzarako hezkuntza: eskolaurrea, lehen eta bigarren hezkuntza Nkuantoma	Guinea	96	24.010,00 €
SAREAN	Emakume Berriak, emakume indigenak indarkeriarik gabe garatzeko ekimena	Mexiko	81	33.250,00 €
PROACIS	Emakume, haur, gazte eta desgaitasuna duten pertsonendako laguntza integrala. FSRM	Kolonbia	81	26.291,25 €
EL SALVADOR ELKARTASUNA	Osasunerako eskubidea egiazki bermatzea, genero- eta ingurumen-ikuspegia kontuan harturik. 3. Fasea	El Salvador	82	33.250,00 €
MEDICUS MUNDI	VBG artatzea Chailchuapan	El Salvador	81	33.250,00 €
ATTSF	Ura, elikagaiak eta saneamendua eskuratzeko logistika errefuxiatu sahararrendako.	Sahara	91	35.000,00 €
APOYO AL PUEBLO SIRIO ELKARTEA	Kalitatezko hezkuntza digital jasangarria 500 haur desplazatu siriarrendako	Turkia	75	20.361,60 €
TAU fundazioa	Sexu- eta ugalketa-eskubideen sustapena indarkeriarik gabe	Bolivia	83	33.250,00 €
VICENTE FERRER	Bigarren mailako hezkuntzan sartzea	India	91	35.000,00 €
MANOS UNIDAS	Macharetim Huacaya eta Villamontes udalerrietako biztanleek beren eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak eskura ditzaten sustatzea; bereziki, emakumeen eta jende indigenaren eskubideak. Bolivia	Bolivia	82	33.250,00 €
VITA ET PAX	Malnutrizioaren aurkako borroka Bilyogo nutrizio-zentroan.	Rwanda	81	33.250,00 €
FABRE FUNDAZIOA	Ur edangarrirako sarbide unibertsal eta ekitatiboa Cotoquita komunitatean	Bolivia	81	33.250,00 €
MUNDUBAT	Indarkeriarik gabeko emakume indigenak	Kolonbia	71	31.500,00 €
ALBOAN FUNDAZIOA	¡Maya K'iché emakumeak, ardatz beren eskubideen aldeko aldarrikapenean eta beren lurraldearen defentsan	Guatemala	85	30.852,20 €
FELIPE RINALDI FUNDAZIOA	Berdintasunean bizitzen ikasten, ikastetxe eta komunitateendako eredu berria Sonsonate Departamentuan	El Salvador	92	35.000,00 €
ASAMBLEA COOPERACIÓN POR LA PAZ	Dominikar Errepublikan, desgaitasuna duten emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak erabat gauzatzeko egokiak eta mesedegarriak diren arau-esparrua eta osasun-arreta sustatzea.	Dominikar Errepublika	88	33.250,00 €

GGKE	Izenburua	Helmuga	Puntuak	Dirulaguntza
UNICEF	Dar Naim hiri inguruko biztanleek ur-, saneamendu-Mauritania eta higiene-eskubidea genero-ikuspegiarekin erabil dezaten hobetzeko ekimena, berrikuntza jasangarria, parte-hartzea eta gazteen aukerak indartuta.		91	35.000,00 €
ULLS DEL MON FUNDAZIOA	Moptin (Mali) begi-osasuneko zerbitzu integraletarako irisgarritasuna eta talde zaurgarrien erabilgarritasuna hobetzea	Mali	81	33.250,00 €
GARAPENERAKO LAGUNTZA	Komunak Ndokh-en eraikitzea	Senegal	91	21.073,00 €
ONAY	Shutia komunitateko uraren eta haren gobernantzaren giza eskubidea bultzatzea	El Salvador	93	35.000,00 €
JUAN CIUDAD	New Kru Towneko emakume, haur eta nerabeen osasunerako eskubidea bermatzea (II. fasea)	Liberia	81	26.404,30 €
MUGARIK GABE	Agua en El Tesoro Nueva Esperanza	Guatemala	92	35.000,00 €
ACNUR	Kamerungo errefuxiatuek edateko ura eta kalitatezko saneamendua izatea Nigerian	Nigeria	88	33.250,00 €
SODEPAZ	Palestinako preso politikoek giza eskubideen defentsa, ikuspegi globalarekin	Lurralde Okupatuak	82	33.250,00 €
GARABIDE KULTUR ELKARTEA	Nahuizalcoko Cuna Nhuat programaren garapen integrala eta lehendik dauden cunak babestea (SCM eta SDG)	EL Salvador	85	33.250,00 €
SETEM	Kontsumo arduratsua eta hondakin solidoen kudeaketa, Lambayequeko (Peru) eskoletan bizitza jasangarria sustatzeko	Perú	91	33.101,00 €
AGUA DE COCO FUNDAZIOA	Artea eta musika hezkuntzaren eta haurren babesaren zerbitzura, COVID-19aren krisi sozio-ekonomikoaren aurrean	Madagascar	80	31.500,00 €
PBI-NAFARROA	Emakumezko lider sozialei eta giza eskubideen defendatzaileei nazioarteko laguntza eta behaketa ematea, genero-ikuspegia duen babes integraleko eredu baten bidez, Kolonia.	Kolonia	91	35.000,00 €
INFANCIA SIN FRONTERAS	Haurren osasuna eta nutrizioa	Nikaragua	84	33.246,20 €
BENITO MENNI FUNDAZIOA	elektroentzefalograma-tresna bat erosita, epilepsia eta gaixotasun mentala duten pertsonak diagnostikatzeko eta tratatzeko	Kongoko Errepublika Demokratikoa	81	32.870,00 €
MADRE CORAJE ELKARTEA	Mandlakazi barrutian kalitatezko hezkuntza inklusibo eta parte-hartzailearen alde. Gaza - Mozambike	Mozambike	83	33.250,00 €
SOLIDARIOS CON ARUA	Langeti proiektu integratua	Uganda	92	35.000,00 €
32 PROIEKTUEK GUZTIRA ZENBAT JO				1.023.459,55 €

6. TOKI GARAPENeko PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA HEGOALDEKO TOKI ERAKUNDEEKIN

GGKE	Proiektua	Destinoa	Dirulaguntza
A modalitatea: Proiektu berriak			
EL SALVADOR ELKARTASUNA	Nahuat hizkuntza eta ur- eta saneamendu-eskubidea sustatzea eta biziberritzea El Salvadorren	El Salvador	40.000 €
B modalitatea: Jarraitasun-proiektuak			
ALBOAN FUNDAZIOA	Lalaquiz barrutiko ekoizpen- eta merkataritza-garapenaren udal-bultzada, 2. urtea	Perú	40.000 €w
INFANCIA SIN FRONTERAS	El Roblar komunitatean edateko ura eta saneamendua izateko eskubidea bermatzea (III. fasea)	Nikaragua	40.000 €
GUZTIRA: 3 PROIEKTU FINANTZATU DIRA			120.000 €

7. PARTAIDETZA NAFARROAKO LANKIDETZARAKO TOKI FUNTSAN (NUKF)

GGKE	Izenburua	Herrialdea	Dirulaguntza
"Rode" Fundazioa	Nameturan komunitatearendako ur-hornidura, Turkana North	Kenya	23.998,45
Alboan Navarra	Kisantu eta Mbanza-Ngunguko haurrendako lehen hezkuntzaren kalitatea hobetzea	Kongoko Errepublika Demokratikoa	24.000,00
Medicus Mundi	Gakenke barrutiko hiru sektoretako biztanleen osasuna hobetzeko programa dimentsio anitza: Nemba, Karambo eta Kamubuga	Ruanda	24.000,00
Siempre Adelante Fundazioa	"María Inmaculada" eskola eta Nganga Lingolo auzoa edateko urez hornitzea, eskola bertan baitago	Kongoko Errepublika Demokratikoa	12.000,00
Children of Africa	Mkilo School, hobekuntzak Kenyako landa-eskoletan, hezkuntzarako oinarritzko eskubidea hobeki eskuratzen laguntzeko	Kenya	24.000,00
UNICEF	Haurren hezkuntzarako eskubidea defendatzea, Ginea-Bissauko bi eskualdetako eskoletan eta komunitateetan ura, saneamendua eta higiena izateko eskubidea indartuz	Bissau Ginea	24.000,00
ACNUR	Edateko ura eta kalitatezko saneamendua eskuratzea Kamerungo errefuxiatuentzat	Nigeria	24.000,00
Trabajadoras y técnicos Sin Fronteras elkarte	Hitzarmena Saharak Nafarroan duen Ordezkaritzarekin	Saharako errefuxiatuen kanpamenduak	24.000,00
8 PROIEKTU FINANTZATU DIRA (7, DEIALDI BIDEZ; 1, HITZARMEN BIDEZ)			179.998,45€

8. DIRULAGUNTZA-DEIALDIA LARRIALDIKO GIZA JARDUKETETARAKO

GGKE	Proiektua	Helmuga	Dirulaguntza
ANARASD	Haur esnea Saharako haurrendako	Sahara	15.000 €
ACNUR	Yemengo gatazkaren ondorioz desplazatutako familiendako oinarrizko babesa eta laguntza	Yemen	15.000 €
IÑAKI OCHOA DE OLZA SOS HIMALAYA FUNDAZIOA	Nepalgo Seduwako osasun-sare publikoa indartzea, Makaluko ospitalea birgaituz.	Nepal	15.000 €
EL SALVADOR ELKARTASUNA TALDEA	Erantzuna Eta eta lota urakanei Fe y Esperanza, Suchitoto, Cuscatlán komunitateetan.	El Salvador	15.000 €
GUZTIRA: 4 PROIEKTU FINANTZATU DIRA			60.000 €

2002ko aurrekontua: aurrekontuaren betetze-maila

LAN-ILDOA	Kop.	2022ko betetze-maila	Ehuneko (%)
SENTSIBILIZAZIOA	17	153.694,00	10,8%
— Dirulaguntza-deialdia Unean uneko jarduketak (APS)	4	7.600,00	0,5
— Dirulaguntza-deialdia Urteko proiektuak	10	70.094,00	4,9
— Dirulaguntza-deialdia Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntza proiektuak (2022-24)	2	40.000,00	2,6
— Lankidetzeta-hitzarmena: Informazioa eta Koordinazioa	1	36.000,00	2,5
TOKI-GARAPENA	43	1.187.459,55	84,03%
— Dirulaguntza-deialdia Urteko proiektuak	32	1.023.459,55	72,4
— Dirulaguntza-deialdia Hegoko toki-erakundeendako	3	120.000,00	8,5
— Garapenerako lankidetzarako tokiko funtsa (NUKF)	8	44.000,00	3
GIZA LARRIALDIRAKO LAGUNTZA	4	60.000,00	4,24%
— Dirulaguntza-deialdia: Giza Larrialdia (GL)	4	60.000,00	4,2
KUDEAKETA-JARDUKETAK (PMCID): Plangintza eta jarraipena	1	11.979,00	0,84%
— II. Plan Zuzentzailea	1	11.979,00	0,8
GUTZIZKO PARTZIALA, JARDUKETAK (PMCD)	65	1.413.132,55	100%
GUZTIZKO PARTZIALA, FUNTZIONAMENDUA (PMCID)	148.319,00	148.319,00	9,5%
GAUZATUA, GUZTIRA	1.561.451,55	1.561.451,55	100%

2.8. HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA OSASUNA

2.8.1. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko Alorraren helburua da hiria sortzea lurraldean: horretarako, hiri-antolamendua planifikatu eta kudeatzen du, etxebizitza duin bat eduki ahal izatea errazten du, naturaguneak hobetzen ditu, historia-ondarea zaintzen du eta ahalegina egiten du hiri- eta gizarte-ingurua osasungarria izan dadin, osasun-, higiene- eta ikuskaritza-baliabideen bitartez.

Halaber, laguntza eskaintzen du herritar orok etxebizitza duin eta egokia eduki dezan.

1. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

LICENTZIAK

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Obrak	221	349	387	406	437	473	518	568	503
Laburtuak	558	764	765	781	709	649	560	717	798
Komunikatuak	546	651	805	762	914	918	779	903	1.345
EEZB obrak	90	134	197	237	244	256	258	300	342
EEZB laburtuak	107	128	30	73	56	58	39	66	97
EEZB komunikatuak	54	52	76	210	210	186	168	176	194
	1.576	2.084	2.260	2.469	2.570	2.540	2.322	2.730	3.279

2022an izapidetutako espedienteen igoera

2021. urtearen aldean: % 20,00

2020. urtearen aldean: % 41,00

2021ean izapidetutako obra-lizentzien igoera

2021. urtearen aldean - % 3,00

2020. urtearen aldean - % 8,90

IZAPIDETUTAKO ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA (EZ DAUDE SARTUAK AURREZ ZEUDEN LOKALETAKO ETXEBIZITZAK)

	Hego Txantrea	Arrosadia Lezkairu	Ipar Etxabakoitz	Zabalguneak	Buztintxuri	Erripagaña	Arrotxapea	Beloso	Iturrama	Guztira
2020	79	467	51	92	24	93				806
2021	59	246	23	156	138	72	16	6		716
2022	105	519		53					24	701

ETXEBIZITZA BERRIAK, BEHE SOLAIRUKO MERKATARITZA-LOKALAK ERALDATZEAREN ONDORIOZ:

	Arrotxapea	Arrosadia	Azpilagaña	Etxabakoitz	Donibane	Lezkairu	Sanduzelai	Buztintxuri	Iturrama	Mendillorri	Mendebaldea	Txantrea	Ermitagagaña	GUZTIRA
2020	27	9	6	6	-	-	5	1	1	5	3	3	3	69
2021	23	12	8	1	9	9	7	7	4	3	5	1	4	93
2022	32	17	9	9	4	21	3	7	11	8				121

IREKIERA-LIZENTZIAK

2012tik hona, irekiera-espediente gehienak erantzukizunpeko adierazpen bidez izapidetzen dira, eraikinen lehen erabilerak eta erabilerak-aldaketak izan ezik. Erantzukizunpeko adierazpenak, 2012an sartutakoak, jarduera kaltegabeak eta sailkatuak irekitzeko izapideak errazten ditu. Jarduera horiek Geroko Kontrolari buruzko Ordenantzarekin bat kontrolatzen dira.

Izapidetutako irekiera-lizentziak			
	GUZTIRA	1. Erabilera	Apartamentu turistikoak
2018	917		
2019	829		
2020	964	87	199 (42 UKATUAK)
2021	950	112	74 (14 UKATUAK)
2022	1.068	118	47 (7 UKATUAK)

2022an, 1.068 espediente izapidetu ziren. Haietatik 118 etxebizitzaren lehen erabilerako lizentziak izan ziren, eta 47, apartamentu turistikoetarako lizentziak; haietatik, 39 eman eta 7 ukatu ziren (gainerakoak, beste egoera batzuetan daude).

ETXEBIZITZAREN ALORREAN EGINDAKO ESKU-HARTZEAK

— ETXEBIZITZA-BULEGOA

2022a amaitu arte, guztira 180 etxebizitza bildu dira bulegoan, eta den-denak okupatuak daude. Esku-hartzeak bi bideren bitartez egiten dira. Batetik, Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko alorrak koordinatzen dituen etxebizitzetan, eraikinetan eta beste ondasun higiezin batzuetan konponketak eta berrikuntzak egite aldera, hornitzaileekin 2015ean sinatutako esparru-akordioaren arabera. Bestetik, esku-hartzea Gizarte Zerbitzuetako alorraren Gizarte Enpleguako eta Gazte Langabetuen Laneratze programen bidez egiten da. Bulegoaren erabiltzaileen profila 3 edo 4 kideko familia-unitatea da, adingabeak ardurapean dituenak, eta diru-sarrera prekarioak. 2020an 33 etxebizitza bildu ziren bulegoan, haien kudeaketa egiteko; 2021ean, beste 38 etxebizitza berri batu ziren. 2022an, 11 etxebizitza berri bildu dira.

— HIPOTEKA-BITARTEKARITZAKO BULEGOA

2022. urtean, hipoteka-bitartekaritzako 29 eskabide jaso ziren. Hori zela eta, espedienteak abiarazi, eta emaitzak honako hauek izan ziren:



20 espedienteak amaitu ziren, eta gainerakoak, irekita daude.

Horietako 13 espediente abokatuen aholkularitzaren bidez ebatzi ziren, ez baitzuten zuzeneko bitartekaritzarik behar, aukera posibleak gainbegiratzea baizik. A Fasean kokatutako kasuak dira. Hau da, bezeroak lege-aholkuaren alde egin eta neurri posibleak hark berak bere banku-entitatean zuzenean proposatzea hobesten du.

Gainerako espedienteek dagokienez, 2 kasu etxebizitza ordainean emanez amaitu ziren, zorra kitatzeko; kasu batean kopuruak birnegoziatu ziren, abusuzko klausulak ikusirik, eta beste 2, luzamendua lortuz eta hipoteka ordaintzeko kontrola berreskuratuz.

2 kasutan ez zen akordioa lortzerik izan bankuarekin. Kasu batean, bezeroak uko egin zuelako entitateak ezarritako baldintzei eta, bestean, bankuak negoziatzeko borondaterik izan ez zuelako.

Eskabideak auzo guztietatik etorri dira, oso banatuak daude, baina espediente gehienak Milagrosan, Sanduzelain, Txantrean, Etxabakoitzen eta Arrotxapean daude, eta auzo berriak ere ageri dira, hala nola Lezkairu.

2. HIRIA BIRGAITZEKO BULEGOA (HBB)

Iruñeko Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoa 1984an hasi zen lanean, MOPUren, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmen baten babesean, hiriaren erdigune historikoko hainbat eraikin birgaitzeko asmoz. Udaleko Plan Orokorraren eskakizunekin bat, une hartan bulego bat sortu zen, udalaren mendean soilik, aipatu Planak hiriaren erdigune historikoko aurreikusten duen hirigintza-garapena kudeatzeko eginkizunak bere gain hartuta. Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 1986ko urrian sinatutako hitzarmenarekin bat, bulegoak halaber bere gain hartu zuen Nafarroako Gobernuak foru-lurraldean Eraikinak eta Etxebizitzak Birgaitzeko ezarri zuen Bulego haietako baten eginkizuna.

EGINKIZUNAK

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak ezartzen dituzten birgaitze-politikek sortutako lan arlo guztiek gidatzen dute Iruñeko Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoaren jardura. Praktikan, Bulegoaren jardueraren zati garrantzitsu bat birgaitze babestuko espedienteen tramitazioan datza, leihatila bakarreko kontzeptura hurbiltzen den kontzeptuarekin bat, Bulegoak bere gain hartuak dituen eginkizunetarikoz batzuk batera egin nahirik, betiere birgaitze-jarduketekin lotutakoak (hirigintza-legeari eta legeria teknikoari buruzko informazioa, Jabetza Horizontalari buruzko Legea; aholkularitza laguntzei buruz, hirigintza-lizentziak izapidetzei buruz, Gobernuaren eta udalen laguntzak izapidetzei buruz...).

HBBko teknikariek, halaber, 296 bisita tekniko egin dituzte 2022an zehar eraikinetara, Bulegoan izapidetzen diren hainbat espediente motarekin lotutakoak.

Hiria Birgaitzeko Bulegoa, halaber, Udalaren dokumentazio-erregistrorako guneetako bat da eta, irisgarritasun-baldintzak direla eta, jardura handia egiten da.

LEHENTASUNEZ BIRGAITU BEHARREKO EREMUETAKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

Birgaitze-jarduketak lehentasunez birgaitu beharreko eremuak ukitzen dituen garapen-planeamenduarekin bat programatu behar direla ulerturik, Bulegoak aipatu Plan Bereziei buruzko kontsulta eta aholkularitzarekin lotuta dagoen edozein lan egiten du. 2022an zehar, 17 hirigintza-kontsulta izapidetu dira indarrean dagoen araudia aplikatzeari buruz hiri osoko hainbat birgaitze-proiektutan.



Birgaitze-jarduerak gero eta jarduera profesional handiagoa dakar berarekin; izan ere, gehienbat, teknikari pribatuek edo beste administrazio batzuek denetarik espediente amaituak kontsultatu eta aztertze beharra eskatzen dute, HBBko artxiboan gordeak daudenak: 2022an, HBBko artxiboko 92 espediente eskatu dira, hainbat azterlan mota, txosten, analisi eta kontsulta egiteko.

HIRIGINTZA-DIZIPLINA

Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoak hainbat hirigintza-izapide egiten ditu, guztiak ere hiriaren erdigune historikoko birgaitze-jarduketei eta jarduketak kontrolatzeari lotuak.

Aurreko urtealdian, HBBk honako espediente hauek ebatzi ditu:

- 555 hirigintza-lizentzia obretarako.
- Obra-amaierako 292 espediente (obra-amaierako eta lehen erabilerako azterketak).

ERAIKINEN KONTSERBAZIOA - OBRAK GAUZATZEKO AGINDUAK ETA ERAIKINAK EBALUATZEKO TXOSTENEN AURKEZPENA

Birgaitze Bulegoak, Hirigintzako alorrarekin batera, hiriaren erdigune historikoan kokatutako eraikinak kontserbatzeko betebeharrekin lotuta dauden obren gauzapenerako txosten teknikoak eta aginduak izapidetzen ditu.

108/2014 Foru Dekretuak eraikin-jabeendako betebeharrak berriak ezarri dituen neurrian (Eraikinak Ebaluatze Txostenak egin eta aurkeztearekin lotutakoak), Udaleko Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartu ditu aipatu txostenak hartu, erregistratu eta aurkezteko lanak.

Hiriko Alde Zaharreko eraikuntza pribatuan aurri-adierazpenaren eskaera bat izapidetzea.
Eraikinak Ebaluatze 230 txosten hartu eta erregistratzea.

IRISGARRITASUN PLAN BEREZIAK

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat, Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen du Irisgarritasun Plan berezien tramitazioa partikularrek eskatuta, zeinen bidez etorkizunean desjabetzeak ahalbidetuko baitira eraikinetan oztopo arkitektonikoak kendu ahal izateko.

Une honetan, 7 desjabetze-espediente izapidetzen ari dira Iruñean. Aurreko urtealdian (2022) honako jarduketa hauek egin ziren espediente horien gainean:

Desjabetze-espediente batek ukitutako titularren eta ondasunen zerrendaren hasierako onespina.
2 desjabetze-espedientetan izapidetzeari uko egitea onartzea

NAFARROAKO GOBERNUAK ERAIKINAK BIRGAITZEKO EMANDAKO LAGUNTZEN KUDEAKETA

Datu orokor gisa, % 27,74 igo dira 2022an tramitaziora aurkeztutako espedienteen kopurua, 2021ekin alderatuta.

Hona hemen Nafarroako Gobernuak 2022an hitzemandako laguntzak, Iruñean onetsitako jarduketei dagozkienak (behin-behineko kalifikazioa 2022):

- 3.872 etxebizitzak jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren laguntzak
- % 63 handitu da, 2021ekin alderatuta
- Sustatzaileen inbertsio pribatua: 34.506.622 €
- % 5 igo da, 2021ekin alderatuta



- 11.900.182 € dirulaguntzatan, Nafarroako Gobernuak emanik.
- 2021ean emandako kopuruaren antzekoa

Aipatzekoa da, halaber, Alde Zaharreko birgaitze-jarduketei laguntzeko neurri gisa, Hiria Birgaitzeko Bulegoak txostena egiten duela inguruko etxebizitzetan bizigarritasun-baldintzak betetzearen gainean. Etxebizitzan jabeek egindako aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz gainera, Nafarroako Gobernuak eskatuta, 158 txosten egin ditu, bizigarritasun-zedulen eskaerei loturik.

Bestalde, 61/2013 Foru Dekretua aldatzearen ondorioz, bizitegi-multzoetan birgaitze energetikoaren alde 2016an hartutako neurriak interesgarriak gertatzen ari dira hiriko eremu finkatuetan kokaturiko komunitate-multzo batzuetarako. Esku-hartze Globaleko Proiektuak idatziz (PIG), jarraitu da birgaitze babesgarriko jarduketak hainbat bizitegi-multzotan programatzen.

Laguntza mota horrek garrantzi berezia hartu du Txantrean. Nasuvinsaren jardunak aipatu PIG planen prestaketa bultzatu baitu, hiriko beste eremu batzuetan baino neurri handiagoan (Iruñeko Udalarekin egin duen lankidetzahitzarmenaren barnean).

2022an, HBBko zerbitzu teknikoek Esku-hartze Globaleko 6 proiekturen partaidetza-prozesuetan esku hartu dute hainbat bizitegi-multzotan, HBBren aldeko txostena jasotakoak eta Nafarroako Gobernura igorritakoak, onets ditzan (809 etxebizitza).

ERAIKINAK BIRGAITZEKO UDAL LAGUNTZEN KUDEAKETA

2022an, birgaitze-espedituek ukitutako pertsonen aurrez aurre edo telefonoz etengabe emandako informazioaz gain, HBBk Birgaitze Babestuko 37 txosten eman ditu Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetako (Alde Zaharra eta Zabalgunek) eraikin eta etxebizitzetan. Helburua da birgaitze-jarduketei ekiteko interesdunei jakinaraztea zer-nolako behar zehatzak dauden eta zenbateraino egokitu beharko duten araudira eraikinean egin beharreko obrek, aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izateko.

2022an, Alde Zaharreko eta Zabalgunetako 15 eraikinen birgaitze-proiektuak kalifikatu dira hasiera batez. Espedienteek guztira 130 etxebizitzari eragin diete, 2.511.053 €-ko inbertsio partikularra eragin dute eta 855.756 €-ko dirulaguntza emanen zaie.

Udalak babestutako birgaitze-jarduketaren ondorioz, halaber, aldarmioak laga dira Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetako eta Auzo Kalteberetako fatxadetan eta estalkietan esku hartzeko. 2022an, 33 eraikinek jaso dute aldarmioak lagatzeko laguntza, 106.486,97 euro guztira.

Aipatu behar da, halaber, 2022an zehar, 1.578.180,85 € eman direla Alde Zaharreko eta Zabalgunetako 21 birgaitze-jarduketaren laguntzak ordaintzeko.

HIRIA BERRONERATZEKO JARDUKETAK – EREMU KALTEBERAK

2012. urteaz geroztik, hiriko eremu hondatuenetako hiri-kalteberatasunari buruz aurrez egindako azterlanetatik abiatuta, Hiria Berroneratzeko jarduerak garatzen eta ezartzen ari dira eremu kalteberetan, Esku-hartze Orokorreko proiektuen erredakzioa Esparru Hitzarmenaren onespenera lotuz. Hala, hitzarmen horiei esker, eragindako eremuetan informazio- eta kudeaketa-laguntzak eta -neurriak ezartzen ahal dira.



2022an, honela gauzatu da:

- Bukatu dira 2014an eta 2015ean sinatutako lehen esparru-hitzarmenei lotutako jarduketak, Lezkairuko eta Trenbideko kaleko etxeetan.
- La bukatuak daude Agur Maria zeharkaleko eremuko (Arrotxapea) eraikinetan jarduteko esparru-hitzarmenari (2017n onetsia) lotutako jarduketak, eta eraikin bakarra dago birgaitze-lanak hasi gabe.
- Birgaitze-lanak hasi dira Sanduzelaiko eremu kalteberako 4 eraikinetan (2018an onetsitako esparru-hitzarmena). 16 etxebizitzako blokeak dira.
- Sanduzelaiko Gridillas Etxeetako etxadiko PIG planaren esparruan, 2 eraikinetan bukatu dira obrak eta beste 2 jarduketa eraman dira tramitaziora.
- Osoz etxe-multzoaren esparruak (2019an onetsitako esparru-hitzarmena) elkarrekin izapidetu ditu 2022an esparruko 8 eraikinetako inguratzaille termikoa hobetzeko lanak.
- Sarrigurengo eremu kaltebera osatzen duten jabekide-erkidegoak proiektuak izapidetzeko fasean daude (esparruko 10 ataritatik 5).
- San Migel kolonia (2020an onetsitako esparru-hitzarmena) obra gauzatzeko fasean dago 11 ataritatik 10etan.
- Jabekide-erkidegoekin egindako 4 hitzarmen-aldaketa onetsi dira aipatu eremu kalteberetan, dirulaguntzen ordainketa obren gauzaperen erritmora doitzeko.

Aurreko ekintzen garapenak eraginda, eremu kalteberatako 14 erkidegori eman zaizkie laguntzak 2022an; 655.519,36 €, guztira.

Era berean, aipatu behar da eraikinak birgaitzeko 10 proiektu kalifikatu direla hasiera batez aipatu eremuetan (inbertsio pribatua: 1.764.638 euro, eta dirulaguntza aurreikusia: 567.025 €).

BESTE LAGUNTZA DEIALDI BATZUK, HALA NOLA BIRGAITZETARAKO PIZGARRIAK

2022an, Iruñeko Udalak 3 laguntza-deialdi argitaratu ditu Hiria Birgaitzeko Bulegoaren bidez, hiriko eraikinetan birgaitze-jarduketak laguntzen bidez sustatzeko:

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, eraikinak Alde Zaharrean birgaitzeko aurreproiektuak idazteko ordainsariak diruz laguntze aldera, 2020rako. RUS 26-JUL-22 (16/US).

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdiaren onspena, esku-hartze globaleko proiektuak idatzi eta kudeatzeko ordainsariak diruz laguntze aldera, 2022rako, 61/2013 Foru Dekretuaren VI. Kapitulua 4. atalaren arabera. RUS 23-JUN-22 (19/US).

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, uholdeek sotoetan eta behe solairuetan eragindako ondorioak ahalik eta gehien gutxitze aldera, 2022-2023. urteetarako. RUS 23-JUN-2022 (15/US).



BIRGAITZEA LAGUNTZEKO UDAL JARDUKETEN LABURPENA

Hona hemen birgaitze babestuetarako sustapen pribatuarendako udal laguntzen jarduketa nagusien xehetasuna:

- 11.578.180 € zuzeneko dirulaguntzetan ordaintzea L.B.E. etako birgaitze-sustatzaileei. (21 birgaitze-jarduketa)
- 655.519 € zuzeneko dirulaguntzetan ordaintzea hiri kalteberatasuneko arriskua duten eremuetan (14 birgaitze-jarduketa)
- L.B.E. ko 15 espediente hasiera batez kalifikatzea. Eragindako inbertsio pribatua: 2.511.053 €. Hitzemandako dirulaguntza: 855.756 €
- Eremu Kalteberetako 10 espediente hasiera batez kalifikatzea. Eragindako inbertsioa: 1.764.638 €. Hitzemandako dirulaguntza: 567.025 €
- Aldamioak birgaitze-obretarako lagatzea 33 eraikinetan: 106.486,97 €.
- 4 etxebizitzaren alokairua, birgaitze-jarduketari lotutako berrostatzeetarako.
- Mailegu 1 ematea diru-sarrerarik gabeko pertsonari. Beste 14 mailegu daude irekita
- Eremu kalteberetako jabekide-erkidegoekiko 4 hitzarmen ekonomiko aldatu dira (Sanduzelai, San Migel kolonia).
- Birgaitze babesturako 37 txosten eman dira aurrez.
- 6 plan berezi izapidetu dira eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko
- Diruz lagundu dira Alde Zaharreko 5 eraikinetako aurreproiektuak idazteko ordainsariak: 15.776,24 €-an.
- Diruz lagundu dira 5 bizitegi-multzotako esku-hartze globalerako proiektuak idazteko ordainsariak 99.140,55 €-an.

MRR FUNTSEN LAGUNTZAK

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko etxebizitzak birgaitzeko eta etxebizitza sozialerako laguntza-programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua garatze aldera, Nafarroako Gobernuak, Etxebizitzako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, hainbat deialdi argitaratu ditu (eraikinak, auzoak, etxebizitzak, Eraikinaren Liburua), eraikinetako energia-eraginkortasuna hobetzeko jardueretarako laguntzak eta dirulaguntzak emate aldera.

Iruñeko Udalaren HHBk ez du deialdien kudeaketa osoa egin, baina bere gain hartu ditu MRR funtsei lotutako deialdi guztien informazio-lanak.

PIG figura sortu zenetik Iruñeko Udalak bere gain hartu dituen bizitegi-multzoetako birgaitzei laguntzeko ekintzen barnean, MRR funtsetatik datorren Auzoak izeneko programaren deialdia baliatu egin du Bizitegi Birgaitze Programatuko Ingurune batzuk hiri-kalteberatasuneko baldintza egiaztatuak dituzten eremu izendatzea eskatzeko. 2022an, Iruñeko Udalak 7 bizitegi-multzoren Bizitegi Birgaitze Programatuko Ingurune adierazpena eskatu du.

3. PAMPLONA CENTRO HISTORICO SA (PCH) - Iruña Biziberritzen (IB)

PCH-IBk, abiaraziak ziren 5 sustapen burutu ditu, eta ia bere osoan eman dira eraiki diren 52 etxebizitzetako gehienak: Descalzos 23 – 25 – 27 (8 etxebizitza + 2 lokal Udalari lagata); Descalzos 47 – 53 (17 etxebizitza + 1 lokal – 20 garaje-leku + 8 trasteleku); Descalzos 24 (6 etxebizitza + 2 lokal Udalari lagatzeko prozesuan), Carmen 25 (14 etxebizitza eta Udalari lagatutako lokal 1) eta Descalzos 33-35 (7 etxebizitza eta lokal 1 Udalari lagatzeko prozesuan).

Etorkizunerako diren gainerako 4 sustapenetan, jabetzak erosteko eta proiektuak kontratatzeke kudeaketa-lanak egin dira. Sustapen hauek dira: Jarauta (7tik 21era), Descalzos 55 – 61, Descalzos 42 – 48 eta Jarauta 84 – 86.



PCH-IB, SA, halaber, Iruñeko Udalaren bitarteko instrumentala eta zerbitzu teknikoa da, 150/2003 Foru Dekretuan ezarritako ondorioetarako, kalte egin gabe bere estatutuen arabera egokituak dituen jarduerari.

Iruñeko Udalak, zenbaitetan, dela zuzenean, dela beraren mendean dauden beste entitate batzuen bidez, PCH-IB, SAREN gizarte-xedeari berez dagozkion jarduerak egiteko enkargua ematen dio PCH-IB, SARI, hala nola:

- Aurretiazko azterlanak, birgaitzeko premia berezia duten eremuetako hiri-kalteberatasunari buruz.
- Udal-obren eta toki-administrazioaren mendeko beste erakunde batzuen jarraipena eta ikuskapena egitea
- Lan teknikoa eta toki-administrazioaren mendeko beste erakunde batzuei enkargatutako obren jarraipena kudeatzea
- Txosten teknikoak idaztea
- Plangintzako figuren idazketan esku hartzea

Era berean, Iruñeko Udalarekin aritzen da lankidetzan hiriko Alde Zaharreko zerbitzu eta ekipamenduen sarea osatzeko, bere jabetzako 2 eraikin Udalak berak ematen dituen zerbitzuetarako baliatuz. Aquavox San Agustin eta Ansoleaga 17ko apartamentu babestuen eraikina dira.

2022ko JARDUKETAK

2021eko abenduaren 20an egindako bileran, enpresaren Administrazio Kontseiluak 2022ko ekitaldirako aurrekontua eta Jarduera Plana onetsi zituen. Onetsitako dokumentua erabili da udal-enpresak ekitaldi horretan egiten dituen jardueren programazio gisa. Jarduerak bi lan-ildo nagusi dituzte ardatz: Alde Zaharreko Etxebizitza Plana garatzea eta udalak eta haren sozietateek egindako gomendioak.

ALDE ZAHARREKO ETXEBIZITZA-PLANA. JARDUKETAK

2022an, Etxebizitza Planean hasiak diren sustapenak garatzearekin lotutako jarduketa hauek garatu dira:

- **DESCALZOS 33-35eko ERAIKINA.** 2022an, Descalzos 33/35eko 7 etxebizitzako eta merkataritza-lokal bat duen eraikina eraisteko eta eraikitzeko lanak amaitu dira, eta 7 etxebizitzetatik 5 eman dira. 2022an 359.915,03 euroko inbertsioa egin da.
- **JARAUTA 58ko ESLAVA 26ko ERAIKINA.** Jabetza guztiak lortzeko daude, ezinezkoa izan baita bi jaberekin akordioa egitea: etxebizitza 1 eta lokal bat. Sustapen berrirako lizentzia lortu bazen ere, obra hastea ezinezkoa zenez, obra-zuzendaritzako eta Passivhaus aholkularitzako kontratuak deuseztatu ziren 2022an, elkarren artean ados jarrita.
- **DESCALZOS 55-61eko ERAIKINA.** 2022an sustapen berriaren proiektua idazteari ekin zitzaion, erakunde informazio-emaleei aurrez kontsultak eginez.
- **DESCALZOS 42-48, JARAUTA 7-21, JARAUTA 84-86.** 4 etxebizitza erosi dira sustapen horiek osatzen dituzten eraikinetan, guztiak trukearen bidez.
- **JARAUTA 13.** PCH-IBk eskatuta, Jarauta 13ko eraikina aurri-egoeran dagoela deklaratu da. Arkitektura-estudio bat kontratatatzeko prozesuan dago, finkatze partzialeko proiektua idatzi dezan, eraikinaren segurtasunarekin lotutako arriskuak ezabatze aldera.

2022. urtearen amaieran, PCH-IBk 12 lokal eta 81 etxebizitza zituen PIG eraikinetan, eta 4 lokal eta 4 etxebizitza PCH-IBk gauzatutako sustapen berrietan.



MANDATUA: IRUÑEKO II. ZABALGUNEKO MERKATUA BIRMOLDATZEKO OBRA

2017ko urriaren 20an, Comiruna Saren Administrazio Kontseiluak mandatu bidez utzi zituen PCH-IBren esku Zabalguneiko Merkatura eraberritzeko obrak sustatzeko beharrezkoak ziren euskarri tekniko lanak.

2021ean, PCH-IBko langileek COMIRUNA Saren mandatuari ekin diote, eta Zabalguneiko Merkatura eraberritzeko obren lehen fasean, lizitazio-prozesuaren eta obra-kontratuaren nahiz zuzendaritza teknikoaren jarraipena egin du, ia 1,1 milioi euroko inbertsioarekin. 2022aren amaieran obren 2. fasea egiten ari dira.

ENPRESAREN JABETZAKO ERAIKINAK, UDAL EKIPAMENDUETARAKO BIDERATUAK

Enpresa arduratzen da, halaber, Alde Zaharreko ekipamendu-sarearen esku jarritako eraikinak kontserbatzeaz eta mantentzeaz, bere jabetzakoak baitira. (Aquavox San Agustín eta Ansoleaga kalearen 17ko apartamentu babestuak). Descalzos 47-53eko eraikineko sotoan dagoen aparkalekua ere kudeatzen du. Bertan, Alde Zaharrean bizi direnei alokairuan lagatako 20 aparkaleku daude, BOE prezioetan.

4. HIRIGINTZA GERENTZIA

JARDUKETA NAGUSIAK

URBANIZAZIOA

TRINITARIOS PARKEKO D.1.B ETA D.2 FASEAK URBANIZATZEKO OBRAK, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN

Obrak lizitatzeko aurrekontua: 644.843,65 € (BEZa kanpo)

Onartutako proiektuan zehaztuta daude Iruñeko Trinitarios parkeko D aldea garatzeko aurreikusitako urbanizazio-obrak (Trinitarios Parkearen Urbanizazio Proiektua, GZA-3, GZA-2, GSA-1, GS-1 sistema orokorrekin eta Iruñeko Udal Planaren VII. unitate Integratuko SGA-3ko TL2 lurzatiak osatua, A1 eremuaren esparrua ere hartzeaz gain).

Proiektuak aurreikusten du Trinitarios parkearen hegoaldeko muturrean dagoen hegala handitzea eta, hartan, oinezkoendako ibilbide guztiak modu harmonikoan integratzea.

Proiektua hiru fasetan banatuta dago (1A, 1B eta 2 faseak), eta guztira 20.210 m²-ko eragin-azalera du. Obrak bi fasetan egingen dira: lehen jarduketan 1 A fasea dago sartua, eta bigarreanean, 1 B eta 2 faseak. Ondoren, eremu bakoitza zehaztuko da:

- 1A fasea: nahitaezko jarduera-eremua da igogailu berria jartzeko; oinezkoendako ibilbide irisgarri batetik iristen da bertara. Fase honetan, bi jarduketa-mailen arteko oztopo arkitektonikoak kentzeko behar diren obrak daude sartuak: igogailua eta pasabidea jartzea, eta Biurdana kaleko biribilgunearen eta ibilbidea Plazaolako bidean bukatzen den plazaren arteko oinezkoen beheko ibilbidea.
- 1B fasea: behin-behineko aparkalekuari dagokion eremua da, berdegune bihurtuko dena parke-tratamendu baten bidez, Udal Planaren aurreikuspenekin bat. Fase honetako obrek aparkalekua kentzea eta huraxe parke bihurtzea ekarriko dute.
- 2. fasea: jarduketa-azalera eremuaren goialdean: 5.811 m². Horren barnean Donibaneko hiri-inguruneke jarduketa dago sartua: Lopez Sanz doktorearen kalea, Larraina multzoko etxebizitzaren eta Erreginaren aldapa kalearen artean, eta oinezkoendako azken tarteak Taconera parkean.



Barne daude eremuaren goialdea berriz urbanizatzeko obrak. Erreginaren aldapa kalearen sekzioa aldatuko da, igogailuan sartzeko ibilbide nagusia izanen baita oinezkoendako eta bizikletendako, bai eta igarobide berrietara hobeki egokitzen diren oinezkoendako bidegurutzeak ere.

2022an, D 1A faseari dagokionez, obrek aurrera egiten segitu dute, eta D 1B eta D 2 faseko obrak, berriz, Excavaciones Fermín Osés enpresari esleitu zaizkio azaroaren 2an, eta kontratua abenduan sinatu zen, obrak 2023ko hasieran hasteko.

2502 LURZATI ZAHARREAN DAUDEN ERAIKINAK ERAISTEA, IRUÑEKO UDAL PLANEKO ARS-4 MILAGROSA U.I.XIX UNITATEKO S-2 URBANIZATZEKO

Lizitazio-aurrekontua: 142.441,99 €

Milagrosako ARS-4 banaketa-eremuari eragiten dion Udal Planaren Aldaketa garatze aldera, eremu bereko Plan Partziala formulatzen da, 2022ko martxoan behin betiko onetsitakoa, eta Birpartzelazio Proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betiko onetsitakoa.

Eremua urbanizatzeko lehen fasea 2015etik 2017ra egin zen, eta urbanizazioaren bigarren fasea zegoen garatzeko. Eremu horretako urbanizazioa garatzen jarraitzeko, 2014an idatzitako urbanizazio-proiektua eguneratzeko enkargua egin zen.

Eremuaren urbanizazioa amaitu aurreko lan bat egin behar da. Izan ere, Iruñeko Udal Planeko ARS-4 U.I.XIX-Milagrosako S-2 Urbanizazio Proiektuan jasotako 2502. lurzati zaharrean dauden eraikinak eraisteko obrak egin behar dira, hots, gaur egun abeltzaintza-ustategi gisa erabiltzen ari dena, bai eta inguruko itxiturak eraitsi ere, azalera horizontala eta inolako hondarrik gabe utzita.

Irailaren 21ean, eraispena CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES ERRI BERRI, S.L. enpresari esleitu zitzaion, eta eraikinak urteko azken hilabeteetan eraitsi ziren.

IRUÑEKO UDAL PLANEKO UI-XIX EREMUKO ARS-4 BANAKETA-EREMUA URBANIZATZEKO 2. FASEKO OBRA

Lizitazio-aurrekontua: 1.114.166,32 € (BEZa kanpo)

Milagrosako ARS-4 banaketa-eremuari eragiten dion Udal Planaren Aldaketa garatze aldera, eremu bereko Plan Partziala formulatzen da, 2022ko martxoan behin betiko onetsitakoa, eta Birpartzelazio Proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betiko onetsitakoa.

Eremua urbanizatzeko lehen fasea 2015etik 2017ra egin zen, eta urbanizazioaren bigarren fasea zegoen garatzeko. Eremu horretako urbanizazioa garatzen jarraitzeko, 2014an idatzitako urbanizazio-proiektua eguneratzeko enkargua egin zen.

Bigarren urbanizazio-faseari ekin aurretik, 2502. lurzati zaharrean zeuden eraikinak eraitsi ziren (abeltzaintza-ustategia).

Behin eraispen-lanak eginik, garatzeko zegoen urbanizazioa osatu behar da, eremuaren antolamendu berrira egokituta. Bigarren fase honetako obrak honako jarduketa hauetan bana daitezke:



- Amaitu gabe zeuden ARS-4 banaketa-eremuko S2 sektoreko bideak urbanizatzea (funtsean, 1. eta 5. ardatzak).
- S2 sektoreari (ARS4 banaketa-eremua) zerbitzuak emateko falta ziren azpiegitura guztiak egitea, antolamendu berria garatzeko beharrezkoak direnak barne.
- Eremuaren eta Zaragozako etorbidearen arteko muga urbanizatzea, egungo biribilgunetik eremua amaitzen den eremuraino dagoen espaloari jarraipena emanez.

2022ko abenduaren 22an, U.I. XIX.ko ARS-4ko 2. urbanizazio-faseko obrak lizitatu ziren.

DONEJAKUE BIDEA PARKEAREN BIGARREN FASEKO OBRAK (IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I.V-ko ARS-1eko ETA ARS-3ko GSA-2 SISTEMA OROKOR ATXIKIA)

Obrak lizitatzeko aurrekontua: 2.331.309,30 € (BEZa kanpo)

Proiektuak U.I V-Txantreako GSA-2 sistema orokor atxikiaren urbanizazioa garatzen du, ARS-1 eta ARS-3 banaketa-eremuetan kokatua: *Donejakue Bidea parkea*.

Arga ibaiaren, Done Jakue bidearen, Burlatako mugaren eta Txantrea hegoaldeko ertzaren artean dago, eta 101.628 metro karratuko azalera du. Proiektuak proposatzen du ertzetan dauden paisaien arteko trantsizioak parke berriaren bidez moldatzea, lotzea eta egituratzea.

Obraren lehen fasea amaitutakoan, hau da, **Txantrea auzoa Magdalenako zubiarekin eta Arga ibaiarekin lotzeko jarduketak** batez ere, eta era berean, Irubide parke zaharra Josefinen baratze zaharrerantz zabaltzeko lanak, parkearen garapenarekin jarraitzea proposatu da, bigarren fasearen bidez; hau da, iparraldeko pasealekua osorik gauzatzea aurreikusten da nagusiki (V/S-1 sektorearen urbanizazioaren ondoko aldea), bai eta aldameneko aisia- eta jolas-eremuak ere, parkour eta skate-parkerako izanen diren guneak izan ezik. Fase honetan sartua dago, halaber, behar diren loturak egitea urbanizazioaren eta parkearen artean dagoen ertzeko pasealekutik Burlatako bidera bitarte, bai eta dagoeneko gauzatua dagoen lehen faseko gune batzuk hobetzeko eta egokitzeko jarduketa zehatzak egitea ere.

2022ko abenduaren 14an, Donejakue Bidea Parkearen bigarren faseko obrak lizitatu ziren, eta 2023ko lehen sei hilekorako esleitzea dago aurreikusia.

PROIEKTUAK IDAZTEA

2021eko ABENDUAREN 10eko UHOLDEETAKO UR XAFLAREN KALKULUA

Lanen kostua: 13.500 € (BEZa kanpo)

Enkargatutako lanaren bidez ur xafla zehaztu nahi da, 2021eko abenduaren 10ean izandako uholdeen irismena ezagutzea ahalbidetzeko.

Ur-xafla zehazteari esker, uholdeen irismena ezagutu ahal izanen da eta, ibilguan eta ibaiertzetan gaur egun dagoen egoera ere aztertzea lagungarria izanen da arazoa ebaluatzeko eta uhaldiei aurre egiteko behar diren neurriak proposatzeko.

Azterlana baliagarria izanen da konponbideak garatzeko lan teknikoak egiteko, uholdeek Iruñeko udal-mugaratean sortzen dituen kalteak ahalik eta gehien gutxitzeko, eta aukera izanen dugu jakiteko zein den egiazko uholde-kuota uholdeen eraginpeko eremu bakoitzean.



Garatu beharreko lanean etapa hauek daude:

- Landa-lana: egiazko informazioa biltzea uholdeak udal-mugartean duen altuera zehazteko, bazterrak begiz ikusiz, jabeekin hitz eginez...; eta han bertan uholde-koten altxaera topografikoa eginez, GPSren eta estazio guztien bidez.
- Bulego-lana: txosten oso bat egitea, lortzen diren datuetan oinarrituta, eta eredu hidrologikoen bidez, uholde-xafla kalkulatzeko; altxatutako puntuen kokapen-plano kartografikoak egitea barne, eta egiten diren lanen argazki-erreportaje bat egitea, planoetan erreferentzia eginez.

2022ko apirilean, azterlan hori aurkeztu zen.

PROIEKTUA IDAZTEA, ARROTXAPEKO UHOLDEAK HODI BILTZAILEEN BIDEZ ZUZENTZEKO ETA, HALA BADAGOKIO, OBRAK ZUZENTZEKO

Proiektuaren idazketa: 19.250 € (BEZa kanpo).

Obren zuzendaritza teknikoa, esleitzen badira: 9.000 € (BEZa kanpo).

Proiektuaren xedea da egin beharreko obrak zehaztea, Arga ibaiaren uhaldi handiak direnean uraren sarrera kontrolatzeko Arrotxapea eta Sanduzelai auzoetako hodi biltzaile, soto eta kaleetan. Horretarako, azken deskarga atxikitze balbulak jarriko dira halakorik ez duten hodi biltzaileetan, bai Arrotxapea auzoaren ekialdeko eta hegoaldeko aldeetan, bai Sanduzelai auzoaren hego-mendebaldean; halaber, Arrotxapeko faroaren eremuan, erregistro- eta gainezka bide-putzu handi bat kokatu eta berreraikiko da, beste hodi-tarte berri bat jarriko da ibaira beste gainezka bide bat ateratzeko, eta erregistro-putzu berriak Arrotxapean eta erregistro-estalki berriak auzo berean.

Horretarako, talde teknikoak honako jarduketa hauek proposatu ditu, eta Iruñerriko Mankomunitatearen oniritzia jaso dute:

- Ezkutuko putzua erregistratzea eta handitzea. Obrak egungo urbanizazioa kentzea dakar; izan ere, putzua estalita dago eta hiru metro inguruko sakoneran. Beraz, putzua birjarriko da, putzuaren erregistro-tapa erantsita.
- Erregistratuko den putzuaren gainezka bidearen lotura, Iruñerriko Mankomunitateak emandako datuen arabera, bere datu-basean jasota baitago gainezka bide hori ez dagoela konektatua.
- 500 mm-ko diametroa duen hodi biltzaileko euri-uren irteeraren zuzenketa. Hodia dago erregistratu den putzuaren iparraldean. Gaur egungo gainezka bidea Arga ibaiaren korrontearen kontra dago kokatua, eta horrek erraztu egiten du ura ibaitik hodiara sartzea. Taldeak gainezka bide hori aldatzea proposatu du, ibaiaren korrontearen aldeko kokaleku berri batean kokatzeko. Duela gutxi, Herritarren Segurtasunerako alorrak itzuleraren kontrako balbula bat jarri du gainezka bide horretan, baina balbula desmuntatu beharko da eta berriro jarri putzuaren parean, hura mantendu ahal izateko.
- Itzuleraren aurkako balbulak jartzea proiektuan hasieran aurreikusitako hodietan, eta Sanduzelaikoak gehitzea.

Proiektu horri zegozkion jarduketa batzuk Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 4an onetsitako Ibai Plangintzaren Ereduan jaso ziren, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aldeko txostena eman zuen.

2022ko azaroaren 16an, proiektuaren idazketa CIMA Ingenieros SLUK eta Aitor Silgado Goicoecheak osatutako taldeari esleitu zitzaion.



IRUÑEKO UDAL-PLANEKO ARS-4 BANAKETA-EREMUKO U.I. XIXko SEKTOREA BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUA IDAZTEA

Birpartzelazio proiektuaren idazketa: 14.900 € (BEZa kanpo)

Milagrosako ARS-4 banaketa-eremuari eragiten dion Udal Planaren Aldaketa garatze aldera, eremu bereko Plan Partziala formulatzen da, 2022ko martxoan behin betiko onetsitakoa, eta Birpartzelazio Proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betiko onetsitakoa.

ARS-4 birpartzelazio proiektuak barne hartzen ditu unitatearen proiektua idazteko lanak, aurretiazko nahitaezko txostena eskatzea lurralde-aberastasuneko erregistroan, bai eta dokumentuaren alegazioei erantzuteko txostena idaztea ere. Barne hartzen ditu beharrezkoa den laguntza teknikoa eta proiektuaren planimetria-lanak. Dokumentuak honako hauek jasotzen ditu: memoria, birpartzelaziora ekarritako finken deskribapena, eskubide errealeen, ondasunen eta eskubide indemnizagarrien jabeen eta titularren zerrenda, hirigintza-aprobetxamendurako eskubideen deskribapena, ondoriozko lurzatiaren deskribapena eta esleipena, behin-behineko likidazio-kontuaren definizioa urbanizazio-gastuen xehetasunekin batera, saldoa behin-behineko likidazioaren arabera, informazio-planoak, domeinuen eta kargen ziurtagiria, eraginpeko ondasun eta eskubideen balorazioa, eta homogeneousatze koefizienteen zehaztapena.

2022ko otsailaren 2an hasierako onespina eman zitzaion Aragón Terroba I, Lamana Pastor L eta Ramírez Sánchez JMK idatzitako dokumentuari, eta maiatzean, jasotako alegazioen ondorioz dokumentua aldatu ondoren, aipatu taldeak dokumentua aurkeztu zuen behin betiko onespina emateko; eta maiatzaren 11n ordaindu zen.

IRUÑEKO UDAL PLANEKO ARS-4 URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN EGUNERATZEA IDAZTEA

Zerbitzuen kontratuaren kostua: 14.500 € (BEZa kanpo)

Milagrosako ARS-4 banaketa-eremuari eragiten dion Udal Planaren Aldaketa garatze aldera, eremu bereko Plan Partziala formulatzen da, 2022ko martxoan behin betiko onetsitakoa, eta Birpartzelazio Proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betiko onetsitakoa.

Eremua urbanizatzeko lehen fasea 2015etik 2017ra egin zen, eta urbanizazioaren bigarren fasea zegoen garatzeko. Eremu horretako urbanizazioa garatzen jarraitzeko, 2014an idatzitako urbanizazio-proiektua eguneratzeko enkargua egin zen. Proiektu hau eguneratzeko, honako jarduketak hauek daude barne, bigarren urbanizazio-fasea garatzeko:

- 2502 lurzati zaharrean dauden eraikinak eraistea (abeltzaintza-ustiategia).
- Amaitu gabe zeuden ARS-4 banaketa-eremuko S2 sektoreko bideak urbanizatzea (funtsean, 1. eta 5. ardatzak).
- S2 sektoreari (ARS4 banaketa-eremua) zerbitzuak emateko falta ziren azpiegitura guztiak egitea, antolamendu berria garatzeko beharrezkoak direnak barne.
- Eremuaren eta Zaragozako etorbidearen arteko muga urbanizatzea, egungo biribilgunetik eremua amaitzen den eremuraino dagoen espaloia jarraipena emanez.

SERTECNAk urte hasieran aurkeztutako eskaintza onetsirik, abenduaren 23an ordainketa onetsi zen, dokumentua aurkeztu eta gero.



OBRAREN ZUZENDARITZA

IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I.XIX.ko ARS-4 BANAKETA EREMUA URBANIZATZEKO 2. FASEAREN OBRA-ZUZENDARITZA

Obren zuzendaritza: 29.850,00 € (BEZa kanpo)

Milagrosako ARS-4 banaketa-eremuari eragiten dion Udal Planaren Aldaketa garatze aldera, eremu bereko Plan Partziala formulatzen da, 2022ko martxoan behin betiko onetsitakoa, eta Birpartzelazio Proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betiko onetsitakoa.

Eremua urbanizatzeko lehen fasea 2015etik 2017ra egin zen, eta urbanizazioaren bigarren fasea zegoen garatzeko. Eremu horretako urbanizazioa garatzen jarraitzeko, 2014an idatzitako urbanizazio-proiektua eguneratzeko enkargua egin zen.

Bigarren urbanizazio-faseari ekin aurretik, 2502. lurzati zaharrean zeuden eraikinak eraitsi ziren (abeltzaintza-ustategia).

Behin eraispén-lanak eginik, garatzeko zegoen urbanizazioa osatu behar da, eremuaren antolamendu berrira egokituta. Obren bigarren fase honetako zuzendaritza kontratatatu da. Kontratuan sarturik daude obra-zuzendaritzari berez dagozkion lan guztiak: obraren gauzapena kontrolatzea, segurtasuna eta osasuna koordinatzea, aurrekontuaren kontrol ekonomikoa eta neurketak...

2022ko abenduaren 23an, U.I. XIX.ko ARS-4 banaketa-eremua urbanizatzeko 2. Fasearen obra-zuzendaritzako lanak esleitzeko deialdia onetsi da.

PLANEAMENDUA **EKIMEN PUBLIKOA**

IRUÑEKO UDAL PLANAREN ETA DONAPEA PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA EGITURATZAILEAREN IDAZKETA

Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen Cordovillako (Galar) eta Iruñeko dermioetan etxebizitza babestuen bizitegi-eremua garatzeko udalaz gaindiko plan sektoriala, *Cordovillako jabeen elkarteak* sustatua (2013ko urriaren 18ko eta 2015eko maiatzaren 15eko epaiak, hurrenez hurren), eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, berriz, ondoren berrasitako UGPS (2018ko otsailaren 6ko epaia). Bada, horren ondorioz, eremuari antolamendu- eta kudeaketa-tresna berriak emateko prozesuari ekin zitzaion.

Horrela, 2022ko ekainaren 15ean, Iruñeko eta Galar Zendeako udalek administrazio arteko lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten, Donapea eta Gariton eremuetan beren udalerrietako dermioak aldatzeko. Hitzarmenarekin bat, Estatuko Toki Erakundearen Erregistroan inskribatuko dira entzunaldiaren eta jendaurrean jarri ondoren zehaztuko diren jurisdikzio-lerro berriak.

Udal dermioak aldatu ondoren, ukitutako udalek beren plangintza orokorra aldatu beharko dute, txertatzen diren lurzoru berrietan beharrezkoak diren hirigintza-zehaztapenak ezartzeko.



Testuinguru horretan, eta bere eskumenak baliatuz, Iruñeko Udalak interes orokorreko zat jotzen du hura kontratazio aurreratuko espediente baten bidez sustatzea Iruñeko Udal Planaren egitura-aldaketa, Iruñeari eratziki zaion Donapea eremu berrian bizitegi-erabilera orokor kolektiboa garatzeko.

Horrela, prozesua 2022ko azaroan hasi zen, prozedura irekirako deialdia eginez, Iruñeko Udal Planaren Aldaketa Egituratzaila idazteko eta Ul. XXI.ko Donapea eremuko Plan Partziala idazteko zerbitzu-kontratua esleitze aldera, ingurumen-azterketa estrategikoa eta herritarren partaidetza-prozesua barne.

Z-1 UDAL PLANAREN ALDAKETA PUNTUALA. OSASUN-ESKOLA EZARTZEA (SAN JOSE ZENTRO ZAHARRA).

Udal Planaren Aldaketa Xehatu bat aurkeztu da, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak sustatua Etxabakoizko San Jose Zentro zaharraren etxadian, Iruñeko Udal Planeko hiri-lurzor finkatuaren XX. Unitate Integratuko Z-1 eremuari dagokiona. Udal Planaren aldaketaren helburua da eraikuntza-baldintza berriak ezartzea San Jose zentroak okupatutako lurzatiarako, bertan Osasun arloko Lanbide Heziketarako ikastetxe berri bat eraiki ahal izateko. Dokumentua 2022ko irailean aurkeztu zen, eta huraxe izapidetzen segitu da, hasiera bateko onespena emateko.

XIII/Z-2 HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA (ESPETXE ZAHARRAREN LURZATIA)

Espedientea 2021ean hasi bazen ere, aurrera doa espetxe zaharraren lurzattia antolatze lanak, Justizia Jauregiaren eta beste udal zuzkidura baten zabalpen berria zehazteko.

AHTren UGPS ALDATZEA.

AHTren UGPS aldatzeko elkarlanak eta iradokizunak egin dira, huraxe bideragarri egiteko, 2021eko irailaren 15ean hasitako parte-hartze prozesuaren baitan.

Lehendik dagoen hiri berritzeko plangintza-lan gisa, 2022an, Hiri Jarduketako Plan Bereziak (HJPB) egiteko lanak ere egin ziren, aukera egokia baitira hiriguneetan esku hartzeko legerian aurreikusita dauden tresna berriak txertatzeko.

- **Lehen Zabalgune**ko HJPB. **Hasierako onespena 2022/03/03an.** Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek, 2022ko otsailaren 14an, Lehen Zabalgune Hiri Jarduketako eta Babeseko Plan Berezia hasiera batez onestea erabaki zuen, bai eta jendaurrean jartzea ere, NAO n argitaratu eta hilabeteko epean. Huraxe izapidetzen jarraitu da behin betiko onespena eman arte, aurkeztutako alegazioak aztertuz eta jasotako txosten sektorialak baloratuz.
- **Bigarren Zabalgune**ko HJPB. **JOBek** 2022ko uztailaren 4an hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi eta 2022ko uztailaren 21eko 145. zenbakiko NAO n argitaratu zen, eta jendaurrean jarri 45 egunez (2022ko irailaren 30era arte). Ondoren, beste 2 hilabetez luzatu zen, 2022ko azaroaren 30era arte (2022ko urriaren 13ko 203. zenbakiko NAO). Halaber, izapidetzen jarraitu zen, behin betiko onespena eman arte.
- **Arrotxapeko Plan Partziala aldatzea, Z0-1 (San Pedro multzoa, 11 eta 12).** Hasiera batez onetsirik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko urriaren 24an halaxe erabakita. Erabaki horren helburua da lehendik dauden eraikinak birgaitu eta handitzea ahalbidetzea, irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak hobetuz, apartamentu babestu gisa egokitzeko.
- **Udal Planaren Katalogoaren Aldaketa Xehatua.** 2021ean hasitako hirigintza-tresna prestatzen jarraitu da, hau da, Arga ibaian dauden 4 presa katalogatzea.



EKIMEN PRIBATUA

2022an bururaino izapidetutako espedienteen zerrenda:

- XIX/S-2 Sektoreko Plan Partziala. ARS-4 banaketa-eremua (merkataritza-gunea).
- Xehetasun-azterlana ARS-3 banaketa-eremuko Plan Partzialeko L-10 oinarritzko unitaterako (Arrosadia-Lezkairu)
- Katastroko 2. poligonoko 551. eta 541. lurzatien xehetasun-azterlana (Z-7 U.I. XV).
- U.I.IX.ko ZNO-1 jarduketa-unitatean rokodromoa egiteko eraikin bat eraikitze xehetasun-azterlana. Amaya Kirol Hiria.
- Hiri Jarduketako Plan Berezia, Iruñeko I eta II. Zabalguneko PERI planaren 528. oinarritzko unitatean (Misiolariak)
- Hiri Jarduketako Plan Berezia, Iruñeko Udal Planeko Landaben U.I. Xko GZ-2 eremuaren zati baterako. 7. poligonoko 1353. lurzatia, X/ZN-1 berria, BAPISA SLU.
- Santiago Kooperatiban irisgarritasuna hobetzeko Plan Berezia.
- Z.5 unitateko Hiri Jarduketako Plan Berezia eta U.I. – IX unitateko GZ-1 unitatearen zati bat. (Beloso)
- UI-IV/Z-1 Udal Planaren 6/1045 lurzatia aldatzea (Argaiz Fundazioa).

2022an izapidetze-fasean dauden espedienteen zerrenda:

- Udal Planaren aldaketa egituratzailea Iruñeko A-1, A-2, A-4 eta ZNO-1 eremuetan. Amaya KH
- Udal Planaren aldaketa xehatua Serafin Argaiz Santelices Fundazioaren egoitzako 1045/6 lurzatian, erabilera xehekatuko zuzkidura-lurzati pribatuko erabilerak zabaltze aldera.
- Hiri Jarduketako Plan Berezia, Agur Maria zeharkaleko 2. eta 4. zenbakietan dauden eraikinetan oztopo arkitektonikoak kentzeko.
- Zangoza kaleko 47ko eraikinaren xehetasun-azterlana.

BESTE ESPEDIENTE BATZUK

IRUÑEKO HIRIGINTZA GERENTZIARI ZERBITZU INFORMATIKOAK EMATEKO ENKARGUA

Kontratuaren aurrekontu zenbatetsia 14.000 euro. 3.500 euro urteko, hiru aldiz luzagarria.

Iruñeko Udalak ANIMSARI urtero egiten zion enkarguaren barnean sartzen zen zerbitzu horiek erakunde autonomoi ere ematea. Hala ere, 2021etik aurrera, Iruñeko Udalak erabaki zuen erakunde autonomoek zuzenean ANIMSARI egitea zerbitzu informatikoen enkarguak, Udalak oro har kontratatzen zituen zerbitzuen parte izateari utzita.

ANIMSARI zerbitzu informatikoak enkargatzea justifikatua dago, Hirigintzako Gerentzia Udalaren aplikazio orokorretan sartua dagoelako, espedienteak, erregistroa, kontabilitatea eta gainerako udal-tresna informatikoak kudeatzeko, izapidetzen dituen espediente asko udal-organoen akordioekin amaitzen baitira. Horregatik, Iruñeko Udalak erabiltzen dituen eta ANIMSAK kudeatzen dituen tresna informatiko berberak erabili behar ditu. Bestalde, Hirigintzako Gerentziak ez du baliabide teknikorik eta giza baliabiderik horrelako lan informatikoak egiteko.



HITZARMENA, ARANZADIKO 1554 LURZATIKO FINKA ETA ETXEBIZITZA LEKUALDATZEKO ETA HAIEN OKUPATZAILEA BERTATIK ATERARAZTEKO, ETA, ONDOREN, HITZARMENAK AMAITZEKO, IRUÑEKO UDAL PLAN OROKORREKO ARROSADIA-LEZKAIRU ARS-3 BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUAREN BAITAN, IRUÑEKO UDALAK ETA M^a DEL CARMEN ARRAIZA RODRÍGUEZ-MONTE ANDREAK SINATUA

2012. urtean, Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentziak eta M^a del Carmen Arraiza Rodríguez-Monte andreak hitzarmen hau sinatu zuten: Aranzadiko dermioan 1554. lurzatioko etxebizitza erabiltzeko eta lurzatiaren zati bat emateko hitzarmena, I/SI, IV/SI, XVI/SI, XIX/SI sektorea birpartzelatzeko proiektuaren gauzapean ukitua, Iruñeko Udal Planaren *Arrosadia-Lezkairu ARS-3* Banaketa Eremuko Sistema Orokor Atxikien baitan. Ondorioz, Arraiza andreak okupatzen zuen espazioa Iruñeko Udalaren alde partzialki liberatzeari ekin zitzaion. Eta liberatzeko dago une honetan hark okupatuta daukana, harik eta Aranzadi parkea urbanizatzeko obren bigarren fasea gauzatzen den arte.

2022ko apirilean, jarduketaren eraginpeko finka osoa emateko hitzarmena sinatu zen, eta eman gabe zegoen 114.749,75 euroko kalte-ordaina ordaindu zen.

AMAYA KIROL HIRIAREN HIRIGINTZA-HITZARMENA ALDATZEA

Iruñeko Udalak eta AMAYA KHk hirigintza-hitzarmen bat sinatu zuten 2001eko abenduaren 17an, hiru xederako. Alde batetik, adiskidetasunez konpondu nahi izan zen Argaren Plan Integralaren proiektuak AMAYA KHn ukitutako lurren desjabetzea. Bestalde, kirol-instalazioetan zeuden egoera anomalo batzuk erregularizatu nahi ziren, eta programazio bat ezarri zen horiek guztiak normalizatzeko eta, kasua bada, legeztatze beharrezkoak diren jarduerak egiteko. Horren guztiaren baitan, eremu horretako plangintza aldatzea aurreikusten zen, bai eta aipatutako erregularizazioa egiteko beharrezkoak diren jabetzak eskualdatzeari buruzko konpromisoak ere.

Aurreikusitako jarduketetako batzuk oraindik egiteko zeudenez, 2001ean sinatutako hitzarmena aldatu da, betetzeko dauden konpromisoak gauzatzeko modua eta epeak zehazte aldera. Gainera, kirol-instalazioen inguruko esparru publikoaren baldintzak hobetzeko aprobetxatu da, bai Belosoko Erripa inguruan, bai Arga ibaiaren pasealekuan.

IRUÑEKO UDALAREN ETA I-DE REDES ELÉCTRICAS INTELIGENTES, S.A.U.ren ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BOST ERALDAKUNTZA-GUNE ALDATZEKO ETA ARROTXAPEAN BIRKOKATZEKO.

2022/11/25ean, JOBek Iruñeko Udalaren eta *I-de Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.*ren arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zuen bost eraldakuntza-gune aldatzeko eta Arrotxapean birkokatze, egun lurpean baitaude, eta azal gaineko kokaleku berri batera igaroko dira. Ondorioz, horniduraren kalitatea eta banaketa-sarearen erresilientzia hobetuko dira, muturreko uholdeen aurrean.

IRUÑEAREN ETA GALAR ZENDEAREN ARTEKO UDAL-MUGAPEAK ALDATZEKO HITZARMENA

Hitzarmena Iruñeko Udalek eta Galar Zendeak beren udal-mugapearen aldaketa sustatzeko duten interesaren baitan sinatu zen, lurraldearen eta paisaiaren antolamendua eta babesa errazteko, haren balioak zaintze aldera, bi udal-mugapeen eremu mugakidean, betiere lurraldearen tratamenduan beharrezkoa den koherentzia mantenduz haren jarraitutasunari dagokionez. Gainera, udalerri bakoitza administratiboki mugatzea zen xedea, ukitutako lurzoruen erabilera posiblearen arabera, eta, horrela, erraztu nahi zen, hasieratik, udalerri bakoitzak bere eskumenak egikaritzea bere berezko eragin-eremuan, prozesu independenteak egitea ahalbidetuz, udal bakoitzaren gizarte-testuingurura eta garapen-erritmoetara egokituta.

Udalerri batetik bestera igaro diren azalerak ia baliokideak dira, luze-zabaleran berdinduta gelditu baitira eta muga-lerro berrietan oreka mantenduta.



KATASTROKO 187. ETA 2094. LURZATIAK FINKEN NORMALIZAZIOA

Finkak normalizatzeko proiektuak katastroko 5/187 eta 5/2094 lurzatiei eragiten die, jabari publikorako 18,20 m²-ko azalera triangeluarra lortzeko, 187. lurzatiaren (RTVE) hego-mendebaldeko izkinan. Azalera hori Amaya kalearen etorkizuneko luzapenari erantsiko zaio, zeina Misiolariak HJPBko UM-1 unitateko UE-1 egikaritzuz lortuko baita. Halaber, RTVEren barrutiaren barnean fisikoki dagoen eta Agoitz kalearen aurrealdean lurzoru libre pribatu gisa erabiltzen zen 5/2094 lurzatiaren azalera bereko lur-zerrenda batekin trukatzeko da. Horrela, 5/187 lurzatiaren kontura jabari publikoarentzat irabazitako espazioa lurzati horrek berak berreskuratuko du, dagoeneko jabari publikorako erabiltzen ari zen beste udal-lurzati baten kontura.

ARROTXAPEKO UI IIIKO A-5 UNITATEAN, KONPENTSAZIO-SISTEMA BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIOAREKIN ORDEZTEA (JABE BAKARRA)

Tokiko Gobernu Batzarrek 2007ko urriaren 16an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onetsi ziren Arrotxapeko III. IUko A-5 Egikaritze Unitateko Konpentsazio Batzordearen estatutuak, baina, ondoren, JUSLABERRI SL bihurtu zen unitatearen jabe bakar, eta Konpentsazio Batzordea desagiteko eta jarduketa-sistema borondatezko birpartzelazio-sistemeekin ordeztzeko eskatu zuen. Espedienteak sistema-aldaketa hori onetsi zuen.

SALESTARREN PLAN BEREZIKO U1 EREMUAREN KONTSERBAZIO BATZORDEAREN ESTATUTUAK, ETA UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA HAREN ERAKETA EKITALDIRAKO

2022/12/27an, JOBek Salestarren eremuko Kontserbazio Batzordearen Estatutuak onetsi zituen, Partzelazio Proiektuak beharturik, azal gaineko erabilera publikoko zortasunarekin kargatutako lurzatiaren azalera pribatua kontserbatzeko eta mantentzeko betebeharrak betetze aldera. U1 eremuari dagokionaren eraketan esku hartu da. Eremu hori partzelazio-proiektuaren ondoriozko 1-6 lurzatiek osatzen dute, Iruñeko Udala 4. lurzatiaren jabekidea baita.

IRUÑEKO UDAL PLANEN ARZ-3KO XVI/ZN1 ETA XIX/ZN6 EREMUEN BIRPARTZELAZIOAREN BEHIN BETIKO LIKIDAZIO-KONTUA ONESTEA

Eremua urbanizatzeko obrak amaitu ondoren, birpartzelazioaren behin betiko likidazio-kontua onetsi zen, Iruñeko Udal Planaren ARZ-3 Banaketa Eremuaren garapenari egotz dakizkiokeen urbanizazio-kostuak zehaztuz (U.I.XVIko ZN1 eta U.I.XIXko ZN6 eremuak), eta lurzati bakoitzeko banaka zehaztuz urbanizazioan eskubideak dituzten pertsonen aldeko edo kontrako saldoak, ordainketa edo kobrantza agintze aldera, dagokionaren arabera. Behin betiko likidazio-kontua, ARZ-3 banaketa-eremuari egotzi beharreko karga guztiak jasotzen dituen, 315.353,51 €-koa izan zen, hau da, 172,234,9115 € aprobeitxamendu-unitate bakoitzeko.

PROZEDURA JUDIZIALAK

2022an zehar, Hirigintza Gerentziak prozedura judizial batzuk izan ditu. Honako taula honetan daude zehaztuak:

Auzi zk.	Organo judiziala	Gaia	Aurkaria	Zenbatekoa
228/2022	JDO C-A N° 3	Birpartzelazio errekurtsua S-2 ARS-4	TELCO	Zehaztugabea
109/2022	SALA C-AD TSJN	Errekurtsua ARS-4 Udala Planaren aldaketa	TELCO	Zehaztugabea
154/2022	SALA C-AD TSJN	Errekurtsua ARS-4 Plan Partziala	TELCO	Zehaztugabea
PO 137/2022		Egikaritze subsidiarioko tasen likidazioa (JOB 22/3/14)	DONIBANE KIROL ELKARTEA	
PO 267/2022	JDO C-A N° 3	Egikaritze subsidiarioko tasen likidazioa (JOB 22/5/30)	DONIBANE KIROL ELKARTEA	
PO 329/2022	SALA C-AD TSJN	Balio justua, P-11 desjabetzea Arrotxapea (akordioa expr. 36/2022)	GIL HERMANOS S.L.(dte.)	1.064.561,50 €
PO 322/2022	SALA C-AD TSJN	Balio justua, P-11 desjabetzea Arrotxapea (akordioa expr. 36/2022)	GIL HERMANOS S.L.(ddo.)	478.051,66 €
PO 224/2022	JDO C-A N° 2	Birpartzelazio-proiektua aldatzeko behin betiko onespeneraren aurkako errekurtsua (likidazio-kontua urbanizazio-gastua baino handiagoa)	BUILDINGCENTER	Zehaztugabea
PO 310/2022	SALA TSJ NA	Xehetasun-azterlana zuzentzeko errekerimenduaren aurkako errekurtsua	PROMOCIONES OCEC	Zehaztugabea
PO 353/2022	JDO C-A N°1	TAN ebazpena JOB 24/12/19 akordioaren aurkako errekurtsuaren gainean: 4B eta 11C lurzatien salmentarako baldintzak egokitzeko irizpideak	GRUPO PALO ALTO EMPRESARIAL S.L	

2.8.2. OSASUNA

OSASUNAREN PREBENTZIOA

ELIKAGAI-IKUSKARITZA

2022ko urtarrilaren 1ean, Iruñeko industrien eta establezimenduen erroldaren arabera, honako hauek zeuden: ostalaritzako 1.196 establezimendu, 119 jangela kolektibo, 68 industria/lantegi/biltegizain eta 943 elikagai-establezimendu. Horiei dagokienez, 2.050 ikuskatze egin dira 2019an, sanferminetan egindakoak barne. 2022an, 619 ikuskapen-bisita egin dira kontrol ofizialaren barnean eta, 580, aldizkako kanpainetan.

Mercairuñako handizkako merkatuaren osasun-kontrola egin da, handizkako 6 arrain-establezimendurekin eta 10 fruta- eta barazki-establezimendurekin, bai eta hiriko hornidura-azokakoetan ere; guztira, 89 postu. Landabengo merkatu txikiaren osasun-kontrola ere egin da; gaur egun, 50 elikagai-postu ditu.

2022an, 275 espediente ireki dira ofizioz, elikagaien ikuskaritzari lotuta. Horietako 74tan zehapen-espedientea hastea proposatu da, eta 250 errekerimendu-txosten izapidetu dira gabeziak zuzentzeko.

Errekerimenduetako 136 ostalaritza eta jantoki kolektiboei dagozkie; 197, txikizkako saltokiei; 1, biltegizainei, eta 6, fabrikatzaile eta ontziratzaileei. Zehapenak ostalaritzako 26 establezimenduri ezarri zaizkie; 25 txikizkariri eta 4 lantegi, biltegizain eta jantoki kolektibori.

Errekerimendu- eta zehapen-espedienteak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Errekerimenduak	540	428	486	306	346	306	275
Zehapen-espedienteak	106	113	87	204	96	52	74

Elikagaien Ikuskaritzak elikadurari lotutako 35 salaketa bideratu ditu, partikularrek eta poliziak esku-hartzeetan eginak, edo beste erakunde publiko batzuek abiatutakoak.

Salaketa horietatik, 3 intoxikazio posibleengatik izan ziren; 25, baldintza higieniko-sanitario eskasengatik; 2, intsektuak egoteagatik; 1, ur-mozketengatik; 2, etiketa okerragatik, eta 2, lizentziarik gabeko elikagaiak prestatzeagatik.

2022an, gainera, ostalaritzako eta elikadurako 113 jarduera ez-iraunkor kontrolatu dira. Sanferminetan, ostalaritzako eta elikadurako 106 postu eta instalazio bisitatu ziren, guztiak behin-behinekoak, eta 25 espediente ireki ziren; horietatik 17 zehapen-espedienteak izan ziren, eta 8 errekerimendukoak.

OSASUN-ALERTEN ARRETA

2022an, osasun-alertako 16 egoeratan esku hartu zen, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jakinarazitakoak. Egoera horiek elikagaietan edo farmazietan banatutako elikagaiei eragiten zieten, eta, ondorioz, haiekin lotutako 79 establezimendu ikuskatu ziren.

ESPORTAZIO-ZIURTAGIRIAK

Iruñeko udal-barrutian kokatutako enpresetan prestatutako elikagaien esportazioari buruzko 9 ziurtagiri eman dira.

LAGINAK HARTZEA

Zerbitzuak, 2022an, guztira, 40 elikagai-lagin hartu ditu. Horietako 11 analisi mikrobiologikoak egiteko; 17, kutsagarrietarako; 5, alergenoeetarako; 2 plagizida-lagin; hastamina-lagin 1 eta 4 gehigarri-lagin.

Gainera, konposatu polarren mailen berariazko kanpaina egin zen frijitze-olioetan; zehazki, 919 zehaztapen analitiko egin ziren in situ, ostalaritza-establezimenduetako frijigailuetan, hain zuzen ere.

INSKRIPZIO-KONTROLA OSASUN-ERREGISTROAN

2022an, 170 ikuskapen-bisita egin eta akta jaso da osasun-erregistroa eguneratzeko.

ZOONOSIA

2022an, 254 txakur eta katu sartu dira Animaliak Hartzeko Zentroan, eta horien sarrera- eta jomuga-arrazoiak dagokien taulan daude zehaztuta, bai eta urtean sartu direnen kopuruaren bilakaera ere.

Urtea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zakurrak	201	172	171	190	177	181	135	108	159
Katuak	63	36	35	37	82	62	54	81	95
Biak	264	208	206	227	259	243	189	189	254

AHZn sartutako animaliak, 2022an

	Osasun-behaketa	Bide publikoan bilduak	Jabeek emandakoak	Guztira
Zakurrak	0	142	1	143
Katuak	0	95	0	95
Biak	0	237	1	238

AHZko animalien jomuga 2022an

Helmuga	Jabeari itzuli zaio	Adopzioa	Sakrifizioa eta berezko heriotza	Helmuga guztiak
Zakurrak	101	47	5	153
Katuak	22	62	17	101
Biak	123	109	22	254

AHZn adoptatutako animaliak 2015etik 2022ra

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zakurrak	68	51	64	78	57	62	33	47
Katuak	27	25	24	47	58	51	54	62
Biak	95	76	88	125	115	113	87	109

Animaliek sortutako arazoen eragindako zehapen-espedituentak 2015etik 2022ra

Zehapen-arrazoiak	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zakurrak aske eramateagatik	114	69	128	109	109	120	87	81
Gorotziak ez jasotzeagatik	12	11	21	13	10	8	11	9
Zakurrak egoera egokian ez edukitzeagatik	4*	5	6	3	6	2	2	3
Txertatze eta identifikazioarekin lotutako arau-hausteengatik	5*	3	8	9	8	3	4	11
APP araudia	49*	38*	64	50	47	31	31	14
Zakurrekin lotutako bestelako zehapenak	12*	16*	7	28	19	7	5	9
Zakurra abandonatzeagatik							2	3
Bestelako animaliekin lotutako beste zehapen batzuk	6	4	1	--	--	1	2	6
Zergati guztiak	202	152	235	212	199	172	144	136

Animaliek eragindako hozkada-kasuak 2015etik 2022ra

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zakurrek egindakoak	30	28	39	42	45	37	34	45
Beste animalia batzuek egindakoak	1	--	2	1	--	--		
Guztira	31	28	41	43	45	37	34	45

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA-ESPEDIENTEAK

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia-espedituentak (zakurrak)

	Lizentzia eskatuak	Emandako lizentziak	Berritutako lizentziak	Kopiak	Besterik
Zakurrak	73	59	17	3	0
Bestelako animaliak	--	--	--	--	--
Guztira	73	59	17	3	0

CES/R- PROGRAMA: ESTERILIZATUTAKO, BIZKARROIAK HILDAKO ETA TXERTATUTAKO KATUAK

	Esterilizatzea, txertatzea, bizkarroiak hiltzea	Bestelako albaitaritza-arretak
Emeak	12	38
Arrak	8	21
Guztira	20	59

USO-SALAKETEN ARRETA

Administrazio-espedienteak	010 abisuak	Besterik	Guztira
40	46	6	92

INGURUMEN-OSASUNA

ESKAERAREN ARABERAKO JARDUKETAK

Urtea	Kopurua, guztira	Salaketa kopurua	Eskaera kopurua	Sorrazitako ikuskatze kop.	Sorturiko laginak, kopurua
	68	28	40	46	4
2013	72	47	25	56	5
2014	57	34	22	32	1
2015	50	28	22	26	0
2016	54	36	18	36	2
2017	51	30	21	37	3
2018	36	26	10	57	4
2019	43	32	11	70	0
2020	29	20	9	48	0
2021	36	28	8	26	4
2022	28	24	4	48	2

OFIZIOZKO ZAINZA

Urtea	Ikuskapen kopurua, guztira	Lagin kopurua, guztira
2011	1.985	1.806
2012	1.728	1.850
2013	1.782	1.677
2014	1.772	1.905
2015	1.914	1.790
2016	1.904	1.756
2017	1.759	1.761
2018	1.941	1.695
2019	1.835	1.500
2020	1.555	801
2021	1.384	957
2022	2.634	1.010



Hona hemen programaz programa egindako ikuskapen eta laginen kopurua:

- Ikuskapenak: igerilekuak (309); haurtzaindegiak (51); estetika-lokalak (886); merkataritza-establezimendu berriak (1064); eta 324 kasutan, jarraipena eman zaie espedienteek ikuskapenetan antzemandako gabeziengatik.
- Laginak: giza kontsumorako ura (835); ibaietako ura (10); igerilekuetako ura (165).

FUNTZIONAMENDUAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK DUTEN EDO TITULARRA ALDATU DUTEN MERKATARITZA-LOKALEN IKUSKAPENAK 2022an

Merkataritza-lokal berri guztiak ikuskatzea planifikatu zen, elikadurarekin zerikusirik ez duten jarduera dutenak, 21/12/01etik 22/11/30era bitartean erantzukizunpeko adierazpena erregistratuan edo titulartasun-aldaketa egindakoak (ikuskapenak erantzukizunpeko adierazpena edo titulartasun-aldaketa aurkeztu eta hilabete geroago egiteko planifikatzen dira). Horrelako lokalak 364 izan ziren. 2021ean ezin izan ziren lokalen ehuneko handi bat ikuskatu, 390 guztira; beraz, 2022ko lokalei 2021ean egiteko zeuden 390 lokal haiek gehitu zitzaizkien, hau da, 754 lokal guztira.

Plangintzaren % 87 bete zen, eta horretarako, 1.064 ikuskapen-bisita egin ziren guztira (657 lokal ikuskatu ziren). Ikuskatzeko dauden 97 lokalak 2023ko 1. hiruhilekoko plangintzan sartu dira. Egindako ikuskapenek 127 espediente eragin zituzten, aztertutako lokalen % 19n aurkitutako gabeziak zuzentzeko eskatzeko.

Eragindako espediente guztietatik, 2022an 118 espediente daude amaituta eta artxibatuta.

Beste 9 espedienteen administrazio-tramitazioa aurrera doa 2023an.

Urtea	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Lokal berrikusien kopurua	432	493	501	379	376	311	561	410	249	167	657
Gabeziak dituzten lokalen kopurua	91	70	57	46	52	49	91	65	49	40	127
Ongi ez dauden lokalen % 1. ikuskapen-bisitan	25,8	14,2	11,4	12,1	13,8	15,8	16,2	15,9	19,7	24,0	19,3

INGURUMEN INGENIARITZA

Zerbitzuaren jarduerak, funtsean, honakoak dira: salaketei erantzutea eta eragozpenak sor ditzaketen jarduerak ofizioz ikuskatzea, zaratari eta usainei buruzko ingurumen-legeria betetzen dela egiaztatzeko.

SALAKETAK

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Salaketa kopurua	171	174	199	133	145	106	110	122
Ikuskapen kopurua	191	97	175	100	63	58	62	128

KUTSADURA AKUSTIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Tabernak	48	46	50	29	33	15	21	36
Auzotarrak	56	66	71	59	63	37	56	49
Besterik	44	42	44	30	38	39	19	21
Kutsadura akustikoak eragindako salaketak	148	154	165	118	134	91	96	106

2022an, 33 zehapen jarri dira zarategatik.

KUTSADURA ATMOSFERIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kutsadura atmosferikoak eragindako salaketak (keak eta usainak)	23	20	19	15	11	15	14	16

OFIZIOZKO IKUSKAPENAK

Udal-ekimenez egindako ikuskapenak hartzen ditu barne, jarduera-lizentzian edo indarreko legerian ezarritako baldintzen jarraipena egiteko, betiere zerbitzuaren eskumenekin bat.

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ostalaritza ikuskapenak	1.033	777	833	813	845	585	763	951
Bestelako ikuskapenak (Merkataritza, industrialak)	195	132	150	151	117	71	74	124
Guztira	1.228	909	983	964	962	656	837	1.075

OSTALARITZA LOKALETAN ZARATAK ERAGINDAKO SALAKETEN BILAKAERA OFIZIOZKO IKUSKAPENEN ALDEAN

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ostalaritzako zarategatik ipiniriko salaketen kopurua	48	46	50	29	33	15	21	36
Ofiziozko ikuskapenen kopurua ostalaritzan	1.033	777	833	813	845	585	763	951



UDAL LABORATEGIA

Udal Laborategiko langileek Nafarroako Osasun Publikoaren Laborategietako instalazioetan betetzen dute bere eginkizuna 2019ko uztailaz geroztik; urte horretan Iruñeko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuako Osasun departamentuarekin, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko laborategiko instalazioak aldi baterako erabiltzeko.

ELIKAGAIEN KONTROLA

Elikagai-laginei buruzko entseguak gehienbat Nafarroako Gobernuako langileek egin zituzten.

INGURUMEN-KONTROLA

UREN KONTROLA

Kontrola egiten da, Ingurumen Osasuneko Ikuskaritzarekin hitzartutako laginketa-programarekin bat.

HORNIDURA-URA

Hornidura-uren laginak aztertu ziren, bai lorategi, parke eta ikastetxeetako iturri publikoetakoak, bai ikastetxeetako jostaleku eta jantokiak urez hornitzeko guneetakoak, bai haurtzaindegietakoak, bai udal-eraikinetako lantokietakoak. 828 lagin zeuden programatuta (816, kontsumitzailearen txorrota egunero kontrolatzeko, eta 12, analisi osorako, hau da, barne hartuta metalen, anioien, herbiziden eta trihalometanoen analisiak, bai eta kutsaduraren adierazle osagarrien analisi mikrobiologikoen azterketak ere). 847 ur-lagin aztertu ziren, hau da, kontsumorako uraren lagin programatuen % 100 baino gehiago bete zen.

IGERILEKUETAKO URAK ETA HIDROMASAJE-ONTZIAK

178 lagin aztertu ziren, hau da, urte hasierako programazioan kalkulaturakoen % 84.

IBAIETAKO URA

10 lagin hartzea aurreikusita zegoen Arga, Elortz eta Sadar ibaietako urak kontrolatzeko, eta guztiak egin dira.

	Saiakuntzak Kimikoak/lagina	Saiakuntzak Mikrobiologikoak/lagina	Guztira Saiakuntzak/lagina
Sareko ura, eguneroko kontrola	10	4	14
Sareko ura, analisi osoa	87	5	92
Igerileku eta hidromasajeetako ura	9	2	11
Ibaietako ura	7	3	10
Guztira	113	14	127

EPIDEMIOLOGIA

2022an, tokiko komunitateari zuzendutako osasun-zerbitzuek osasun publikoaren arloan berez dituzten eginkizunak bete ziren. SARS-CoV-19 birusak sortutako epidemiaren segida zela eta, jardueretako batzuk aldatu behar izan ziren, baina Epidemiologia zerbitzuaren helburuei eutsi zitzaizen:

- Iruñeko herritarrengan eragina izan dezaketen gaixotasun kutsakorrek zaintzea.
- Hiriko osasunarekin zerikusia duten gaietan, txostenak egitea eta udal-zerbitzuei aholkularitza teknikoak ematea.
- Osasuna sustatzeko programak planifikatu eta kudeatzea, batez ere aire zabaleko jarduera fisikoa bultzatzera bideratuak.
- Hiriko ingurumen-faktoreen kontrolari buruzko informazioa eta osasun-zabalkundea egitea, airearen kalitateari eta komunitatearen osasunari dagokienez.
- Osasun publikoa eragiten duten baldintzak eta sortzen ari diren arazoak kontrolatu eta ikertzea.
- Lantaldeetan parte hartzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

Martxa nordikoan hasteko saioak

Urtea	Egun kopurua	Noiz egina	Pertsonak saioa	Betetako lekuak
2018	21	Apirila-ekaina	28	577
2018	18	Iraila-azaroa	28	482
2019	38	Martxoa-maiatza	15	562
2019	18	Urria-azaroa	30	482
2020	2	Martxoa	30	60
2020	16	Iraila-azaroa	15- 23	308
2021	18	Ekaina	28	504
2021	8	Iraila-azaroa	28	224
2022	12	Apirila-ekaina	26	312
2022	10	Iraila-azaroa	30	300

POLINIZAZIOAK ERAGINDAKO ALERTA-MAILAREN INFORMAZIOA

2022ko udaberrian, martxotik ekainera bitarteko 15 asteetan, 27.583 SMS mezu eta 3.094 e-mail igorri zitzaizkien 1.726 pertsonari, eta horietatik 52 izen-emate berriak ziren.

Polen-mailari buruzko informazioa jaso duten pertsonen kopurua

Urtea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zenbat lagun izen emanik	330	236	362	530	846	1.035	1.182	1.323	1.404	1.495	1.581	1.674	1.726

HIGIENE- ETA DESINFEKZIO-ZERBITZUA

DESINFEKZIOAK

Urtea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Desinfekzio partikularrak	9	15	18	11	14	9	8	2	4
San Domingoko eta Zabalguneko azoka	52	104	102	104	104	100	102	102	100
Bide publikoa	2.198	2.082	1.949	2.663	2.432	1.991	1.875	2.268	2.110
Hauteslekuak	Bide publikoan bilduriko datuak	69	0	0	0				
Udal-egoitzak	Bide publikoan bilduriko datuak	56	90	53	53				
Zerbitzuak, guztira	2.259	2.201	2.069	2.778	2.550	2.225	2.075	2.425	2.267

INTSEKTUAK HILTZEA

Urtea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Intsektuak hiltzea (partikularrak)	97	129	150	152	192	188	71	130	102
Ikastetxeak eta haur-eskolak	40	35	41	43	40	41	41	35	38
Udal-egoitzak	453	307	270	314	514	93	52	85	64
Udaberriko kanpaina						83	112	117	115
Bide publikoa		Udal-egoitzetan bilduriko datuak				318	389	286	279
Bainu-etxeak eta komun publikoak	166	167	169	55	15	14	36	12	13
Zerbitzuak, guztira	760	641	630	564	761	737	701	665	611

ARRATOIAK HILTZEA

2022an, estolderiako arratoiak kontrolatzeko urteko kanpainak udaberrian egin ziren, otsailaren 3tik maiatzaren 3ra, eta udazkenean, irailaren 21etik 2023ko urtarrilaren 5era.

Urtea	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Estolderia: erregistroak	1.146	1.394	3.008	3.014	3.050	3.078	3.106
Estolderia: ikuskapenak	896	3.942	3.282	3.763	3.865	3.217	3.868
Arratoiak hiltzea bide publiko eta udal-eraikinetan	395	612	543	717	1.027	1.570	1.248
Arratoiak hiltzea (partikularrak)	417	78	74	146	49	97	59
Ikuskapenak (partikularrak)	302	21	0	0	0	0	0
Zerbitzuak, guztira	3.156	6.047	6.907	7.822	8.183	7.994	8.423



LABEZOMORROEN KANPAINA

Urtero, eta udaberrian espeziearen arrautzak eklosionatzearekin batera, Desinfekzio Parkeak ofizioz hiltzen ditu intsektuak; oraingoan, Txantrea auzo osoan egin da, bai eta Bigarren Zabalguneako leku zehatzetan eta hiriko beste auzo batzuetan ere. Labezomorroak kontrolatzea du xede; zehazki, intsektizida botatzen da saneamendu-sisteman eta konpainia elektrikoetako eta argiteriako erregistroetan.

TIGRE ELTXOA

2022an, espezie hori zaintzeko eta kontrolatzeko programari eman zaio segida Iruñean. Zaintza egite aldera, lekuko bana duten hamar arrautza-tranpa jarri dira Iruñeko udal-barrutian zehar, bai eta inguruetan ere. Tranpak 15 egunean behin berrikusi, lekukoak bildu eta berriak jartzen dira. Biltzen diren lekukoak kodetu eta Nekazaritza Elikagaien Kalitaterako Laborategira eramaten dira, aztertu ditzan. Laborategia Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentu barruan dago. Arrautza-tranpak jarri, berrikusi eta kentzeko sistema 2022ko maiatzaren 3tik abenduaren 2ra erabili zen.

LIZTOR ASIARRA

2022an, zerbitzuak 48 habia kendu zituen, hau da, aurreko bi urteetan baino gutxiago. Halaber, 43 tranpa jarri dira Iruñean. 2022ko otsailaren 3tik 2022ko ekainaren 22ra, tranpak sei aldiz berrikusi ziren eta, guztira, 450 ale harrapatu ziren.

KOMUN PUBLIKOAK

Komun tradizionaletan, zerbitzuak zenbat jendek erabiltzen dituen zenbatu zen udaberriko aste batean (ekainaren 6tik 12ra) eta udazkeneko aste batean (azaroaren 21etik 27ra). Datuak urtearen gainerakora aldatuz erabilerari buruzko kalkulu bat egin daiteke, taula honetan ageri den bezala.

	Ekaina (6tik 12ra)		Azaroa (21etik 27ra)		Zenbatespena Erabilera urtean
	astea	eguna	astea	eguna	
WC- SARASATE	4.026	575	5.164	738	210.502
GAZTELUKO PLAZA	9.384	1.341	4.790	684	490.649
GURUTZEKO PLAZA	4.371	624	2.913	416	228.541
FORUEN PLAZA	4.887	698	3.908	558	255.520
BASOTXOA	2.682	383	2.466	352	140.230
ANTONIUTTI	2.237	320	1.356	194	116.963
ZIUDADELA	2.032	290	1.044	149	106.245
MEDIA LUNA	1.639	234	468	67	85.696
MUNDUAREN PARKEA	1.408	201	393	56	73.618
LANDABEN*	0	0	424	424	18.232
GUZTIRA				1.726.197 erabiltzaile urteko	

(*) Landabengo komunak igandeetan bakarrik daude zabalik. Uztailean eta abuztuan izan ezik, itxita baitaude. Beraz, azaroko datuak 10 hilabetez hartzen da aintzat.

GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNAK. Erabilera kopurua

Komuna	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gazteluko Plaza	40.333	39.488	42.777	40.299	31.945	32.108	15.011	18.539	35.918
Sanduzelai - Arga pasealekua*	13.813	14.756	SD	SD	SD	11.639	5.834	6.677	13.316
Magdalenako zubia*	13.842	14.120	SD	SD	SD	7.457	3.327	4.178	7.935
Runa Parkea*	11.077	14.462	15.122	12.975	18.896	17.566	8.513	8.166	16.820
Maiteminduen Parkea*	13.432	10.386	7.977	9.099	10.123	9.686	5.692	5.387	10.519
Mendillorribeiti	7.914	8.119	10.093	7.366	7.608	9.093	3.668	4.455	9.504
Mendillorrigoit	4.111	4.538	4.563	5.617	4.524	5.590	1.892	2.669	6.108
Nazario Carriquiri k.*	5.307	5.070	4.279	S.D	3.507	3.653	1.200	1.986	3.277
Felisa Munárriz plaza	10.649	6.994	7.401	5.833	5.987	6.639	3.325	2.597	6.477
Sarasate pasealekua	33.586	31.447	27.686	34.846	35.057	40.364	16.954	21.153	38.939
La Olivako Monasterioaren k.	23.160	23.782	23.568	S.D	S.D	17.378	7.779	6.563	16.058
Ibarbidea	10.319	10.377	9.681	9.041	S.D	7.273	3.075	2.891	5.274
Gartzia Naiarakoaren pasealekua	22.398	22.195	12.603	S.D	21.285	21.336	10.220	9.269	20.251
Serafín Olave k.	23.201	23.147	22.959	23.795	23.489	21.557	8.811	14.238	25.137
Ilargi Enea parkea*	4.372	6.900	5.818	7.698	5.188	7.669	2.936	2.890	5.581
Karlos III.aren etorb.	20.034	24.377	31.512	36.427	34.187	40.167	14.669	16.539	34.088
San Roke k.	6.024	3.428	4.463	5.609	6.419	7.249	3.903	3.855	6.022
Martzilla monasterioaren plaza	5.972	4.436	4.690	4.327	7.307	5.583	2.525	2.344	5.583
Viñaburu botikariaren k.	3.815	2.977	2.867	2.874	2.844	2.441	1.201	1.348	2.611
Manuel Turrillas plaza	6.368	6.408	6.050	6.914	7.176	7.997	3.400	3.651	6.175
Gares plaza	5.583	6.271	5.604	5.846	5.709	7.194	3.317	3.241	5.778
Erriberri k.	6.538	7.200	7.271	7.408	6.485	7.642	3.482	2.552	6.171
San Frantzisko plaza	25.916	36.901	36.187	41.667	30.269	31.210	15.062	16.184	31.862
Alfredo Landa parkea	8.942	12.955	12.779	8.587	S.D	17.753	8.272	8.029	14.208
Sandua pasealekua	-	4.938	10.046	9.954	12.429	9.543	4.793	4.470	10.730
Taxoare k.	-	-	-	3.871	1.552	8.942	3.330	4.607	9.936
Trinitarios	-	-	-	-	-	-	-	-	10.989
Donejakue bidea	-	-	-	-	-	-	-	-	13.858
Etxabakoitz	-	-	-	-	-	-	-	-	5.793
Iruñeko Orfeoia	-	-	-	-	-	-	-	-	5.017
Guztira	326.706	345.672	315.996	290.053	281.986	364.731	162.191	178.478	407.097

* Kanpoaldean komun bikoitza duten komunak.

DG (Daturik gabe)



Ohi denez, ikusten da herritarrek garbiketa automatikoko komunei ematen dieten harrera ona. Erabilera kopurua pandemia aurrekora iritsi da eta, are, gehiago ere erabiltzen dira, 4 komun gehiago baitaude.

GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNIK ERABILIAK

Hurrenkera	Komuna	Erabiltzaileak eguneko	%	metatua %
1	Sarasate pasealekua		% 9,77	% 54,46
2	Gazteluko Plaza		% 8,82	
3	Karlos III.a		% 8,37	
4	San Frantzisko		% 7,83	
5	Serafín Olave		% 6,17	
6	Gartzia Naiarakoa		% 4,97	
7	Runa Parkea*		% 4,13	
8	Yamaguchi-Planetarioa		% 4,01	
9	La Olivako monasterioa		% 3,94	% 45,54
10	Alfredo Landa-Lezkairu		% 3,49	
11	Donejakue Bidearen plaza		% 3,40	
12	Sanduzelai*		% 3,27	
13	Trinitarios		% 2,70	
14	Sandua pasealekua		% 2,64	
15	Maiteminduen Parkea*		% 2,58	
16	Taxoare		% 2,44	
17	Mendillorribaiti ikastetxea		% 2,33	
18	Magdalenako zubia		% 1,95	
19	Felisa Munárriz plaza		% 1,59	
20	Azpilagaña/Turrillas plaza		% 1,52	
21	Erriberri		% 1,52	
22	Mendillorrigoitia, aintzira		% 1,50	
23	San Roke/Entzutegia		% 1,48	
24	Etxabakoitz		% 1,42	
25	Gares plaza		% 1,42	
26	Martzilla mon.		% 1,37	
27	Ilargi-Enea parkea		% 1,37	
28	Ibarbidea		% 1,30	
29	Iruñeko Orfeoaren p.		% 1,23	
30	Karrikiri*		% 0,80	
31	Viñaburu-Ospitaleak		% 0,64	
GUZTIRA		806	% 100	% 100

Ateratako datuak kontuan hartuta, erabileren % 54,46 garbiketa automatikoko 8 komunetan egin dira eta, guztira 31 daude (taulan gris ilunean adierazita).



BAINU-ETXEA

Hiriak bainu-etxe bat du Eslava kaleko 9 zenbakian; ur beroz hornitutako instalazioak ditu, eta zortzi dutxa-kabina, sei bainugela (desgaitasunen bat duten pertsonen erabiltzeko egokitutako bi), hiru arropa-garbigailu eta hiru lehorgailu. Horrez gain, modu egokian erabiltzeko tresna guztiak ere badaude.

Dutxen erabileren joera

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gizarte-zerbitzuetako dutxa kopurua	678	768	956	900	815	757	549	719
Ordainpeko dutxak, guztira	6.963	7.153	5.711	6.447	6.511	3.057	3.336	5.747
Bainu kopurua	1	24	19	6	16	0	0	0
Guztira	7.642	7.945	6.686	7.353	7.342	3.814	3.885	6.466

Garbitze eta lehorte kopurua

Urtea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gizarte-zerbitzuetako garbitze kopurua	865	783	905	808	1.480	878	709	868
Gizarte-zerbitzuetako lehorketa kop.	865	783	905	808	1.480	878	709	865
GUZTIRA Gizarte Zerbitzuak	1.730	1.566	1.810	1.616	2.960	1.756	1.418	1.733
Ordainpeko garbiketak, guztira	680	832	754	734	494	332	388	341
Ordainpeko lehorketak, guztira	612	705	660	665	438	313	374	325
GUZTIRA ordainpeko zerbitzuak	1.292	1.537	1.414	1.399	932	645	762	666
GUZTIRA	3.022	3.103	3.224	3.015	3.892	2.401	2.180	2.399

ARROPA GARBIKETA

Desinfekzio Parkeak udal-zerbitzuetako langileen lan-arropa garbitu eta lehortzen du, halakorik eskatzen badute. Zehazki, arroparen oinarritzko garbiketa egiten da eta ez dago bermatua orban zailak kentzea (ez da tindategiako lanik egiten).

Urtea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arropa kontuz garbitzeko zerbitzua (aurrez desinfekzioa autoklabean)	249	332	254	227	95	104	90	105	94
Udal-arropa garbitzeko zerbitzuak	652	649	605	626	500	475	413	465	451
Garbitze-zerbitzuak, guztira	901	981	859	853	595	579	503	570	545
Autoklabe-zerbitzuak, guztira	79	107	94	117	95	116	103	110	119

XIRINGEN BILKETA

Gaur egun, garbiketa automatikoko komunak dira xiringak aurkitzeko aukerarik handieneko lekuak. Higiene Zerbitzuko langileek biltzen dituzte xiringak, prozeduraren arabera, aipatu komunak egunero berrikusten dituztenean.

Urtea	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Guztira	198	92	42	44	52	43	107	72	20	26



UDAL-HILERRIA

Ez da arazorik izan eskura dagoen eskaintzan, ez nitxoetan, ez gorpuzkin-kolunbarioetan, ez errauts-kolunbarioetan, ez lurreko hilobietan. Urtea amaitzean, 4.010 nitxo daude libre eta ezabatu dira lautik gorako altuera izan eta libre daudenak, 167 gorpuzkin-kolunbario eta 127 errauts-kolunbario.

Urtean, errauts-kolunbarioetako lau modulu ezarri dira; guztira, 92. Haietariko 96, zehazki, 61. nitxo-multzoan eta, beste 96, 62. nitxo-multzoan.

EHORZKETEN KONPARAZIO-TAULA

Ehorzketa motak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Nitxoak	500	457	427	435	420	363	466	364	383
Lurra	20	15	8	24	32	37	218	198	197
Panteoia	234	214	184	183	180	191	46	33	29
Gorpu-errausketak	1.786	1.888	2.078	2.033	2.171	2.162	2.402	2.072	2.182
Guztira	2.540	2.573	2.697	2.675	2.803	2.753	3.132	2.667	2.791

2022an, gehiago izan dira errausketak eta nitxo-ehorzketak, aurreko urtearen aldean; halaber, ehorzketa gutxiago izan dira panteoietan eta lurtean. Guztira, gehiago izan dira aurreko urtean baino.

DESOBIRATZEEN KONPARAZIO-TAULA

Desobiratze motak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Beste hilerri bat	84	9	19	25	16	17	7	15	9
Hezurtegi komuna	795	681	803	592	643	314	384	964	646
Berrehorzketak	106	127	136	126	126	202	182	200	218
Gorpuzkien errausketa	240	277	261	238	206	308	231	227	281
Guztira	1.225	1.094	1.219	981	991	841	804	1.406	1.154

2002an, desobiratze gutxiago egin dira 2021ean baino. Gorpuzkin gutxiago eraman dira beste hilerri batzuetara eta hezurtegi komunera, eta, zertxobait hazi dira berrehorzketak eta errausketak.

KONPARAZIO-TAULA: NITXORA ERAMATEA / ERRAUSKETA

Ehorzketa mota	2016	%	2017	%	2018	%	2019	%	2020	%	2021	%	2022	%
Nitxoak	427	15,83	435	16,26	420	14,98	363	13,18	466	15	364	13,7	383	13,7
Gorpu-errausketak	2.078	77,05	2.033	76,00	2.171	77,45	2.162	78,53	2.402	76,7	2.072	77,7	2.182	78,2
Ehorzketak, guztira	2.697		2.675		2.803		2.753		3.132		2.667		2.791	

IRUÑEKO HILERRIAN EHORTZITAKO KANPOTARREN JATORRIA

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Iruñerriko herrietakoak	485	520	538	442	519	575	571	602	627
Nafarroako beste herri batzuetakoak	397	479	555	543	542	521	571	457	485
Beste probintzia batzuetakoak	66	52	80	73	79	88	99	97	97
Guztira	948	1.052	1.173	1.058	1.140	1.184	1.241	1156	1.209

2.9. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK, MUGIKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

2.9.1. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK ETA OBRAK

KULTUR ZENTROAK

II. ZABALGUNEKO CIVIVOXAREN ERAIKUNTZA

- **Aurrekontua:** 82.000 €.
- **Deskribapena:** 2022ko azaroaren 15ean II. Zabalguneko Civivoxa eraikitzeko lanak hasi ziren. Lurra egokitu, segurtasun-tartea zedarritu eta lur-hustuketa egin zen.

IKASTETXEAK

SAN FRANTZISKO IPko GIMNASIOAREN BERRIKUNTZAREN AMAIERA

- **Aurrekontua:** 188.699,85 €.
- **Deskribapena:** Gaur egun, San Frantzisko Ikastetxe Publikoan erabiltzen ez diren guneak berrituko dira bertan gimnasioa jartzeko; horretarako, aldameneko komunak eta sarbideak aldatuko dira, bai eta gunea bera ere, eta behar diren instalazioak jarriko dira hura ongi erabiltzeko.

ERMITAGAÑAKO IPan ESTALKI BAT EGITEKO OBRA

- **Aurrekontua:** : 768.494,69 €
- **Deskribapena:** Lizitazioak Ermitagañako HLHIPko patioan jardutea du xede. Zehazki, zurezko egitura xaflatu eta inguratzailea erabiliko da kirol-pistak estaltzeko; azalera berria egokitu eta zolatuko da hainbat kirol jarduera egiteko, bi parterre lorategidun sortuko dira, euri-urak saneatzeko sare berriak jarriko dira, bai eta argi- eta ureztaketa-sareak ere, eta aipatu gunearen hiri- eta kirol-ekipamendua egiten da.

NICASIO DE LANDA IPko GIMNASIOAREN BERRIKUNTZA

- **Aurrekontua:** 223.549,12 €
- **Deskribapena:** Eskola-barrutiko eraikin hauetan, honako lan hauek egin dira:
 - **GIMNASIO ERAIKINA:** Zuntz-zementuzko xaflen estaldura aldatu da, eta teilatu-hodiak, gailurra eta alboko erremateak ere bai. Estaliko metalezko egitura garbitu eta suaren kontrako tratamendua eman zaio. Gimnasioko zola aldatu da, eta parteak eta kirol-pistak margotu dira. Gimnasioko kanpo-zurajeak aldatu dira. Bizitza-lerroa jarri da.
 - **IKASTETXE ERAIKINA:** Ustez amiantoak duten elementuak kendu dira, hala nola erabiltzen ez zen ur-biltegia galdara-gelan, eta zuntz-zementuzko zorrotak aldatzea.

VÍCTOR PRADERA – PADERBORN I.P. ESTALKIA BIRGAITZEA

- **Aurrekontua:** 207.125,89 €
- **Deskribapena:** Jarduketaren xedea izan da Paderborn (Víctor Pradera) ikastetxe publikoko estalkia birgaitzeko kontratazioa egitea, hartan hainbat patologia atzeman baitira eta, horrek kalteak eragin ditu elementu horren prestazioetan.

HAUR ESKOLAK

OBREN SEGIDA MENDEBALDEA HAUR ESKOLAN

- **Aurrekontua:** 1.510.752,26 €
- **Deskribapena:** Obrak 2021eko urrian hasi ziren, ikastetxea bere osoan berritzeko, gune guztien barnealdea aldatzeko, handien modulua osorik eraikitzeko eta zerbitzu-gunea hobetzeko, horrela haur eskola egungo araudiaren betebeharrak egokitzeko aldera. Proiektua garatzeko, eskola osoan jarduten ari da; hau da, obrak ikasgela, jantoki, lantegi, zerbitzu, administrazio-gela, barneko patio, kanpo-patio eta denetariko instalazioetan egiten ari dira. Ikastetxeari, gainera, estalki berria paratuko zaio, bai eta zoladura berriak ere. Egun indarrean den araudira egokitzeko aldera, eskola handitu behar da; horretarako, administrazio-eremu guztiaren inguratzailea baliatu da, bai eta bularreko umeen, ibiltarien eta ertainen moduluak inguratzailea ere.

Egungo eraikina handitzen ari denez, proiektuak iraultzailea izan nahi du barnealdean, baina mimetikoa kanpoaldean, halako moldez, handitu dela ez nabarmentzeko, esparru berria agertuta, segurtasun handiagoa izanen duena umetxoentzat, eta prestazio hobeak ere tenperatura, aireztatze eta argiztapenean. Berrikuntzak egungo haur eskolaren espirituari eutsi dio; hau da, funtsean erdiguneko patio estaliaren inguruan bizitzea. Orain, patio horren eginkizuna sendotuko da, modulu guztien bihotza izanen baita (bularreko umeak, ibiltariak, ertainak eta handiak), modulu guztiek hara ematen baitute. Horretarako, espazioen barne-eraiispinari ekin zaio, banaketa berria egiteko; sukaldea eta jantziak berriro dira, eta instalazioak eguneratu dira.

LEZKAIRU HAUR ESKOLA

- **Aurrekontua:** 669.159,83 €
- **Deskribapena:** Lezkairuko haur eskolaren eraikuntza lanen amaiera. Eguesibar kaleko 2an dago, Lezkairuko etxeen hegoaldeko lurzati batean, lehenago disuasio-aparkaleku batek hartua zuena. Helburua da behe solairuko eraikin bat eraikitzea, kontsumorik gabea, energiaren aldetik buruaskia. Bi isurialdeko teilatuek osatutako hainbat egitura ditu ezaugarri. Eskolaren barnealdea erdiguneko plaza borobil baten inguruan dago egituratua, barnealdeko hauspo gisa diharduena eta, hartatik, eskolako gune gehienetara joaten da. Erdigune horren eredua errepikatu egiten da bigarren mailako moduko bi atondo-gunetan, bertatik irakaskuntza-espazio ezberdinetarako sarrera (ikasgelak, familiendako espazioa, sukaldea, jantokia, administrazio-gunea) antolatzeari begira. Guneak elementu ireki eta garden gisara antolatuta daude, eta bideraturik daude, baita ere, patiorantz eta kanpoko lorategirantz..

Erdigunea kanpoko aldera luzatzen da, patiora irteteko portxea jarraipen-gune gisa osatuz. Kanpoko espazio hori maila eta material ezberdinetako terrazen segida gisara diseinatu da, lurzorua sestre egokitzeko eta, sekretuen lorategiaren kontzeptu metaforikoarekin bat, ikasgelak eta kanpoko moduluak harremanetan jartzeko.

Lezkairuko haur eskolak 0-3 urteko 114 haur hartuko ditu 2022 - 2023 ikasturtetik aurrera, jardunaldi osoan eta erdian, bai eta familiendako gune bat ere.



KIROL-INSTALAZIOAK

MENDILLORRIKO PILOTALEKUA

- **Aurrekontua:** 323.244,56 €
- **Deskribapena:** Pilotaleku estali gabe bat egitea frontisduna eta kontrafrontisduna, eta ingurunea egokitzea.

BUZTINTXURIKO KIROLDEGIA ERAIKITZEA

- **Aurrekontua:** 260.000 €
- **Deskribapena:** Buztintxuriko kiroldegiko obrak 2022ko irailaren 6an hasi ziren. Sastrakak kendu, garbiketa egin, lur hustuketa egin eta eraitsi aurreko lanak burutu dira.

SCD ECHAVACOIZ: ESTALKIA ETA ATLETISMO-PISTA

- **Aurrekontua:** 782.317,44 €
- **Deskribapena:** Jarduketa honek SDC Echavacoiz elkarteko kiroldegian dagoen egitura metalikoaren inguratzailea osatu nahi du, estalkian eta fatxadetan hein batean egina dagoena; gune hori egokitu eta hornitu nahi da atletismorako entrenatzeko, eta sarbide-kontrola sortuko da mendebaldean, Barañaingo eta Ipar Etxabakoizko goi-ordokiarekin komunikatzen duten arrapatatik eta hiri-igogailutik.

ONDAREA

PARMAKO BASTIOIA ETA BEHE BATERIA ZAHARBERRITZEKO LANEN JARRAIPENA IRUÑEKO MULTZO HARRESITUAN

- **Aurrekontua:** 904.141,93 €
- **Dirulaguntza:** 1,5% Cultural
- **Deskribapena:** Aurrera doaz Parmako bastioia zaharberritzeko lanak eta, lanak egin bitartean, adreiluzko arku bat agertu zen. Azterlanen arabera, habe etzaneko zubiaren azken zatia izanen litzatekeena, eta zaldain baten gisa, Arrotxapeko portalearen alderik kanpokoena ixten zuen zubi altxagarriarekin konektatzen zuena. Une hauetan, dagoeneko berreraiki dira teknika modernoagoekin baina jatorrizko eraikuntza errespetatuz, bost kanoi zuloen ertzak eta parapetoak. Horien aztarnak Beheko bastioia (Eskortak) ezkutatzen zuen landaredia kopuru handi bat kendu ondoren aurkitu ziren. Halaber, egiturazko elementuak finkatu dira gotorleku horren oinarrian, harresia irmotuz eta izkinaren atal bat berreraikitze materiala birjarritz, eta eremu horretako zuhaitzen sustraiek mugitutako harlanduak birkokatu dira. Landarediak elementuaren profila desitxuratzearen ondorioz zenbait tokitan jada ez zen jatorrizko konfigurazioa ikusten. Zaharberritze-lanak 2022ko ekainena amaitu ziren.

BERRURBANIZAZIOAK

URROBI ERREKAREN, IRATI ERREKAREN ETA MANUEL DE FALLA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREN SEGIDA. EDUSI PROIEKTUA

- **Aurrekontua:** 4.034.414,64 €
- **Deskribapena:** Iruñeko Udalak Arrosadia auzoko Manuel de Falla, Urrobi erreka (partziala) eta Irati erreka kaleen berrurbanizazioari heldu nahi dio. Lan hauek Hiriaren Garapenerako Estrategia Integratu eta Jasangarriaren (EDUSI) baitan daude; izan ere, kale horiek eraldatu eta Arrosadia auzo berria egituratuko duten ardatz bihurtzea aurreikusten da, non nagusi izanen baitira auzoko oinezkoen eta txirrindularien joan-etorriak edo ibilgailuenak, eta ibilgailuen zirkulazioa saihestuko baita, hala auzoa zeharkatzen dutenena nola aparkaleku bila dabilzanena.



Era berean, gunee handiagoak sortu nahi dira, oinezkoek soilik erabil ditzaten. Iruñeko Udalak, ondoren, esku-hartzeko taktiko bat egin zuen, gunee berrantolatze, lan esanguratsurik gabe, oinarri harturik zoladuran margotutako bilbeak, seinaleztapen horizontala eta bertikala, eta jarlekuen eta hainbat tamainatako landare-ontzi landatuen antolaera. Proiektua bizilagunei eta gainerako interesdunei bigarrenaz aurkeztu eta gero, herritarrek parte-hartzeko prozesua ireki zen, eta ondorioek 2019ko diseinuan izan dute eragina (egonaldi laburreko aparkalekuak ezartzea eta aldameneko kaleetan zirkulazioa berrantolatzearen bat). Udalak, gainera, berrikita paratutako landare-ontzi handiak birkokatu nahi izan zituen diseinuan (ureztapena jarrita), 4 plazak birdiseinatuta, udalaren Berdeguneetarako irizpidea aintzat hartuta parterre gehienak kentzeko.

Proiektua esleitzearekin batera, Iruñerriko Mankomunitateak CIMA Ingenieros SLUri esleitu zion esparru bereko hornidura- eta saneamendu-sareak berritzeko proiektuaren idazketa, eta bi proiektutan zehaztutako lanak batera gauzatuko dira.

OSCOS MULTZOKO PLAZAREN BERRURBANIZAZIOA

- **Aurrekontua:** 336.611,58 €
- **Deskribapena:** Plaza bere osoan berritzea, bi muturren artean dagoen desnibela moldatzeko, bai eta lurpeko instalazioen berrikuspene eta egokitzapene ere. Zoladura berria egitea eta argiztapene osorik berritzea.

BASOTXO KALEAREN BERRURBANIZAZIOA

- **Aurrekontua:** 1.141.340,88 €
- **Deskribapena:** Proiektuaren bidez, kaleak luzeran duen oinezko izaera sendotu nahi da eta zeharkako komunikazioa iragazkortu Taconerako parkearen eta Basotxoaren eremuaren artean. Horretarako, 10 metroko zabalera duen plataforma zolatu bakarria diseinatu da, gutxi gorabehera egungo galtzada-eremuarekin bat datorrena; egungo espaloak ezabatu dira, bai eta luzetarako landare-ontziak ere, zeharkako hesiak hauste aldera, parkeekiko ikuspegiak eta komunikazioak irekitzeko; zuhaitz gaixoak edota egokiak ez diren espeziekoak kendu eta beste batzuk landatu dira; zuhaitzen iparraldeko lerroak Taconerako parkean dauden antzeko parterretan txertatu da, diseinua batze aldera, eta eremu zolatu berria aipatu parkera hurbiltzeko eta harekin lotzeko.

ETXEBIZITZAK

SAN PEDRO MULTZOKO (24-BD, 31-DB, 34-2I, 35-2I eta 36-BD) UDAL ETXEBIZITZAK BERRITZEKO OBREN SEGIDA. LOTE 2

- **Aurrekontua:** : 204.549,72 €
- **Deskribapena:** 2022an zehar, 5 etxebizitza birgaitzeko lanak amaitu dira. Obrak 2021. urtearen erdialdean hasi ziren. Udal etxebizitza guztiak San Pedro auzoan kokaturik daude eta etxebizitza-bulegoak kudeatzen ditu. Etxebizitza berriak hainbat ataritan daude eta banaketa berbera dute oinplanoan, hau da bainugela, sukaldea, hiru logela eta egongela. Etxebizitzaren azalera eraikia 69 m² ingurukoa da. 1948an eraiki ziren eta haietan ez da orain arte egin inolako berrikuntza esanguratsurik; horrenbestez, garai hartako instalazioak eta ekipamenduak zituzten, hots, zoladurak zeramikazkoak edo terrazozkoak, alikatatu zeramikoak sukalde eta bainugeletan, parke itsatsia, eta igeltsua edo paper margotua gainerako geletan. Instalazio elektrikoaren kableak gainazalean zeuden eta, zenbaitetan, trenkada multzoan biluzik landatua. Etxebizitzek ez zuten berokuntza-instalaziorik. Sukaldea eta bainugelak bere osoan berritu dira. Pareta eta sabaiak margotu, eta barneko zein kanpoko zurajeak



aldatu dira. Instalazioei dagokienez, instalazio elektrikoa osorik berritu da, bai eta iturgintza- eta saneamendu-sarea ere; gainera, gas-galdara bat jarri da UBS ekoizteko eta berokuntza berrirako. Etxebizitza bakoitzean, halaber, konponketa-lan txikiak ere egin dira, bizitzeko baldintza egokiak izan ditzaten.

SAN PEDRO MULTZOKO (9-BD, 15-BD, 29-2D, 35-BI, MC 116-BI eta MC 118 1D) UDAL ETXEBIZITZAK BERRITZEKO OBRAK

- **Aurrekontua:** 349.971,91 €
- **Deskribapena:** San Pedro Multzoko 6 udal-etxebizitza bere osoan berritzea etxegabeak gizarteratzeko

SAN PEDRO MULTZOKO (9-1D, 10-BI eta 14-1D) UDAL ETXEBIZITZAK BERRITZEKO OBRAK

- **Aurrekontua:** 137.925 €
- **Deskribapena:** Jarduketa 2015ean udal-etxebizitzak birgaitzeko hasitako jarduketaren baitan dago, etxebizitza-bulegoaren bitartez etxebizitza-larrialdian dauden herritarren eskura jartzeko. Ikusirik udalak badituela jabetzapean gizarte-behar haiei aurre egiteko etxebizitza hutsak, jarduketaren bidez San Pedro Multzoko 3 etxebizitza horiek berritu nahi dira, espedientearen xedean zehaztuta dagoenarekin bat.

SAN PEDRO MULTZOKO 11 eta 12 ATARIETAKO ETXEBIZITZAK BERRITZEA - OPEN LAB PROIEKTUA

- **Deskribapena:** San Pedro Multzoko 11 eta 12 atarietako etxebizitzak berritzeko lizitazio-proiektuaren idazketa, OPEN LAB Europako Proiektuaren baitan.

BESTE JARDUKETA BATZUK

HARRESIAK MANTENTZEKO LANAK

- **Aurrekontua:** 300.000 €
- **Deskribapena:** 2020ko urriaz geroztik, Ziadadelako kanpoaldeko elementu harresitu guztietan jardun da. Harresi-ataletako eta bastioietako 11.600 m²-tan kendu da landaretza, kontramalkarretako eta rebellinetako 1.585 m²-tan; horrez gain, silarrien arteko 230 m² juntura pikatu eta berrelkartu, eta erakusketa-gelatzat erabiltzen diren barnealdeko eraikinetako, guardia-gorputzeko eta ate isilen aurrealdeko landaretza ere kendu da. Iruñeko Udalak, Vianako Printzea erakundearen gomendioei jarraikiz, Done Jakue Bastioiko kasamata-atal bat birgaitu du, Ziadadelako Laguntza Atetik ateratzeko irteeran kokatua. Hartan leihoitsuak ireki dira, adreiluekin itsutuak zeudenak, bere garaian sukalde militar gisa erabiltzen zen gunen bat argitu zutenak. Ziadadela Armada Ministerioaren mende zegoen garaian. Leiho horiek hasierako itxura berreskuratu dute eta, zer gerta ere, forjazko burdin sarea paratu zaie. Harresi-atala garbitu, pikatu eta kare-morteroarekin berrelkartu da. Azkenik, kalkarenitazko tapa bat jarri da, hala barneko atalean nola kanpoaldean, goialdeko lurrak birprofilatuta eta belarra erein da. Era berean, altzairu herdoilezinezko eskudelak paratu dira Nafarroako Museoaren atzealdean, eta labean margotutako burdinazko eskudelak, berriz, Parmako Bastioitik Nafarroako Artxibora igotzen diren eskaileretan.

DOÑA MAYOR HLHIP: UR BELNTZEN SAREA BERRITZEA

- **Aurrekontua:** 14.873,88 €
- **Deskribapena:** Egin beharreko lana funtsean da Doña Mayor HLHIPko ur beltzen sarea hobetzea. Bai barnealdeko tarte batean, bai kanpoaldeko beste batean. Egungo arketen barnealdea luzituko da eta arketa berri batzuk ere egingen dira, beste lan batzuen artean.

AMAIUR IKASTOLAKO GIMNASIOKO BAINUGELAK ETA ALDAGELAK BERRITZEA

— **Aurrekontua:** 137.243,45 €

— **Deskribapena:** Bainugelak bere osoan berritu dira, bai eta bakoitzaren aurre-atondoak, bi sexuetako aldagelak eta heziketa fisikoko irakaslearen bainugela ere.

Tresnak eta osasun elementuak kendu eta desmuntatu dira (ohol fenolikoak bainugelen banaketan eta gainen osaeran), bai eta osasun aparatuak ere. Alikatatua eta zoladura zeramikoa pikatu dira gainazal guztietan.

Gela guztiak portzelana-gresarekin alikakatu eta zolatu dira, eta haietan sabai aizuna jarriko da, Berokuntza-, iturgintza-, saneamendu-, elektrizitate- eta PCI-instalazio berriak egin dira. Gela guztietako instalazioak aplikatu beharreko egungo araudira egokitu dira.

Kanpo-zuraje guztiak kendu eta, haien ordezt, aluminiozko zurajeak jarri dira, zubi termikoa hautsia dutela, ertz zuzenekoak, butiral gardena duen kristal bikoitzarekin (4+4/12/6).

Barnealdeko ateen ordezt, zurezko ateak jarri dira, formikan forratuak; haietako bi ate gidaridunak dira.

Osasun aparatu berriak jarri dira, bai eta kasuan kasuko ekipamendua ere.

UDAL-HILERRIKO ERRAUSKETA-LABEAK ORDEZTEA

— **Aurrekontua:** 312.492,78 €

— **Deskribapena:** Jarduketaren helburua da gaur egun udal-hilerrian dauden bi labeak ordezte, are gehiago erabiltzeko ahalmena izan dezaten. Iruñeko errausketa kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan; horrenbestez, beharrezkoa da errausketa-labeen eraginkortasuna handitzea, eguneroko beharrak asetzeko.



2.9.2. HIRI KONTSERBAZIOA

2022an, Hiri Kontserbazioko zerbitzuek 5.800 abisuri baino gehiagori eta 450 eskabide ingururi eman zieten arreta. Horrek esan nahi du harrera-, ikuskapen-, jarraipen- eta erantzun-lanak egin direla, eta, egokitzen jotzen den kasuetan, jarduketak egin behar direla edo zerbitzuaren programazioan sartu behar direla.

Gainera, Herritarren Segurtasuneko alorrak baimendutako 300 bat jarduera eta ekitaldi kudeatu eta gainbegiratu ziren eremu publikoan, hirian.

GARBIKETA ZERBITZUA

- COVID-19aren ondoren, 2022ko otsailean, herritarren jarduera normalizatzen hasi zen, eta ekitaldiak eta, bereziki, botilla-bestak egiten hasi ziren hiriko zenbait lekutan, eta horiei erantzun egin behar izan zaie. Horrez gain, nabarmen handitu zen juevintxoetako jarduera, garbiketa ukitzen duten istilu txikiak gertatuta. Esan beharra dago badirudiela erroturik gelditu dela terrazetan kontsumitzea, eguraldi txarrarekin bada ere.
- Igandeko errefortzuak berrabiarazi dira, oraingoan herritarren jardueraren normalizazioak eraginda, eta ez, ordea, COVID-19aren ondorioz.
- Maiatzean, 3 asteko baldeaketa-kanpaina berezia egin zen.
- Paperontzi horiak ezartzen jarraitu zen Buztintxurin eta Donibane auzoko eremurik modernoenean eta jarduera handienekoan, ontziak eta plastikoa biltzeko.
- Aurten BAI, Sanferminak izan dira. Garbiketan izan da alde txar "harrigarririk", hots, ugari baitzeuden kalean botata kartoizko erretilutxoak eta plastikozko edalontziak, eta era berean, kristalezko botilatxo ugari eta jende asko edonon pixa egiten. Alde onen artean, azpimarratzekoak dira entzierroa garbitzeko polizia-hesiak ezartzearen emaitza oso ona, gainerako hondakinak biltzeko edukiontziak taparik gabe irekita egotea, parterreak garbitzeko haize-makinak erabiltzea eta, batez ere, herritarrek garbiketa-zerbitzuko langileei errespetu handia erakutsi izana.
- Trinitariosko trinkogailu berriaren kokapena eta instalazioa birmoldatu dira, inguru hartako urbanizazio berria dela eta.
- 2022an, guztira, 140 bidaia egin dira material trinkotua Gongorako zabortegira eramateko, eta hartan, 1.062,90 TN isuri dira.
- Hostoa biltzeko kanpaina atzerapenez hasi da, eta 2023ko urtarrilaren 20ra arte iraun du. Azken urte hauetan ez du zerbitzu horrek hain kanpaina zabala egin; azkenean, urtarileko hotzek eta urtarrilaren 17tik 19ra bitarteko elurteak eraginik, amaitutzat jo ahal izan zen. Kalkuluen arabera, 22.100 m³ hosto inguru jaso dira. Kanpaina honetarako, 5 haize-makina erosi dira, eta zerbitzuak urriaren hasieratik abenduaren amaierara handitu dira. Eskobatze mistoaren erabilera oso onuragarria izan da.
- Aurtengo alde negatibo bat izan da 2 erratz-makina erre eta zerbitzutik kanpo geratu direla (kiskalita).
- Zakurrendako eremuetako paperontziei dagokienez, eremuotatik kanpora ateratzen joan dira, hozkadek eragindako lan-istripurik ez izateko eta lana zakurren beldurpean egin behar ez izateko.
- Garbiketa bertikalean, jarduketa berezi bat egin zen, hots, 2021ean garbiketa berezia egindako 7 kaleak errepasatu baitziren; era berean, maiatzaren erdialdetik ekainera bitartean, kanpaina berezi bat egin zen Alde Zaharreko eremu batean; zehazki, Comedias- Pozo Blanco -Zapateria- San Domingo- Descalzos-Sanduandia -San Frantzisko-Berria- Zidadela- Sarasate artean dagoen eremuan.
- Iturri apaingarrietan, Hirigintza Gerentziak Odol Noria jaso zuen Txantreako hegoaldeko urbanizazio berrian.
- Hiri Kontserbazioan izapidetutako abisuak eta eskabideak kudeatzea.



BERDEGUNEEN ZERBITZUA

- Hobekuntzak Doña Mayorko disuasio-aparkalekuaren perimetroan, berdegunea autoen inbasiotik babesteko, zurezko hesia eta landare-ontziak paratuz. Landare bizikorrak landatzea eta landare-hesia zuhaixkekin birjartzea. 6.554,09 € (BEZa barne)
- Txorko-estalkiak hainbat kaletan berritzea: 9.203,36 € (BEZa barne)
- Hiriko berdeguneetako ureztaketa telekudeatzeko sistemak modernizatzea, guneen % 80 barne hartuta.
- Ez dio kosturik eragin Udalari; izan ere, berdeguneak mantentzeko enpresek eskainitako hobekuntza kostu gabeetan oinarrituta egin da.
- Berdeguneen Zerbitzuko Ikuskaritzak berrikusi eta prestatu ditu eskabideen eta 010 bidez jasotako abisuen erantzunak.
- Udal-langile batzuek berdeguneak mantentzeko lanak gainbegiratu eta koordinatu dituzte parke historikoetan, Milutzeko udal-mintegian, bai eta hiri-zuhaitzak mantentzeko udal-brigadak ere.
- Berdeguneak mantentzeko hiru kontratek berdeguneak mantentzeko egin dituzten lanak gainbegiratu dira.
- Mantentze-lanen koordinazioa egin da, Iruñeko Udalaren gizarte-enpleguko ibai eta mintegiko lantaldearekin eta Arantzadiko Lantegi Eskolarekin.
- Herriarren Segurtasuneko alorrak baimendutako jarduerak eta ekitaldiak gainbegiratu eta haien gaineko txostena egin da, berdeguneei eragiten ahal ote dieten ikusteko.

OBRETAKO ZERBITZUA

INBERTSIOAK KONTSERBAZIO-KONTRATUAREN BARNEAN

- Galtzadetako lanak, unean uneko hondoratzeak konpontzea, kalte zehatzak konpondu eta hobetzea: 174.000€
- Autobus-geraleku berrietako zola saneatu eta sendotzea, geroalekuak lekuz aldatzeagatik: 15.000€
- Ezkaba mendiko bidea birgaitzea: 14.000€
- Sabicas eskultura paratzeko zimenduak eta idulkia jartzea, bai eta berariazko argiak jartzeko lan zibila ere: 42.000€
- Azaleko tratamendua Aita Moret kaleko galtzadan: 21.000€
- Eskola Musikaren aurreko espaloiren berrikuntza integrala 20.000€
- Foruen plazako bandera eta mastarako zimenduak kalkulatu eta jartzea, masta erostea. 168.500€
- Zabalza baratzeetako eremu desjabetuan etorkizuneko hesirako zutoinen zuinketa, txosten tekniko eta instalazioa. 26.000€
- Galtzadaren azaleko tratamendua Taconerako oinezkoendako eremuan (Larraina): 18.000€
- Rosalía de Castro eskultura jartzeko zimenduak paratzea: 6.000€

INBERTSIO OROKORRAK ETA LANKIDETZAK BESTE ZERBITZU ETA/EDO ALORREKIN

- Chinchilla eta Aita Moret kaleetako espaloiak sortzeko eta oinezkoendako eremu bihurtzeko lanen amaiera: 92.500€
- Kabalgataren pasaera ahalbidetzeko arrapalak: 4.000€
- Ureztaketa edo bestelako udal kanalizazioak hobetzeko obra zibila: 17.000€
- San Ignazioaren estatua berariaz argitzeko obra zibila: 4.500€
- Kulturak eta Berdintasunak MUPlak paratzeko obra zibila: 10.000€
- Arantzadi igerilekuetako barne zoladurak birgaitzea: 10.000€
- Aita Moret kaleko galtzada birgaitzea, zola saneatzea, seinaleztapen horizontala: 18.500€
- harea San Domingoko ukuluetan zabaltzea Sanferminetarako: 5.000€
- Sanferminei dagozkien beste lan batzuk, hala nola txorkoak aldi baterako estaltzea, new jersey edo landare-ontziak paratzea oinezkoen segurtasunerako, behin-behineko arrapalak... 27.500€



- Labrit zaldaineko lanak eta aldi berean egindako lanak:
 - Labriteko zaldaina birgaitzea: 700.000€
 - Labrit pilotalekuko aldageletan sartzeko arkua eta euskarria birgaitzea: 24.000€
 - Euri-uren bilketa hobekuntza Jito Alai pilotalekuan: 23.000€
 - Media Luna alderen urbanizazioa: 48.500€
 - Urbanizazioaren aldaketa Labrit pilotalekuaren atzealdean: 36.300€
- Asto-bizkarrak eskola-inguruneetan jartzea: 13.000€
- Amaiurko eskola-ingurunea hobetzea, Iturrama kalean: 47.500€
- Serafin Olave BHLren eskola-ingurunea hobetzea, Iturrama kalea: 27.000€
- Irubide BHLren eskola-ingurunea hobetzea, Irunberri kalea: 10.500€
- Patxi Larrainzarko eskola-ingurunea hobetzea, Nazario Carriquiri kalea: 17.500€
- San Cerningo eskola-ingurunea hobetzea, Antso Ramirez kalea: 31.000€
- Iturrama BHLren eskola-ingurunea hobetzea, Gaztelugibel kalea: 19.500€
- Elorriko eskola-ingurunea hobetzea, Mendillorri: 9.500€
- Legez kontrako obra-hondarrak, uholdeek eragindako isuriak eta bestelako isuriak garbitzea: 110.500€
- Desgaitasuna dutenendako aparkalekuen irisgarritasuna hobetzea: 49.500€

Aurten, Udalari ez dagozkion zangak egiteko edo zoladurak kentzeko 299 lizentzia ere kudeatu dira. Lizentzia horiek presakoak, laburtuak edo normalak izan daitezke, edo zoladurak aldatzekoak, bai ibiak egiteko lizentzia berriengatik, bai justifikatutako beste arrazoi batzuegatik. Kudeaketa horren barnean dago ez soilik lizentzia dokumentu bidez ematea, baizik eta, era berean, jarduteko lekua egiaztatu behar izatea, leku bakoitzaren berezko baldintzak ezarri ahal izateko. Ondoren, hirugarrenek egindako jardunaren jarraipena egiten da, eta lanak behar bezala amaitu direla egiaztatzeaz gain, behin berme-aldia igarota, lanak behar bezala funtzionatzen duela ere egiaztatzen da.

Zerbitzuaren jarduketan artean, Hiri Kontserbazioan jasotako abisuak eta eskabideak izapidetzearen ondoriozko hainbat lan aipatu behar dira.

Era berean, hainbat txosten egin dira udal departamentuetarako, eta txosten horien xede izan daitezkeen espazioak edo dokumentuak aldeztu aurretik gainbegiratu behar dira.

Honatx txostenak:

- 42 txosten Hirigintza Gerentziari eta Hirigintzako alorrari egin zaizkie.
- 92 txosten Ondareari egin zaizkio, kalteen eraginez Udalari egindako erreklamazioen ondorioz (B Kalteak).
- 10 txosten Ondareari egin zaizkio, udal-jabetzan izaniko kalteen ondorioz Udalak hirugarrenei egindako erreklamazioengatik (A Kalteak).
- Herriarren Segurtasunari egindako txostenak, eremu publikoan egindako ekitaldi eta jarduera askotarikoen ondorioz.



HIRI ARGITERIAKO ZERBITZUA

INBERTSIO-PROIEKTUAK

Gaztelugibeleko goi bidearen argiztapena

Iruñeko Udalak instalazio elektrikoaren proiektua gauzatu du Gaztelugibeleko goi bidea argiztatzeko, irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta inguru horretan gaueko ordutegian ibiltzen diren pertsonen segurtasun handiagoa emateko. Bidea udal-barrutiaren 2. poligonoko 1115 eta 1152 lurzatietan dago kokatua.

Proiektuan, erabilera-baldintzak eta indarrean dagoen araudia hartu dira aintzat, betiere eraginkortasun energetikoko irizpideekin bat. Xede horretarako, LED teknologiako argiak erabiltzea hobetsi da.

49 argi-gune paratu dira, bai eta kontrol-sistema bat ere. Sistemak, argiak piztu eta itzaltzeaz gain, argi-maila aldatu eta erregulatzeko aukera ematen du, telekudeaketaren bidez. Era berean, Zhaga oinarri-konektoreak jarri dira proiektu barneko luminaria bakoitzean.

Parkean dauden luminarien estetikari eusteko irizpidearekin bat, Metropoli modeloko ATP markako luminariak jartzea erabaki da, polimero teknikoak fabrikatuak, 2200 °K-ko kolore-tenperaturarekin eta 21., 30., 38. eta 42. W-ko potentziekin.

Era berean, instalatutako zutabeak ATP markakoak dira, Atlas modelokoak, 3.5 metroko garaierakoak, polimero teknikoak estalitako altzairu galbanizatuzkoak, eta propietate bereziak dituzte euskarriak korrosiotik babesteko; gehienbat, txakur pixek eragindakoak.

Instalazioaren eraginkortasun energetikoa A motakoa da.

Proiektuaren aurrekontua 193.100 €-koa izan da.

KONTSERBAZIO PROGRAMATUA

Hiri argiteriaren instalazioa Argaren pasealekuan berritzea, Santa Engraziako zubitik Vergel zubira bitartera dagoen tartean

Honako lan hauek egin dira:

- Euskarri guztiak, garbitu, inprimatu eta margotu dira.
- VSAP lanparak dituzten luminarien ordez ATP markako **35 argi berri jarri** dira, Led teknologiakoa, Pescador S Confort Led35 2200 °K modelokoak, driver Tridonic Programagarriarekin.
- Lanaren zenbatekoa: 37.216€

Hiriko Alde Zaharreko kanpoko hiri argiteriako 102 argi berritzea. Pescador modeloko argien deskarga-bloke optikoaren ordez LED teknologiako osagai berriak jarri ziren, Retrofit soluzioaren bidez

2021ean, proiektu bidez berritutako 329 aleei eman zaie jarraipena.

Berrikuntza hau egin da: Pescador motako luminarien kanpo-egitura mantenduta, deskarga-teknologiarekin dauden bloke optikoen ordez LED teknologiako bloke optiko berriak jarri dira, "retrofit" soluzioaren bidez.

Pescador motako 100 W, 150 W eta 250 W-ko VSAP lanparak, ekipo osagarriak eta difusoreak kendu dira, eta, haren gainean, LED teknologiako bloke optiko berri bat muntatu da, 52, 60 eta 70 W-ekoa, Salvi markako "retrofit" soluzioaren bidez, 2700 °K-ko kolore-tenperaturarekin.



Hona hemen zer kaletan jardun den eta zenbat argi paratu diren:

- Taconera: 3
- Berria: 32
- Kontseilu plaza: 6
- Ansoleaga: 8
- San Saturnino: 9
- Udaletxe plaza: 13
- Txapitela: 8
- Mercaderes: 9
- Duque de Ahumada: 12
- Calceteros: 2
- Lanaren zenbatekoa: 62.400€

Alde Zaharreko argiteriako VSAP argiak berritu dira, Alfonsino ATP SIGLO motako LED teknologiako eta Citidim komunikazio-nodoa duten beste argi batzuk paratuz

Lekuotan jardun da:

- San Domingo: 7 luminaria ATP SIGLO XLAC LED 2700 °K 87 ETA 52W
- Joaquín Arazuri pasealekua. San Lorentzo parrokia: 8 luminaria ATP SIGLO XLAC LED55 2700 °K 68W
- Descalzos kalea: 3 luminaria ATP SIGLO XLAC LED55 2700 °K 52 eta 55W
- O-ko Andre Maria Plaza: 3 luminaria ATP SIGLO XLAC LED25 2700 °K 27W eta 2 ale ATP SIGLO XLAC LED35 2700 °K 38W
- San Jose plaza: 2 luminaria ATP SIGLO XLAC LED35 2700 °K 38W eta 2 ale ATP SIGLO XLAC LED75 2700 °K 74W
- Errekoleten kalea: 9 luminaria ATP SIGLO XLAC LED 2700 °K
- Lanaren zenbatekoa: 30.000€

3 argi-gune berri jarri dira Odol Emaileen pasealekuaren eta Nabaskoze Almiradioaren plazaren arteko zeharbidean

- Salvi Modelo Clap S markako 3 argi-gune jarri dira osorik, obra zibila barne, 45W-ko potentziakoa, Tridonic driverrarekin, altzairu galbanizatuz egindako 4 m-ko euskarrien gainean.
- Lanaren zenbatekoa: 10.438€

Tutuen zubiko argiteria sendotzea, Sanduzelai auzoaren eta Trinitariosko parkearen artean.

- Lekuaren irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzeko lana.
- Flood Light 30 W 3000 °K modeloko LEDVANCE markako 4 proiektore hornitu eta instalatu dira, arrapalari eta eskailerari dagokien zatian argiztapena indartzeko.
- Lanaren zenbatekoa: 3.400€

Eguzki-argiztapena Alfredo Landa parkeko oinezkoendako bidean

- Alfredo Landa parkea zeharkatzen duen bide batean argiztapenik ez dagoenez, eta kontuan harturik kanalizazioak egiteak berdeguneari eragiten dion kaltea, eta kontuan ere harturik orientazio ona duela eta itzalik ez dagoela intereseko lekuetan, plaka fotovoltaiakoen bidez elikatutako 2 argi-gune jartzea hobetsi da.
- Argi-guneak EKIONA markakoak dira, Olintu LED modelokoak, 22 W; kristal bakarreko panel fotovoltaiakoa 160 Wp-ko bateria, litiozkoa 68 Ah prof desk.% 80; zutabea altzairu galbanizatuzkoa, 5m-koa.
- Lanaren zenbatekoa: 7.300€



Instalazio elektrikoa, Foruen plazako Nafarroako bandera

- Bi hartune eta babeseko instalazio elektrikoa, Foruen plazako Nafarroako banderako argiztapen-proiektoreetarako eta bandera goratzeko motorrerako.
- Schreder Omniflood 72 LED 277W markako 4 proiektore erosi eta instalatzea
- Lanaren zenbatekoa: 9.300€

Argiteria sendotzea Santa Engrazia kalearen eta Gipuzkoako etorbidearen elkargunean. Bidegorria

- 4 luminaria berri jarri dira, ATP markakoak, Cónica TLAC LED55 53W 3000 °K modelokoa, 5 metro altuerako Bacolsa euskarrien gainean, altzairu galbanizatuz egindakoak.
- SALVI markako luminaria 1 jarri da, CLAP 100 W LED modelokoa, 10 metro altuerako Bacolsa euskarriaren gainean, altzairu galbanizatuz egina.
- Lanaren zenbatekoa: 6.500€

San Nikolaseko portalearen argiztapena (Basotxoa)

- San Nikolaseko portalean argi apaingarriak jarri dira, berariazko euskarri batean jarritako 3 proiektoreen bidez.
- Instalazioa IGUZZINI markako 3 proiektoreen bidez egin da, MaxiWoody Led 28W modeloa.
- Lanaren zenbatekoa: 3.400€

Sabicas gitarristaren eskulturaren argiztapen apaingarria

- Hartunea aginte-zentrotik eta Ligman markako 8 proiektore hornitu eta instalatzea. Modeloa: Gandalf 26 3000°K 74 W
- Lanaren zenbatekoa: 18.200 € (BEZ BARNE)

San Ignazio eskulturaren argiztapen apaingarria

- 3 luminaria erosi eta instalatzea: Light Up Earth 15 W 3000°K 40°
- Lanaren zenbatekoa: 3.500€

Lanparak aldatzea

- Luminarietako lanparak aldatzeko urteko programazioaren barnean, lanparak aldatu dira, eta, bide batez, argiak ere garbitu dira 8.000 argi-gunetan (7.000 programatuak, eta, gainera, urtean zehar 1.000 baja eragin dira).
- Lanaren zenbatekoa: 400.000€

Sanferminak

Hiri argiteria mantentzeko kontrataren bidez, euskarria ematen zaie eremu publikoan egin eta energia elektrikoa behar duten behar guztiei, eta Udaleko gainerako alorrek eskatzen dituzte. Euskarria, zehazki, argiteria publikoaren aginte-zentroen azpiegituraren bidez eta kontratatutako behin-behineko horniduren bidez ematen da.

Honatz alor eskatzaileak: Kultura, Osasuna, Herritarren Segurtasuna, Berdintasuna eta Turismoa.

Atal honetan egindako lanak 32.000 €-koak dira.

BESTE KONTSERBAZIO-LAN BATZUK

Matxura handiak konpontzen dira (kutxatila hondatuak konpondu eta berregitea, lurpeko instalazioetako matxurak, borne erreak, kanalizazio itoak, aginte-zentroetako elementuak aldatzea, istripuz botatako argi-guneak, etab.).

Kontserbazio-lan hauetara 300.000 euro bideratu ohi dira urtean.

Atal honen barnean, eremu publikoan gertatutako istripuek instalazioetan eragindako kalteak ere konpontzen dira eta, horretarako, 34.400 € bideratu dira.



GINARRIZKO MANTENTZE-LANAK

Barne dago instalazioak piztu eta itzaltzeko kontrola, eguneko eta gaueko ikuskaritza-zerbitzuak, guardiako zerbitzua, aginte-zentroen telekudeaketa, matxura arinak konpontzea, ustekabeen erretako lanparak berritzea, fluxua murrizteko ekipoen funtzionamendua aldizka kontrolatzea, baliabide materialak eta pertsonalak eskura izatea, hiri argiteriaren inbentarioa eguneratzea.

Atal honetara, urtean 883.499,88 € bideratu ziren.

TXOSTENAK

Hainbat arlori buruzko txostenak:

Proiektuak: Hiri argiteriari dagokion zatian, 10 urbanizazio-proiektu berriri buruzko txostena egin da.

Instalazioen harrera: Argiteria publikoko 5 instalazio berri informatu, berrikusi eta jaso dira.

Abalak itzultzea: Abalak 9 obrari itzultzeari buruzko txostena egin da.

Ekitaldiak eremu publikoan: Argiteria-azpiegituraren bidez hornidura elektrikoa eskuratzeko 90 eskaerari buruzko txostena egin da eta, mantentze-kontrataren bidez, laguntza teknikoa eman zaie, eremu publikoan ekitaldiak egiteko.

B kalteak: Udalari egindako 10 ondare-errekamazioari buruzko txostena egin da, argiteria publikoari dagokion arloan.

A kalteak: Hirugarrenek hiri argiteriako instalazioetan eragindako 21 istripu konpondu dira, horiei dagozkien kalteak 34.400€-an balioetsita.

Azkenik, Hiri Kontserbazioan jasotako abisu eta eskabideen kudeaketa egin da.

ERAIKINAK MANTENTZEKO ZERBITZUA

- **AZPILAGAÑAKO ARRAPALAK:** aldatu egin dira eskudel-ardatzeko trakzio-kateak eta errodamenduak, bi arrapaletan: Azken inbertsioa: 16.214,94 euro.
- **SAN JUAN DE LA CADENAKO ESKOLAUERREKO GALDARA-GELAREN BERRIKUNTZA:** galderen ordezt kondentsazio-sistema teilatutako sistema jarri da. Eraginkortasun energetikoa hobetze aldera eta errendimendu handi-handia izate aldera, galdararen ordezt kondentsazio-galderen bidezko sorkuntza-sistema bat jarri da, erregulazio teilatua dutela. Azken inbertsioa: 24.794,50 euro.
- **BEROKUNTZAKO BULTZADA- ETA ITZULERA-HODIEN SAREAREN BERRIKUNTZA, AVER MARIA ZEGOEN EREMUAN PATXI LARRAINZAR IKASTOLAN:** bere osoan aldatu da berokuntza-hodien sare guztia, hodiak zaharkituak baitzeuden, ur ihes asko zituztela eta, ondorioz, arazo aunitz zeuden eraikinen konfort termikoan, bai eta ez-eraginkortasun energetiko handia ere.. Azken inbertsioa: 24.936,01 euro.
- **GALDARA ALDATZEA AVE MARÍA ZEGOEN EREMUAN, PATXI LARRAINZAR IKASTOLAN:** gas naturaleko galdara estandarren ordezt kondentsazio-galdara jarri da, instalazioaren eraginkortasun energetikoa hobetuta. Azken inbertsioa: 19.890,59 euro.
- **HUSTUBIDE-SARE OROKORAREN BERRIKUNTZA SOTOAN, CARDENAL ILUNDAIN IKASTETXE PUBLIKOAN:** behe-solairuko euri-urak husteko hodi orokor guztiak aldatu dira, uholde handiak gertatzen baitziren euri jasa egiten zuenean. Azken inbertsioa: 27.156,99 euro.
- **GORTINAK JARRI DIRA EGUZKI-KONTROLERAKO UDAL ZERBITZUETAKO UDAL-BULEGOETAN, IRATXE KALEKO 2an:** Erabiltzaileen lan-baldintzak hobetze aldera, eguzki-kontrolerako gortinak paratu dira bulego guztietan: Azken inbertsioa: 7.462,22 euro.
- **TACONERAKO LORATEGIETAKO OFFICEAREN BERRIKUNTZA INTEGRALA:** zentro horretako office-eremua egokitu da, Laneko Arriskuen Protokoloari buruzko udal-zerbitzuaren jarraibideekin bat. Azken inbertsioa: 17.637,09 euro.
- **TEILATU-HEGATSAREN KONPONKETA INTEGRALA VÍCTOR PRADERA IKASTETXE PUBLIKOAN:** teilatut-hegats guztia eta euri-urak biltzeko sarea konpondu dira, ikastetxean segurtasun- eta hezetasun-arazo handiak zituztelako. 28.079,19 euro.



- **GIZONEZKOEN ALDAGELETAKO BAINUGELAK ETA DUTXAK BERRITU DIRA, IRATXE KALEKO 2an ZENTRALIZATUAK:** dutxak eta bainugelak indarrean den araudira egokitu dira. Azken inbertsioa: 73.150,83 euro.
- **NEXT GENERATION FUNTSEN LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO LAGUNTZA CSIC TXANTREARAKO ETA ARANTZADIKO KIROL-HIRIRAKO:** zerbitzua elkarlanean aritu da Bulego Estrategikoarekin, PIREP deritzen laguntzetan aurkezteko behar diren memoriak eta gainerako dokumentazioa idazteko. Eskatutako ziurtagiri energetikoak egin eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriak proposatu dira.
https://sede.mitma.gob.es/SEDE_ELECTRONICA/LANG_CASTELLANO/OFICINAS_SECTORIALES/VIVIENDA/ARQCTRA/PIREP/
- **NEXT GENERATION FUNTSEN LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO LAGUNTZA ERAIKIN TURISTIKO BATZUETARAKO:** Turismo Zerbitzuarekin elkarlanean, laguntza eman da atariko azterlana idazteko, eraikinak hautatzeko eta pleguak prestatzeko, zerbitzu-kontratuak lizitatze aldera eta azterlan energetikoak idazte aldera, turismoarekin zerikusia duten bederatzi udal-eraikinetan, Sf365ri emandako laguntza-programaren barnean. Emandako laguntza: 72.000 euro. <https://www.pamplona.es/eu/turismo/turismosostenible>
- **KIROL KONTSEILU NAGUSIAK (CSD) KUDEATUTAKO NEXT GENERATION FUNTSEN LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO LAGUNTZA:** Kirol zerbitzuarekin elkarlanean, memoriak, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak eta beste dokumentu batzuk idatzi dira, CSDk deitutako laguntzetara aurkezteko.
- **AEROTERMIA-INSTALAZIOA ERMITAGAÑAKO ELIKAGAI BANKUAN:** kontsumo elektriko handia atzematearen ondorioz, Gizarte Zerbitzuetako alorrari aholkua eman zitzaion, aerotermiaren bidez berotzeko elikagai bankurako erabiltzen den aretoa, erradiadore elektrikoaren ordez. Instalazioaren diseinua egin, eta kontratazioan nahiz obren gauzapenean lagundu zen. Azken inbertsioa: 5.500 euro.
- **GAS NATURALEKO HORNIKUNTZAK BATZEA HILERRIAN:** eraikinetarako energia-hornikuntza optimizatzeko xedeari jarraikiz, hilerriko hiru hornikuntzak batu egin ziren eta orain bat bakarra dago. 2.000 euro inguru inbertitu dira eta, hilerro, 1.400 € aurrezten dira.

IBILGAILU PARKEKO ZERBITZUA

Urtean zehar, honako esku-hartze hauek egin dira, gutxi gorabehera:

- IATak: 281
- Konponketa mekanikoak kanpo-lantegian: 108
- Karrozeria-konponketak kanpo-lantegian: 37
- Esku-hartzeak Ibilgailu Parkean: 870 (barne dira mantentze-berrikuspenak, matxurak eta esku-hartze txikiak).
- Guztira, 14 ibilgailuri eman zaie baja eta birziklatu dira.

2.9.3. MUGIKORTASUNA

Txantreako Ezkaba kalea hobetzea

Mugikortasun- eta ingurumen-baldintzak hobetzea, Txantreako Ezkaba eta Miravalles kaleen inguruan jarduketak eginez.

Eraldaketa integrala da, oinezkoentzako guneak handituz, Eunate Institutuaren sarreran eskola-ingurune segurua sortuz, oinezkoentzako eremua 400 m² handituz eta oinezkoentzako pasabide garai bat eraikiz, Atarrabiako hiribideraino bi norabideko bidegorriaren 275 metroko tarte berri bat sortuz, eta drainatze iraunkorreko sistemak dituzten lorategiak sortuz.

Ingurune mugikortasuna hobetzea Juaristi doktorea

Sanducelaiko Juaristi Doktorea eta Sanduzelai kaleen elkarguneko espaloiak handitu dira, segurtasuna eta oinezkoen ibilbideak hobetzeko: Oinezkoen pasabideetan esku hartzea eta zirkulazioa lasaitzeko ibilgailuentzako biraketa-erradioak murriztea.

Elkargune horretako espaloiak handitzeak oinezkoen espazio berriko 200 metro koadro hartzen ditu, eta Juaristi Doktorea kaleko oinezkoen pasabidea gurutzatzeko luzera murriztu egiten du, haren zabalera handituz eta altxatuz.

Juaristi doktorearen kaletik puntu horretara iristen den bizikleta-errea goiko pasabide berrian integratu zen, txirrindularien zirkulazioaren segurtasuna hobetuz. Era berean, farolak berriro jartzea eta lehendik zeuden seinale bertikalak jarri ziren, oinezkoentzako gune berrira egokitzeko.

Taxoare kalea, Sadar kalea eta Katalunia etorbidea

1,7 kilometroko ibilbidea du, NUP inguratuz, Taxoare, Sadar eta Katalunia hiribideetatik. 3 metroko zabalera eta babes-zerrenda. Tartearen hasieran, Katalunia etorbideko biribilgunean, bizikleten elkargunea hobetuko da, espaloiak zolatu eta handituko dira, eta bizikletentzako pasabide berri bat sortuko da lehendik dauden bizikletentzako bideekin lotzeko. Errektorretza aparkatzeko sarreraren parean oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabide bat sortuko da, sarbideak hobetzeko. El Sario biribilgunean, galtzada estutuko da, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabide bat sortuko da, Sadar kaleko tartearekin lotu ahal izateko, eta beste bizikletentzako pasabide bat, Mutiloaraino diseinatuko den bidegorriarekin lotzeko.

Sadar kalean, bidegorria eskuinaldetik igarotzen da, mendebalderantz. Aparkaleku-zerrendaren gainean eraikiko da, 2,50eko dimentsioarekin eta babes-bandarekin. Villavesetarako bost geltoki aurreratu eraikiko dira, bai lehendik dauden gereduekin, bai partida egunetan edo kontzertuetan gaitzen diren. Kale horretako biribilguneek galtzadaren zabalera murriztuko dute, eta bizikleta pasabide berri bat sortuko da Navarra Arena eta Sadarreko estadioaren parean.

Katalunia etorbidearen ondoko zatian, bidegorria eskuinaldetik igaroko da iparralderantz, eta egungo aparkaleku-zerrendatik ere egingo da, Sadar kalearen neurri berberekin. Geredu handi bat sortuko da, 25 metro luze izango dena, eskualdeko hiri-garraioko lineentzat, eta bizikletentzako pasabideak ere bai, bidegorria lehendik dauden beste bide batzuekin lotzeko, hala nola Pablo Antoñana kaletik datorrenarekin.



Julián Gayarre inguruko obren bigarren fasea

Julian Gayarre kalean oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hobetzeko obren lehen fasearen jarraipen gisa, bide horretan 2021ean hasitako jarduketak amaitu dira, Milagrosa auzoko Zaragoza hiribidearekin lotu arte.

Egungo bereizgailuak kendu ziren, araudia betetzen ez zutenak, eta kautxuzko eta bolardoeko beste bereizgailu batzuk jarri ziren. Bidegorria erabat asfaltatu zuten, 2,50 metroko zabalera eta 0,50 metroko babes-zerrenda legeztatuta. Azken zatian, Zaragoza hiribidearekiko loturatik gertu, baterian zegoen eskuineko ertzeko aparkaleku-banda lineara pasatu zen.

Julian Gayarre eta Guelbenzu kaleen elkargunean, ezker aldeko espaloia berritu zen, eskailerak kendu eta irisgarritasuna hobetuz. Zangoza kalearekiko elkargunean, espaloia handitu zen, eta bizikletentzako pasabide berri bat sortu zen, oinezkoentzako pasabideak hobetuta. Bi edukiontzi talde Zangoza kaleko aparkaleku-bandara eramane zituzten. Halaber, geltoki aurreratu bat eraiki zen villavesentzat, zerbitzuaren erabiltzaileen irisgarritasuna hobetuz eta garraio publikoaren abiadura komertziala hobetuz.

Bizikleta-sarea mantentzeko eta hobetzeko plana gauzatzea

2020an eta 2019an egindako Bizikleta Sarearen auditoria osotik eratorrita, "Sarea mantentzeko eta hobetzeko plana" ren obrak gauzatu dira zoladurari, seinale horizontalei eta bertikalei, gutxieneko segurtasun- eta erosotasun-irizpideak betetzeari (zabalak eta beste baldintzatzaile batzuk) eta sarearen konektibitateari dagokienez.

Txantrea-Labrit bizikleta konexioko obra

Labriteko Ardatz Jasangarria, Txantrea auzoa hiriaren erdigunearekin lotzen duena, jarduera integrala da, eta bizikleten mugikortasuna hobetzeaz gain, oinezkoentzako irisgarritasuna ere hobetzen du, oztopo arkitektonikoak ezabatuz eta espaloiak hobetuz, ibilgailuen zirkulazioa baretuz galtzadaren zabalera zati askotan murriztuz eta Tejeria parkeko berdeguneen balioa handituz. Labriteko bidegorriaren lehen zati hori, Aleman pasealekuaren amaierako puntu hori eta Hego Txantreako urbanizazio berriko bidera sartzeko biribilgunea lotzen zituen, bi norabideko erreia zati bat da, 3,5 metroko zabalera, zirkulazioa erreia eskuineko ertzetik igarotzen dena, hirigunearen noranzkoan. Vergel kalearekiko bidegurutzeraino eta Igeriketa Klubarainoko sarbideraino doan zatian, eta Labriteko pasabiderainoko tartean. Bidegorria albo horietan aldatzen da eta jaitsierako erretik igarotzen da Txantrea auzorantz.

Pasabidea baino lehenagoko bihurgunean trenbidearen plataforma handitzea: Pasabidearen aurreko bihurgunean trenbidearen plataforma handitzen ari dira, mikropilotezko pantaila batekin eta harlanduzko harriz estalitako hormigoizko horma batekin. Gainera, proiektuak barne hartzen du Tejeria parkean dagoen bidea berritzea. Espaloia berri batekin bat egiten du, oinezkoen ibilbideari pasabideraino jarraitzeko eta, obrak amaitzean, hiriaren erdialderaino iristeko.

Barañaingo etorbidea eta Premín de Iruña bulebarra hobetzea

Barañaingo etorbidearen azken zatian mugikortasuna hobetzeko esku-hartzearen 2. fasea, Nafarroa hiribidearekin bat egiten duen tokiaren eta Miluze kalearekin bat egiten duen biribilgunearen artean: Bidegorriaren garapena eta bizikletentzako espaloien zati bat, Irunlarrea eta Premín de Iruña bulebarraren artean oinezkoentzako pasabide garai bat sortzearekin batera.

Bigarren fasean, Barañaingo etorbidea bizikleta-bide bihurtzen da, eta, horrela, hiriko erdigunetik Ospitaleen eta Landabenen gunera doan bizikleta-ibilbidea zabaltzen da. Bertan, gaur egun, bizikleta-erria amaitzen da Miluze



kaletik barrena. Nafarroa etorbidearen eta Irunlarrea kalearen artean, bidegorriak 2,50 metroko bi noranzko ditu, eta 0,50 metroko babes-zerrenda galtzadaren eskuinaldean. Irunlarrea kalea zeharkatu ondoren, bizikleta-bideak espalo bat du eskuineko ertzeko espaloitik, Barañainerako norabidean, eta 2,5 metroko zabalera duen zoladura bereizi bat.

Iruñako Premin Bulebarra: Irunlarrea kaleko elkargunean oinezkoentzako pasabide handi bat sortu zen, konektibitatea hobetzeko. Era berean, espaloia handitzea, 4 parterre jartzea, aparkalekuak berrantolatzea eta edukiontzia birkokatzea. Eskualdeko hiri-garraioa hobetzea plataforma aurreratu berriekin, eta euri-urak biltzeko sistema berriak eraikitzea.

Behe Emisioen Zona- Aparkaleku-sentsoreak, ibilgailuen neurgailuak eta airearen kalitatearen neurgailuak instalatzea

Maiatzaren 20ko 7/2021 Legeak, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoak, 50.000 biztanletik gorako hiriak behartzen ditu emisio txikiko eremu bat ezartzera. Iruñean Next Generation EU Europako funtsen finantziatzea du. Lehen neurri gisa, airearen eta zarataren kalitatea neurtzeko 10 ekipo, ibilgailuen edukierako 50 puntu eta matrikulen irakurketa eta zabalenerako plaketarako, mugikortasun urriko pertsonentzako plaketarako eta erreserbatutako plaketarako 375 aparkaleku-sentsore instalatzen dira. Baja Emisioen Zona baten kudeaketarako sistema teknologikoen plataforma garatzen da. Abertis Mobility Services – i3i Ingeniaritza Aurreratua ABEEK gauzatuko du.

1. fasean ZBE gisa mugatutako eremu mugatua hiriko Alde Zaharra da. SEMen, 2022ko irailean, informazio- eta partaidetza-jardunaldi bat izan zen proiektua aurkezteko.

Miluze kaletik Landaben industrialdera doan bidegorrirako hitzarmena sinatzea

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten obra hori Next Generation funtsen finantzaketarekin egiteko 2023an. Ezaugarriak: Bi norabideko bidegorria, kilometro bateko luzerakoa, gainerako mugikortasun-moduetatik berezia, 2,5 metroko zabalarekin eta ibilgailu motordunen galtzadarekiko 0,50 metroko tartearekin. Galtzada horretan kautxuzko zintarren bereizgailuak jarriko dira, Landabenerako irteerako noranzkoan zirkulazioko erreiaren eskuineko ertzetik igaroko den muga eta defentsa gisa.

Jaso ikastolaren inguruan eta bidegurutzeetan eta biribilguneetan trafikoa baretzeko jarduerak sartzen dira, bide-segurtasuna indartzeko. Miluze kalea, Ermitagaña kalea eta Barañainekiko muga elkartzen diren biribilgunean, bidegorria galtzadatik igarotzen da eta bizikleta pasabide berri bat sortzen da Jaso Ikastolaren ondoko oinezkoen pasabidearen ondoan. Bidegorriak biribilgunea inguratuko du, zabalera murriztuz, eta bi pasabide jarriko dira ibilgailuak Mendebaldeko disuasio-aparkalekura sartu eta irteteko. Tarte horren amaieran, geraleku aurreratu bat egingo da eskualdeko hiri-garraioaren geralekurako, dagoeneko toki horretan dagoena eta diseinu berrian mantenduko dena.

Esleipena Excavaciones Fermín Osés S.L. enpresari egin zitzaion, Iruñeko hirigintza taktikoko eta mugikortasuneko obren esparru-akordiotik eratorritako 22. kontratuaren bidez.

Iruñako irisgarritasun integraleko plan estrategikoa (2022-2026) idazteko prozesuaren hasiera

Tokiko Gobernu Batzarrak Suma Urban Sustainability Consultants eta Arbuniés eta Lekunberri Asociados enpresei esleitu zizkien lanak, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko, proposamenak eta jarduera-neurriak diseinatzeko, horiek gauzatzeko tresna eta metodologia egokiaren arabera, eta, azkenik, herritarrentzako komunikazio-sistemak kontuan hartuko dituen ezarpen-estrategia bat egiteko. Barne hartzen ditu bai zailtasun funtzional iraunkorrak dituzten pertsonen beharrak, bai bizitzako hainbat etapatan (zahartzaroa, haurtzaroa, amatasuna...) agertzen diren premia indibidualak, pertsona horiek erabat barne hartzeko, herritarrei epe luzera eremu horri buruz sentibilizatzeko komunikazio-neurriak emanez.

Bizikleten neurgailuak instalatzea

Bizikleten igarotzea erregistratzeko zazpi puntu dituen sistema, leku horietatik igarotzen diren ibilgailuen kopurua ezagutzeko aukera ematen duena. Horri esker, Iruñeko Udalak denborazko datuak izan ditzake ordu erdiko tartetan.

Edukiera-neurgailu horien kokalekuak honako hauek dira: Gipuzkoako etorbidea, Cuatrovientos zubian; Baiona etorbidea, Navas de Tolosa kalea; Gazteluaren itzulia, Miserikordia etxearen parean; eta Eguesibar kalea, Txantrea auzoan; bi erregistro-puntu, Pio XII etorbidean; bata, hiriaren irteerako noranzkoa, Nafarroa etorbidearekin gurutzatu aurretik; eta bigarrena, hirigunerantz, Gazteluko Itzulia kalearekiko bidegurutzearen parean.

Aforadoreak Anteral enpresa nafarrak hornitu zituen, zeinak Pamplona Smart Labs-en 2019an parte hartu zuen. Radar-aparatuak dira, eta erreia monitorizazio ez-inbaditzailea ahalbidetzen dute, bizikletak eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak zenbatuz, baldin eta bizikleta-erreitik doitasun handiz zirkulatzen badute. Farola-makuluetan instalatutako aparatuek radar-sistema, 3G eta 4G konektagarritasun-modulu bat eta datuak jasotzen eta prozesatzen dituen eta informazioa kudeatzeko plataforma batera iraultzen dituen kanpo-ordenagailua dituzte. Gauz kargatzen den bateria bat ere badute, argiteria publikoak tentsio elektrikoa duenean, eguneko 24 orduetan etenik gabe funtzionatu ahal izateko. Teknologia gai da abiadura positiboarekin (urrunduz) eta negatiboarekin (hurbilduz) mugitzen ari diren ibilgailuak detektatzeko. Horri esker, erreia bi noranzkoetan zirkulatzen ari diren bizikletak sar daitezke, bi norabidetakoa denean, eta bizikleta bat kontrako noranzkoan noiz doan detekta daiteke noranzko bakarreko erreia kasuan.

Bizikleten txandakako bi aparkaleku berri hornitzeko kontratua

Hiriko txandakako aparkalekuak kudeatzen dituen enpresaren enpresa emakidadunarekin izenpetutako hamargarren kontratuaren bidez txertatuko dira bizikletentzako bi aparkaleku berri, bakoitza 20 plazakoa, Takonera kalean eta Europa plazan. Next Generation EU Europar Batasuneko funtsen bidez finantzatua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren eta PSTD Pamplona SF365 proiektuaren esparruan. Proiektu horrek Kudeaketa Estrategikoaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Arloa kudeatzen du, kasu honetan Mugikortasunarekin lankidetzan.

“Hirigintza taktikoko”

2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hirigintza taktikoko obrak egiteko enpresak hautatzeko esparru-akordioaren hirugarren eta azken luzapena onartu da JOBen, hirian bizikletaz ibiltzen diren eta ohiko lizitazio-prozedura konbentzionalen bidez baino azkarrago ibiltzen diren pertsonen aldeko jarduketak gauzatzeko, eskala handiagoko obra zibila egiten duten esku-hartzeetarako. Akordio honen bidez egindako esku-hartzeen adibide dira Barañaingo etorbidea eraldatzeko obrak, Landabenekin bizikletaz lotzeko lanak eta Premín de Iruña bulebarraren jarraitutasuna eta Labriteko ardatz jasangarriko obrak, bizikleta-espaloiak seinalezatzeko lerroak ezabatzea, bizikleta-gurutzeak gorri pintatzea eta galtzadaren erdigunean indartzeko seinaleak jartzea 30. zonetan, jarduera



berritzaileak, hala nola Carmen Baroja Nessi kaleko oinezkoen pasabideak eraldatzeko jarduerak, Arrotxapean eta Ezkaban, Eunat BHLren inguruan, euri-lorategiak barne, hiri-drainatze iraunkorreko sistemetan oinarrituak, trafikoa baretzeko neurriak eta oinezkoen eta gidarien arteko ikusgarritasuna hobetzeko neurriak oinezkoen bidegurutzeetan..

Lurzoru publikoaren emakida bidezko Bizikleta Elektriko Partekatuaren Zerbitzuaren hasieraren urteko datuen laburpena

Otsailean jarri ziren martxan oraindik martxan zeuden 3 oinarriak, zerbitzua osatzeko: 42 geltoki eta herritarrek erabiltzeko 400 bizikleta.

Udal zerbitzu berri honek mugikortasun iraunkorra sustatzen du eta herritarrei garraiobide arin, eroso eta osasunarentzat eta ingurumenarentzat onuragarria eskaintzen die.

Urtearen amaieran, sistemak 43.000 alta baino gehiago zituen, milioi bat kilometro baino gehiago, eta erabiltzaileen balorazioa 5 puntutik 4,7koa zen. Urriko 3. astea izan zen unerik gorena: 17.769 bidaia eta 41.500 kilometro egin zituen.

2022an erregistratutako 470.126 bidaietatik % 88 distantzia laburrekoak ziren, 1 eta 5 kilometro artekoak, eta, kasuen % 50ean, joan-etorriak 4 eta 10 minutu artekoak ziren, eguneroko hiri-mugikortasunari lotutakoak (eguneroko joan-etorriak lanarengatik, ikasketengatik, etab.). Erabileren % 56 astegunetan eta egunez izan ziren: % 19 goizeko lehen orduan, % 20 eguerdian eta % 17 arratsaldean. Gaueko erabilera, 21:00etatik 06:00etara, % 16koa izan zen, eta asteburuetako erabilera, erregistratutako bidaia guztien % 28koa.

Sistemaren 42 oinarrietatik, 10ek bidaien % 37 izan zituzten. Erabileraren maiztasunari dagokionez, Gaiarre Antzokiaren oinarria gehien eskatzen zirenak izan ziren (% 6,2), ondoren Pio XII- Gotorlekua (% 4) eta Aduana Txokoa eta Anelier pasealekua (% 3,8 eta % 3,7, hurrenez hurren).

Erabilitako kalkulu-sistemaren arabera, bizikletaz egindako joan-etorriak eta auto pribatuan egindako joan-etorriak alderatzen dituen, pilatutako bizikletaz egindako hiri-kilometroek atmosferara 292 tona CO2 isurtzea saihestu dute, klima-aldaketa geldiarazten eta hiriaren karbono-aztarna hobetzen lagunduz. Kopuru horrek esan nahi du urte oso batean 52 pertsonari legokiokkeen aztarna ez sortzea, Iruñeko udalerriaren diagnostiko energetikotik abiatuta iruindar bakoitzari eta iruindar bakoitzari dagokion 5,6 t CO2 ratioaren arabera.

“Bizikleta Eskolan” programa, 2022-2023 ikasturtea (bigarren eta hirugarren hiruhilekoak) eta 2021-2022 ikasturtea (lehena)

Iruñean bizikletaren sustapenak estrategia integratu multzo bat biltzen du, eta horien artean nabarmentzekoak dira publiko desberdinei zuzendutako prestakuntza-estrategiak. Funtsezko taldea da gure hirian bizikletaz modu seguruan eta errespetuz ibiltzen ikas dezaketen haur nerabeena, modu praktikoan, espazioa eta bide publikoak erabiltzen dituzten gainerako pertsonenik.

“Bizikleta eskolan” hiriko ikastetxe guztiei eskaintzen zaie, Lehen Hezkuntzako azken zikloko eta DBHko lehen zikloko ikasleentzat. “Bikeability” metodologia ingelesean oinarritutako prestakuntza praktikoa da. Prestakuntza teorikoa, patioan bizikletaren gaineko trebetasuna hobetzeko prestakuntza praktikoa eta kalean ikasitako ezagutza teorikoak ingurune erreal, baina baketsu eta kontrolatu batean praktikan jartzeko prestakuntza praktikoa biltzen ditu. Helburua da Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 2. mailara bitarteko ikasleek hirian bizikletaz mugitzeko behar adinako segurtasuna eta trebetasuna lortzea eta helduaroan uzten ez duen mugikortasun osasungarriko ohitura hartzea.



Programa bi enpresaren bidez kudeatzen da: Iruziklo S. Coop. eta Cala y Pedal S. Coop. 2017an esleitutako eta gaur egun indarrean dagoen esparru-akordioaren bidez kontratatu ziren.

“Helduentzako Bizikleta Eskola” Programa2022

Iruñean bizikletaren sustapenak estrategia integratu multzo bat biltzen du, eta horien artean nabarmentzekoak dira publiko desberdinei zuzendutako prestakuntza-estrategiak. “Bizikleta eskolan” programaren bidez etorkizunerako hezteaz gain, garrantzitsua da orainerako hezteaz, pertsona helduek gaur egungo mugikortasun-ohiturak alda ditzaten eta bizikletaren aldeko apustua egin dezaten eguneroko joan-etorrietarako bitarteko gisa, modu seguruan eta gogobetegarrian. Ikastaroak talde txikietan eta mailaka antolatzen dira:

- 1. eta 2. mailak, hurrenez hurren, bizikletaz ibiltzen ikasi ez dutenei edo bide publikoan segurtasunez ibiltzeko nahikoa trebetasun ez dutenei zuzenduta. Oinarrizko ikaskuntza eskaintzen da kasu batean, eta trebetasunen errefortzua bestean, betiere zirkuitu itxian, kalera irten gabe, ondoren hirugarren mailako ikastaroa egiteko aukera ematen duten trebetasunak eskuratzeko. Bizikletari buruzko ezagutzak ere jasotzen dituzte, baita bizikleta egoera onean nola mantendu ere.
- 3. maila, trebetasun handiagoa lortzeko, zirkulazio-arauak ezagutzeko eta trafiko-baldintza normaletan konfiantza lortzeko aukera ematen duten praktikak egiteko hiri-ingurunean.

Izen-ematea gizonentzat eta emakumeentzat da, nahiz eta programa bereziki emakumeentzat izan den eta gehiago diren parte hartzen duten emakumeak.

Ikastaroak urteko hainbat garaitan eskaintzen dira eta 2022an maiatzean eta irailean antolatu dira (SEM-2022 Mugikortasunaren Europako Astea dela eta, programatutako jardueren barruan).

Las Poderosas taldeko emakumeekin txirrindulari prestakuntza

Txirrindularien prestakuntza espezifikoa, haien autonomia sustatzeko eta gizarteratzea bultzatzeko, Udalaren eta Gizakien Salerosketaren aurkako Ekintza Elkartearen arteko hitzarmen baten bidez.

Las Poderosas taldea hainbat nazionalitatetako emakumeek osatzen dute (Nigeria, Senegal, Maroko, Brasil, Errumania, Japonia, Espainia...), emakumeen eskubideak defendatzeko eta haiei eragiten dieten indarkeria guztiekin amaitzeko.

Prestakuntzak bi asteko iraupena izan du, 18 ordukoa guztira, astelehenetik ostegunera bi ordutan banatuta, eta San Pedro Ingurumen Hezkuntzako Museoan eta eraikinaren inguruan garatu da.

Ikastaro honek bere autonomia indibidualean lagundu du, eta bere inklusioa, ahalduntzea, ikusgarritasuna eta hiriko bizitzan parte hartzea sustatu ditu. Horrez gain, parte-hartzaileek harremanak izateko eta esperientziak trukatzeko aukera izan dute. Hori dela eta, ikastaroa, gainera, bizipen positiboa izan da guztiontzat, bizikletaz ikastetik haratago joan dena. Gainera, haur batzuk Museora joan dira ikastaroan parte hartu duten amekin batera, eta familia bateragarri egiteko zerbitzu batek artatu ditu.



2022ko Mugikortasunaren Europako Astea, “Konbinatu eta mugitu” goiburuarekin

2022ko Mugikortasunaren Europako Aste jasagarriak hainbat aukera konbinatzearen alde egin zuen, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta airearen kalitateari eusteko.

Hainbat jarduera programatu ziren: oinez eta bizikletaz, helduentzako bizikleta-eskola, mugikortasun elektrikoari buruzko jarduerak eta informazio- eta partaidetza-jardunaldi batzuk, eta asteari amaiera emateko eta 2021-22 ikasturteko “Bizikleta eskolan” programari amaiera emateko, 1.500 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten. Halaber, trizikloak pilotatzeko prestakuntza duten erakunde eta kolektiboek zuzendutako jarduerak, ibilaldi terapeutikoak trizikloetan eta Iruñeko mugikortasun elektrikoaren mahaia ere programatu ziren.

Oinezko jarduerak 3 izan ziren: oinez ibiltzea eta harresien, Iturrama auzoaren eta Nafarroako Unibertsitateko Campusaren, Mendebalde auzoaren eta Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Lorategiaren balioa eta sekretuak ezagutzea.

Bizikletaz egindako jarduerak honako hauek izan ziren: bizikleta elektrikoak ezagutzeko eta probatzeko gonbidapena, bizikleten doako azterketa Gaztelu plazan, bizikleta-sarean gidatutako zirkularra AMTS elkartearekin, eta Biciescuela helduen prestakuntza hiru mailatan: hastapena, trebetasuna eta zirkulazioa.

Mugikortasun elektrikoari buruzko jarduerak, ibilgailu elektrikoak ezagutzeko, Ibilgailu Elektrikoaren Erabiltzaileen Elkartearekin (AUVE) eta VILALTA Green Energy udalaren karga-puntuaren sarearen enpresa emakidadunarekin lankidetzan.

Jardunaldi informatibo eta parte-hartzaileak, Iruñeko Udalaren bi proiektu bertatik bertara ezagutzeko: hiriko Emisio Baxuko Gunearen proiektua eta Irisgarritasun Integraleko Plan Estrategikoa.

Bizikletaz egindako ibilaldi gidatuak, AMTSrekin lankidetzan, bizikleta-azpiegitura ezagutzeko

Udalak bizikletaz egindako ibilaldi gidatuak antolatu zituen hirian barrena irailaren 17an (larunbata) eta 18an (igandea), Iruñeko bizikleta azpiegitura urritik lau asteburutan zeharkatuz. Pasealekuak Gazteluko plazan hasi ziren, Diputazio Jauregiaren ondoan, larunbat goizetan, AMTS elkartearekin (Garraiobide Osasungarriak elkarteak) lankidetzan, Jesús Sukuntzak gidatuta. 2 ibilbideen ibilbidea: Iparraldetik eta Iruñeko bizikleta-sarearen hegoadetik eta mendebaldetik.

Amaiur Ikastolan “Eskola Bidea” proiektua babesten jarraitzea

Iruñeko Udalak, hirian mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekintzen barruan, ikastetxeen sare bat sortzea bultzatzen du, 2021ean Amaiur ikastolarekin hasitako “Eskola bide osasungarri eta segurua” dituen. Lanak jarraipena eman dio aurreko ikasturtean, irailaz geroztik, hasitako esperientziari.

Ekimen horrek ikasleen autonomia eta ohitura osasungarriak sustatzen ditu, eta, aldi berean, ibilgailu motordunetan egiten diren joan-etorriak eta horiek sortzen duten arriskua murrizten ditu, batez ere ikastetxeetarako sarreretan eta irteeretan.

Bi ibilbide: Bata San Juan auzotik abiatzen da eta bestea Iturrama auzotik. Segurtasuna eta ibiltzeko espazio atsegin baten bilaketa batzen dituzte, eta ikastetxera ibilbide zuzen bat egiten dute. Ibilbide bakoitzak hogeita minutu baino gutxiago irauten du, eta tarteko puntu batean ikasle gehiago sartzen dira. Familia laguntzaileak WhatsApeko taldeen bidez antolatu ziren, eta ikastetxeko zuzendaritzarekin eta irakasleekin elkarlanean aritu dira.

Adineko pertsonentzako ibilaldia triziklo egokituetan

EBSE (En Bici Sin Edad) programak 2017an izan zuen aurrekaria Iruñeko Udalean, eta Corellako kirolarien eta haien yayacleten arteko lankidetzaz hitzarmenarekin itzuli zen, hirugarren adineko pertsonen paseoak emateko, Iruñeko 4 egoitzetatik abiatuta, ingurune naturaletan, parkeetan. Eskuragarri dauden 2 trizikloei esker, ibilaldi terapeutikoak egin daitezke, bidaia bakoitzean egoitzetako adinekoekin 4 pertsona eramanez, galdutako mugikortasunaren zati bat itzuliz eta hiriko egunerokoan integratzea sustatuz. 2012an Danimarkan (Cycling without Age, ingelesez) jaio zen "Adinik gabeko bizikletan" izeneko ekimena nazioarteko mugimendu bihurtu da.

Ibilaldi saioen aurretik, prestakuntza teorikoa eman zen Kondestablen, eta praktikak Iruñeko Takonera parkean. Parte hartu zuten egoitzak Amavir Argaray, La Misericordia, Amavir Oblatas eta El Vergel izan ziren.

Bizikleten eskulturen instalazioa Karlos III .a etorbidean

Iruñeko Udalak, mugikortasuna sustatzeko ekintzen barruan, "Hamar bizikleta" konposizio eskultorikoa inauguratu zuen ekainean. Carlos III .a "Bizikletak" etorbidean jarritako konposizio eskultorikoa 10 bizikleta dira, altzairu herdoilgaitzez eginak, eskala errealean, garraiobide horren edertasuna ez ezik aniztasuna ere transmititzeko: Hamar bat bizikleta mota, batez ere hiri-irudia duena, ikusleari garraiobide horren irudia eskaintzeko, ez bakarrik elementu erabilgarria, ingurumenekoa eta sozialki iraunkorra, baizik eta, gainera, objektu eder gisa, eta erabiltzen duten pertsonen balioa ematen diena.

2.9.4. JASANGARRITASUNA

IRUÑEKO UDALEKO ENERGIA-AGENTZIA

2022an zehar, Agentziak egin duen garapenik garrantzitsuenak izan da 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia bururaino prestatu eta haren onespenez lantzea (ETEYCC20230). 2021eko irailaren 09ko osoko bilkurak onetsi zuen.

Bi jarduketa-ildo operatibo azpimarratzen ahal ditugu 2020an zehar, datozen urteetan ere segida izanen dutenak: jarduketa-ildo nagusi bat, **estrategikoa eta hura garatzeko jarduerak** eta, bestetik, eta aurrekoarekin erabat lerrokatua, **hirian banatutako sorkuntza berriztagarria**.

Eta hori dena egin da beste zenbait esparrutan garatzen ari zen jarduna eten gabe: hortaz, segitu dute energiari buruzko barne aholkularitza eta herritarrendako aholkularitza ematen, eta parte hartzen, hala europako proiektuetan nola jendea sentsibilizatzeko hainbat ekitaldi eta jardunalditan; baina beti erabateko koherentzia 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiarekin.

Jarduera hori egiteko, Agentzian 498.052,48 euroko aurrekontua bete da (aurrekontuetan jasotako 532.435,18 €-ren aldean). Diru-sarrerak, bestalde, 356.055,88 € izan dira; aurrekontuetako diru-sarreraren aurreikuspena, berriz, 220.000,00 € zen. Udalaren instalazio fotovoltaiakoek (FV) sortutako energiaren salmentak eragin du igoera, bai eta modalitate honetan legeztatutako FV instalazioetan zuzeneko autokontsumoen bidez aurreztutako energiak, Europako proiektuek emandako finantzazioak eta espazio publikoa ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturarako lagatzeko kanonak erakarritako diru-sarrerek ere.

ENERGIA-TRANTSIZIORAKO ESTRATEGIA

2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia onetsi ondoren (2021eko irailaren 9ko osoko bilkuran onetsia), ahal izan diren ildoak ezartzen jarraitu dute:

UDALAREN ENERGIA-KUDEAKETA


Funtsezkoa da udalaren energia-eskariari buruzko ikuspegi holistikoa izatea. Hori dela eta, Agentziak jarraipena eman dio 2019an hasitako lanari, hau da, datuak bildu ditu eta behar diren bitartekoak garatzen saiatu da eskariaren jarraipen egokia egiteko.

Hona hemen Udalaren 2021eko energia-eskariaren datuak:


1. Taula. Energia Eskariaren inpaktuak eta Iruñeko Udalaren kostua

			2021		
Energia			Balioa (€)		
GAS NATURALA	28.512.912 (kWh)	% 50,11	3.454.028 €	% 35,33	0,121 €/kWh
ELEKTRIZITATEA	25.140.446 (kWh)	%44,18	6.000.963 €	%61,39	0,239 €/kWh
BIOMASA	875.659 (kWh)	%1,54	55.427 €	%0,57	0,063 €/kWh
GASOLIOA	1.101.233 (kWh)	%1,94	108.528 €	%1,11	0,099 €/kWh
IBILGAILU-PARKEA	1.270.669 (kWh)	%2,23	156.833 €	%1,60	0,123 €/kWh
	56.900.919 (kWh)	%100	9.775.779 €	%100	

2. Ilustrazioa. Udalaren energia-eskaria (kWh)



3. Ilustrazioa. Udalaren energia-eskaria (€)




Udalak, besteak beste, energia-kontrol eta kudeaketako tresna hauek ditu behar horiek asetzeko:

- Arelsa, Argiteria Publikoaren kontrola
- TREND Energy Manager, eraikinetarako
- Eguzkiko instalazio fotovoltaikoak, inbertsore fabrikatzaileen teknologiarekin

Eta Agentziak lanean jarraitu du 2022. urtean iturri horiek guztiak Energia Kudeaketako goi-geruza batean batzeko, bertan konpainia elektrikoaren kontagailu fiskalak ere txertatuta; horrela, Hiria Plataforma sortzeko lehen urratsak eman dira. Hura tresna garrantzitsuenetako bat izanen baita Iruña benetako Smart City bilakatu dadin.

4. Ilustrazioa. Hiria Plataformaren garapenaren eredia – Autokontsumoko instalazioak




5. Ilustrazioa. Hiria Plataformaren garapenaren eredia – Eraikinetako elektrizitate-eskaria



2022an, halaber, jarraipena eman zaio EnerAgen eta Red Eléctrica Españarekin lan egiteari software bat egiteko eta, ahren bidez, hiriko datu elektriko guztiak eskuratzeko, hala barnekoak nola hiriko kontsumitzaile guztien datu estatistikoak.

6. Ilustrazioa. DataHubApp garapen eredua ENERAGEN eta REEkin




BILAKAERA HISTORIKOA ETA COVID-19


Azterketa historikoan, energia-eskaria murriztu egin da, COVID-19aren ondorioz erabilera batzuk murrizteak eta konfinamenduak eragindako geldialdiaren ondorioz. 2021ean, ordea, azkar berreskuratu da eta, batez ere, energia-prezioen igoera nabarmena gertatu da.

Ondoren, joerak ageri dira, dela eskarian (kWh) goranzko joerarekin (2020ean izan ezik), dela kostuan (€).

7. Ilustrazioa. eskariaren bilakaera, energia-iturrien arabera (kWh)



8. Ilustrazioa. Eskariaren bilakaera, energia-iturrien arabera (€)



HIRIKO ENERGIA-BALANTZEA

2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiak azaltzen du oso garrantzitsua dela hiriko energia-datuen eta isurien jarraipen egitea. Hona hemen azken urtekoak:

2021 (kWh)		Azken kontsumoa	Industria	Garraioa	Administrazioa eta Gizarte Zerbitzuak	Etxebizitza	Merkataritza eta zerbitzuak	Bestelako erabilerak
Ikatza	Kokeria-kokea	15.247.438	15.247.438	-	-	-	-	-
	GLP	45.375.124	1.667.170	327.342	-	37.555.902	5.787.922	36.788
	Gasolina	312.437.507	-	312.011.444	426.063	-	-	-
	Gasolia	2.036.042.008	26.864.348	1.950.286.051	11.249.949	45.657.055	111.413	1.873.192
	Fuel-olioa	3.988.125	3.988.125	-	-	-	-	-
Petrolio-produktuak	Petrolio-kokea	45.395.872	45.395.872	-	-	-	-	-
	Gas naturala	1.195.788.886	243.179.430	6.294.996	71.549.392	711.022.774	163.710.571	31.723
	Eguzki-energia termikoa	8.399.916	-	-	3.208.652	5.191.264	-	17
	Geotermia	2.582.811	-	-	2.582.811	-	-	-
	Biomasa	43.388.405	17.602.161	-	2.022.184	23.764.059	-	-
Energia berriztagarriak	Biogasa	-	-	-	-	-	-	-
	Bioerregaiak	122.885.147	-	122.885.147	-	-	-	-
	Energia elektrikoa	625.485.243	107.326.014	1.432.540	70.443.655	219.714.274	226.002.739	566.022
	Guztira (kWh)	4.457.016.498	461.270.557	2.393.237.520	161.482.706	1.042.905.328	395.612.645	2.507.742

2021 (Tn CO2)		Azken kontsumoa	Industria	Garraioa	Administrazioa eta GZ	Etxebizitza	Merkataritza eta zerbitzuak	Bestelako erabilerak
Ikatza	Kokeria-kokea	5.471	5.471	-	-	-	-	-
Petrolio- produktuak	GLP	10.318	379	76	-	8.539	1.316	8
	Gasolina	81.331	-	81.220	111	-	-	-
	Gasolia	552.057	7.191	529.103	3.011	12.221	30	501
	Fuel-olioa	1.115	1.115	-	-	-	-	-
	Petrolio-kokea	15.975	15.975	-	-	-	-	-
Gas naturala	Gas naturala	241.867	49.187	1.273	14.472	143.815	33.113	6
Energia berriztagarriak	Eguzki-energia termikoa	185	-	-	71	114	-	0
	Geotermia	116	-	-	116	-	-	-
	Biomasa	781	317	-	36	428	-	-
	Biogasa	-	-	-	-	-	-	-
	Bioerregaiak	31.719	-	31.719	-	-	-	-
Energia elektrikoa	Energia elektrikoa	85.066	14.596	195	9.580	29.881	30.736	77
Guztira (tn CO2)	Guztira (tn CO2)	1.026.002	94.231	643.587	27.398	194.998	65.195	593

2021 (kWh)		Azken kontsumoa	Industria	Garraioa	Administrazioa eta GZ	Etxebizitza	Merkataritza eta zerbitzuak	Bestelako erabilerak
Ikatza	Kokeria-kokea	602.269	602.269	-	-	-	-	-
Petrolio- produktuak	GLP	4.678.422	171.894	33.751	-	3.872.218	596.766	3.793
	Gasolina	47.798.646	-	47.733.464	65.182	-	-	-
	Gasolia	253.059.300	1.772.400	246.613.028	898.093	3.644.843	7.351	123.586
	Fuel-olioa	163.842	163.842	-	-	-	-	-
	Petrolio-kokea	7.805.342	7.805.342	-	-	-	-	-
Gas naturala	Gas naturala	65.277.062	8.393.338	262.899	2.469.527	48.882.816	5.267.388	1.095
Energia berri- ztagarriak	Eguzki-energia termikoa	-	-	-	-	-	-	-
	Geotermia	-	-	-	-	-	-	-
	Biomasa	1.958.197	525.441	-	122.747	1.310.010	-	-
	Biogasa	-	-	-	-	-	-	-
	Bioerregaiak	29.498.813	-	29.498.813	-	-	-	-
Energia elektrikoa	Energia elektrikoa	91.864.324	12.014.613	192.404	9.461.289	44.832.773	25.299.881	63.363
Guztira*	Guztira*	502.706.217	31.449.139	324.334.359	13.016.838	102.542.659	31.171.386	191.837



2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiarako diagnosis argitaratu zenetik, Agentziak hiriko energia-balantzea garatzen du urtero, hiriko energia-eskariak energian, ingurumenean eta ekonomian duen eragina ebaluatzeko.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK


UDAL-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK

Iruñeko Udaleko Energia Agentziak udal-eraikinetako instalazioen jarraipen teknikoa egiten du hilero, funtzionamendu egokia dutela ziurtatzeko. Jarraipena egitean, mantentze-lan batzuk egiten dira, akatsak eta matxurak konpontzeko inbertsoreetan, panel didaktikoetan, fusible-kutxetan edo panel fotovoltaikoetan. Aurtengo gorabehera bakarrik instalazioen kontrolak sortu ditu, bai eta Mendillorriko 3 kW-ko inbertsore bat aldatu behar izateak ere.

Aurten, berriz ere handitu da instalatutako udal-potentzia fotovoltaikoa, oraingoan bi instalazio berritzailereren bidez: batetik, autokontsumo partekatua Mendillorri eta, bestetik, aurrez zegoen pergolaren aprobetxamendua esparru publiko batean energia fotovoltaikoa sortzeko.

2022 honetan, Iruñeko Udalak % 34 handitu du bere instalazioetako potentzia fotovoltaiko instalatua, eta 545 kW-tik 732 kW-ra pasatu da potentzia instalatuan 34 instalaziotan.

9. Ilustrazioa. FV potentzia udal instalazioetan



2001etik, kontratazio-modalitate honekin edo harekin, legeztatu diren 36 instalazio horiei esker, zuzenean, saltzen da energia merkatu elektrikoan, energia berriztagarriendako hobariekin edo gabe, eta bestetik, zuzenean murrizten da udal faktura autokontsumorako modalitateen bidez. Gainera, aldaketak egiten joan gara gure instalazioetako aldagai ekonomikoa optimizatzeke.

2. Taula. Udal instalazioetako datuak

Modalitatea	Potentzia		Unitatea	
SALMENTA PRIMATU	114 kWn	% 16	21	% 58
MERKATURAKO SALMENTA	3,3 kWn	% 1	1	% 3
AUTOKONTSUMOA KONPENTSAZIOA	611 kWn	% 83	14	% 39
AUTOKONTSUMOA SOBERAKINIK GABE	0 kWn	% 0	0	% 0

Instalazio horiek 494.772 kWh-ko energia sortu dute 2022an zehar (kontuan harturik instalatu diren azkenek ez dute urte osoan jardun).

Sorkuntza horrek diru-sarrera handia eragiteaz gain, udal horniduren energia-fakturen kostuak nabarmen murriztu ditu. Izan ere, sarera saltzen da, hala hobaria jasotzen duten instalazioetan nola jasotzen ez dituztenetan, eta horrek 66.114,03 €-ko diru-sarrera ekarri dio udal-kutxari.

Bestalde, autokontsumorako instalazioek 168.573,62 € inguruko aurrezkoa eragin dute elektrizitatearen fakturretan, zuzenean autokontsumitu den energiari esker, hau da, instalazioek sortutako energiaren % 90 baino gehiago eta, hein batean, soberako energiaren konpentsazioagatik. Energiak 2022 guztian prezio handi-handia izateak eragin du hori.

Termino ekonomikoetan, honako balio hauek ditugu (denak zergarik gabe):

Sarera saldutako energia hobadiruna = 0,44 € / kWh inguru.

ISF PREFO 2022	142.794(kWh)	63.343€	0.4436€/kWh	BEHIN-BEHINEKOA
ISF PREFO 2021	134.706 (kWh)	59.907 €	0,4447 (kWh)	BEHIN-BEHINEKOA
ISF PREFO 2020	139.814 (kWh)	54.641€	0,3908 (kWh)	BEHIN-BEHINEKOA
ISF PREFO 2019	156.506 (kWh)	59.715 €	0,3816 (kWh)	BEHIN BETIKOA
ISF PREFO 2018	143.788 (kWh)	58.953 €	0,4094 (kWh)	BEHIN BETIKOA
ISF PREFO 2017	157.949 (kWh)	60.176 €	0,3798 (kWh)	BEHIN BETIKOA
ISF PREFO 2016	141.336 (kWh)	59.940 €	0,4234 €/kWh	BEHIN BETIKOA

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ERABILTZEN DITUZTEN UDAL-INSTALAZIOAK


Eguzki-energiaren bestelako erabilerak sustatze aldera, Iruñeko Udalak eguzki-instalazio batzuk sustatu ditu ur bero sanitarioa (UBS) berotzeko, baina ez da instalazio berririk izan 2022an. Eguzki-instalazio termikoak bereziki dira eraginkorrak kiroldegietan ekonomiaren ikuspuntutik eta erregea aurrezten dute ur beroa sortzeko.

Beste mota bateko energia berriztagarriak sustatze aldera, Iruñeko Udalak biomasako 4 instalazio ditu Sanduzelaiko kirol-hiriaren (Aquavox), Buztintxuri Haur Eskolaren, Milagrosako apartamentu babestuen eta Trinitariosko harrera-zentroaren klimatizaziorako.

LAGUNTZAK AUTOKONTSUMOKO INSTALAZIOETARAKO


Bere instalazioez gain, Udalak autokontsumoaren garapena sustatu du bere laguntza-lerroaren bidez; lagundu du, beraz, horrelako instalazioek 2022an izan duten aurrerapen argian. 2018tik 40.000 € eman ditu urtero eta, 2022 honetan, eskura diren laguntzen % 80 eman dira.

11. Ilustrazioa. Laguntzak autokontsumoko instalazioetarako, eskura daudenak eta emandakoak




Orain arte emandako laguntzek (120.295 €) 603.041 €-ko inbertsio pribatua eragin dute hirian; hau da, halako 5 inguru.

12. Ilustrazioa. Emandako laguntzen eta eragindako inbertsioaren arteko lotura



Lehen urteotan diruz lagundutako instalazioak banakako instalazioak ezartzeko aukera duten auzoetan banatu dira, hau da, familiabakarreko etxebizitzetan eta/edo altuera apalekoetan. Gehienak Txantrean eta Mendillorri-Erripagañan. 2002 honetan, ordea, auzo motak nabarmen aldatu dira eta autokontsumo partekatuko instalazio ugari agertu dira.

Ilustrazioa 13 laguntzen banaketa auzoz auzo



UDAL ORDENANTZA BERRIA

2022an zehar, bi pauso garrantzitsu eman dira sorkuntza berriztagarriko instalazio ugari hirian ezartzea errazteko, Agentziak araudi-garapena landu baitu, bai eta hobarien aplikazioaren gauzapena ere:

- Obra-lizentzia lortzeko betebeharra ezabatzea. Gaur egun, zilegi da autokontsumorako instalazioak garatzea, obra-lizentziaren ebazpenaren zain egon behar izan gabe.
- Lizentzia-kostuak murriztea. Hala gauzatzen den unean, lizentzia-kostuak % 95 murriztuz, nola etxeko ondasun higiezinaren gaineko zerga % 50era arte murriztuz. Horra hor horrelako instalazioak garatzeko ematen diren abantaila ekonomikoak.

HIRIKO ENERGIA-KOMUNITATEAK

2022an zehar, 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia ezartzen jarraitu da. Lan handia egin da zehazteko nola garatu hiriko energia berriztagarriak olde handian. Horretarako, tresna gakoetako bat energia-komunitateak izanen dira. Ildo horretan, ikuspegi estrategiko batetik lan egin da, Europako European City Facility proiektua eta Open Lab (H2020) ekimena garatuta, bai eta, LIFE programari dagokionez, guk parte hartutako proposamenak ere.

Ikuspegi estrategiko hori osatzen aldera, Mendillorri auzoan sortutako energia-mankomunitatean jarraitu dugu lanean:

Halaber, lehen pausoak eman dira Udalak Arrotxapea auzoan sustatutako energia-komunitatean, Open Lab (H2020) proiektua mintegitza hartuta. Helburua da energia-komunitate bat sortzea Iruñeko auzo bakoitzean.

BESTE BATZUK

Mugikortasun zerbitzuarekin batera, espazio publikoa lagatzeko pleguak landu ditugu, bertan sorkuntza fotovoltaiakoko planta bat jartzeko. Hasieran, Trinitarios pentsatu zen, baina azkenean Arrotxapeko Cardenal Ilundain ikastetxearen ondoko disuasio-aparkalekuan garatu da lana.

2022an zehar, lizitazio-prozesua garatu eta SUNSTROON enpresari esleitu zitzaion.


MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA

2021etik hona, Mugikortasun Zerbitzuarekin elkarlanean, lanean aritu gara udal guneak lagatzeko, karga azkarreko eta erdi azkarreko 20 gune ezarri eta kudeatzeko, bai eta udal jabetzako beste 3 kargagune ere.

2022 hasieran, VILALTA emakidunaren 20 kargaguneak ezarri dira, eta jarraipen eta kontrol lanak egin dira kontratua betetzen den eta emakidan ezarritako kanona fakturatzen den jakiteko. 3 udal kargaguneez gain, beste bat jarri zen Herriarren Segurtasunerako eraikinaren ondoan, Udaltzaingoaren ibilgailu elektrikoak kargatzeko.

Honako grafiko honetan, 2022ko abendura arte izandako kargen bilakaera ageri da hilez hil:

18. Ilustrazioa. Ibilgailu elektrikoen kargen bilakaera Iruñeko Udalaren kargaguneetan



19. Ilustrazioa. Kargaguneen zerrenda, Iruñeko Udalaren emakida eta jabetza

Izena	Kudeatzailea	Potentzia (kW)
620 - Iruña - PDR004_AUTOBUSAK_R	Iruña	72
628 - Iruña - PDR006_IP_BUZTINTXURI_SR	Iruña	44
629 - Iruña - PDR005_CVX_SANDUZELAI_SR	Iruña	44
838 - Iruña - PDR011 - OSPITALEAK_R	Pamplona EVcharge	72
839 - Iruña - PDR012 - OSPITALEAK_SR	Pamplona EVcharge	44
842 - Iruña - PDR007 - EZKABA_R	Pamplona EVcharge	72
843 - Iruña - PDR018 - PAULINO CABALLERO_SR	Pamplona EVcharge	44
847 - Iruña - PDR008 - VILAFRANCA_SR	Pamplona EVcharge	44
848 - Iruña - PDR009 - ERRIPAGAÑA_R	Pamplona EVcharge	72
849 - Iruña - PDR010 - SADAR_R	Pamplona EVcharge	72
850 - Iruña - PDR013 - OLIVA MONASTERIOA_R	Pamplona EVcharge	72
851 - Iruña - PDR014 - OLIVA MONASTERIOA_SR	Pamplona EVcharge	44
852 - Iruña - PDR015 - RENFE_R	Pamplona EVcharge	72



853 - Iruña - PDR016 – RENFE_SR	Pamplona EVcharge	44
854 - Iruña - PDR017 – NAFARROAKO BLANKA_SR	Pamplona EVcharge	44
855 - Iruña - PDR019 – GALIZIA ETORB._SR Der	Pamplona EVcharge	44
856 - Iruña - PDR020 – GALIZIA ETORB._SR Izq	Pamplona EVcharge	44
857 - Iruña - PDR021 – ENEKO ARITZA_SR	Pamplona EVcharge	44
858 - Iruña - PDR022 – ANELIER PASEALEKUA_SR Der	Pamplona EVcharge	44
859 - Iruña - PDR023 – ANELIER PASALEKUA_SR Izq	Pamplona EVcharge	44
6088 - Iruña - PDR001 - ERMITAGAN_A_SR	Pamplona EVcharge	44
6089 - Iruña - PDR002 - SAN IGNAZIO_SR	Pamplona EVcharge	44
6090 - Iruña - PDR003 - EZKIROTZ_SR	Pamplona EVcharge	44

AHOLKULARITZA / SENTSIBILIZAZIOA

BARNERA BEGIRA

2022an zehar, jarduera horiek eboluzionatzen joan dira, **energiaren udal kudeaketa integrala** izan dadin. Iruñeko Udaleko Energia Agentziak energiaren arloan gehien inplikaturik dauden uda alorrekin dihardu lankidetzan, eta, ahal den neurrian, alor, erakunde autonomo eta udal-enpresei laguntzen die energia-gaietan.

ENERGIA MAHAIA

2022an ere mahaia geldirik egon da, Hiri Kontserbazioko alorrak jarraipenik eman ez diolako. Hiri Kontserbazioko, Argiteriako, Eraikinetako eta Agentziako zerbitzuen arteko barne-mahai teknikoa eta zeharkakoa da. Funtsezkotzat jotzen da udalaren eraginkortasun energetikorantz jotzeko eta hornidura publikoen eraginkortasuna hobetzeko.

Helburua bateratze-lanak egitea da, egiten ari diren lanak, xedeak eta sor daitezkeen eragozpenak partekatzeak. Asmoa da, baita ere, ikuspuntuak eta ezagutzak partekatzea, zerbitzuen arteko elkarrekin egoki denean sustatzea, halako moduz non udal-administrazioaren koordinazioa eta eraginkortasuna hobetuko baitira Energia kudeatu eta planifikatzeko.

ENERGIA-AZTERLANAK ETA AHOLKULARITZA

Energia-azterlanek helburu dute, batetik, instalazioaren ekiporik adierazgarrien egoera zein den eta zer kontsumitzen duten jakitea, eta, bestetik, lortzea energia-kontsumoa izan dadila jardueraren premiak betetzeko behar den txikiena, horrela ere CO₂ isuriak zein kostu operatiboak murriztuko baitira.

Esan beharra dago lan-esparru horren parte batez behintzat “Udal-eraikinen mantentze-lanak eta energia-zerbitzuak” izeneko kontratua arduratzen dela (Hiri Kontserbazioaren kontrolpean), eta U.T.E EULEN-ODF enpresak ematen duela zerbitzu hori. Horrenbestez, energia-azterlanak edo haiei lotutako beste edozein argibide, zerbitzu horren bidez ere eskuratu daitezke.

2022an, honako entitate eta lan hauekin aritu gara lankidetzan:

- **Gayarre Antzokia** Energia elektrikoa kontratatzeak aholkularitza, eta aldaketa kontratu-baldintzetan.
- **Comiruna**. Horniduren kontratu-baldintzak berrikustea.



- **Kirolak.** Instalazioen analisia eta berariazko aholkularitza proposamen jakin batzuetan:
 - ESE auditoria.
 - Enpresa hornitzaileen, mantentzaileen eta energia-zerbitzu berrien plegua.
 - Aurrezki Analisiak ESE 202020.
- **Gizarte Ekintza.** Pobrezia energetikoaren inguruan aholkularitza-lana eginez hasi ginen eta analisi-proposamen bat landu da praktiketako ikasle batekin Informazio Energetikorako Guneak garatzeko.
- **Mugikortasuna.** Udal eraikinei lotutako kargaguneen azpiegitura abian jarri eta kudeatzea.
- **Bulego Estrategikoa.** Europako proiektu onetsiak kudeatzen laguntzea eta proposamen berriak zehaztea, hala nola LIFE programari lotutakoak.
- **Proiektu Estrategikoak** Exekuzio-proiektuen erredakzioan aritzea, zero energia-kontsumoaren, berriztagarriak txertatzearen eta energia-kudeaketaren ikuspuntutik abiatuta; Buztintxuriko kiroldegia eta Zabalguneko Civivoxa egiteko proiektuak idatzi ziren, eta are, esleitu ere egin ziren, eta haien idazketan ere eman zen aholkularitza.
- **Hirigintza Gerentzia.** Hornidura elektrikoa optimizatzea: tarifei buruzko aholkularitza, kontratazioa eta kontsumoa optimizatzea kondentsadoreen baterien bidez.
 - Aurten ere ekarpenak egin zaizkio Milagrosako HJPBri.
- **Turismoa.** SF360 proposamenaren idazketan lagundu da NGEUtik datozen funtsak eskatzeko.
- **Kultura.** Aktiboki parte hartu da Ekitaldi Jasangarriak Iruñean garatzeko proiektuan, Ziadela Jasangarria proiektu pilotuaren bidez.
- **Mercalruña.** Erakundeari analisia egiten eta proposamenak zehazten lagundu zaio, instalazioetan autokontsumorako tresneria garatzeko, baita ibilgailu elektrikoa kargatzeko guneak ere.

TOKIKO AGENDA 21

Ohikoa izaten ari denez, bi alorrak elkarrekin egiten ari diren lana funtsezkoa da eta, 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiaren bidez, aukera ematen du halako ikuspegi bat izateko Klima Aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko, bai udalerako, bai hiri osorako.

Aurten, gainera, berezko kartelak egin dira Hiriko Drainatze Sistematarako.

LAGUNTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA

Energia Agentziak energia-esparruaz bezainbatean dituen ezagutzez baliatuta, laguntzak kudeatzen ditu, hala bereak nola beste udal-alorrenak, eskualde zein estatu mailetan eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak lortze aldera.

KANPORA BEGIRA


Iruñeko Udaleko Energia Agentzia erreferentziazko aholku-emailea da hiriko herritarrentzat eta enpresentzat. Hortaz, halako kontsultak jasotzen ditu.

HERRITARRENDAKO AHOLKULARITZA

Energia Agentziak jendaurreko lana egiten du lanegunetan, 08:30etik 14:30era. Hona, jarraian, Zerbitzuan, 2022. urtean, jasotako kontsultei dagozkien datu nagusiak, baldintza ezberdinen arabera sailkatuta:


Kontsulta egiten dutenen profila. Kontsulten % 60 baino gehiago partikularrek egiten dituzte -gizonek- (% 30), eta gainerako % 30, enpresek.

20. Ilustrazioa. Kontsulta egiten duten agenteen profila (gizon-emakumeak) partikularren kontsultak dira.



Kontsulta mota. Kontsulten erdia baino gehiago autokontsumorako laguntzen argitalpenaren karira egin dira, bai eta estatuko eta/edo eskualdeko beste laguntza batzuen inguruan ere. Garrantziaren arabera hurrengo gaia (oso lotuta aurrekoarekin) energia berriztagarriek hirian duten aukeren ingurukoa izan da.

21. Ilustrazioa. Kontsulta motak





HERRITARRENDAKO LANTEGIAK

Urtearen azken aldean, eta etxeetako energia-faktura noraino garestitu den ikusirik, herritarrendako hezkuntza- eta sentsibilizazio-lantegiak egin ziren.

Lantegietan gai hauek landu ziren:

- Azalpen erraza etxeetan kontsumitzen ditugun energia motei buruz eta haiek ingurumenean, herritarrengan eta ekonomian duten eraginari buruz. Etxeetako energia-kontsumo termikoaren/elektrikoaren batez bestekoa.
- Gas faktura: Fakturaren deskribapena eta kontratazio-aukerak, azken baliabidea eta bonu termikoa.
- Faktura elektrikoa: 2.0 TD tarifar potentzia eta energia terminoak deskribatzea. Kontratazio-aukerak: PVPC, kooperatibak eta merkatu libreko merkaturatzaileak. IDE Distribución plataformaren deskribapena.
- Bonu sozial termikoa eta elektrikoa. Zer da? Non lagunduko didate?
- Etxean energia aurreztea: Irudien bidez, aurrezteko adibide errazak erakusten dira, hala nola: isolamenduen garrantzia, aire-infiltrazioak ezabatzea, konfort-tenperaturak, erradiadoreetarako islagailuak, toldoen eta pertsianen erabilera, eguzki-kontrolerako xaflak beiretan paratzeko, argiztapena, etxetresna elektrikoek etiketa energetiko berria, deskonexio-blokeak, etab.
- Ahalduntze energetikoa: Nola aurreztu autokontsumoarekin eta izan buruaskiagoa? Zer laguntza daude? Nola partekatu blokeko etxebizitzekin? Zer dira komunitate energetikoak eta nondik hasiko gara?

3 lantegi egin dira hiriko auzo guztietan, 40 bat parte-hartzailerekin.

HIRIEN EDO ERAKUNDEEN ENERGIA-SAREAK

Energia Agentziak hirien zenbait saretan parte hartzen du hala nazioan nola nazioartean, eta esperientziak, proiektuak, kezkak eta premiak partekatzen ditu haiekin. Honako sare hauekin izan du harremana eta haiekin jardun 2022. urtean zehar:

ENERAGEN. <http://www.eneragen.org/es/>

Iruñeko Udala EnerAgen Sareko (Espainiako Energia Agentzien Elkartea) bazkidea da, 2003. urtetik.

EnerAgen sariak. Udala elkarlanean aritu da sarean EnerAgen sariak hedatzen eta haietarako hautagaitzak hautatzen.

Lan taldeak

Agentzia aktiboki ari da Elkartearen bi lantalde hauekin elkarlanean:

- Autokontsumoa. Webgunea garatzeko ardura dauka: Ministerioari ekarpenak eta proposamenak egiten dizkio, autokontsumoaren garapena hobetzeko eta bitartekari aritzeko hala berrikuntzen gainean lehen eskuko informazioa jasotzeko nola Estatuan gure kezkak helarazteko.
- Energia-horniduren digitalizazioa eta kudeaketa. Lan taldeka hiru helburu ditu: (1) Energia-merkatua (gasa eta elektrizitatea) eta kontratazio-ereduak eta -prozedurak hobeki ezagutzea; (2) Administrazio Publikoek kudeatzen dituzten energia-hornidurako guneen gaineko informazio teknikoak modu digital, arin eta errazean ematea; (3) Jardunbide egokiak eta kasu arrakastatsuek identifikatzea eta haien trukea sustatzea lan taldearen jardun-eremuan.



ENERGY-CITIES. <https://energy-cities.eu/>

Iruñeko Udala Energy Cities sareko bazkidea da 1999. urteaz geroztik. Hura Europako hiri aktiboen sare garrantzitsuena da, eredu energetiko berriei dagokienez.

2022an, *Energy Cities* sareko hainbat teknikarirekin aritu da lankidetzan, Agentziak abian dituen proiektuen balioa nabarmentzeko: Pobrezia energetikoaren jarraipena, udal-instalazioekin energia berriagarria sortzea, autokontsumoa bultzatzea...

EUROPAKO PROIEKTUAK

STARDUST. <https://stardustproject.eu/>

Stardust proiektu europar bat da, xede duena energia-eraginkortasun orokorra areagotzea eta parte hartzen duten hirietako bizi-kalitatea hobetzea, baita tokiko ekonomia suspertzea eta negozio-eredu berriak sortzea ere. Hori lortzeko bidea da eraikuntzaren, energiaren eta mugikortasun elektrikoaren sektoreak integratzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia aurreratuenak, konektibitatea, eta gauzen Interneta (IoT) erabilita.

Aurreko urteetan bezala, honakoetan garatutako proiektuen jarraipena lantzen segitzen dugu:

- Microred Irache
- Beroa berreskuratzea CPD ANIMSA
- Hiri Plataforma
- Ibilgailu elektrikoa kargatzeko azpiegituraren garapena

Agentziarekin koordinatutako ekintza horiez gain, esparru energetikoari buruzko gure ikuspegiaren bidez eman dugu laguntza hainbat neurritan, hala nola gamifikazio-tresnan, negozio-ereduen garapenean eta argiztapen adimentsuan. Proiektuari buruz eskura dagoen informazio guztia haren weba da, eta Stardust Academyren txostenak udal-webean.

POTENT. <https://www.interregeurope.eu/potent/>

Public Organisations Transform Energy Transition (**POTeNT**). Proiektu honen helburua da 2023rako aurreikusitakoa baino % 10etik gorako karbono-murrizketa lortzea, eta, horretarako, agintari publikoek energia-zerbitzuak hobeki eskaintzea lortu nahi da. Proiektua finantzatzen duen programa Interreg Europe da.

2022a haren garapen-urtea izan da; zehazki, hainbat Study Visits egin dira, proiektuko bazkideekin esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko. Azken Study visit-a ekainean egin genuen, Parma hirira, hain zuzen:

- Lan-saio interaktiboa - Proiektuko bazkide bakoitza gonbidatzen da aurkezpenen edukia talde txikitan eztabaidatzera eta proiektu berrietarako funtsezko puntuak identifikatzera.
- Energia marjinalako proiektuak berriro aztertzea.
- Finantza-hezkuntzako programak eta mikrokredituak.

Aldi berean, Tokiko Ekintza Plana garatzeko, Stakeholders Taldearen topaketak egin dira. Bertan, gure aurrerapenak azaldu eta elkarrekin lan egin dugu gure Tokiko Ekintza Planean eragina izan dezaketen tokiko eragile publiko zein pribatuekin, batez ere Parma hiriarekin.

Amaitu dugu gure Tokiko Ekintza Plana (hori Proiektuaren helburu bat da), eta bi neurri hartu ditugu plana ezartzeko: Energia-komunitaterako plan pilotu bat eta haren erreplikagarritasun posiblea, eta, bestetik, informazio energetikorako bulegoen eredua garatzea.



- Energia-komunitateak: udal-instalazioen energia lagatzea, esparru publikoak lagatzea eta forma juridikoa.
- Informazio Energetikorako Bulegoak. Jardueren deskribapena eta bideragarritasun ekonomikoaren azterketa.

EUCF

European City Facility EUCF Europako ekimen bat da tokiko udalerriei/agintariei, horien elkarreei eta Europa osoan udalerriak/tokiko agintariak elkartzen dituzten tokiko erakunde publikoei laguntzeko, energia jasangarriari lotutako inbertsioak azkartzeko inbertsio-kontzeptuak gara ditzaten.

Proiektu honek Europar Batasuneko Horizonte 2020 Ikerketa eta Berrikuntza Programaren finantzazioa jaso du, 864212 zenbakiko dirulaguntza-hitzarmenaren bidez.

European City Facility-ren baitan, Iruñean energia-komunitateetan oinarritutako inbertsio-kontzeptu bat garatu da. ENERGIA KOMUNITATEAK, ENERGIA POSITIBOKO AUZOETARANTZ JOTZEKO, DESKARBONIZAZIORAKO ESTRATEGIA GISA.

Ondoren, proposatutako estrategia bakoitza abian jartzeko lortu nahi diren funtsak daude zehaztuta (728.285.403 EUR). Era berean, Pay-back (Inbertsioa berreskuratzeko epea) eta TIR (Itzulerako Barne Tasa) datuak sartu dira, inbertsio bakoitzaren finantza-balorazio hobea egiteko:

22. Ilustrazioa. EUCF finantza-balorazioa

Estrategia	Mobilizatu beharreko inbertsioa	Pay-back (urteak)	TIR*
Errehabilitazioa	443.456.000€	10	% 5,75
Aerotermia	108.900.000€	>25	-% 4,35
Biomasa	24.208.000	13	% 5,48
Mugikortasuna	51.095.200€	6	% 8,23
Fotovoltaika	99.760.000€	12	% 6,1
Udal	866.203€	—	—

Informazio eta laburpen exekutibo guztia:

<https://www.pamplona.es/european-city-facility>

OPEN LAB

OPEN LAB proiektuak errepikagarriak diren eta komertzialki bideragarriak diren irtenbide-sortak identifikatu nahi ditu, dauden hiri-testuinguruen barruan energetikoki positiboak diren auzoak lortzeko asmoarekin; irtenbide horiek tokiko energia-sisteman erabat integratuko dira. Hala, auzoan mikroenergia aktiboko gune bat sortzen saiatzeko. Proiektuak teknologia eta sorta horiek auzo mailako irtenbide integratu gisa probatu nahi ditu.

Erakusle horiek Iruñean egingen dira, baita Genk (Bélgica) eta Tartu (Estonia) hirietan ere. Iruñean Arrotxapean egingen dira jarduketak, IWER eraikinean eta San Pedro kolonian, zehazki.

Iruñeko Udaleko Energia Agentziak lan hauek egin ditu 2022an:

- Proiektuan erabateko dedikazioa duen pertsona bat kontratatzea. Horretarako, kontratazio-prozedura bat egin da maiatzan eta ekainean.
- Arrotxapea auzoan energia-komunitate bat sortzea.
- Auzoaren energia-beharrak lantzea Arrotxapeko gizarte-eragile guztiekin.
- Birgaitze energetiko berritzaileko jarduketak alokairuko 12 etxebizitza sozialetan San Pedro etxe-multzoan:
- Energia aktiboki garatzea eta kudeatzea Iruñeko energia positiboko lehen auzo berdea lortzeko, kontuan hartuta hala energia-eraginkortasuna nola tokiko sorkuntza berriztagarria.



LIFE PROPOSAMENAK

Bi proposamen aurkeztu ditugu Europako LIFE proiektuetarako deialdira.

- **Plan4CET**, Nafarroako Gobernuko bazkide gisa. Helburua da Nafarroako Energia Plana 2030 eguneratzea, eta udalarentzat, berriz, 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategia ezartzen hastea.

EKITALDIAK ETA JARDUNALDIAK

Agentziak hainbat ekitaldi eta jardunalditan parte hartu du.

- 2022/05/03 UNEF jardunaldia, Jasangarritasun Mahaia,
- 2022/05/30 SNE Microredes saioa, AFI jardunaldia prestatzea,
- 2022/06/02 AFI Eraginkortasun Energetikoaren Jardunaldia,
- 2022/06/13 U. Politecnica Valencia katedraren mintegian parte hartzea
- 2022/06/22 a3e jardunaldia,
- 2022/07/14 ECOSERVEIS - DIBA jardunaldia eta prestaketa,
- 2022/09/27 birgaitze jardunaldia, Merkataritza Ganbera – Iberdrola

IRUÑEKO TOKIKO AGENDA 21

HIRI-BARATZE KOMUNITARIOAK

KOMUNITARIOAK

Aurrekontua: 6.820,24 €

Deskribapena: Hiri-baratze komunitarioetan hiri-nekazaritza ekologikoa egiten da. Abian jarri ondoren (hau da, baratze-mailak eraikitzea eta lurrez eta konpostez betetzea, inguruz inguru hesiak jartzea, tresnak eta lanabesak ekartzea), gastuak honakoak izaten dira: galdutako lurra birjartzea, konposta ekartzea, landareak erostea eta materialak konpontzea.

Baratzeetan ikastetxeek eskatutako lantegiak egin dira (Eunate Institutua, San Frantzisko Ikastetxea, Víctor Pradera Ikastetxea, Cardenal Illundáin, Patxi Larraintzar Ikastetxea, etab.), Berriztu elkarterako lan komunitarioak, aisia jarduerak hainbat erakundetarako: Down Sindromea eta Tasubinsa Elkartea; lankidetza hainbat elkarterekin: Nafarroako Hazien Sarea, Nafarroako Elikadura Subiranotasun Taldea, etab.

Esperientzia pilotu gisa, 2022an, landareak hein batean Enplegu Sozialeko Ibai Lantaldearen bidez ematea koordinatu zen, erabiltzaileek barazkiak erein zitzaizten, gero halakoak eskatu zituzten baratzeen artean banatzeko.

Gainera, baratzeetako lurra hobetze aldera, hiriko zuhaitzen inausketa xehatu eta huraxe ere aprobetxatzen da, eta, horrela, aldiro, lorategi-zerbitzuko kamioiek inausketa xehatua baratzeetan utzi, eta elkarrekin beren baratzeetan banatzen dute.

Baratzeetan, halaber, egiturazko hobekuntzak egin dira; besteak beste, Donibaneko baratzean errodapi bat jarri da inguruz inguru, (zuhaitz-hosto eroriak eta hondakinak ez sartzeko) eta askaldegi-mahai berri bat eta jarlekuak Arrotxapeko baratzean.

**ETXABAKOIZKO BARATZEAK (PARTIKULARRAK ETA ELKARTEAK)****Aurrekontua:** 8.921,98 €

Guneak 45 baratze ditu (37, partikularrenak; 8, elkarteenak; 3, udalarenak gizartean bazterturik dauden familiendako). 300etik gora lagun daude erreserba-zerrendan. Aurten, pertsona batek bere baratzeari uko egin dionez, erreserba-zerrendako lehen pertsonari deitu zaio.

2022an, hainbat lan egin dira baratzeen barnealdea hobetzeko. Motokultore bat pasa eta baratzekeo lurra gehitu zitzaion, dena 3.811,50 euroan.

Gainera, aldiro, Lorategi Zerbitzuko kamioi bat eramaten da inausketa xehatuz beterik, lurrari egitura eta materia organikoa emateko, eta azalaren lurrunketa murrizteko.

Inguruan badira harri aunitz; hori dela eta, edukiontzi bat paratu zen hara eramateko eta zabortegian husteko. Harriz beteriko hiru edukiontzi eraman dira zabortegira, 363,00 euroan.

Halaber, bizikletak aparkatzeko bi euskarri paratu dira, baratzeetara jasangarritasunez joateko aukera hobetzeko. 1.119,23 euroko kostua izan du.

Gainera, ureztaketa-sistema bat jarri eta lorategiko espezieak birlandatu dira halako eremu komun atsegina izateko. 3.616,50 euroko kostua izan du. Gero, inguru hori Lorategi Zerbitzuaren eskuetan utzi da, mantentze-lanak egin ditzan (sasiak kendu).

Sarrera aldean, ontzi bat paratu da zaborrak biltzeko. Astean behin, Bideak Garbitzeko Zerbitzuak husten du ontzia. Leku hori, halaber, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza-saio teorikoak eta praktikoak emateko erabiltzen da. Horrela, bi prestakuntza-saio eman dira: intsektuen hotelak polinizazioa errazteko eta izurriteen kontrola.

BISOI EUROPARRAREN JARRAIPENA**Aurrekontua:** 0, 00 €

Deskribapena: Bisoi europarra (*Mustela lutreola* L., 1761) mustelidoen familiako ugaztun haragijalea da. Espeziearen katalogazioari dagokionez, desagertzeko arrisku larrian dago Estatuan, 2019tik hona. Nafarroan, espezie zaurgarri gisa dago katalogatua. Kalkuluen arabera, 500 ale inguru gelditzen dira, eta horietatik bi heren Nafarroan daude.

2021ean, azterlan bat egin zen bisoi europarrak Iruñeko hiru ibaietan (Sadar, Elortz eta Arga) duen presentziari buruz. Azterlanean oinarriturik, ibai ingurunean hainbat lan egin dira eta kontserbazio-irizpideak ere ezarri dira.

Horren haritik, zuhaixka eta zuhaitz txikien sail batzuk planifikatu dira, oso egokiak bisoi europarraren presentzia errazteko eta babesa emateko, hala nola sahatsak, zumeak eta laharak. Aurten, aldaxkak landatu dira eta 2023an Gizarte Enpleguko Ibai Lantaldeak ibai bazterreara aldatuko ditu.

ESPEZIE EXOTIKOAK EZABATZEA**Aurrekontua:** 2.904,00 €

Deskribapena: Iruñeko udalerrian espezie exotikoak daude, bai animaliak bai landareak, eta kaltegarriak dira hiri-ekosistemarentzat, besteak beste galera ekonomikoak eta biodibertsitatearen galera eragiten dituztelako. 2022an, urtariletik maiatzera, espezie exotikoei buruzko proiektu bat gauzatu da, helburu hauekin:



- Iruñeko ibai-parkean espezie exotiko inbaditzaileen presentzia ezagutzea.
- Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea, Basozainen bidez harrapatuz eta Nafarroako Gobernuari emanez.
- Natura errespetatzeko balioak sustatzea, bai eta natura zaintzeko erantzunkidetasuna ere.
- Espezie autoktonoaren eta espezie exotiko inbaditzailearen arteko desberdintasuna ikastea, bai eta halakoak ekartzeak eragiten dituen arazoak ere.
- Gure ekosistemen osasuna hobetzen laguntzea.
- Gizarte jasangarriagorantz aurrera egitea.
- Ikastetxeetan sentsibilizatzea maskotak ingurune naturalean askatzeak dakartzan arazoez.

Horretarako, landa-lan bat egin zen (Floridako Apoarmatuendako eguzki-tranpak paratu eta astean behin berrikusi ziren). Ikastetxeetan, berriz, lantegiak egin ziren espezie exotikoek dakartzaten arazoez kontzientziatzeko, eta emaitza-azterketa bat ere egin zen.

HEGAZTI UGALTZAILEETAN OINARRITUTAKO BIODIBERTSITATE ADIERAZLEA

Aurrekontua: 2.990,00 €

Deskribapena: Iruñeko Udala 2009tik ari da hemen bizi diren hegazti arrunten populazioaren tamaina ikertzen, bizi-kalitatea eta garapenaren jasangarritasuna neurtzeko adierazle nagusietako bat baita (SEO/BirdLife, 2010).

2022. urtean metodologia aldatu zen eta, horren ondorioz, Iruñeko hegaztien gaineko laginketa bat egin zen, errolden bidez eta udalerriko habitatekin duten loturaren bidez.

Horrela, udalerria 500 metro luzerako eta 500 metro zabalerako gelaxketan banatu zen, eta haietariko 80 gelaxkatako hegaztiak erroldatu ziren. Azterketa bi txandatan egin zen, bata apirilaren 15etik maiatzaren 15era, espezie egoiliarak eta migratzaile aurre-sahararrak lagintzeko, eta bestea maiatzaren 15etik ekainaren 15era, Saharaz gaindiko espezieak lagintzeko.

Aldi berean, aldagai geografikoa hartu zen kontuan, 14 azpikategoriatan multzokatutako SIG mapetako geruzen bidez lortutakoa. Azpikategoria horiek, aldi berean, 5 kategoria handitan sailkatzen dira: nekazaritza-eremua, lorategiak, parkeak, ibai-ingurunea eta gune oso urbanoa.

68 espezie atzeman ziren. Hona hemen gehien banatuta daudenak: karnaba, mika, etxe-txolarrea, birigarroa, buztangorri beltzarana, haitz-usoa, txirriskila arrunta, enara azpizuria, arabazozo beltza, amilotx urdina, buztanikara zuria eta txinbo kaskabeltza.

Dentsitateei dagokienez, handienak hauek dira: etxe-txolarrea (22,2 ale/10 ha), haitz-usoa (17,9 ale/10 ha) eta karnaba (12,0 ale/10 ha). Dentsitateak ezberdinak dira eremuen arabera. Horrela, etxe-txolarrea, haitz-usoa, karnaba eta kaskabeltz handia ugariagoak dira udalerriaren erdigunean periferian baino. Aitzitik, txirriskila, txirriskila arrunta, txoka arrunta, amilotx urdina, txinbo kaskabeltza eta pitxartxarra ugariagoak dira inguruetan erdigunean baino.



HEGAZTIENDAKO BABESLEKUAK (HABIA-KUTXAK) ETA BIODIBERTSITATEARI BURUZKO BESTE JARDUKETA BATZUK

Aurrekontua: 19.686,72 €

Deskribapena: Habia-kutxa teknika bat da, hegazti eta ugaztunen espezieak "birkolonizatzeko" aukera hobetu eta handitzeko erabiltzen dena hiri-eremuetan. Horretaz gain, habia-kutxak erabiltzeak datuak ematen ditu biologiaren zenbait alderdi zientifikotarako, bertan diren espeziei buruz, eta tresna erabilgarria dira ingurumen-hezkuntzako jarduerak garatzeko. Proiektuaren helburu dira izurrien kontrola egitea (amilotx eta kaskabeltzen bidez), habia-kutxen jarraipena egitea (eraginkortasuna jakiteko), hegazti-populazioen bilakaera ezagutzea, hegaztiei eraztuna jartzea, eta ingurumen-hezkuntza lantzea ikastetxeetan lantegiak eginez. Gainera, gizarte-egoera zailean dauden gazteen gizarteratze eta laneratzea (zurgintzako lantegi-eskola).

Lantegiak gaztelaniaz eta euskaraz eskatu dira, haur, lehen eta bigarren hezkuntzako mailetan emateko.

Bestalde, habia-kutxak udaberrian berrikusteak aukera ematen du garaiz atzemateko liztor asiarrek okupatu ote dituzten, lehen habia gisa erabiltzen baitituzte.

Honatx emaitzak:

- 63 habia-kutxa egin eta jarri dira paridoentzat
- Apo-hontzaren 30 habia-kutxa berrikusi dira
- Belatz gorriren 8 habia-kutxa berrikusi dira
- Gau-hontzaren 2 habia-kutxa berrikusi dira
- Gerri-txori arruntaren 2 habia-kutxa berrikusi dira
- Txantxangorriren eta buztanikara zuriaren 5 habia-kutxa berrikusi dira
- Paridoen 295 habia-kutxa berrikusi eta bernizatu dira
- 63 lantegi ikastetxeetan, haien artean habia-kutxak jartzeko eta berrikusteko lantegiak, hegaztiendako janlekuak, natur ibilbideak, ibilbide ornitologikoak, zentzumenen estimulazioa, intsektu-hotelak egiteko lantegiak. Guztira, 1.800etik gora lagunek parte hartu dute.

GAU-SAGUZAR ERTAINAREN ETA BESTE SAGUZAR BATZUEN POPULAZIOA MANTENTZEKO LANAK

Aurrekontua: 3.799,40 €

Deskribapena: Gau-saguzar ertainaren populazioa (*Nyctalus noctubre*) egonkor mantentze aldera edo handitze aldera, haren populazioari buruzko azterketa bat egiten da urtero. Horretarako, Iruñeko hainbat eremutako zuhaitzetan jarritako babes-kutxak aztertzen dira. Lana saguzarretan aditua den biologo batek egiten du. 2022an, ekintza hauek egin dira:

- Abuztutik azarora bitarte, 45 kutxa berrikusi dira hamabostean behin lurretik, Trinitariosen, Miluzen eta Nafarroako Unibertsitateko Campusean.
- Aldi bakar batez berrikusi dira 15 kutxa Caparrosoren erroten, irailean.
- Iruñeko hiru zubitan paratutako 10 habia-kutxa berrikusi dira, ibai-ingurune hiru saguzarren okupazioa jakiteko, abuztuan eta urrian (saguzar arrunta, ur-saguzarra eta saguzar mediterranea).
- Ekainean, hegaztiei okupatutako kutxak garbitu dira.
- Babes-zuhaitzen bilaketa eta berrikuspena.
- Babes-enborrak bitan berrikusi dira (irailean eta urrian).

Gau-saguzar ertainak hiru eremutan bakarrik aurkitu dira: Trinitarios, Miluze eta Nafarroako Unibertsitateko Campusa, azken 4 urtean bezala. Okupazioa % 36 da. Irailean daude kutxa okupatu gehien.



10 kutxatan, behin baino gehiagotan ikusi dira gau-saguzar ertainak. Baieztatu da gau-saguzar ertaina egon dela aurreko urteetan okupatutako zuhaitzetan. Guztira, 315 ikuskapen egin dira eta, haietariko 54tan, gau-saguzarrak aurkitu dira.

2021ean jarritako kutxa lauak okupatzen hasi dira.

Iaz, zubi azpian jarritako kutxak Pipistrellus generoko aleak hasi dira okupatzen.

Gau-saguzarra oraindik ere badago Iruñean, baina duela bi hamarkada baino ale gutxiago dira. Zalantzarik gabe, besteak beste, nagusiki zuhaitz zaharren mozketak eragin du jaitsiera.

ETXABAKOIZKO PAISAIA LEHENGORATUA MANTENTZEKO LANAK

Aurrekontua: 685 €

Deskribapena: 2021ean landatutako sailak jorratu eta 3 aldiz ureztatu dira: ibaiertzeko 100 zuhaitz eta 1.000 zuhaixka landatu baitziren baratzeak kendutako inguruan, ipar Etxabakoiztik Elortz errekarara bitarteko bidean. Landaketa egin zen, bidexkaren inguruan zuhaitz-ilara bat sortzeko eta, horrela, beste instalazio mota batzuk hantxe ez jartzeko. Ura Elortz ibaitik ateratzeko baimena eskatu zitzaion CHeri, ureztaketa-ura 2 urtean erabiltzeko.

2022. urtean, zuhaitz eroriak birjarri ziren, Gizarte Enplegu Babestuarekin elkarlanean, eta udan aldi batez ureztatu zen; izan ere, sute-arriskuak nabarmen atzeratu zuen zereal-uzta Iruñerrian, eta uztailaren bigarren hamabostaldira arte ezin izan zen ureztatu. Ez zen Elortz ibaiko urarekin ureztatzen, emaria ez zelako nahikoa ura ateratzeko.

KARBONOA XURGATZEKO BASO AUTOKTONOA LANDATZEA

Aurrekontua: 20.128,59 €

Deskribapena: Landatutako baso autoktonoa (hektarea 1) mantentzeko lanak. Saila Agustinos industrialdeko 7-2069 udal lurzatian dago kokatua. 625 zuhaitz autoktonoen marren % 20 landatu dira, Iruñerriko landareen seriekoak, eta 200 zuhaixka ere bai.

Marrak eta 150 zuhaitzak bi egunetan landatu zituzten boluntarioek, azaroaren 5ean eta 12an. 150 lagun baino gehiago bildu ziren. 2 boluntariotza-saiotan, Nekazaritza eta Basogintza IIko 12 ikaslek parte hartu zuten, 2 jardunaldiak dinamizatzeko kontratatu zen enpresari laguntzeko.

Lurzatiaren gainerako 3 hektareak ere lehen zatiaren irizpide berberekin landatu ziren eta landaketa karbonoaren hustuleku gisa erregistratu zen Ekologia Trantsizio eta Demografia Erronkarako Ministerioan, Iruñeko Udalaren berotegi-efektuko isuriak berdintzeko, *Kalkulatzen dut*, *Murritzten dut*, *Konpentsatzen dut* ekimenaren baitan, 3 zigilu horiek eskuratze aldera.

Landaketa Iruñeko Udalaren Lorezaintza Lantegi Eskolak egin du, proiektua eskolako gizarte-lan gisa aurkeztu baitzuen. Lantegi eskolako taldeak egin ditu lanak: sasiak garbitu, zuloak egin, landatu eta landaketa egiten laguntzeko elementuak paratu.

Halaber, Landabengo Zurgintza Lantegi Eskolaren laguntza jaso dugu. Izan ere, zurezko 2 panel egin dituzte basoari buruzko interpretazio-kartelak erakusteko eta inguruan berean jarri den mahaia.



EZKABAKO PINUDIAREN OIHAN KUDEAKETA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Ezkabako pinudian ez da oihan kudeaketarik egin, 2012ko mozketatik hona. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin egindako hitzarmenaren bidez, oihan aprobetxamendua lehentasunezkoa izateaz gain, beste helburu bat ere txertatu da, hots, helburu hezigarria, basozaintzako graduari ari diren ikasleek pinudian praktikak egin ditzaten. Nafarroako Zura Enpresaburuen Elkartearekin egindako hitzarmenaren bidez, onura bat lortzen dugu lan horretatik; izan ere, biomasa bilakatuko den pinu-zuraren truke, 4 cm-ko pago-oholak eskuratzen ditugu, Udalaren Zurgintzako Lantegi Eskolak altzariak egiteko erabil ditzan. Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena udazkenean sinatu zen, euri garaian. Horren ondorioz, 2021ean ez zen zura mozterik izan.

2022an, 45 m³ zur moztu dira eta ADEMANek hartu ditu. Pago-zurarekin, Lantegi Eskolak mahaiak egin ditu Gizarte Ongizateko Okupazio Larrialdiko etxebizitzetako sukaldeetarako.

2022ko irailean, Ezkabako suak udal jabetzako 18,4 hektarea erre zituen. Nafarroako Gobernuarekin hitz egiten hasi zen, suak kaltetutako eremuan basoberritze-lanak egiteko.

BASO OLINPIARRA

Ekimen bat aurkeztu zen Espainiako Batzorde Olinpiarraren deialdian, Iruñean karbonoa xurgatzeko baso bat landatzeko, COEren jardueraren berotegi-efektuko isuriak konpentsatze aldera. Deialdia Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak koordinatzen du eta Santanderko bankuaren diru ekarpena dauka.

Lezkairu eta Mendillorri arteko oinezkoendako ibilbidean dagoen lurzatia aukeratu da, oinezkoendako bide horrek itzala izan dezan eta, horrela, inguru horretako konfort termikoa hobetzeko. Lezkairun, erreserbatua dago kirol hiria eraikitzekeko lurzorua. Gaur egun, Lezkairuko ikasleak Mendillorrira doaz ikastera eta espero da ibilgailu pribatuaz bestelako garraiobideak sustatzea eguneroko joan-etorri horietarako.

MAPA TERMIKOA

Aurrekontua: 14.014,45€

Deskribapena: Iruñeko parametro klimatikoaren bilakaera aztertu ondoren, energia-trantsizioarako eta klima-aldaketarako estrategian hainbat ekintza jo ziren lehentasunezkoetatik; horien artean, hirian estres termikoa zuten eremuak zein ziren jakitea. 7 tenperatura-sentsore eta HR geolokalizatu erosi ziren, Iruñerriko Mankomunitateko hondakinen aurre-bilketako furgoietan jarri dira, eta abuztutik ari dira emititzen. Halaber, tenperatura, HR, eguzki-erradiazioa eta haizearen abiadura eta norabidea neurtzen dituzten 5 sentsore erosi eta udazkenean 5 kokapen finkoetan jarri ziren.

PARTAIDETZA SAREETAN

Nels Sarearen aurrekontua: 2.500,00 €

Espainiako Klima Federazioaren aurrekontua: 700,00 €

Deskribapena:

RELS SAREA

Udala Nels Sareko kide da (Nafarroako Toki Entitateen Jasangarritasunerako Sarea), Tokiko Agenda 21 duten Nafarroako udalerriek osatua. 2022an, Nafarroako Gobernuak erabat utzi du hasieratik Sareari ematen zion laguntza teknikoa, eta Sareak bere diruekin Nasuvinsa kontratatu du Sarea administratzeko eta idazkaritzarako, kontratu txiki baten bidez; hori ez da nahikoa Sareak bilakaera aktiboagoa izan dezan. Egoera berri horrek Sareak Nafarroan duen zereginari buruzko eztabaida piztu du, hau da, zer helburu dituen eta sarearen etorkizuna bera...

Sarearen bilera teknikoak asko urritu dira. Oraindik ere ezinbestekoa da bertako kide izatea Nafarroako Gobernuari dirulaguntzak eskatu ahal izateko.



Bi bileretan parte hartu da. Haietan, sareko kide izateko kuota onesteaz gain, 2021eko kontuak aurkeztu eta Sarearen laguntza teknikoa eta jasangarritasun Jardunaldien antolaketa ere onartu ziren.

KLIMAREN ALDEKO UDALERRIEN SAREA

Sareko kide izateak online egiten diren prestakuntza-jardunaldi eta -solasaldietan parte hartzeko aukera ematen du; besteak beste, hondakinei buruzko udal-ordenantzak egitea eta berdeguneak mantentzeko irizpideak, karbono-aztarnaren kalkulua, CO2 xurgatzeko proiektuak.

HITZALDIAK ETA LANTEGIAK EMATEA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Agenda 21 Zerbitzuak ingurumenaren gaineko sentsibilizazioan eta informazioan dihardu, hainbat gairi buruzko hitzaldiak eta tailerrak emanez, hala nola energia-trantsiziorako eta klima-aldaketakarako estrategia, hiriko biodibertsitatea, Mugikortasunaren Astea, xurgapen-baso bat landatzeko ingurumen-boluntariotza, nekazaritza ekologikoa, eta euri-lorategi baten diseinua eta landaketa.

- Guztira, 15 hitzaldi eta lantegi izan dira.
- Mugikortasunaren Asteko bisita gidatuak: Ezagutu zure auzoa: Iturrama eta Mendebaldea.
- Bisita Gidatuak Liburutegi Sareetan: Txantrea jasangarria
- Hondakin prestakuntza, Soldadura Lantegi Eskola
- Bisita gisatuak ikastetxeetara: Noaingo Institutua eta Derioko Nekazaritza Prestakuntzarako Ikastetxea.
- Prestakuntza-hitzaldia Iruñeko Nekazaritza eta Basogintza I.I.an Jasangarritasunaz eta Oihan Boluntariotzaz.
- Prestakuntza-hitzaldia Arantzadiko Udal Lantegi Eskolan Hustuleku Basoaz eta Klima Aldaketaz.
- Hondakinei buruzko ikastaroa Udaleko Soldadura Lantegi Eskolarako
- Hondakinei buruzko prestakuntza-hitzaldiak Arantzadiko Udal Lantegi Eskolarako. (3 saioa).
- SESSIÓ D'INTERCANVI D'EXPERIÈNCIES METROPOLITANES I MUNICIPALS D'ACCIÓ CLIMÀTICA. Karbonoa xurgatzeko basoa eta Fuente del Hierrokoa Bartzelonako Metropoli Eremuan.

INGURUMEN-TXOSTENAK

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Hirigintza Gerentziak edo Birgaitze Bulegoak eskatutako ingurumen-txostenak dira, izapide hori behar duten hirigintza-espeditenteak bideratzeko. Organo substantiboa Udala denean, ingurumen-organoa Udala ere bada. Birgaitze integralerako eskaera jakin batzuk egiteko, ingurumen-txostenak ere egiten dira.

Ingurumen-txostenak bat datoz bai Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiarekin, bai Iruñeko 2030erako Hiri Estrategiarekin, bai Ibai Plangintzaren Ereduarekin.

Ingurumen-txostenetan honakoei buruzko irizpideak jasotzen dira: drainatze jasangarria, hegazti-espezie babestuen eraikinak eta habiak birgaitzea, zuhaitz autoktonoak landatzea, ura eraginkortasunez erabiltzea eta hondakinen kudeaketa.

Udalaren ingurumen-txostenak hirigintza-planei eta hiria birgaitzeko planei buruzkoak izan dira. Hona hemen:

- Irabia inguruko Plan Berezia
- Beloso HJPB
- RTV-Misiolariak Plan Berezia
- I. Zabalguneko HJPB
- II. Zabalguneko HJPB
- Milagrosako Plan Partziala, Azpilagañako unitatea
- Merkatu eta San Pedro PIG
- ERRP San Jorge 2ª fase



- ERRP Rinaldi
- ERRP Codes
- Diputazioko Etxeak PIG
- Milagrosako Plan Berezia
- Arantzadiko erabilera-aldaketa

IRUÑEKO KARBONO-AZTARNAREN KALKULUA. MINISTERIOAREN KALKULU ETA KONPENTSAZIO ZIGILUA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Iruñeko Udalaren berotegi-efektuko gasen isuria kalkulatu zen 2020rako. 1. Irismena (zuzeneko isuriak) eta 2. Irismena (zeharkako isuriak, elektrizitate kontsumoak eragindakoak. Halaber, murrizketa plana Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiarekin bat, eta karbonoa xurgatzeko basoaren aurreinskripzioa isuriak konpentsatzeko neurri gisa.

Kalkulatzen dut eta Konpentsatzen dut zigiluak eskuratu dira.

EKONOMIA ZIRKULARRA ZERBITZUETAN

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Pixkanaka, udal-zerbitzu guztien kudeaketaren diagnostikoa eginen da eta hobekuntza-irizpideak ezarriko dira, hondakinak bereizteko edukiontzia jartzea barne, horrela materialak bereizi eta birziklatu ahal izateko.

SOLDADURA LANTEGI ESKOLA

2021ean Haur Eskoletako hondakinen kudeaketaren diagnostikoa egin zen bezala, 2022an ere, hondakinei buruzko prestakuntzarekin batera, Udalaren Soldadura Lantegi Eskolako hondakinak ezaugarritu dira.

Horren ondorioz, frakzio guztietako ontziak jarri dira, bai eta ontziak identifikatzeko behar diren eranskailuak ere.

GIZARTE ENPLEGUKO PINTURA-LANTEGIA

Laguntza eman da Gizarte Enpleguko Pintura Lantegia hondakinen ekoizle txiki gisa NIMAn alta emateko. (NIMA ingurumen-identifikaziorako zenbakia da).

EKITALDI JASANGARRIAK: EDALONTZI BERRERABILGARRIAK

Aurrekontua: 50.000€

Deskribapena: Jai-ekitaldi jendetsuetan hondakin asko sortzen dira, batez ere erabili eta botatzeko edalontziak; lurrean gelditzen dira eta, ondorioz, zaborteira iristen dira. Agenda 21 Zerbitzuak lehiaketa publiko bidez esleitu zion gizarte-erakunde bati edalontzi berrerabilgarriaren udal-zerbitzua.

Zerbitzuaren barnean dago, hala eskatzen den ekitaldietarako, edalontzi garbiak banatzea, erabili gabeko edalontzi garbiak eta edalontziak biltzea, bai eta haiek garbitzea eta biltegiatzea ere.

Sistema bi ekitaldi motatan ezartzen da: erakunde pribatuek erositako eta batez ere Sanferminetan erabilitako edalontzi berdea, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskatutako udal-edalontzia, hala nola auzoetako jai-batzordeak.



2022ko datuak hauek izan dira:

UDAL EDALONTZI BERRERABILGARRIA

— 12 ekitalditan erabilia	
— Edalontzi banatuak	58.244
— Edalontzi garbituak	21.129
— Edalontzi itzuli gabeak (Galera-tasa: % 47,69)	19.265
Kostua	5.013,54 €
Edalontzi itzuli gabeek eragindako diru-sarrerak	19.265 €
(Entitateek Udalaren kontuan sartzen dute dirua)	

EDALONTZI BERRERABILGARRI BERDEA (SANFERMINAK)

53 lokal pribatuk, 14 peñak eta udal-espazioetako 4 emakidak erabilia.	
Edalontzi banatuak	497.574
Edalontzi erabiliak	400.441
Erabili gabeko edalontziak	97.133
Edalontzi itzuli gabeak (Galera-tasa: % 55,58).	222.554
Kostua	35.033,49 €

BARNE-AHOLKULARITZA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Zerbitzuak ingurumen-irizpideak zerbitzu batzuetako lehiaketa publikoetan txertatzen laguntzen du, bai eta espazio publikoa emateko, kontratuak egiteko eta beste ingurumen-alderdi batzuetarako baldintzetan ere.

INGURUMEN-IRIZPIDEAK LEHIAKETA PUBLIKOETAN

Zerbitzuak ingurumen-irizpide kuantitatiboak eta kualitatiboak txertatzen hartu du parte, bai eta txostenak egiten ere honako lehiaketa publiko hauetan aurkeztutako eskaintzak baloratzeko:

- Gizarte Zerbitzuetarako kamioiaren erosketa
- Gizarte Zerbitzuetarako furgoi bat eta 2 furgoneta erostea
- San Domingo aldapako Guardia Gorputzaren barnealdea.

ESPAZIO PUBLIKOAREN LAGAPENAK

Sanferminetan, elkarre batzuek espazio publikoa okupatzea eskatzen dute beren jarduerak egiteko. Zerbitzuak ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko eta hondakinak kudeatzeko irizpideak sartu ditu honako eskaera hauetan:

- Foruen plaza.
- Taconera (Nafarra Oinez)
- Gurutzeko plaza
- Basotxo (etxe erregionalak)

KONTRATUAK EGITEA

Honako kontratu hauen pleguak egiten eta aurkeztutako eskaintzen balorazio teknikoa egiten parte hartu da:

- Turismo-zerbitzuetako ekonomia zirkularrari buruzko azterlana, Udaleko Turismo Zerbitzuak egina.
- Miravalles kaleko SUD lorategi bihurtzea



KARBONO-AZTARNA TURISMO ETA MERKATARITZA ALORRAK SUSTATUTAKO EKITALDIETARAKO

Merkataritzari aurkeztutako proposamenaren berrikuspena.

KANPO-AHOLKULARITZA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Zerbitzuak partikularrek nahiz udalaz kanpoko erakundeek egindako kontsulta eta iradokizunetan laguntzen du.

PARTIKULARRAK

Partikularren kontsultak, iradokizunak edo kexak 010eko udal zerbitzura bidalitako mezu elektronikoen bidez edo zerbitzuko telefonora zuzenean egindako deien bidez egiten dira.

010etik zetozen 26 mezuri erantzun zitzairen (bai posta elektronikoz, bai telefono bidez). Gaiak honakoak izan dira: edalontzi berrerrabilgarria, katu-koloniak, kastoreak, beleak eta mikak, eta baratze komunitarioak.

Bestalde, telefono-deiei erantzun zaie. Honatx gaiak, nagusiki: baratze bat alokatzeko aukera, hiri-biodibertsitatearen bildumako liburuaren eskaera eta hiriko animalia-espezieei buruzko kontsulta.

Gainera, zerbitzuak unibertsitateko gradu amaierako bi lani eman die informazioa:

Hiri-baratzeak eta ur-putzuak hiriguneetan.

MERKATARITZA GANBERA

M6 ekintza zehazten lagundu da: Merkatuetako postuak: prestakuntza eta sentsibilizazioa hondakinak eta kontsumoak murrizteko.

Prestakuntza-edukiak eta/edo jardunbide egokien aholkuak diseinatzea, eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioak egitea merkatuetako postuetako enplegatuentzat eta arduradunentzat, merkatuetan ur eta energia gutxiago kontsumitzeko eta hondakin gutxiago sortzeko.

EKITALDIAK ANTOLATZEA ETA PARTE HARTZEA

INGURUMENAREN MUNDU EGUNA

Ekainaren 5a Ingurumenaren Mundu Eguna da. Nafarroako Unibertsitatearekin egindako hitzarmenaren bidez, eguna ospatzen laguntzen da. Zehazki, ingurumenari buruzko jarduerak egiten dira, hala jendea sentsibilizatzeko nola prestatzeko (dokumentalak, animalia eta landare espezimenak lupaz eta mikroskopioz ikustea, haurrendako tailerrak, museoa kalean, etab.).

Kostua: 1.446,93 €

ALKATETZEN ITUNA

Alkatetzen Itunen Topaketa Nazionalaren antolatzaileak, beste batzuekin batera, 2022ko abenduan, Iruñean.

Kostua: 1.089,00 €



BIOMARATOIA

Apirilean, herritarrendako zientzia jarduera bat egiten da munduko hainbat hiritan. Hiriko izaki bizidunei argazkiak egiten zaizkie, animaliei zein landareei, eta, ondoren, espeziearen izena egiaztatzen duen aplikazio batera igotzen dira.

4 egunez, gainera, ingurumenari buruzko prestakuntza-jarduerak egiten dira (ugaztunen aztarnak miatzea, likenak eta goroldioak katalogatzea, arrantza elektrikoa, etab.). Udala lankidetzan aritu zen Agenda 21 zerbitzuak egindako jarduera batekin: *Bisita gidatua ospitale-gunera: Zuhaitz eta zuhaixka espezieak identifikatzea.*

Parte-hartzaileak: 27

Kostua: 0,00 €

JASANGARRITASUN JARDUNALDIA. NAFARROAKO GOBERNUA (MAIATZAK 26)

Toki Jasangarritasuneko proiektuetarako finantzabidea nola eskuratu landu zuen jardunaldian hartu zen parte maiatzaren 26an, hainbat lan taldetan: Klima-aldaketara egokitzea, energia-trantsizioa eta energia-komunitateak, turismo jasangarria eta mugikortasun jasangarria.

HARREMAN INSTITUZIONALAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEKIN

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Agenda 21eko Zerbitzuak beste administrazio publiko batzuekin dihardu lankidetzan

— JARDUNBIDE EGOKIAK (NG) Aipamen berezia SUD proiektuari

— EKITALDI JASANGARRIEI BURUZKO FORU DEKRETUA (FD) Alegazioak zirriborroari; ondoren, bilerak.

RUNA 2025

Proiektuen proposamena deialdian txertatzeko eta koordinazio-bilerak, hala barnera begira nola Biodibertsitate Fundazioarekin.

AURREKONTUAK GENERO-ERAGINAREKIN

Esperientzia pilotu batean parte hartu da, udal aurrekontuak genero-eraginarekin egiteko, 6 udal programarekin batera.

ENERGIA-TRANTSIZIORAKO ESTRATEGIA

Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiaren jarraipenaren ataria zehaztea, Energia Agentziarekin elkarlanean.

INGURUMEN-HEZKUNTZA

IKASTETXEETARAKO INGURUMEN-HEZKUNTZA

Aurrekontua: 34.278,05 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren lan-ildoetako bat da ingurumen-hezkuntza hezkuntza-komunitatean garatzea ikuspegi zabal batetik eta hezkuntza-premia guztiak jasotzeko gaitasunarekin.

Gaur egun, Ingurumen Hezkuntzako 6 programa garatzen ari dira, ikasleak jasangarritasunera hurbiltzeko: Museoko jarduera gidatuak, dantzan edo zineman oinarritutako proiektuak, baratzea lan-tresnatzat duten ikastetxeko proiektuak, etab. Horien bidez, ezagutza, esperientzia eta motibazioa bultzatzeko moduak aztertzen dira, ingurunearekin konpromiso handiagoa duen gizarte baterantz aldaketa egiteko.

Programetan zenbat ikaslek hartu duten parte, taula honetan dago adierazia:

Programak	Parte-hartzaile kop.
Eskola baratzeen programa	3.532
Europako Planeta Dantzan programa	677
Jasangarritasuna lantzen elkarrekin programa	5.140
Proiektua: Natura sentitu eta Natura sentitu egokitua	1.732*
Programa: xahutzearen kontrako ekintza	404
Ecozine Gazte Atala	886
GUZTIRA	10.639

* Parte-hartze hori Jasangarritasuna lantzen elkarrekin programaren barnean dago sartua.

ESKOLA-BARATZERAKO HEZKUNTZA-PROGRAMA

Aurrekontua: 8.197,90 €

Deskribapena: 2022an, 3.552 lagunek parte hartu dute Eskola baratzeen programan, guztiak ere programan aritu diren 8 ikastetxeetakoak. Programa honetako parte-hartzaileen kopuruak ikastetxeetako irakasle eta ikasle guztiak hartzen ditu. Ikastetxeek bi ikasturterako konpromisoa hartzen dute proiektuan aritzeko. Irakasleek prestakuntza-saioak eman eta irakasleek berek ere curriculum-aplikazioa lantzen dute ikasleekin.

Hona hemen taulan bildurik, programan izandako datu banakatuak:

Ikastetxeak	Parte-hartzaile kop.	
	Ikasleak	Irakasleak
García Galdeano HLHI	200	33
Doña Mayor HLHIP	520	50
Mendillorri HLHI	389	47
Amaiur HLHI	403	41
Cardenal Ilundain HLHI	670	57
Mendillorri IP	106	20
Hegoalde ikastola	337	37
Ermitagaña HLHI	435	45
GUZTIRA	3.202	330
		3.532



EUROPAKO PLANETA DANTZAN PROIEKTUA

Aurrekontua: 8.894,30 €

Deskribapena: Proiektua abian jarri du Iruñeko Udalak eta ekimen-kide dira Biarritzeko Malandain Ballet, Donostiako Cristina Enea Fundazioa eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea. Programaren helburu nagusia da ingurumenaren aldeko mezua era erakargarrian zabaltzea, metodologia eta baliabide berritzaileak erabiliz, hezkuntza-programen aberasgarri, DBHko lehen zikloko ikasleak dantzara eta arte sorkuntzara hurbiltzeko.

2022an, ekimenean aritu dira Iturrama BHI, Jesuitinas ikastetxea eta Iparralde BHI, eta 2022-2023 ikasturtean, berriz, Jaso Ikastola, Basoko BHI eta Caro Baroja BHI. Hona hemen taulan bildurik, programan izandako datu banakatuak:

Ikastetxeak	Parte-hartzaile kop.	
	Ikasleak	Irakasleak
Iturrama BHI	107	8
Jesuitinas ikastetxea	120	2
Iparralde BHI	98	8
Jaso ikastola	41	4
Basoko BHI	125	10
Caro Baroja BHI	140	14
	631	46
GUZTIRA	677	

JASANGARRITASUNA LANTZEN ELKARREKIN PROGRAMA

Aurrekontua: 2.973,53 €

Deskribapena: *Jasangarritasuna lantzen elkarrekin* hezkuntza-programa bat da eta hezkuntza-etapa guztiei dago zuzendua. Eskaintzen zaizkien jarduerak ingurumen, gizarte eta lurralde mailan diren ingurumeneko arazoak jorratzen dituzte eta, aldi berean, bat datoz eskola-curriculumetako hezkuntza-premiekin. 5.166 parte-hartzaile aritu dira jardueretan, hau da, 57 ikastetxetako 240 ikasgela/ikastaldetan banatuta.

Programan, 4 jarduera-tipologia daude parte hartzeko:

- Ingurumen Hezkuntzako Museoan dinamizatzen diren jarduerak; zehazki, 16 jarduera eskaintzen dira, guztiak ere egokituak hezkuntza-etapa bakoitzera. Ingurumeneko arazo batzuei buruzko jarduerak dira, eskola-curriculum oinarri harturik egokituak. Jarduerekin batera bestelako jarduerak egiten dira aurretik eta ondotik ikasgelan bertan, ikas-prozesua osatzeko.
- 3 jarduera eskaintzen dira Natura Sentitu proiektuaren inguruan, hau da, lehen hezkuntzako hezkuntza-bloke bakoitzeko bat. Jardueren bidez hiriko berdeguneen balioa nabarmendu nahi da, bai eta berdeguneen ingurumen-eta gizarte-balioak ere. Era berean, aurretiazko eta ondoko jarduerak egiten dira ikas-prozesua osatzeko.
- Natura Sentitu proiektu egokituaren inguruko 3 jarduera eskaintzen zaizkie dibertsitate funtzionaleko taldeei, berariazkoak UCE ikasgelarako, Osasun Mentalerako eta Down Sindromerako. Era berean, aurretiazko eta ondoko jarduerak egiten dira ikas-prozesua osatzeko.
- Maleta Ibiltariak: mailegatzeko moduko baliabidea da ingurumen arazo bat jorratzeko, irakasleek gida didaktiko baten bidez lantzeko. Hezkuntza-maila guztiei eskaintzen zaizkie. Guztira, 6 maleta ibiltari dira eta bikoiztuak daude.



Hona hemen parte-hartzeari dagozkion datuak, jarduera-modalitatearen arabera:

Programak	Talde kopurua	Parte-hartzaile kop.
Museoan dinamizatutako jarduerak	50	1.147
MALETA IBILTARIAK	107	2.287
Natura sentitzea	81	1.643
Natura Sentitzea egokitua	9	89
GUZTIRA	247	5.166

Aurreko jardueraz gain, programak baliabide osagarriak eskaintzen ditu, hala nola:

- Zortzi jarduera online, hainbat gai jorrazteko pentsatuak, zer hezkuntza-etapari zuzentzen zaizkien.
- Nahieran erabiltzeko bost unitate didaktiko udal webetik deskargatzeko, gai hauek jorrazteko: eskola-baratzea, ura eta hiria, xahutze energetikoa, plastikoa eta ozeanoak, eta ingurumeneko larrialdia/aukera.
- Harremanetarako eta elkarlanerako gune bat, ikastetxeek udal bitartekoak eta baliabideak erabil ditzaten, ingurumenari buruz egiten dituzten lanak herritarrei erakusteko.
- Bisita autogidatuak Ingurumen Hezkuntzako Museoan diren erakusketa iraunkorrak eta aldi baterakoak ikusteko.

Programaren ondorioz abiarazi diren ekintzak honakoak izan dira Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarentzat, 2022an zehar:

- 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetako Ingurumen Hezkuntzako Museoan aurrez aurreko jarduerak dinamizatzea.
- 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetako programaren jarduera-modalitateen jarraipena, kudeaketa logistikoa eta ebaluazioa egitea.
- 2021-2022 ikasturtean online erreserba-sistema diseinatu da eta 2022-2023 ikasturtean jarri da abian, eta enpresa esleipendunaren jarraipena egin da kudeaketa-prozesu osoan.
- Jasangarritasuna lantzen elkarrekin programa diseinatu da 2022-2023 ikasturterako, eta dagokion komunikazio-liburuxka ere bai.
- Ikastetxeei deialdia egin zaie 2022-2023 ikasturterako programari atxikitzeko, hainbat komunikabideren bidez: zabalkunde-zerrendak, prentsa-oharrak eta sare sozialak.
- Programarako behar diren materialak berrikusi eta haien jarraipena egin da, eta birjarri edo hobetu dira, programaren beharren arabera.

NATURA SENTITU PROIEKTUA ETA NATURA SENTITU PROIEKTU EGOKITUA

Aurrekontua: 13.002,07 €

Deskribapena: *Natura Sentitu proiektua, Jasangarritasuna lantzen elkarrekin* programaren baitan eskainia, sortu da COVID egoeraren ondotik leku irekiak eskura izateko beharrari erantzuteko, eta ingurumen-hezkuntza bultzatzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ikastetxeetatik hurbil dauden parke eta lorategietan. Xedea da naturarekiko lotura sendotzea eta hiriko berdeguneen balioa ematea, horrela ikasleen ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala errazteko. Programa 2020-2021 ikasturteaz geroztik garatu da.

Proiektua bi urtez garatu ondoren, beharrezkoa ikusi zen dibertsitate funtzionalaren beharretara egokitutako proposamen bat egitea. Horrela, eta aurreko xedearekin bat, hezkuntza-proposamen bat prestatu zen, zehazki UCE ikasgelen eremuari, osasun mentalari eta Down sindromeari zuzendua. Proiektua 2022-2023 ikasturteko udazkenean garatu da, eta zuzendu zaie Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei, UCE ikasgelaren modalitateko bigarren hezkuntzako ikastetxeei eta horrelako ezaugarriak dituzten dibertsitate funtzionaleko taldeekin (ANFAS eta ANASAPAS, besteak beste) lan egiten duten taldeei.



Aurreko atalean adierazi den bezala, 1.732 parte-hartzaile izan dira hezkuntza formaleko ikastetxeetan egindako hezkuntza-jardueretan, 90 taldetan banatuta. Horietatik, 81 taldetako 1.643 ikasle Natura sentitu programan aritu dira, eta 9 taldetako 89 partaide, berriz Natura sentitu programa egokituan. Hezkuntza ez-formalaren barnean ez dauden kolektiboen kasuan, hainbat kolektibotako 8 taldetako 113 ikasle aritu dira.

XAHUTZEAREN AURKAKO EKINTZA PROGRAMA

Aurrekontua: 1.209,65 €

Deskribapena: Stardust proiektuaren baitan, 2020an gamifikazio-tresna bat sortu zen energiaren arloan. Tresnaren helburua da CO2 isuriak jaistea Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleen artean. Horrenbestez, trantsizio ekologikorantz jotzea, klima-larrialdiko egoeraren ondorioz. Gamifikazio-tresna proiektu globalago baten baitan dago hezkuntza-zerbitzuen barnean, eta jarraipena Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuari dagokio, ikastetxeetako ohituretako aldaketak erraztu eta egiaztatzeaz arduratzen baita, ikastetxeetan energia gutxiago kontsumitze aldera.

2022an, ekitaldi ofiziala San Cermin ikastetxearekin egin zen, proiektuan hitzemandako ekintza-plana garatu baitzuen. Gainera, Iruñeko ikastetxeetarako 2022 ikasturterako deialdia eman gabe gelditu zenez, ikastetxe batzuei galdetu zitzaion ea landuko ote zuten Unitate Didaktikoa 2021-2022 ikasturteko 3. hiruilekoan zehar, eta, azkenean, San Frantzisko ikastetxe publikoko lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleek programan parte hartu zuten. Azkenik, 2022-2023 ikasturterako deialdia egin zen ikastetxeetarako, harrera izan zuen eta, azkenean, hartan aurkeztutako 3 ikastetxeak aukeratu ziren. Ikastetxe horiekin hasi zen programa lantzen, 2022ko urriaz geroztik.

Partaidetza datuak honako taula honetan daude banakatuta:

Ikastetxeak	Parte-hartzaile kop.	
	Ikasleak	Profesorado
San Cermin ikastetxea	125	5
San Frantzisko ikastetxe publikoa	14	1
Teresianak ikastetxea	56	2
El Huerto ikastetxea	84	4
Bedruna ikastetxea	108	5
GUZTIRA	387	17
	404	

ECOZINE GAZTEA

Aurrekontua: 0,00 €

Ecozine gaztearen aurrekontua Ecozine zinemaldiaren sail ofizialekoarekin batera dago taxutua. Ondoren dago garatua:

Deskribapena: Zinemaldiaren gazte saila Bigarren Hezkuntzako ikasleei dago zuzendua, ikus-entzunezko ekoizpenen bidez ikasleak ingurumeneko kontuez sentsibilizatzeko. Gure herrialdean ikusi ez diren film laburrak ematen dira jatorrizko bertsio azpidatzian, gure ohiturek ingurumenean dituzten ondorioen gainean, irtenbidea pertsonen eta erakundeen dagokiela ulertzeko. Hona hemen zer ekintza egin diren 2022an, programaren baitan:

- Programa berriaz zabaldu eta hedatu da ikastetxeetan.
- Ikus-entzunezko materiala aukeratu da, Ecozine elkarrekin koordinaturik, eta filmak ikusi aurretik garatu beharreko berriazko curriculum-jarduerak diseinatu dira.
- Eskariak hartu eta curriculum-jarduerak ikastetxeetara bidali dira.
- Ikus-entzunezko saioak ikaste parte-hartzaileekin batera dinamizatu dira, Iturramako Civioxean, Aste santuaren aurreko 3 egunez jarraian.

Taula honetan daude partaidetzari buruzko datuak bilduak:

Ikastetxeak	Ikasleak	Irakasleak
Virgen del Camino HLI	10	1
Eunate BHI	50	3
Paz de Ziganda	86	4
Ilundain Fundazioa	12	2
Iturrama BHI	120	4
Mendillorri BHI	14	1
Biurdana BHI	68	3
Basoko BHI	22	1
Jaso ikastola	50	4
Mariana Sanz BHI	9	1
Eunate BHI	57	3
Santa Luisa de Marillac BHI	116	4
Caro Baroja BHI	66	2
Padre Moret Irubide BHI	17	1
Nekazaritza eta Basogintza LH berezia	5	1
Dominicas ikastetxea	58	3
Cuatro Vientos BHI	10	1
Mendillorri BHI	16	1
Julio Caro Baroja BHI	25	2
Basogintzako Ikastetxe Integratua	14	1
Burlata Ikastetxea	17	1
GUZTIRA	842	44
GUZTIRA	886	

HERRITARRENDAKO INGURUMEN-HEZKUNTZA

Aurrekontua: 34.863,23 €

Deskribapena: Hezkuntza Zerbitzuaren lan-ildoetako bat Ingurumen Hezkuntza garatzea da, gizarte guztia zeregin hartara ekarriz. Horretarako, hezkuntza-eskaintza bat prestatzen da, era askotako jarduera sorta zabalaz osatua, herritarrek eta elkarte-sareak diseinuan eta gauzapenean parte har dezan.

Gaur egun, askotariko jarduerak eskaintzen dira, hala nola hitzaldiak, ikastaroak, lantegiak, ibilaldi gidatuak, etab., urte osoan zehar. Ingurumen Hezkuntzako Museoko ekipamendua bera, gainera, herritarren eskura dago erabil dezaten. Hori guztia, dinamika eraldatzaileak sortu, lagundu eta sendotzeko, egungo eta etorkizuneko ingurumen-arazoak moldatze aldera.

Herritarrei ingurumen-hezkuntzan eskainitako jarduerari dagokienez, 7.534 parte-hartzaile izan dira 2022an zehar. Honatx taulan bildurik datu banakatuak:

Programak	Parte-hartzaile kop.
Jasangarritasun Eskolaren programa	3.590
Ecozine Nazioarteko Jaialdia	435
Bisitak eta kontsulta partikularrak	1.046
Espazioen lagapena	2.463
GUZTIRA	7.534

JASANGARRITASUN-ESKOLAREN PROGRAMA

Aurrekontua: 25.192,74 €

Deskribapena: Jasangarritasun Eskola programa herritarrei zuzendua dago, tresnak errazte aldera, gizartean dinamika eraldatzaileak sortzeko. Hiruhilekoko programazioa eskaintzen du: udazkenekoa (urritik abendura), negukoa (urtariletik martxora) eta udaberrikoa (apiriletik ekainera). Nagusiki, Ingurumen Hezkuntzako Museoan garatzen da, baina era berean udalaren beste baliabide batzuk eta hiriko espazio publikoak erabiltzen dira.

Jasangarritasun Eskola programan, honako jarduerak hauek antolatu dira 2022an zehar:

Jarduerak	Jarduerak	Parte-hartzaileak
Solasaldiak	12	212
Lantegiak	26	361
Klima-ekintzarako Lantaldea	8	*30
Iruña berdea da	17	332
Dirurik gabeko truke-azoka txikia	23	448
Jostailuen azoka txikia	3	116
Bisitaldia aldi baterako erakusketetara	11	1.376
Jarduerak taldeekin ¹	34	546
Ziklo dokumentala ²	3	39
GUZTIRA	137	3.558

* Balio hau lantegien atalean dago sartua.

- Jarduerak taldeekin: Ingurumen Hezkuntzako taldeak talde eta/edo kolektibo antolatuak hartu eta jarduera gidatuak eta autogidatuak egiteko aukera ematen die, halakoak eskatzen dituztenei, Ingurumen Hezkuntzako Museoan, urte osoan zehar.
- Ziklo dokumentala: LabMcrazy jaialdiarekin aritu ginen lankidetzan! Science Film Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoaren ekimena da, zientzia gazteengana hurbiltzeko, jakintza zientifikoan begirada freskoa eta gaur egungoa pausatuz.



IRUÑA BERDEA DA PROGRAMA

Aurrekontua: 0,00 €

Iruña berdea da programaren aurrekontua Jasangarritasun Eskola programaren guztizkoan dago sartua.

Deskribapena: Iruña Berdea da, Jasangarritasun Eskola programaren jardueren artean eskaintzen da, baina berezkoak ditu ezaugarriak eta antolaera. Iruña Berdea da programazioko jarduerak aire zabalean egiten dira urtean bitan, udazkenean eta udaberrian, jendea berriro naturarekin segurtasunez lotzeko, bai eta ongizate fisiko, psikologiko eta sozialarekin ere. Programa udazkenean eta udaberrian garatu da, guztira 17 jarduera eginik eta 332 lagunek parte harturik.

KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA

Aurrekontua: 0,00 €

Klima Ekintzarako Lantaldearen aurrekontua bere osoan dago Jasangarritasun Eskola programakoaren barean sartua.

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren bidez bultzatutako ekimen hau kultura klimatikoaren baitan dago eta energia-trantsizioarako udal-estrategiaren ondorioz datorren ekintzetako bat da. Eta GoGreen Iruña udal-programan dago sartua. Programa horretan bilduak daude hiriak klima-aldaketaren kontra egiten dituen jarduera guztiak biltzen ditu, eta hurrengo hamarkadarako jarduera-ildo berriak zehaztu ditu, ildoak gauzatzeko behar diren baliabideak eta jarraipena eta kontrola egiteko behar diren adierazleak eta bitartekoak baloratuz.

Ekimen honen bidez, helduek osaturiko talde batekin lan egin nahi da, pertsona horiek ahalduntzeko, eta banakako zein taldekako proposamenen bidez klima-aldaketan duten eragina murriztu dezaten. Klima-ekintzarako taldeak 7 lantegitan aritzeko konpromisoa dauka, hilean behin, gehienbat urritik maiatzera bitarte. Lantegiak Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak prestatzen eta dinamizatzen ditu.

2021-2022 ikasturterako deialdian ez zen klima-ekintzarako talderik osatu, eta irailean beste deialdi bat egin zen 2022-2023 ikasturterako, honako ekintza gehigarri hauek erantsirik:

- Aldi hartan, komunikazioan egin zen ahalegina, kartelak eginez eta etxez etxe zabalduz, ohiko komunikazio-neurriez gain (prentsa-oharrak, mailchimp, sare sozialak, etab.).
- Klima-ekintzarako lantaldea OPEN LAB Europako proiektuaren ekintzen barnean sartu zen. Proiektu horren bidez, errepikagarriak diren eta komertzialki bideragarriak diren irtenbide-sortak identifikatu nahi ditu, eta, horrela, energetikoki positiboak diren auzoak lortu.

Azkenean, proposatutako prozesuan interesa zuten 30 pertsonako talde bat osatzea lortu zen, eta aurreikusitako 3 lantegi garatu ziren 2022an zehar.

ECOZINE NAZIOARTEKO JAIALDIAREN PROGRAMA

Aurrekontua: 9.671,19 €

Deskribapena: Iaz, 2022an, bosgarrenez egin zen Ekozine zinema eta ingurumeneko nazioarteko jaialdia Iruñean. Jaialdiaren sail ofiziala jende guztiarendako da eta, gazte saila, Bigarren Hezkuntzako ikasleendako. Sail Ofiziala maiatzaren 16tik 19ra egin zen Iruñeko Golem zinetokietan, eta 435 lagunek parte hartu zuten.

Honatz taulan bildurik eta banakaturik, parte-hartzeari dagozkion datuak:

Dokumentalak	Parte-hartzaile kop.
Sail ofiziala: <i>One Earth</i>	97
Sail ofiziala: <i>Amuka</i>	106
Sail ofiziala: <i>Ophir</i>	92
Sail ofiziala: <i>La senda del pastor</i>	140
GUZTIRA	435



BISITAK ETA KONTSULTA PARTIKULARRAK

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoa udal ekipamendu publikoa da eta helburuen artean ditu bisitaria aurrez aurre eta telefonoz artatzea, dela kontsultak egiteko dela, museoko erakusketa iraunkorra bisitatzeke. 2022an zehar, guztira 1.046 pertsonari eman zaie arreta. Haietariko 776k kontsulta bana egin zuten, eta 270 Museoako erakusketa iraunkorra ikustera etorri ziren. Bisiten eta kontsulta partikularren datuetan ageri da arreta kopurua antzekoa dela hilero, urtaroak alde batera utzirik. Hilean, bana beste, 95 laguni eman zaie arreta.

ESPAZIOEN LAGAPENA

Aurrekontua: 0,00 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoak hainbat baliabide ditu (aretoak, lantegi-gelak, etab.) eta jarduerak egin nahi dituzten Udaleko berezko zerbitzuei lagatzen zaizkie, bai eta talde eta/edo kolektibo antolatuei ere. Baldintza da jarduerak lotua egon behar duela Ingurumen Hezkuntzaren helburu orokorrekin edo berariazkoekin. Azken kasu horretan, lagapenari "Museoa zeureganatu" deritzo.

2022an, 124 espazio-lagapen egin ziren, eta 2.463 parte-hartzailek gozatu zituzten. Hona hemen datu banakatuak, lagapen motaren arabera:

Talde antolatua	Lagapen kop.	Parte-hartzaile
Lagapenak udal administrazioari	109	2.315
Zeureganatu Museoa	8	148
GUZTIRA	124	2.463

Udal-administrazioari egindako lagapenen artean, honako zerbitzu hauek erabili dute espazioa: Agenda 21ek, Bulego Estrategikoak, Gizarte Enpleguak, Energia Agentziak, Gizarte Zerbitzuek eta Zoonosis zerbitzuak.

Museoko espazioak *Museoa zeureganatu* deritzon programaren baitan erabiltzea eskatu duten udalaz kanpoko talde eta erakundeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Gorosti, Karkarkar eta Mar Menor izan dira.

ZERBITZUAREN ZEHARKAKO KUDEAKETA

Aurrekontua: 20.416,40 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak, Iruñeko herritarrekin zuzenean esku hartzeko programak jorratzeaz gain, zeharkako beste ekintza batzuk garatu behar ditu, zerbitzuaren eta programa guztien helburuak lortzea errazte aldera. Zehazki, ekintza horiek lotura dute Ingurumen Hezkuntzako Museoaren ekipamenduaren kudeaketarekin, komunikazio-tresnen kudeaketa eta mantentzearekin, eta Museoaren ekipamenduaren Birmusealizazio proiektuaren garapenarekin. Lan-ildo horiek honako atal hauetan garatzen dira.

INGURUMEN HEZKUNTZAKO MUSEOAREN KUDEAKETA

Aurrekontua: 2.749,19 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua Ingurumen Hezkuntzako Museoa kudeatzeaz arduratzen da. Helburuetako bat espazioa etengabe hobetzea da, bertan gertatzen diren gorabeheriei erantzutea, eta espazioa egokitzea sortzen ari diren behar berrietara. Honatx 2022an zehar garatutako ekintzak:

- Ekipamenduko berdeguneak mantentzeko lanak.
- Espazioaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren materialak birjartzea.
- Landare-espezieak identifikatzeko zutoinak Mendillorriko aintziraren ingurutik kentzea, haien kontrako ekintza bandalikoan ondorioz.
- Lanpostuen baldintzak hobetzeko materialak erostea, hala nola alfonbrak edo hotza gutxitzen duten burletak.



INGURUMEN HEZKUNTZAKO MUSEOAREN KOMUNIKAZIOA ETA WEBA KUDEATZEA

Aurrekontua: 8.894,04 €

Deskribapena: Komunikazioan biltzen dira Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak egindako lana kanpora proiektatzera bideratutako ekintza guztiak. Azken urteotan, gero eta komunikazio-tresna gehiago erabiltzen ari dira, eta etengabeko hobekuntza izan da, eta inbertsio garrantzitsua egin da bai denboran bai giza baliabideetan eginkizuna burutzeko. Ekintzak desberdinak dira eta egiten den ekintza motara eta, jakina, xede duten publiko motara egokitzeko modukoak: Museoan jendeari arreta ematea, ikastetxeekin eta, bereziki, herritarrekin posta elektroniko bidez komunikatzea, sare sozialen eta webgunearen kudeaketa, programak mugikorraren bidez hedatzeko zerrenda, etab.

BIRMUSEALIZAZIO PROIEKTUA

Aurrekontua: 8.772,50 €

Deskribapena: Ingurumen Hezkuntzako Museoaren ekipamendua 2003an inauguratu zen, eta erakusketa-gune hutsa izateko zegoen pentsatua. Gaur egun, gehiago funtzionatzen du ingurumen-hezkuntzako zentro gisa, eta, bertan, hainbat ekintza eta jarduera garatzen dira publiko mota hau edo hura gogoan hartuta (ikasleak, taldeak eta elkarteak, herritarrak oro har, etab). Gaur egun, erakusketa-guneak hainbat arazo ditu, besteak beste:

- Eskaintzen den informazioaren datuak ez daude eguneratuak.
- Erakusketa-material batzuek ez dute funtzionatzen edo gaizki daude.
- Sistema teknologikoa (ordenagailuak, proiektagailuak, etab.) zaharkiturik dago.
- Ez dago loturarik bertan azaltzen diren gaien artean.

Hori dela eta, erakusketa-gunea aldatzeko beharra antzeman zen, edukiak eta materialak egungo errealitatera eguneratzeko. Horretarako, kontratu txiki bat egin zen, eta 3 enpresa gonbidatu ziren Ingurumen Hezkuntzako Museoaren erakusketa-gune iraunkorraren birplanteamendua egitera. 2021ean prozesua hasi eta enpresa esleipendunarekin lan egin zen, enpresak 2022an aurkeztutako azken emaitzara iritsi arte.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala